

Colección **MENDAUR** bilduma

IV

Erroibarko eta Esteribarko Hiztegia

Orreaga Ibarra Murillo



Liburuaren izenburuak: Erroibarko eta Esteribarko
Hiztegia

Liburuaren egilea: Orreaga Ibarra Murillo

© Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua
© Euskaltzaindia / R.A.L.V.

Taiuketa eta moldaketa: Euskaltzaindia / R.A.L.V.
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

Diseño/Azala: Iñaki Cabodevilla / CAB

Preimpresioa: Composiciones RALI, S.A.

Inprimategia: GRAPHICEMS, Gráficas CEMS, S.L.
San Miguel industriagunea
31132 Villatuerta
Nafarroa / Navarra

ISBN: 978-84-235-2934-6

Lege gordailua: NA-927-07

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Sustatzaileak eta banatzailaileak:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa
Navas de Tolosa kalea, 21
31002 IRUÑA
Tf.: 848427121
Faxa: 848427123
fondo.publicaciones@navarra.es
www.cfnavarra.es/publicaciones

Euskaltzaindia / R.A.L.V.
Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Tel.: 94 415 81 55
Faxa: 94 415 81 44
info@euskaltzaindia.net
www.euskaltzaindia.net

Nire bihotzeko hiru mutiloi:
Jaime, Oier eta Andresi.

AURKIBIDEA

Aitzinsolasa	IX
Laburtzapenak	XVII
1. Kapitulua: Hiztegia.....	1
2. Kapitulua: Testuak: idatzitakoak eta ahozkoak	163
0. Sarrera	165
1. Erro. A testuak.....	166
2. Erro. B testuak	175
3. Perpetua Saraguetaren ahotik bildu testuak	177
4. Esteribarko esaerak	184
5. Ahozko testuak	187
<i>Gabriel Soto, Lintzoain</i>	189
<i>Francisco Beaumont, Urniza</i>	203
<i>Beatriz Etxeberria, Eugi</i>	227
<i>José Mari Belzarena, Eugi</i>	235
<i>Gaspar Lintzoain, Iragi</i>	239
<i>Marcos Saragueta, Mezkiritz</i>	249
<i>Juanito Ernaga, Mezkiritz</i>	259
<i>Juanita Agorreta, Mezkiritz</i>	265
<i>Ceferina Iribarren, Zilbeti</i>	267
Bibliografia	277

AITZINSOLASA

Hiztegi honetan biltzen da nagusienik Erroibarren eta Esteribarren egun era-biltzen den eta lehen erabili den lexiko esanahigarri guztia. Xede hori izanik, liburu honetako hitz altxor gehiena elkarrizketen bidez atera dugu. Horrela Erroibarko el-karrizketa anitz *Mezkiritzan*, *Zilbetin* eta *Lintzoainen* egin ditugu hauek baitira euskara beranduen gorde duten herriak. Esteribarko *Iragi*, *Eugi* eta *Usexti* ere gure hiztegiaren iturri izan dira.

Herri hauetatik at, eremu honetan euskara, -neurri handiagoan edo txikiagoan bildu eta aztertu duten ikertzaile nagusiak hurrengo hauek izan dira: Koldo Artola: *Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta* (*Hurbiltze-saiakera*); Pedro Yrizar: *Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca* 1981, *Morfología del Verbo Auxiliar Altonavarro meridional* 1982; Aranzadi Zientzia Elkartea: (EAEL) (*Euskalherriko Atlas Etnolinguistikoa*, 1983); I. Gaminde: *Aditza Ipar Goi Nafarreraz*, 1985, *Esteribarreko aditzak*, 1986; M. Pikabea: *Expresiones temporales en el habla coloquial en el Valle de Erro* 1985; Ana María Echaide: *El euskera en Navarra; Encuestas Lingüísticas*, 1965-67, 1989; eta nik neuk, *Mezkirizko toponimiaz*, 1991, *Cispamplónés barietatearen inguruan, Erroibarko Lexikoaren gainean* eta hurrengo urteetan egindako lanak... (cf. bibliografia).

Aipamen berezi bat merezi dute Mezkirizko euskaltzalea zen Perpetua Saraguetaaren lanek, gehienak J. M. Satrustegik argitaraturikoak: «Nere oroimenak», «Trinidad Urtasun, bertsolaria», «Mezkiritz. Erroibar», 1979; «Mezkirizko etxe barnea» 1982; «Mezkirizko langintza» 1984; «Perpetua Saragueta anderearen euskal ipuiak» 1985; «Euskal Testu Zaharrak» 1987; «Perpetua Saragueta andreatsi egindako grabaketa argitaragabeak»). Perpetuarenak hitz hauekin seinalatuko dira (Mez, Per).

Haren idazkietan agertzen diren hitzak – baina hemengotzat jotzen ez ditugunak – baztertu ditugu, euskaltzale honek hizkera dotorexeagoa egiten zuen, anitz irakurri eta idazten baitzuen; bestaldetik, J. M. Satrustegiren testu idatzia ere ez ziren erabat dialektologikoak eta hizkera dotorexeagoa erabiltzen zuen.

Era berean, *Erroko* testu zaharrek hitz altxor aberatsa osatzen dute, batzuk. M. Satrustegik (1987) argitaraturikoak dira eta, bertze batzuk neronek (cf. Ibarra 1997). Testu horiek *Erroko* elizan agertu ziren eta hemendik ere lexiko kopuru ederra bildu dugu, denak *Erro* izenpean agertuko dira.

Testuok erlijiosoak dira, sermoiak, hain zuzen ere. Hori dela eta, grafia zaharrarekin idaztea erabaki dugu, horrela argi ikusten da erlijio esparruko gaiak jorrar-

tzen dituztela eta eguneroko hiztegitik aldentzen direla, erregistroa ere, zenbaitetan ezberdina delarik.

Bertzaldetik, kontuan izan dugu EAEL (Euskal Atlas Etnolinguistikoa) eta ALEANR¹, eta kasu zenbaitetan handik atera ditugu datuak.

Azkenik, hiztegi orokorrak izan ditugu kontuan. R. M. Azkueren hiztegian agertzen den hemengo hitz altxorra miatu nahi izan dugu, ez da bertze euskalkietan bezain aberatsa, baina, bi herri dira ikertu direnak. Horrela, hitz batzuen ondoan parentesi artean, (Bisk. Azkue) agertuko da, Erroibarko *Gerendiaín*² edo *Biskarret* harriri erreferentzia egiteko edo (Est. Azkue), kasu honetan Esteribarri. Biok R. M. Azkueren hiztegian³ agertzen dira, hauek izan baitira erabilitako laburtzapen baka-rrik bi haran hauetan. Nahiz egun hauetako batzuk ez diren erabiltzen, interesgarria iruditu zaigu sartzea. Esaterako, *elea* ‘ganado’ adierarekin ekartzen du Azkuek, edo *epatu* ‘fijar plazo’ nahiz gaur desagertu diren. Era berean, Azkueren lanean, *Apéndice* (Eranskina) delako atalean bada Erroibarko eta Esteribarko hitz altxorra, kasu hauetan ere horrela seinalatu dugu (Azkue, *Eransk*).

* * *

Bertze hiztegi hau ere izan dugu eskutartean, Iribarrenen *Vocabulario Navarro* (2. argitalpena). Honetan badira Erroibarko eta Esteribarko hitzak, gehienak ezagunak, guk laburtzapen hau eman diegu (Irib).

* * *

Gauza bera egin dugu Damaso Intzak Esteribarren eta Erroibarren bildutako erranairuekin, horrela, parentesi artean (Intza. Est) edo (Intza. Erro) jarri dugu. Era berean jokatu dugu Ana Mª Etxaideren lanarekin ere *El euskera en Navarra: Encuestas lingüísticas (1965-1967)*, adieraren bat Etxaideren lanean bakarrik aurkitu badugu, horrela seinalatu eta ondoan (Etxaide) jarri dugu. Kasu honetan, galdegegi baten erantzunez ari gara, eta gehienetan galdera bakarra egiten zitzaion hitzun bakoitzari. Honenbertzez, akatsak egiteko aukera ere zabala dateke, batzuetan, Etxaidek berak argitzen du, erantzuna arraroa iruditzen zaionean, baina, bertze batzuetan ez du hori egiten.

* * *

-
- 1 MARTINEZ A.; «El léxico vasco del pastoreo en el Atlas Lingüístico y Etnográfico de Aragón, Navarra y Rioja ALEANR», *ASJU* 2000-2, 361-397.
 - 2 Euskaltzaindiak *Gerendiaín* toponimoa onartu du, gaur egun herritar gehienek *Biskarret* darabilte, nahiz euskaldunek *Gerein* ere ezagutzen duten.
 - 3 AZKUE, Resurrección María de Azkue (1905) *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca. 2. Ed. 1969.

Bertzalde, kontuan hartu behar da galdera hauek 1965. urtean egin zirela, eta garai horretan Erroibarko eta Esteribarko hainbat tokitan euskara ahul zegoela. Esaterako *Inbuluzketan* euskaldun bat bertzerik ez zegoen, Etxaidek dioskunez. Honengatik guziarengatik erantzun batzuk, *cum mica salis* hartu behar dira. Eta hain zuzen ere Erroibarren *Aintzioa* eta *Ardaitz* herriak aukeratu zituen, euskara galduen zituenak, dudarik gabe. Gaur, 40 urte ondoren desagertua dago horietan, eta horra non dagoen horren balioa.

Azkenik, berriki atera da *Estudio del léxico de la casa en los dialectos vascos de Navarra* 2003, Vicente Huartek argitaratua. Hemendik ere (Huarte) laburtzape-narekin hartu ditugu datuak, Esteribar eta Erro ibarrei dagozkienak.

Hiztegi batean askotan zalantza dago zein hitz sartu behar duzun eta zein ez. Izan ere, nahiz eta hitzak, itxuraz, interes handirik ez izan, gaztelaniatik zuzenki datorelako, euskaraz, eta hemengo euskaraz bere esanahia hartu du, esanahi berezia. Horrela, *zimiterioa* erraten badugu, gaztelaniazko «cementerio» hitzetik dator argiki, baina, esanahia da «atrio de la iglesia».

Hizkeren arteko isoglosek erakutsi dezaketen hitzak sartzea interesarria da. Horrela egin dugu hurrengo hauekin: *kristau/kristio, arrazoi/arrazio, eskui/eskuin, aingiru/aingeru, atari/ate, opatu/topatu, zapeta/zapata, pasio/pasione* kokapen geolinguistikoari begiratuaaz interesgarriak direlako. Izan ere badakigu inguruko hizkeretan hautu desberdina egiten dutela, eta lana etorkizunerako lanabes bihurtu nahi badugu, egokia izan daitake hau. Horrela, *siglo* hitza sartu dugu, ekiadeko euskalkietan *jendamende* esaten delako, aezkeraz, adibidez. Honenbertzez, muga bezala egiten du ele honek, hizkerak sailkatzeko lanabesa izatea nahi dugu hau eta horregatik hartu dugu.

* * *

Bertze alde batetik, eremu honetako euskararen egoera hain latza izanik, saiatu gara ikuspuntu etnografikotik begiratuta hiztegiaren esanahian jartzen interesarria izan daitkeen guztia. Horrela, «sator larrua» zertarako erabiltzen zen eta saltzen ba-zuten, eta nori saltzen zioten etab, adierazi dugu. Ibar hauetako bizitzaren erakusgari iruditu zaigulako; era berean, *Larru, Talotxin, Borobil* bezelakoak agertzen badi-ra, eta izen horiek herri hauetako goitizenak izan badira, horrela adierazi dugu.

Zenbaitetan jarritako esanahia luzexkoa dateke. Beharrezko azalpena emateaz gain, interesarria da azalpen dialektologia eta fonetika ikustea. Bertze batzuetan hitza ez da oso erabilia, alegia, hitz bat maiztasun handiagoz erabiltzen da bertzea baino, esaterako *bulkatu* erraten da hemen gehienik, baina, *pusetu* ere ezagutzen da. Edo *asarre* da nagusiena, baina, *xamur* ere erabiltzen da, eta *samurtu*. Berdin geratzen da *gazta* hitzarekin, hori da nagusienik erabiltzen dena, baina *gasna* ere entzuten da, behar bada Iparraldearekin lotura gehiago izan dutenen ahotan, honenbertzez, biok jarriko ditugu.

Urte hauetan guztietañ galdu den lexikoa izugarria izan da. Oraindik orain hemengo zaharrek kontatzen dute gaztelaniaz doi-doi mintzo zirela, eta Mezkirizko baten ahotan jartzen dituzte honako esaerak: *Los hijos sí, ahí están cortando «sasis»...* edo: *He visto un txorikafi en una «pareta zilo»;* edo: *Me he caído, me he muturkiau y me he picado con las atxunes.*

Azkenik, hiztegietan oso arrunta ez bada ere, atzizki bat edo bertze ere (*-aldi, -kara*) sartu dugu, hemengo mintzoaren gainean argitasuna ematen dutelakoan.

Hiztegiaren egitura

Hitzak edo sarrerak letra beltz edo lodian eman dira, minuskulaz, artikulurik gabe eta bukaeran bi puntu dutela:

idortu: ad. lehortu, idortu <Secar>. *Idortu dire belar guziak.*

Sarrera konplexuagoa izan daiteke, hori gertatzen denean forma estandarretik hurbilen dagoena lehendabizi jarri da eta gero gainerakoak, komekin bereiziak:

igorri, iorri: ad. igorri, bidali <Mandar, enviar>: *Arek igortzen zitue emendikorrara.// Igor zak zakur goi emendik.// Ordik igortzen tzue zakurre ta kartzen zeizkio errire.*

Sarreraren ondoren hitzaren kategoria laburtzapenez adierazia, ondoren, irakurketa eta ulermena errazteko asmoz, euskara estandarrean hitz edo sarrera horrek hartzen duen forma edo azalpen laburra jarri da, baita ahal izan denean sinonimoren bat edo bertze ere.

Jarraian sarrera horren gaztelaniazko adiera zehatza edo azalpena jarri da <> zeinuen artean:

jama: iz. txalma, xalma <Especie de baste utilizado para el transporte, pero que no se pegaba al cuerpo>: *Jama erematen zute astoek.*

Ondotik hitz edo sarreraren adibidea jarri da, letra kurtsiba edo etzanean emana eta, gehienetan, non jasoa den ere agertzen da parentesi artean. Bi adibide baino gehiago baldin badaude, // zeinua erabili da horiek bereizteko.

ebatsi: ad. ebatsi, lapurtu. <Robar>: *Or ebatsi zute diru guzie.// Etcinduzat utlico ebastera (Erro).*

Hiztegi honetan bildu dugu hitza bere testuinguruan, anitzetan esperientzien kontakizunez lagundurik. Gisa honetan lortzen dugu metaforak, erkaketak, esame-sak etab erabiliz, aniztasun handiko testuak biltzea; alegia, testu esplikatzaile, azal-tzailea ematen badugu, era berean txertatu ahal izanen dugu esaldia eta zein kon-testutan ahoskatzen den hori; alegia, saiatzen gara material kulturala biltzen, hau da,

lexia batetik abiaturik, leku koek ezagutzen duketen jakitate entziklopedikoaren berri ematen.

Gisa honetako bildumetan hitz solteak biltzea baino garrantzi handiago koak dira eraikuntza gramatikalak, esaldi eginak, kokapenak, hitz gako en arteko erlazioak etab. Izan ere, hiztegi batean, alde sintagmatiko hori da interesgarrienetako bat gure bilduman. Eta hain zuzen ere hor dago ezberdintasuna hiztegi batzuen eta bertzeen artean. Horrela, askotan etnotestuak biltzen direla, esango genuke; alegia testu metalinguistiko hauek, ahozko testu hauek jakitate entziklopedikoaren elementu bat eskaintzen digute.

Zenbakia erabili dira hitzaren sarreraren barruan. Batetik, hasieran jarri direnean grafia bereko hitzak izanik kategoria gramatikal desberdina dutela aditzera eman nahi izan da:

egal: 1. iz. hegala, hegoa. <Ala>: *Txori oek egal politak tuzte.* 2. iz. <Alero del tejado>: *Tellatuegal propie ari dire iten Monyolosenian.*

Hitz edo sarrera nagusiaren azpian sartu dira, batetik, hitz horren deklinabideko formak edo aditz konjugazioko forma eta, bertzetik, hitz horrekin zerikusirik duten esaldiak, den-denak * ikurra aitzinean dutela:

bear: ad. behar <Deber>. ***izeñiar**: izan behar: *Mezkiritzene ere izeñiar du bat famusoa.* ***iñiar**: egin behar: *Eritisunekin ze iñar tzuen: ***pastiar**: pasatu behar: *Andik pastiar tzue, ta andik pasteko ardiekin etzeike pastu, orduen gizon gau igortzen tzuteorrara ta atratzen balin beze bidetik pues denuntzietzen zute.**

***joañiar**: joan behar: *Nik kanpora joañiar nue.* ***torriar**: etorri behar: *Torriar zindue, gaba galduko zindue zure gustora, baño tortzen gine bai jeneralian argitu beño len etxera.* ***oñiar**: egon behar: *Oñiar zindue an iruzkiera lanian.* ***sartiar**: sartu behar: *Sartiar tzindue belar ure.* **ukitiar**: ukitu behar: *Lenago ezta ekibokatuik ere etzindeko ukitiar neska batei.* ***aitiar**: aritu behar: *Musian aitiar gindue.*

Hitz edo sarrera batek izan ditzakeen aldakiak sarrera independientetzat hartu badira ere, aldaera horien forma nagusira igozen duen laburduran (ik.) jarri da:

bertzelas: bestela, bertzela <De lo contrario>: *Aziendek ori yateko eztute bertzetik izañiar, bertzelas uzteute aise. // Aziendak orrengatik eztu ozkiten arrei. ik. bertzenas.*

Sinonimotzat jo daitezkeen hitzen berri ere eman nahi izan da (Sin.) laburduraren bidez:

borta, borte: borte 1. <Hijo de madre soltera, ilegítimo, bastardo>: *Seme bortak zire ayek. Baxtarta ta borte, bi gauzek errateunte gauze bera. // Seme bortak aite ta amek eman nai ziotena bertzek etzute.* Sin. Baxtarta. 2. <En las plantas se dice de la que sale fuera del surco, o sin plantar>: *Bortak zire patata oyek.*

Frantsesaren eragina ere argi eta garbia da zenbait kasutan. Hori gertatu denean, hitzaren edo sarreraren ondotik, parentesi artean, letra etzanean jarri da frantses hitza:

artxitero: izond. trebea, eskuekin trebezia duena. <Mañoso, hábil>. (fr. *architecte*.): *Makome goi arrun artxiteroa da.*

Hitza nongoa den adierazteko eta bertze egile batzuetatik jasotako erreferentziatarako () parentesiak erabili dira (Mez) (Lin). Azkenik, <y> grafema sartzea erabaki dugu, gurea hiztegia dialektologikoa delako; horrela, hitz erdian *oyan*, *oyek* eta hitz hasieran *yende* soinu igurzkaria ordezkatzen du; <j> grafemak, ordea, soinu belarea du: adib.: *ja ere*.

Liburuki honen bigarren atalean «Testuak: idatzitakoak eta ahozkoak» bildu ditugu. Alde batetik, hasieran aipaturiko *Erroko* testuak ekarri ditugu, *Erroibarren* idatzitako testu zahar bakarrak dira eta, benetako garrantzia dute. Eta bigarrenik, azkeneko hiztunen mintzairaren pasarte batzuk aukeratu ditugu. Jakina da hizkuntza mintzatua eta idatzia ez direla berdinak, eta, hori dela eta aitzinean ikusi ditugun idatzizko testu horien ondoan, paratu nahi izan ditugu beste hauek, hizkera honen bi aurpegi desberdin balira bezala.

LABURTZAPENAK

Ad.: Aditza

Adlag: Adizlaguna

Adond: Aditzondoa

Ai: Aintzioa

ALEANR: *El léxico vasco del pastoreo en el Atlas Lingüístico y Etnográfico de Aragón, Navarra y Rioja*

Ar: Ardaitz

Atz: atzikia

Auz: Auritz

Auzb: Aurizberri

Azk. *Eransk*: R. M. Azkueren hiztegiko eranskina

Bisk/ Ger: Biskarret/ Gerendiain

Det: Determinatzailea

Egozk: Egozkue

Eransk: Azkueren hiztegiko eranskina

EAEL: *Euskal Herriko Atlas Etnolingüistikoa*

Erro: Erron aurkitutako testuak

Erroib: Erroibar

Esam: Esaundak, esaldiak, atsotitzak, esakuneak

Esn: Esnotz

Est: Esteribar

Etxaide: «El euskera en Navarra: Encuestas lingüísticas (1965:1967)»

Eu: Eugi

Gald: Galdetzailea

Huarte: José Vicente Huarte *Estudio del léxico de la casa en los dialectos vascos de Navarra*

HE: Hiztegi Etnografikoa (Juan Garmendia Larrañaga) Ikastolen Elkartea

IC: Iñaki Camino ikertzailearen artikuluak

IG: Iñaki Gaminde ikertzailearen artikuluak

Ik: Ikus/ ikusi

Ilur: Ilurdotz

Inbu: Inbuluzketa

Interj: interjekzioa

Intza: Intza (Dámaso Intza: *Esaera-zarrak*, 1926, 1928)

Irag: Iragi

Irib: Iribarren: *Vocabulario Navarro*

Iz: Izena

Izlag: Izenlaguna

Izond: izenondoa

Izord: izenordea

Junt: Juntagailua

Lar: Larraingoa

Larra: Larrasoña

Ler: Lieranotz

Lin: Lintzoain

Lo: Loizu

Lok: Lokailua

Mez: Mezkiritz

Top: Toponimoa

OEH: *Orotariko Euskal Hiztegia*

Oikon: Oikonomia, nombre(s) de casa, tratado sobre casas (Onomástica, toponimia)

Onomat: onomatopeia

Part: partikula

Posp: posposizioa

Top: toponimoa

Ur: Urniza

Ure: Ureta

Us: Usetxi

Zenb: Zenbatzailea

Zil: Zilbeti

1. KAPITULUA:

HIZTEGIA

A

aal, al: 1. ad. ahal <Poder> (Erro). *Iten altuzu lan guziek.* 2. junt. Denborazko esaldietan erabiltzen den partikula aldiberekotasuna adierazten duena. ***albaz:** adlag. ahalaz (Irag) <En la medida de lo posible> (I. C)

***alik eta... artean:** adlag. ahalik artean <Hasta que>. *Berac iduquicen cituela calabozo evetaco guilzac, aliqueta Jesuchristo erauxi artean* (Erro). ***alik eta:** ahalik eta, arte <Hasta que>. *Alik eta tragoat in artio ez dire isiltzen azuri oyek* (Lin) // *Iruki ginue aratxia alik eta joan zen ustuz, airia bota ta sendatu ze.*// *Berac iduquicen cituela calabozo evetaco guilzac aliqueta Jesuchristo erauxi artean* (Erro). // *Gero joan gine alik ta ustuz ta gero...* (Lin) ik. artio. ***irukiala:** eduki ahala <A más no poder>. *Zakur betzuk larreuk irukiala gizen irukitzen zutze* (Lin).

abantxu: adlag. abantxu, ia-ia <Casi>. *Segur naiz abantxu dekalitroat edan zuela* (Lin). // *Abantxu mile pezta kostea ze* (Lin).

abar: iz. abarra <Rama>. *San Juan egunian bediketu abar batzuk, gero ondoko urtian botatzeko* (Mez) // *Amitxik abar batekin segitzen tzire gibeletik* (Lin).// *Abar guzien gañan paratzen dire zerradatuikeko purruke guziek* (Mez, Per). Sin. adar.

abarte: iz. abartea <Espacio entre columnas>. *Etxe bat baze Eugin sei abarte zituena.* // *Abarte da ordik orrara, gure etxiak izain tu iru abarte, pries arek sei* (Lin).

abarrikatu, abarriketu: ad. abarrikatu, xehatu <Romper(se), destrozar(se)>. *Dena abarrikatuik tago. // Abarrikatuik nago anbertze lan in ondoan* (Mez) // *Lucifer serpiente zar gaisstoari burua austera eta abarricacera* (Erro).

abata: iz. trapu txuriak usoak hartzeko erabiltzen zirenak <XVI eta XVIII. mendeeitan, Orreagako kolegiatari erreferentzia egiten diotenak: «Los de Burguete ponían abatas o chatarras en el Trona y los cañónigos en Tronaburúa. (Florencio Idoate <<Rincones de la Historia de Navarra>>. Irib.) Sin. txatar.

abe: iz. ezpara, hozka egiten duen euli handia <Tábanos, moscas que pica a las vacas en días de calor>. *Abia andiak izeten zire udan.* // *Tortzen delaik abiain musike, zenbait aziendeak agudo demonio zauntzeunte* (Lin).

abelgorri: iz. behiak, txekorrak, azienda gorria <Ganado vacuna>. *Abelgorriek kendu zuztela erran tzute* (Lin).

abeltzaikea: adlag. abereen zain <Cuidado a los animales>. *Abeltzaiketan egoten gine tiarrak giñelaik* (Lin).

abendu: iz. abendu <Diciembre>. *Abenduan elurraldi ederrak izeten zire.*// *Abendue, xai uts eta gau uts.* ‘Hilabete hortan gau luzeak eta, batez ere Nafarroan, jai egun asko’ (Intza, Mez). *Abenduko elurra gazta zarraren pare* (Intza).

abi: iz. abadia <Arándano>. *Uden juaten gine denak Ligeztara neskakoak amaikin abiek eske* (Mez).

abiatu: ad. abiatu <Encabritarse las vacas cuando les pican los tábanos>. *Gure beak abiatu dire.*

abien egon: ad. prest egon <Estar preparado>. *Abien gera bai gu ematiaz* «Emateko prest gaude» (Mez. Intza).

abietu, abitu: ad. abiatu <Partir, empezar>. *Abietu gine egurra iten mendian ta* (Mez).

abil: izond. abila, trebea <Espabilado>. *Au neska abile!* // *Abilek izeñiar dute* (Lin).

- abilkeri:** iz. trebetasuna, abilezia <Astucia>. *Abilkери andie bear ze ori iteko* (Lin).
- abitu:** ik. abietu.
- aborrezitu:** ad. aborrezitu <Aborrecer, asquearse>. *Aborrezituik zagon andre ure* (Lin).
- abrastu:** ad. aberastu <Enriquecerse>. *Orai, zazi! abrastuik dauzkizu arren semiak.*
- abre:** iz. aberea <Caballería utilizada para trabajo o en la labranza>. *Abria da animelia bantzkoa, mandoat edo astoat izeten da, azienda izeten al da dena, bertze guziak* (Lin) // *Erran nio nola peratu nitze a abria kendu nuela* (Mez).
- abrebide:** iz. aberebidea <Camino de caballerías>. *Ezin ze ibili, ezpaitze abrebidetik ere emen* (Mez).
- abudo:** ik. agudo.
- abuin:** iz. habuina, apparra <Espuma>. *Abuñac ceruraño goiticens cirela* (Erro).
- abuztu:** ik. agosto.
- adaje:** iz. adajea <Cornamenta>. *Bei orrek adaje fierki polita du* (Lin).
- adaki:** iz. adakia <Clase de leña delgada. Rama deshojada>. *Adaki oyek bildu biar dire* (Est. Azkue).
- adar:** iz. adarra <Cuerno, cornamenta>. *Erriberatik granja zar oyetaik zien denak artifizial, olaxeke adarreki zutik ezin eonez* (Us) (Eu). Sin. abar.
- adarbildu:** iz. adarbildua <Dícese del animal que tiene los cuernos pegados a la cabeza>. *Gure ariek adarbilduek tu* (Lin).
- adarburu:** iz. adarburua, klase bateko sagarra <Manzana grande, agria y blanda, que revienta pronto al fuego> (Est. Azkue).
- adarrukaldika:** adlag. adar-ukaldika <A cor nadadas>. *Beak adarrukaldika asten zire.*
- adartsu:** izond. adartsua <Árbol frondoso> (Est. Azkue).
- adarzabal:** izond. adarzabala <Cuerños separados>. *Marteneko beak adar zabalak tu* // *Gure beari adarzabal erraten dakogu* (Mez).
- adin:** iz. adina, edadea <Edad>. *Gero adin bettera eldu zelaik espostu ze* (Lin).
- adine, diñe, diña:** adond. adina, bezainbat <Tanto como>. *Etzego orai adine autoik, ez.* // *Eztute pelukerie orai adine ibiltzen atso ayek.* // *Yantzatzeko diñe soñatzen zute.* // *Jaungoico bat bere sablean iduquicoco diña izan dena* (Erro).
- adio:** iz. agur, adio <Adiós, se acabó>. *Adio Lintzoaingo euskéra* (Lin). // ...ta gero, in ginue alik ta ustuz ta andik altzine, adio! ze aratxe majua in tze
- adioske:** adond. adioska <Agur eginez>. *Adioske ari zire* (Mez).
- adixkidantz, askidantz, axkidantz:** iz. adiskidantz, adiskidetasuna <Amistad>. *Askidantz intzute ta or esposatu zire* (Lin) // *Axkidantz gorra in dugu* (Lin).
- adixkide:** ik. aixkide.
- adjudiketu:** ad. esleitu <Adjudicar>. *Kasik adjudikétiuk Bartzandei Erregerena* (Eu).
- adoatu:** ad. adoatu, larruak apaindu <Curtir la piel>. *Larrue adoatzen ze, lenagoko yende ayek iten zute lan goi* (Lin).
- aexki:** ik. aixkide.
- afari:** iz. afaria <Cena>. *Bazkarie eiten tzion ta gero afarie ta dena* (Eu).
- afera:** iz. afera, egitekoa, arazoia <Asunto, problema>. *Afera goi konpondu biar dugu* (Mez) // *Emen afera eztao ongi* (Mez) // *Orduen kanbiatu ze afera, orduen balio zue kontrabandoan astea.* // *Afera ori in te etxeraño tortzen gine* (Lin).
- aga:** 1. iz. haga, makila luze eta lodia, batez ere gaztainadietan erabiltzen dena <Vara>. *Aga fine izeten zute atarian.* 2. interj. aga! <Exclamación que indica asco, se utiliza para que dejen los niños algo de las manos> *Gauza zikinek balinbadire erranez: aga!, kakal!, mu!* (Lin).
- agatu:** ad. agatu <Sujetar con una vara>. *Tranka badu gáñian goitik bera agatzen duena* (Mez, Per).
- agertu:** ad. agertu <Aparecer>. *Aguercen ci ceizquierdoen goibel bazuc.* (Erro).
- agian:** adond. agian, behar bada <Quizás>. *Agian torri de* (Azkue. Est).
- agilon:** iz. agilona <Tejado con vertiente muy rápida a cuatro aguas>. *Agilon paratzen tzute zurgin oyek* (Auz).
- agintza:** iz. agintza <Promesa> (Azkue. Est).
- agitz:** adond. anitz, agitz, oso <Mucho> (Erro). *Yende agitz torri ze.* Sin. anitz.
- ago:** iz. 1. ahoa <Boca>. *Itze agotik atra baño len, bi buelta emazkio miiari* (Mez, Intza) // *Orren nabala ere baitu bi ago ‘Behin*

- baten aldera, gero bestearen aldera ari da' (Intza).// *Emen zileteko..., iten dute kutxarona eta ola, agoain zileteko* (Mez) 2. ahoa, sorbatza <Filo del hacha>. *Bi agotako aizkorak tuzte // Adam gure lembicico aitec aitu zuen Jangoicoan beran agoitic, barcateen ziola inzion ofensa* (Erro).
- agoandi:** izond. ahohandia, ahoberoa <Exagerado, bocazas>. *A ze agoandi den gizon goi* (Mez).
- agoixtenpat:** ik. egon.
- agorra:** iz. iraila <Septiembre>. (Eu, Etxaide). Sin. urria.
- agorril:** iz. agorrila <Agosto>. *Agorrilan ibilten gine oañik belarretan* (Azkue. Est). Sin. agostia.
- agosto, aguztu, abuztu:** iz. agostua <Agosto> (Ai). *Sóroa erraten zioten, ta ori egoten tzen agostoaren erditik altzin* (Eu) // *Gaur aguztuein laua, Santa Perpetua da eta Perpetua deituko da.* (Mez, Per) // *Amaberjine da Abuztuen amaborzian* (Lin). Sin. agorril.
- agote:** iz. agote <Raza de origen desconocido refugiada hace siglos en Navarra. En este caso, como en otros (ik. OEH) alude a su carácter hablador>. *Agoteko atsoak pastuko tuzie.* ‘Haiet baino berritsuago, hitzontziago izango zarete’. (Intza. Est).
- agotz:** iz. ahotza <Paja>. *Agotza irine in de erran zue nire aitek ni sortu nitzelaik* (Mez) // *Bakacioneak pasten tut or, Urrotz alde ortan, agotz erosten* (Lin) // ‘Aprile otz? ez gari t’ez agotz’ (Intza).
- agozabalka:** adond. ahozabalka <Bosteizando>. *Ori beti daile agozabalka* (Lin).
- agozbae:** iz. ahotz-bahe <Criba>. *Agozbaikin ibiltzen gine larrañian* (Erro, Azk. Eransk)
- agozikin:** izond. ahozikin <Mal hablado>. *Urde agozikine, zazi emendik!* (Lin).
- agoztegi:** iz. lastotegia ahotza gordetzen den tokia <Pajar>. *Agoztegien bada belar klas se ortaik* (Mez).
- aguandi:** izond. aho andi <Exagerado, barullas>. *Urde agoandi ori!* (Mez).
- aguatxirri:** iz. eta izond. aguatxirria <Bebida o caldo que parece agua o tiene exceso de agua>. *A ze aguatxirri atera zaizun zopa au!* (Mez).
- agudo, abudo, audo:** adond. agudo, laster <Rápido, ligero>. *Zazi agudo zerbait artu nai bauzu* (Mez). Sin. zalui.
- agurmaria:** iz. otoitza <Avemaria>. *Ama Birgina Orreagakoaren dako iru Agur Maria* (Mez, Per).
- aguztu:** ik. agosto.
- aiarte:** iz. aiartea <Planta parecida a la hiedra con la que se hacían las nasas>. *Ayarte aye-ki iten zitue gizon arrek kofoñak* (Lin).
- aída:** esam. aida! <Interjección utilizada para arrear al ganado vacuno>. *Aida bea, onata, gibelera!*
- aide:** iz. ahaidea <Pariente>. *Gereñengo oye-kin aideak gara gu* (Mez) // *Gure etxeko andria nongo, gure aideak ango.* ‘Andrea nolakoa den, horrelakoak dira etxeko harrimanak’ (Intza. Est) * **aide urrun:** iz. ahaide urruna <Pariente lejano>. *Aide urrunek gara gu* (Mez). * **funtzio áideak:** iz. funtziorako deitzen ziren ahaideak <Parientes que se convocaban al funeral>. *Iltzean ere bai deitzen zire funtzio aideak* (Mez, Per).
- aidean:** ik. airian.
- aide gaixto:** ik. aire gaixto.
- aidego, aidengo:** iz. ahaidegoa <Parentela, parentesco>. *Nungoa da gure etxeoandria, angoa da gure aidegua* (Mez).
- aidengo:** ik. aideo.
- aidetasun:** iz. ahaidetasuna <Parentesco>. *Aidetasuna baginue Erroko ayekin* (Azkue. Est).
- aidien:** ik. airian.
- ai ene:** esam. ai ene! <Exclamación>. *Ai ene zenbat yende torri den!* (Mez).
- aiei:** esam. <Exclamación de queja>. *Aiei ama, zenbat lan in duzun!* (Mez).
- ailegatu:** ad. heldu <Llegar>. *Aski de ortara ailegatzea* (Mez).
- ailtzurtu:** ad. aitzurtu <Cavar y limpiar de maleza las plantas con la azada>. *Ailtzurtu bear tugu aza goyek* (Mez).
- ainbat:** zenbatz. hainbat <Tantos>. *Ainbat yende torri ze gure etxera* (Mez).
- ainbertze:** adond. hainbertze <Tantos, muchos>. *Ainbertze yende tortzen tze gure etxera, beti lana izeten ze ta...* ***ainbertze ...nola:** resucitatu cen ainberce pobrega-

- tic nola abracengatikc, chiquiengatic nola andiengatic* (Erro).
- aingeru:** ik. aingiru.
- aingiri:** ik. aingiru.
- aingiru, aingiri, aingeru:** iz. aingerua <Ángel>. *Aingiriak Maria Santissimay eman cion Embajada. // Bi aingiru zuriz beztituric* (Erro) // *Zeruko aingiruak dira oyek.* ***aingiru guardakoa:** iz. aingeru guardakoa <El Ángel de la guarda>. *Ene amak errezzaten zuen aingeru guardakoai.*
- ain segur:** adond. hain segur <Seguramente>. *Bertze anai ori ain segur Ameriketan bizi-ko da orai* (Lin) // *Baztanen oraño erekitzen dute artoa, ain segur.// Izain du bertze izen bat, ain segur, beñō...*
- ainyire:** iz. anderea <Señorita, nombre que se les daba a las abejas para recogerlas>. *Ainyire ederra bil etxera!* esaten zuen er-leak biltzeko deiaik (Mez).
- aioska:** adond. agur eginez, oihuka <A gritos>. *Aur ayek ayoska egoten zire beti* (Mez).
- aire:** iz. airea <Estilo>. *Guk iten dugu lengo aি-rera bestak, eta orgatik onara tortzen da kozinerie* (Lin).
- airegaijto, aide gaijto:** iz. aire gaijtoa. San Joan goizean etxeko sarreran elorri zuria ezartzen zen aire gaijtoa edo tximista urrunzeko (Auz) <Rayo>. *Aire gaijtoak il zuen bein bei bat.// Esnia arri gogorrekin erretzen ze, iduri zute burdinek eta erraten zute aire-gaijtuak zirela* (Mez).
- airia bota:** ad. perf. airea bota <Eructar>. *Aur gorrek ez du oañik airia bota* (Lin) // *Airia botatzeko man gineko bikarbonatoa* (Mez).
- airian:** adond. airean <Al aire, sin apoyarse en el suelo, con la base agujereada>. *Oyan goi dena dago airian, lelez peteik, or eztaike fietu yausteko ere ta orai oyanak zikindui baitire ezta ibiltzen apena yendeik eta* (Lin).
- airoso:** izond. airosoa <Airoso, con gracia>. *Badire yendeak erabiltze airoso dutenak.*
- aise:** adond. aise <Fácil>. *Ori in daike aiseago// Etxetik ez zela aise ateratzia* (Mez, Per) ***aiseo:** aiseago <Más fácil>. *Orai inen tze aiseo.* ***aisaski, aiseski:** adond. aise aski <Fácilmente>. *Aisaski iten al dute lan goyek* (Mez) // *Animeliek utzikote ori bai aiseski* (Mez) // *Atsa artzen dut aiseski* (Lin).
- aisetasun:** iz. aisetasuna <Facilidad>. *Orai aisetasun gorra maten tuzte semiak izeteko.*
- aiskol:** iz. aiskola. *Lathyrus sativus* <Arveja>. *Aiskolak erekitzentz gnuze gure baratzian* (Lin).
- aitagure:** ik. aitegure.
- aitegure, aitagure:** iz. aita gurea <Padre nuestro>. *Aitegure bat errezzatu* (Mez, Per) // *Orduen ikesi gindue Aita Guria* (Inb).
- aitagutxi:** iz. aitabitxi <Padrino>. (Erro, Azk. Eransk).
- aitaiñarreba, aitarreba:** iz. aitagnarreba <Suegro>. *Emen nere aitaiñarrebain etxian gelditzen tzire zenbait.// Bizi guzian aitaiñarrebaikin bizi izan da* (Mez).
- aitarreba:** ik. aitaiñarreba.
- aitatxi, aitetxi:** iz. aitatxi <Abuelo>. *Gure aitatxi aserretu da* (Mez). Sin. apitxi.
- aitetamak:** iz. aitatama, gurasoak <Los padres>. *Aitetamak bizi ziren gure sortetxian* (Mez). // *Ezkontzean aide urbilenak aiteta-mak dire* (Mez, Per).
- aitetxi:** ik. aitatxi.
- aitorrazí:** ad. aitorrarazi <Confesar>. *Aitorrazí ta dena euskera iten zigu* (Mez).
- aitz:** iz. <Árbol de madera dura y rojiza, llamado «samin» en alguna región>. (Erro, Azk. Eransk).
- aitze:** iz. aitzea <Algo oído, un dicho, algo transmitido de viva voz>. *Nere aitarrebak bazue aitze bat, eztait norengandik, sarna kentzeko zer in biar tzen* (Lin) // *Bazuen bada aicea Luciferrec Profeta sanduec erranic* (Erro).
- aitzur:** ik. altzur.
- aitu:** ad. 1. bukatu, agortu <Fatigarse mucho> (Est. Azkue). *Gure amatxi aitu ze lan goyetan.* 2. <Terminar una cosa, agotarse líquidos>. *Ure aitu zaigu.* 3. **aitu:** aditu <Oir>. *Aituzu zuk zer erran duen amak? //* *Zuk erran duzune aitu dut.* ***aitua:** izond. aditua <Ilustrada, sabia> *Cer gende dire evec?* *Gende batzuc ain iaquinsunac, ain aituc eta ain andiac?* (Erro).
- aixkidantza:** ik. adixkidantza.
- aixkide, adixkide:** iz. adiskidea <Compañero, amigo>. *Arron aixikidiak dira oyek* (Mez). // *Azquenean Patriarca sanduec profeta*

- eta Jaungoicoaren aissquidec senticen zu-ten* (Erro).
- aixkidetu:** ad. adiskidetu <Hacerse amigo>. *Urepelen nexka batekin aixkidetu zen, ein zun andregaya ta goan tzen Ameriketara (Zil).*
- aixtian:** ik. axtian.
- aize:** iz. aizea <Viento>. *Aizia ta eurie anitz izeten da* (Mez).
- aizealди:** iz. haizealdia <Bufido, golpe de viento>. *Bota zuen aicealdi batez idorrera Profeta Jonas* (Erro).
- aize-botrada:** iz. haize-bolada <Volada de viento>. *Aize botrada torri de emen* (Lin) // *Tortzen baze botradat aizia, orduen aizerratzen tzindue* (Mez).
- aizego:** iz. haizegoa <Viento del Sur>. *Aizego beroa daile egun.*// *Haize hegoa, eroa. «Emazteen gogoa iduri hegoa». Haize egoa andren gogoa.* (Intza) Sin. egoaize.
- aizeman:** ad. haize eman <Soplar>. *Man tzazu aizia* (Mez), (Azkue. Est).
- aizeratu:** ad. haizeratu <Aventar>. *Ultzie iten ginuelaik aizeratzen ginue larrañan zare-tan* (Lin).
- aizetxakur:** iz. ehizatzakur <Sabueso>. (Erro, Azk. Eransk).
- aizetu:** ad. haizetu <Hinchar>. *Aizetu bear duzu zirrika ori.*
- aizkora:** iz. aizkora <Hacha>. *Aizkoraikin koz-ka man zeko* (Mez).
- aizkoraldi:** iz. aizkoraldia, aizkorakada <Golpe con el hacha>. *Emen batek belau-nen aizkoraldi bat artu ta...* Sin. aizkorukaldi.
- aizkorukaldi:** iz. aizkora ukaldia, aizkorakasa <Hachazo>. *Aizkorukaldi bet artu zue mendien.* Sin. aizkoraldi.
- aizpe:** iz. ahizpea <Hermana>. *Nik bi aizpe tut.*
- akabantxa:** ik. akabantza.
- akabantza, akabantxa:** iz. akabantza, bukae-ra <Final, remate>. *Akabantza man dakogu lan orrei* (Lin) // *Etzakela okurritu ardi or-taik yatera erran tzuen, ta kasik akaban-txan gineuke* (Lin)// *Gero iten dakogu ola-ko akabantxa* (Lin).
- akabatu, akatu:** ad. 1. akabatu, bukatu <Rematar en el juego de la pelota>. *Akaba zazu!* (Lin). 2. bukatu, azkendu <Finalizar>. *Akabatu dire bestak.* // *Egon bear tzute akatu ertio* (Ur).
- akabera:** iz. akabera <Final>. *Mandoak aka-berantzean, asi zire bertze gauzakin kon-trabandoan* (Irag).
- akaso:** adond. <Tal vez, quizás, acaso>. *Guaci acaso inocencieco videaz?* *Badire acaso aniz gure ertean* (Erro).
- akatu:** ik. akabatu.
- aketza:** iz. aketza <Cerde semental>. *Bargoa uzten bauzu osatu gebe, orduan deitzen da aketza* (Mez) // *Orzagokoan bazute aketza, ta gero baze Olondritzen ta Zubrin te...// Oyek bazute aketza, astoa ta zaldie* (Lin).
- akitu:** ad. bukatu <Acabar>. *Akitu orduko aki-tzen da erauntsia, aize gaixuak, iñezturek ortotsak* (Mez)// *Dantzatu ze beraikin eta akitu zelaik atera ze* (Mez, Per).
- ako:** interj. akabo! <Se ha acabado. Voz utili-zada con los niños>. *Ako ttottoa!* (Mez).
- akometazio:** iz. akometazioa <Acometimiento, alegación>. *Baño bestetan egin zire akome-tazio txar bat: atera ze karrikera bakarrik* (Mez, Per).
- akordion:** ik. kordion.
- akordu:** ad. akorduen egon <De acuerdo> *Akorduen nago zurekin* (Lin).
- akorritu:** ad. akorritu <Despejarse, mejorar un enfermo, recobrar el conocimiento>. *Iduri du akorritzen ai dela, obe daniela.* // *Akorritu da torri berriz bere artara.*
- akullo:** iz. akuiloa <Pertiga>. *Akulloaikin yo-a-ten ze itzaye.*
- ala-ala:** adond. hala-hala, halaxe <Así mis-mo>. *Ala-ala baldin badago, utz zazu* // *Zu ala-ala zaude deus artu gabe* // *Ta gero or-te ala-ala ibili ze* // *Atra etxetik ta lerrite-ko euria ari zuela Urroz aldera joan gine* (Mez).
- alaba:** iz. alaba <Hija>. *Alabain medioz torri zire etxera* (Lin).
- alabearra:** iz. hala beharra, patua <Destino>. *Alabearra erraten da zerbaiz pasten delaik etxetan>* (Lin).
- alaber:** adlag. halaber <Igualmente>. Respuesta habitual después de un saludo. -Egunon!- Alaber!
- alai:** iz. eskailera <Escalera>. *Alayetaik igen gine ta asi ze nonbait sukeldeko leyoa ire-ki nayan* (Lin).

alaik ere: junt. halarik ere <A pesar de>. *Alaik ere erran bedi orren iz sandua eta nere anima izain da sana eta salva* (Erro).

alako: izlag. halako <Como ese, de ese tipo>. *Alako zikiro ta... zure ardieta dago, erran neko nik; -ez, ez orrenetan dago* (Lin).

alamote, almote: iz. alamote <Almud, medio celemín>. *Botatzen ginue almote bat gari // Amasei almotek iten zute erregue // Alamote bat etzindue ardi guziendako.*

alare: junt. hala ere <Sin embargo>. *Baiña alare eztezaquet cerbait errateco utci* (Erro).

albaitero: iz. albaiteroa <Veterinario>. *Albaitero berrie torri da errira* (Mez, Ilur).

albidede: iz. abilidadea, trebetasuna <Habilidad>. *Albidede andia biar da ori iteko.// Segarie da albidede anitz duena se-gaikin* (Lin).

alborengo: iz. alborendoa <Pulmonía>. *Anitz eritasun ezagunak badire. Gripe, alborengo edo pulmonia* (Mez, Per).

aldare: iz. aldarea <Altar>. *Gueldituco da al-dareco sacramento sanduan* (Erro).

aldartez: adond. batzuetañ, aldika <A veces> (Erro. Azk. Eransk).

alde: iz. aldea <Grupo, montón>. Urtealde, umealde, jendealde, langilealde, xurialde, pikorralde, gizonalde, arropalde... *Urtealde bat badut // Bildu zen jendealde gaitza* (Lin) // *Bada lanian langilealde bat* (Mez) // *Nik arropa xurialde bat eroi nue* // *Ogi pikorralde aundié bildu ginue* // *Umealde guziak biltzen dire gisa berian* // *Iten du umealde bat eta denak erregina batenak omen dire* (Mez).// *Gosari ederra egiten zen gizonalde batendako* (Mez, Per)// *Nere ama eta ni ari gine arropa alde bat garbitzen* (Mez, Per).

alde batera izen edo hartu: esam. alde batera izan, alde batera hartu <Trabajo a destajo o por cuenta propia>. *Mandoak alde batera izeten gintuen, biño guk pionak baño lan geyago iten ginuen aise* (Lin) // *Layatzera joaten zirelaik, a destajo... alde batera artzen balin bazute, orduen paratzen zute al-tzinian, ta balin bazeude piontzan, para-tzen zute gibelian* (Mez).

alderdi: iz. alderdia, aldea <Lado, parte>.

I izain aiz Iruzquia atracen den alderdiko guizonic abrazena (Erro).

aldi: iz. aldia <Vez>. *Aldi betetik bertzeko kentzen tzekote gatzegie* (Mez) // *An ere amar bei paratzen dira aldiien* (Lin).// *Gutti aldiz in zakigun bai* (Eu). 2. atz. Denbora eta ekintza adierazten duena <Sufijo que indica tiempo y acción, muy empleado como último elemento de compuesto>. *Udeldi, kartaldi, dantzaldi, apañaldi, tiraldi, kazketaldi, botaldi, elurraldi, adarrukaldi, aizkoraldi, sosaldi*. 3. aldea, taldea <Grupo, montón>. *Berdin, biorrak ezin geldieziz zaldik erabilzten baziñue, maten tzire astora, ta andik tortzen tzire mandókoak. Emen bazire aldi bet, joder!* (Lin).

aldien: adond. aldizka, txandaka <A veces>.

Denborartan izaten zen aldiien beak, segun zenbat bei zinuzen, ainbertze egun (Mez).

aldiketan: adond. aldiaka, batzuetañ <A veces, a turnos>. *Aldiketan iten ginuen yantza* (Lin).

aldioro: adond. aldiero <Todas las veces, siempre>. *Eztu yendiak aldioro temple bera izeten* (Lin).

alditik aldire: adond. alditik aldira, gero eta gehiago <Cada vez más>. *Orain bestak ez-tire lengoen erdia ere, alditik aldire yende gutiego* (Lin).

aldiz: adond. noizbait <A veces>. *Aldiz, jauna zaldiz.* ‘Behartsuak ere noiz edo noiz atsegin handia behar du.’ (Mez. Intza) // *Errain dakot anitz aldiz* (Mez) ***guti aldiz:** adlag. gutxitan. *Botatzen zuen astoa ta zu... igual katxarroak jaurtzen zakizkizun ta gero urbil beartzan man etxera, ta gero bueltan, berriz, gutti aldiz in zakigun bai, beño beti e kutsue bai izaten ginuen*. (Eu).

aldizke: adond. aldizka <A veces>. *Auntzeak lenago emen ibiltzen tzire etxez etxe aldizke* (Lin).

aldizketu: ad. aldizkatu <Alternar, releverse>. *Lan au aldizketu in bear dugu.*

aldrabes: adond. alderantzik <Al revés>. *Orai*

bazire bertze itz betzuk itéko aldrabes (Lin)

* **aldebresian:** *Patu tuzu galtzuñek aldre-besian.*

alegie: lok. alegría <Es decir, o sea>. *Alegie pastu gine bestan egun guzian* (Lin).

- alfer:** ik. aufer.
- alfortxa:** iz. alfortxa <Alforja>. *Alfortxak bazue boltsat emen ta bertzeat emen, emen ogie ta emateko, berendue, ta bertzian xatoa emateko.// Denboraz alfortxeikebe etze iñor juaten alorrera* (Mez).
- alimeleko:** ik. arimeleko.
- alkabelar:** iz. alkabelarra <Avena silvestre, tipo de hierba silvestre, ancha, dura, triangular y siempre verde>. *Alkabelarra da belar klaseik txarrenetaik, aziendeke ere eztute lazki maite, ez; latza da, latza. // Bada belar bat latza, orrei erraten tzayo alkabelarra, aziendeke ori yateko eztute bertzetik izañiar, bertzelas uzteute aise. Aziendak orregatik eztu ozkiten arrei* (Lin).
- alkate:** iz. alkatea <Alcalde>. *Alkate nitze denbora aetan* (Mez).
- alke:** iz. ahalkea, lotsa <Vergüenza>. *Alke andie izeten zute aurrek. // Emen ere badire yendiak alke guti dutenak* (Mez)
- alkegabé:** izond. ahalkegabéa, lotsagabea <Sinvergüenza>. *Arrunt alkegabia ze neska goi* (Mez).
- alkegarri:** izond. ahalkegarria, lotsagarría <Desvergonzado>. *Obenian iten balinbaitu gauzek bear eztirenak, ori da alkegarrie* (Lin).
- alkezungarri:** izond. ahalke emangarria, ahalkegarria, lotsagarría <Vergonzoso>. *Ori de alkezungarrie* (Lin).
- alkekeri:** iz. ahalkekeria, lotsakeria <Desvergüenza>. *Gu ttikitán goizian babak yan izan ttugu, ori ze alkekerie* (Mez).
- alketi:** izond. ahalketia, lotsatia <Vergonzoso, tímido, da>. *Mutiko ori alketic da* (Lin).
- alketu:** ad. ahalketu, lotsatu <Avergonzar>. *Ori alketen duk joatera niora* (Lin) // *An utzi men tzue, alketuik* (Mez) // *Mutila nola alarguna ez dut uste alketicoko dela erratera ezkondu nai duela neska edo andre maite duen batei* (Mez, Per).
- alki:** iz. aulkitxoa, aulkia txikia <Asiento sin respaldo, taburete>. *Alki artan ieten ze. // Alki batei artuz bere eskuekin* (Mez, Per).
- alkitto:** iz. aulkitxoa <Sillita>. *Alkittoat beti izeten ze sukeldean* (Mez).
- alkitze:** iz. alkitzea <Pondón utilizado para cortar las tximitxas de avellano>. *Alkitze arekin mozten ginuze urrak* (Mez).
- alkortze:** iz. alkortzea <Atajo>. *Alkortze artaik joan biar dugu* (Mez).
- almadraka:** iz. almadraka <Colchón de lana de oveja>. *Almadraka edo koltxoña ardi illeikin egine ze ta paratzan ze lastoazalain gañian* (Mez).
- almote:** ik. alamote.
- alo!**: interj. alo!, ala, tira! <Interjección utilizada para animar a andar. ¡Vamos, venga!>. *Alo! mogie!// alo, goatzera!* (Mez).
- alor:** iz. alorra <Pieza para siembra>. *Bentarrañeko Alorrandin kusi tut zuen ardiek* (Mez) // *Péntzia da 'prado', eta alorra da patatak eraikitzen delaik ori da gárie ta ola* (Zil).
- alsai:** iz. birika <Pulmón>. *Alsaye birikari erraten al tzayo* (Lin).
- alta:** lok. alta hala ere, beraz, izan ere <Pues>. *Kaguensos! Alta, badu izena.* (Ezin zenean animali baten izenaz oroitu) (Mez).
- altokara:** adond. altokara, ozenki <Alto, en voz alta>. *Telebisioa patzen balinbauzu altokara, ezin da deus aitu.*
- altxaketen:** iz. altxaketa, izkutaketa <Juego al esconde>. *Altxaketen ai dire yolasen*.
- altxar:** iz. altxarrea <Primer bocado que se toma después de matar el cerdo, se extrae de la tela del vientre>. *Lenbizien altxarre goyek yan gindue* (Mez).
- altxatu, altzatu:** ad. 1. altxatu, goititu <Levantar>. *Altxa burie! erraten gineko beyai* (Lin). 2. gorde, ezkutatu <Guardar, esconder>. *Altxatu tut yolasak* (Zil) // *Altxatu biar tugu ogi oyek // Aite ta ama altxatuak iduki zuzten karlistek* (Mez).
- altxirri:** ik. altzirri.
- altzatu:** ik. altxatu.
- altzairu:** iz. altzairua <Acero>. *Altzairuekin inik zeude eltze goyek // Orrek mii altzairetue du.* (Mingain zorrotza. Mintzo gogor bizia). (Intza. Est).
- altzin:** 1. adond. aitzina, aurre <Adelante>. *Zu beti altzine. // Gero andik altzine.// Axuri au altzineko utzi biar dugu* (Mez). 2. iz. auurrelari <Delantero>. *Ore dae beti altzin!* 3. iz. aurreko, aitzineko <Anterior>. *Aurten enaiz izan baña altzinagoko urten ta altzinagokoan ta izan nitze or eta Riojan, bakazionetan.* Sin. altzineko.

- altzinalde:** iz. aintzinaldea, aurrealdea <Fachada, parte delantera>. *Etxeko altzinaldia in dugu, orai in biaugu gibelaldia.*
- altzindu:** ad. aitzindu, aurrea hartu <Adelantar, aventajar>. *Altzindu biar dugu yago // Biaut altzindu erlejue* (Mez).
- altzineko:** iz. aitzinekoa, aurrekoia <Delantero en el juego de la pelota>. *Altzinekoa beti altzinen dago, bertzia joaten zaio noize-beinika, beño. Sin. altzin. 2. izond. aurreko <Anterior>. Ba, altziñéko urtean egiten zuzten bedikétu* (Zil).
- altzinke:** adond. aitzineka, aurreraka <Hacia adelante>. *Altzinke ari zara zu beti* (Mez).
- altzinxko:** adond. aitzineko, aurreraxeago <Más adelante>. *Zazi altzinzko ta an aurkituko duzu norbait.*
- altzirri, altzirri:** iz. altzirria, ardiaren gorotza eta lurra nahasita <Estiércol de las ovejas cuando está convertido en polvo>. *Kartzu altzirrie pixkat lore goyei botatzeko* (Mez) // *Altzirrie iten duelaik artegie idorrako dago bai, berdea yaten duelaik beño* (Lin) // *Neguen iten du altzirrie yan idorra iten duelaik.*
- altzo:** iz. altzoa, magala <Regazo>. *Amain altzoan dago* (Mez).
- altzur, atzur, aitzur:** iz. aitzurra <Azada>. *Altzurraiki ibiltzen da ori baratzian.*
- alubi:** iz. alubie, babarruna <Alubia roja>. *Baztanen errateunte ilerra, ta guk alubie* (Lin).
- amaberjine:** iz. Ama Birjina <La Virgen María>. *Amaberjine Abuztuen amaborzian balinbeda...* (Lin).
- amaiarreba, amaiñarreba:** iz. amaiarreba <Suegra>. *Gure amaiarreba da andre ori. Aitaiñarreba eta amaiñarrebaikin bizi ze.*
- amaikabe:** izond. amarik gabekoa, umerzurtz <Cordero sin madre>. *Bildotx goi amaikabea da* (ALEANR).
- amaiñarreba:** ik. amaiarreba
- amarreko:** iz. hamarrekoia <Punto que equivale a cinco sencillos en el juego del mus>. *Amarreko polite ukatiko ori! esaten zen Errean* (Est).
- amarretako:** iz. hamarretakoa <Bocadillo o tentempié que suele tomarse en verano entre el almuerzo y la comida>. *Amarreko ederra in dute gizonek* (Lin).
- amatxi, amitxi:** iz. amatxi, amona <Abuela>. *Gure amatxi arrun ona da* (Mez).
- ameka:** zenb. hamaika <Once>. *Ameka aur ibiltzen tzire inguru artan* (Mez) // *Ameka ilebete pastu nitun* (Mez).
- amen:** iz. ahamena <Aperitivo, bocado entre horas>. *Yaten duzu amen bat edo otamen bat* (Lin) // *Gero, ostatuen amen zerbait yan ta...* (Mez) // *Atsaldean mutilek artu zute erriko ostatuan beren amena* (Mez, Per).
- amesketan:** adlag. ametsetan <En sueños>. *Amesketan aitu nitze atzo* (Lin).
- amiña:** iz. amatxi <Abuela>. *Aite, abueloak eta amiña ta denak, denak euskera* (Eu).
- amitxi:** ik. amatxi.
- amorio:** iz. amodioa <Amor>. *Amorio eta sentimientura andiarequin* (Erro) // *Guciei ceucan amorioaingatic ilcen* (Erro).
- amorrail:** iz. amorraia <Trucha>. *Amorrail anitz izeten ze ugeldet artan* (Ur).
- anai:** iz. anaia <Hermano>. *Giltzurrine eztut bat baizik, anaek eta arrebak biek daukagu kendiuk giltzurrin bena* (Lin). // *Ene anea torri ze atzo* (Mez). // *Anáeak karko digu kótxean* (Zil).
- anbulu:** iz. anbulua, porruaren antzekoa, txe-riariak bazkatzeko erabiltzen zen tuberkulua <Asfodelo, puerro silvestre>. *Anbuloa da belar klase bat mendian atratzen dena, bagadietan eta balinbeda ola trozoat arbolik ta yausik gabe, an atratzen da* (Lin). // *Denboraz iten zire zerriendako bazkatako; biltzen tze berdian, atra biar tzinuze lurretek, bazute makil bet bezala, ola, ta berrete puetzuk, ola, atratzet tzirenak, ta andik man txerriei. Yendea joaten ze gustora, andre ta gizon ta denétaik* (Lin).
- andana:** iz. andana, taldea, saila <Grupo, montón>. *Gizon andana torri ze // Bazire andanat terriblia! Dozenat igual* (Lin).
- anditasun:** iz. handitasuna <Grandeza, acrecentamiento>. *Anditasun aundie zue plaza orrek* (Azkue. Est).
- anditu:** 1. ad. handitu, puztu <Hincharse los animales>. *Gure beizuri goi anditu de // Anditu zekire bea babak yan ta* (Mez)
2. ad. ugaldo, handitu <Aumentar>. *Ugeldiak anditu in dira* (Lin).

- andiuste:** iz. handiustea <Orgullo>. *Aundiuste aundia du mutiko orrek, bai* (Azkue. Est.).
- andre:** iz. andrea <Mujer>. *Andria ta maztekie erraten al duzu bi gisétan* (Lin).
- andregai:** iz. emaztegai, andregai <Novia>. *Batek andregaia izen bear du, aurten aitu dut* (Mez).
- andrerrai:** iz. andrerraiak <Lechezuelas, era el bocado que almorcaban los que mataban el cerdo. Sin embargo en Lintzoian, según nuestro informante, hacen referencia a las «cinco villas», denominadas así a las costillas delanteras y pequeñas>. *Andrerrai oyek yateitu zerrie iltzen duenak, atsaldean merendatzeko tzerrie partitute* (Mez) // *Andrerrayak kostille ttarra tire* (Lin).
- anemenka:** adond. han-hemenka <Por ahí>. *An emenka dabil beti* (Est).
- angabetu:** ad. konortea galdu <Desfallecer>. *Pello antxe angabetu ze* (Est).
- animal:** iz. <Animal>. *Lenago, yendek ta animaliek alegatzaren ginue érrie, orai badire juezak* [juezak baino serioago doan jendea] *eztuteneak yardukitzten ezbadza pagatuz* (Lin).
- animeleko:** ik. arimeleko.
- azkurealди:** iz. azkurealди <Rasquera>. *Erre ondoan azkurealди ederrak pasten zitue. // Axkurealди bat artu zue mutiko arrek ta bere lengusie torri zen kureitera* (Mez).
- azkurrubi:** iz. azkurrubia <Planta no indentificada utilizada para quitar las verrugas de los animales, por ser muy fuerte no se empleaba con las personas>. *Azkurrubie ibiltzen ze kalitxek kentzeko* (Zil).
- azpi:** iz. azpia, izterra <Muslo>. *Azpi ederrak zitue neska orrek* (Mez). Sin. ankapal.
- azpikuntze:** iz. azpikuntza, behi-kaka, honda-rra <En la cuadra, excrementos de los ani-

males, mezclados con paja, por extensión se aplica a cualquier resto, que no vale>. *Garbitu azpikuntze oyek.*// *Orai, gure belarrak in onduan in biar tugu erriko azpikuntze guziek* (Mez).

azpil: iz. azpila, tixerriek jaten duten tokia <Gamella de los cerdos>. *Azpile da yatera ematen zayotena*.

azpildu: ad. azpildu, azpildura egin <Repulgar, hacer el dobladillo>. *Azpildu ongi galtza oyek* (Lin).

azpore: ik. ezpore.

aztaka: adlag. haziaka, eskuko hatzez zerbait ukitu ukimenaren bidez ezagutzeko <A tentas>. *Aztaka ibiltzen naiz argia bixteko* (Mez).

aztal: iz. 1. aztala, orpoa <Talón>. (Mez, Lin).

Zuk artu duzun kafe ure gaurgero aztaletara yoana da (Lin). ***aztala yan:** norbaitez gaizki esaka aritu <Hablar mal de alguien>. *Kara kara elea franko ta gibeletik aztalak yan*. ‘Aurpegiz aurpegi hitz ederrak, baina gero atzetik azpiak jaten’ (Intza) . 2. aztala <Parte baja de la guadña>. *Aztala zabalago da punte beño*.

aztalgala: iz. aztalgala, ikaztigira lurra botatzeko erabiltzen den pala <Pala ancha para echar tierra a la carbonera>. *Aztalapalaikin botatzen zute lurre ikeztogire* (Lin).

aztapar: iz. atzaparra <Garra>. *Aztapar ayekin dena arpatzen zue*.

aztatu: ad. 1. hantzatu <Acertar, predecir>. *Ongi aztatu zue gizon arrek* (Zil).// *Nik ez dut aztatzen, ez naiz oroitzen.*// *Ongi aztatu zue ze eguraldia in biar tzue.* // *Ez dut aztatzen, enaiz oroitzen.* 2. asmatu <Tantar, reconocer al tacto, palpar> *Ilunpetan aztatu bear!* // *Emendik Olondrizeraño aztatuko zuten ayek* (Erro) Sin. aziatu

aztiatu: ad. asmatu <Predecir> (Est. Azkue). Sin. aztatu.

aztu: iz. pisua, zama <Peso>. *Aztutik ezautuko'uk zein gizen dagon* ‘Aztutik=pisutik. Txarrez esana’. (Est, Intza)

aztuka: adlag. haziaka, haziak <A tentas> (Erro, Azk. Eransk).

azuri: ik. axuri.

B

baba: iz. baba <Haba>. *Baba eztut ikusi yaten* (Mez) // *Lenago emen baba ta denetaik paratzen ze* (Lin).

babaratzza: ik. babatxa

babatxa, babaratzza, bagatxa, gabatxa: iz. pagatxa, pago-ezkurra <Fruto del haya>. *Babatxa ayek yaten zute zerriek* (Ai, Zil) // *Babaratzza da bagoain kosekxa, ta aritzána ezkurre.*// *Babaratzza anitz izeten ze bagadietan.*//*Babatxa oyek biltzen ginuze guk* (Lin) // *Gabatxa zen urtian zerriak mendiare eramatene zire, alik eta in artio politiek* (Lin).// *Bagatxa da bagoain kosekxa, nai bazindue ereman mendire, bagatxera, ta sagoieta sartzen baziren etzute yaten, belarra bai, beño, musuriketu ez.*

baboxa: iz. pagotxa, landare belarkara (*Trifolium incarnatum*) <Trébol. Hierba ancha y corta, de segundo corte con la que se hinchaban las ovejas>. *Baboxakin aziendak iten dira anditu, beak eta ori, orai idortie...yagozik alfalfa idorra da gauzeik obenetik, bañan berdian ...* (Lin) // *Urtzi nai zinduelaik alor bat sagoia iteko ta ortan, azie tortzen tzen nasie baboxaikin, beño baboxa da peligrosoa, alfalfa berdian den bezala, ori ere beak eta ardiek lertzen dire* (Lin).

baetz: izond. baietz <Que sí>. *Baetz arrazoi nuela, pues klaro!* (Mez).

bagadi: iz. pagadia <Hayedo>. *Aurten bagadien in bear dugu lotia.*// *Or baite bagadie, zuen bordalde ortan* (Mez).

bago: iz. bagoa, pagoa (*Fagus sylvatica*) <Haya>. *Bago andiaik zeude Aurizperriko oyantean* (Mez) // *Bago botaina, aise egiten da egurre.* <Jende xeheari edo zahar-tuari aise egiten zaio irri-farra gaizki egina

bada ere» (Mez. Intza)// *Au txipua da, au bagua* (Mez). // *Baotrexki deskuidu badin bazute, igual erretzen zitzae..joño! itzalki guziak!* (EAEL, Auz).

bagoadar: iz. bago-adarra <Rama de haya>. *Bagoadar goi erori de* (Lin).

bagondo: iz. bagondoa <Haya>. *Bagondoat egotian lurrian ta bizkarrezurraikin yo, ta or autsi zue* (Mez).

bai: iz. baia <Cedazo, criba>. *Batzuetan baian (galbaian) ure, ta ferratan ez.* ‘Etxean itzik ezin aterazi, eta kanpoan ezin ixildu’ (Intza. Est).

baiki: adlag. baiki <En efecto, ya me parecía>. (Erro, Azk. Eransk).

baikorle, beikorle, baikoral: iz. bahi-korrale <Especie de corral situado entre casas donde se guardaban los animales denunciados de otros pueblos> (Mez). *Sartu zitue beak beikorle artan* // *Baze emen ere baikorralia denbora artan* (Ger, Lin).

baikoral: ik. baikorle.

baitan: adlag. baitan <Dentro de>. *Alaco se-mearen amaren baitan aurquitu bear ciren* (Erro).

baitu: ad. bahitu, zerbait bahian hartu <Apresar, apoderarse del ganado ajeno hasta comparecer el dueño y resarcirse de daños>. *Len errietan baziren guardatako paratuek gizonak, orduen sartzen bazire animeliak bertzeaten sagoyan pues abiseten zute ori, orduen orrek iten tzue duntzietu.. ta baitu* (Mez) // *Egun batean etorri zire lau gizon baitutzera etxe berria* (Mez, Per).

baizik: junt. besterik ez <Solamente, no más>. *Bizio bat baizik eztugu, ta ure ederki pagatuik* (Lin).// *Giltzurrine eztut bat baizik,*

- anaek eta arrebak biek daukagu kendiuk giltzurrin bena** (Lin).// *Euze tortzen famili goi baizik.*// *Anai guziak bazezkie baizik ori* (Mez, Per)// 2. junt. baizik <Sino>. *Ez berceac, baicic, penitenciacoa* (Erro).
- bakanetan:** adond. bakan, urri, gutxitán <De vez en cuando, escasamente>. *Bakanetan ein bear delaik lana, ola in bear da* (Mez).
- bakan zenbait:** zenb. bakan batzuk, bakar batzuk <Unos pocos>. *Bakan zenbaitek iten zuten lan goi.*
- bakar:** izord. bakoitzta <Cada uno> (Mez). *Etxe bakarrean gutiena iru gizon* (Lin) // *Iru pezta eper bakarra. Litorerdi ematen zuen errieik bakotxaindeko, bakarraindeko egun guzian lanian aitu ondoren auzolanian, arrengatik joaten zen yendia.* ***bakarra:** izlag. soila <Único, sólo> *Anaye bakarra ze // Beño ze ingo dut bakarrik an? ezin dut eon bakarra* (Eu) ***bakarrak:** zenb. zenbait <Algunos, alguna vez>. *Bakarrak torri dire: ja!gunos han venido!*! // *Oi, oi! Bakarrak arputu tugu!* // *Zenbat pozale eremanik dauzkit, bakarrak!* // *Ba, bakarrak torri dire neri artzera* (Mez). *Bakarrak erosten zitue bere aitak gaztamine eiteko* (Lin) // *Leatzune tire, paxiek iteko. Bakarrak ibili tut sóñian bai!* (Lin) ***bakarretan:** adlag. zenbaitetan <Algunas veces>. *Bakarretan oroitua naiz.*// *Nere ama zenai bakarretan aitu neko* (Mez). ***bakarron bat:** zenb. <Alguno que otro>. *Eztakit, igual bakarron bat.* (Zil).
- bakarrik:** adlag. bakoitzta, bakarra. *Bakarrik bere etxearen* <Cada uno en su casa> (Erro, Azk. Eransk).
- bake:** iz. bakea, pakea <Paz>. *Bákia man zute aur goyek.*
- bakotx:** izord. bakoitzta <Cada uno>. *Iru baño gutiego etzen famili bakotxearen* (Mez). // *Gerein ortan bakotxak badire!* (Lin).
- bala:** iz. bala <Fajo de miés>. *Bazire bertzeatzuk garie kartzeko: balak. Aye tzire, ori zabalian bezala, ayek ertsituik olako puntatzuk atratzen tzirenak, an sartzen tzindue paxue ta bortz paxu kartzen tzue abre bakarrak.*
- balandano:** iz. baranda, escudel <Baranda de escalera>.
- balanga:** iz. balanga, langa <Vara larga de madera que se pone en los portillos>. *Para zazu ongi balanga goi!*
- balangataka:** iz. balangaz egindako ataka <Portillo hecho con varas gruesas que cruzan los portillos de manera horizontal>. *Balangataka ure autsi ze* (Lin).
- balantza:** iz. balantza, zanbaluzka <Columpio rústico hecho con una cuerda>. *Etxeko zurdia oye baitire paratui pileren gañera, ortik pastu sokat ta or paratzen tzindue, arat eta onat, soka erraten tzute o balantz* (Lin). Sin. zanbaluzka.
- balataka:** iz. bala-ataka <Portillo hecho con balangas>. *Balataka ayekin oso ongi extenze.*// *Trankat balataka batian paratzen al duzu alor batera* (Lin).
- baldar:** izond. baldarra <Torpe, desmañado>. *A ze mutiko baldarra da ori* (Mez).
- baldin, balin, barin:** lok. baldin <Si...> *Conveni barin bada* (Erro) // *Urte gucian beressi barin badute* (Erro). // *Baldin eguiten badu penitencia* (Erro) // *Itxe ontako animaik balin beda* (Est).
- baldin be, balin be:** esam. nola ez! <¡Cómo no, pues claro!>. *Zuk ere ardoa artzen duzu?* *Baldin be!*
- bale:** iz. balea <Ballena>. *Baliare Profeta Jonas bere tripan zuela* (Erro)
- balietu:** ad. baliatu <Valerse>. *Orduen berure re, mandoure re etzeike balietu nai zuen bezala ta orregatik zeditzen tzue, domátzeko* (Lin).
- balin:** ik. baldin.
- balin be:** ik. baldin be.
- balio izan:** ad. balio izan <Valer>. *Ta orduen denbora artan balio zute... hogei ola balio zute* (Lin).
- balle:** iz. ibarra, harana <Valle>. *Lau omenaje, lemixkoa Renterien, joan den urteko Maiatzian, ta gero in zireten Abaurreabajan, Abaurreapean, ta gero in zireten bállian ta gero Sanguesan ere* (Mez)// *Orze ta balléko besta... arára tortzen da* (Mez).
- balketan:** adlag. balak egiten, balaketan <Haciendo fajos>. *Paxuek balketan paratzen zuzte* (Lin).
- balotu:** ad. balotu, aurmenekin balak egin <Operación consistente en hacer fajos con

- la miés tendida>. *Lenago joaten gine balotzera, orduen oyan bazter oetara joaten bazine, tortzen tzire ara ezpatak, ta an irukiko zitiitiote akribillatuik* (Lin) // *Balotzera joaten ginelaik etze aurmenik sugeik etzena* (Lin).
- balsa:** ik. baltsa.
- baltegi:** iz. baltegia, balak gordetzeko tokia <Cubierto donde se almacenaba la miés traída del campo para luego trillarla>. *Gure errien bada baltegi zar bat.*
- baltsa, balsa:** iz. balsa <Balsa, pozo, sitio donde abundan las ranas>. *Baltsa oyeten begiratzten zute gabas.*
- bana:** izond. berezia, bikaina <Rare, especial>. *Banak dira* (Erro, Azk. Eransk).
- banaz bertze:** adond. banaz bertze, batezbeste <Uno con otro, por término medio>. *Banaz bertze atrako du egun mile pezta ilebetean* (Lin).
- baratu:** ad. baratu, gelditu <Quedar, parar>. *Bara zaite or* (Mez).// *Baratu de áizia* (Ilur).
- baratxuringo:** iz. baratxuringoa <Gramita, hierba delgada que crece en porcioncitas y tiene forma de quesitos>. *Baratxuringo anitz izeten ze sagoi artan* (Lin).
- barda:** ik. bart.
- barde:** iz. bardea <Pieza de cuero que se ponía debajo del yugo para meter el timón>. *Bardia paratu biar zen ongi estutuik* (Lin).
- baresare:** iz. baresarea <Tela que recubre el paquete intestinal>. *Baresaria izeten zute zerriek* (Mez).
- bargaxta:** iz. argoxta, tixerri ordotsa, arra, txe-rrikumearen eta tixerri zaharraren artekoa <Cerdo entre tres meses y un año>. *Gazteago zelaik, titie utzi ta andik bider o iru ilebeten buruen, orduen erraten ze bargaza, baña urte bat balin bazue edo ortik goiti bargua* (Lin). // *Jeneralian oyek izesten zire iltzen zirenak etxetan gizendu te gero, ta ardikoa uzten ze txerrikumeak azteko* (Lin).
- bargo:** iz. bargoa, urtebeteko edo bi urteko txe-rria <Cerdo de uno a dos años>. *Bargoa ze urtekoa edo bi urtekoa zerrie anditzen zelaik* (Mez).
- barin:** ik. baldin.
- barkamendu:** iz. barkamena <Perdón>. *Barkamendua eskatu ginue. Sin. barkazioa.*
- barkazio:** iz. barkamena <Perdón>. *Barkazioa eskatu ginue guk* (Est).
- barna:** adlag. barna, barrena, zehar <A través de>. *Bidian barna joan ze.*// *Gero torri gine Elien barna.*
- barnatasun:** iz. barnatasuna <Profundidad>. *Putzu orrek barnatasune andie du.*// *Orbazen putzu bet, ta bota ze Orzagoko bat ta urian gelditu ze onaraño, ta etzeike ito* (Mez).
- barnaxko:** adlag. nahiko barruan <Bastante dentro>. *Barnaxko sartu ze gizon goi* (Lin).
- barne:** adlag. barrenean <Dentro>. *Iten tzindue esnean barnean sartu ta gas oyek botatzen zitue esne arrek* (Mez).
- barra-barra:** onomat. <Expresión utilizada para azuzar a las vacas cuando estaban en las parvas>. *Aida barra barra!*
- barrabila:** iz. barrabila <Testículo>. *Barrabil andiaik tu txekor arek*
- barrasaketa:** iz. barrasaket <Hermafrodita>. *Ardi barrasaketak* (Egozk). (ALEANR).
- barreatu:** ad. barreatu <Esparcir>. *Belar guzie barreiatua dago.*// *Belarra barriatiar baizen* (Mez).
- barren:** adlag <Dentro>. *Lemissicoa condentia tuena barren barrenean dagona* (Erro).
- barride:** iz. 1. barridea, auzokoa <Vecino>. *Iten zuten barrídiak* (Lin).// *Bakizu zer den barridia, ondókoa eta béti tortzen tziren launtzéra ta óla, ta géro beti izeten zen norbait emateko kutxa* (Zil). // 2. barridea, auzoa <Barrio, vecindad>. *Mezkiritzek bi barride tu: Txorrondo eta Biritxikar* (Mez). // *Zitoak onara tortzen tzire, gure barride ontara.*
- barrondatu:** ad. susmatu, barruntatu <Barruntar, espiar>. *Lucifer bere beldu rraiquin cegon atendicen eta barrondacen ia Jesuchristo erausten cen* (Erro).
- bart, barda:** adond. bart, bartatsean <Ayer anoche>. *Bart non egon zine?*
- baru:** iz. barua <Ayuno>. *Gaur baru egune da* (Mez).
- baruik:** adlag. barurik <En ayunas>. *Egun guzien baruik pastu du* (Mez).

- basa:** izond. basa <Salvaje, bruto>. *Arrun basa da mutiko goi* (Mez).
- basatu:** ad. basatu, basati bihurtu <Hacerse montaraz, descarriarse>. *Arrun basatu da aur goi* (Mez).
- basatutu:** iz. basatutua <Se le denomina así a una especie de masa que hacían con el sálico extrayendo el interior del tallo y que se utilizaba, metiéndola en un tubo, para disipar>. *Basatutu oyekin botatzen ginue tiroa pezala* (Mez).
- basauntze:** iz. basauntza <Cervo>. *Basauntza geyago izaten ze lenago // Basauntze berrete giseteko animelia da* (Zil, Ger).
- basole:** iz. basalorea, lore basatia <Flor silvestre> (Erro, Azk. Eransk).
- basta, baste, bazte:** iz. basta, zamaberei zama garraiatzeko paratzen zaien tresna <Albara>. *Gereñeko basteroak iten zitue bastak.// Bastan ibiliar duen abriak bear tzayo moztu biloa, bertzelaz izerditzten da anitz. // Abria da animelia bantzakoa.*
- baste:** ik. basta.
- baste eginzale:** iz. bastagilea <Bastero>. *Uste dut baste eginzaleak iten dituztela, deitzen dire basteroak* (Mez, Per). Sin. bastero.
- bastero:** iz. 1. bastagilea <Especie de guardián que hacía bastes. Por extensión se refiere al que regenta una pequeña tienda.> *Gereñen baze basteroat, bastak iten zitue ta bitertio joaten bazekio etxearen zinduenai, borra edo ola paratzen ziote borra* (Lin). 2. Gereingo etxe-izena. Sin. baste eginzalea.
- bat egin gelditu:** ad. harritua gelditu <Extrañado, de una pieza>. *Aite gelditu ze bat eginik ikustean sei urte ingurukoak alako gizontasuna agertu zuela* (Mez, Per).
- bataio, bateo:** iz. bataioa <Bautizo>. *Batayoetan batatzen zute karameloak o sosa arreputxi* (Lin) (Eu). // *Denak Iruñen sortue tire, ta an iten tuzte bateoak* (Mez).
- bataioko aitetxi, amatxii:** iz. padrino, madrina <Padrinos>. *Bateioko aitetxi amatxiak eta bizi badire bertze aitetxi amatxiek ere bai* (Mez, Per).
- batazi:** ad. batazi, batu erazi <Hacer que las crías mamen>. *Oroitzen naiz ni axuriek eta batazten ttarrian* (Mez).
- bateatu:** ad. bataiatu <Bautizar>. *Atzo bateatu zekote aur tikiari* (Mez).
- bateo:** ik. bataio.
- bateoarri:** iz. bataio-harri <Pila bautismal>. *Or dago serioik bateoarrie, orai denak Iruñen sortzen dire ta* (Mez).
- batio:** adlag. batera <A una, a la vez>. *Zureki batio joain naiz* (Lin) // *Argiezgilarekin batio ‘Al toque del alba’* (Azkue, Erro).
- batre:** adlag. batere, ezer <Nada, ninguno>. *Eztut batre in egun oketan* (Lin). *Esperanzaric batrere etzutela* (Erro).
- batsu:** adlag. batera, aldi berean <A una, más o menos>. «*Itsu-patsu, denak batsu*» ‘Vaya lo uno por lo otro’ (Est. Intza).
- batzarre:** iz. bilera <Reunión>. *Len Ballekotxe Ayuntamentue zen, ta an iten zire batzarrak* (Lin).
- batzurek:** izord. batzuek <Algunos>. *Batzurek diote denek badugule [eritasun bat], batzurei pitzen zayotela, ta bertze batzurei ez.*
- batzuretan:** adlag. batzueta. <A veces>. *Aurizberrin diren ur guziak sartzen dire zilo batzuretan.*
- batu:** ad. batu, titia hartu <Mamar>. *Ardiek batzera eman* (Lin) // *Ayek ai dire iñalakin batzen an* (Mez) // *Batzera usetzan tziren* (Mez).
- baxtarta:** iz. bastarta, familia batean bi anai edo arreba aita edo ama desberdinokoak direnean <Ilegítimo>. *Batzarta da sortzen dena aiteik gabe*. Sin. borta, borte.
- bazka:** iz. bazka <Comida de los animales>. *Txerrien bazka iten ginue egunero.// Bazka irinekin te patatakin iten ze, ogien irinekin te patata, ederki yoik ta nasik.// Gero botatzen zekio an o garie o artoa, bietak pat, ta ola gizentzen zire* (Lin).
- bazkaldu:** ad. bazkaldu <Almorzar, comer al mediodía>. *Bazkaldu ta bioron artio eon gine* (Mez).
- bazkari:** iz. bazkaria <Comida>. *Bazkarie eiten tzion ta gero afarie ta dena* (Lin).
- bazketan iduki:** ad. abereak bazkatan eduki <Pastar, alimentarse>. *Gure ardiek bazketan dauzkigu Sorogañen.// Erematen zitue bazketara ta izeiar zitue leku batzuk xarmantak* (Mez).
- bazko, pazko:** iz. Bazko egunak <Pascuas de Navidad>. *Bazkotan iten ginue festa oyek*

- (Mez) // *Bazko egunian biltzen gine. Pakuan yoain gera mezara (Ilur).*
- bazte:** ik. basta.
- bazter:** iz. bazterra <Extremo, esquina>. *Benikarlo itsaso bazterrian dago (Lin).*
- bazterreko:** iz. bazterrekoa <Madero grande que se pone a un lado del fogón>. *Bazterrekoat paratzen gindue eta egun anitz izeten ze (Mez).*
- bazterretxe:** iz. bazterretxea, baseria <Caserío>. *Batzanen bazterretxe anitz dire (Lin). // Pello ure ezkondu ze bazterretxe batera // Bordak deitzen zire aziendeki usezen zire goyek, bertzeak bazterretxeak zire.*
- bear:** ad. behar <Deber, tener que...>.* **bearrago:** *Oray duzu zuc bearrago conformidades au, eritasun grave ontan (Erro)* ***izeñiar:** izan behar. *Mezkiriten ere izeñiar du bat famosoia.* ***iniar:** egin behar. *Eritisunekin ze iñar tzue.* ***pastiar:** pasatu behar. *Andik pastiar tzue, ta andik pasteko ardiakin etzeike pastu orduen gizon gau igortzen tzue orrra ta atratzten balin beze bidetik pues denuntzietzen zute.* ***joañiar:** joan behar. *Nik kanpora joañiar nue.* ***torriar:** etorri behar. *Torriar zindue, gaba galdko zindue zure gustora, baño tortzen gine bai jeneralian argitu beño len etxera.* ***ofiari:** egon behar. *Oñiar zindue an iruzkiera lanian.* ***sartiar:** sartu behar. *Sartiar tzindue belar ure.* ***ukitiar:** ukitu behar. *Lenago ezta ekibokatuik ere etzindeko ukitiar neska batei.* ***aitiar:** aritu behar. *Musian aitiar gindue.* ***bearrikeko:** beharrekoa. *Orduan dotea eman bearrikekoaene abuelai (Mez).* ***bearrez:** adlag, asmoarekin <A fin de, con el propósito de, pretendiendo, empeñándose>. *Eta berce itcic errateco biocic errateco biocic ez izanez eurtiqui ciceion lurrera oiñac adoratu bearrez (Erro).*
- ***bearretan:** adlag, behartua <Con necesidad>. *Zertako eduki bear duzu bearretan?*
- bearbada:** adlag, menturaz, agian <Quizás>. *Biarbada torriko dire aurrek (Mez) // Bearbada norbait aprovechatuco da (Erro).*
- beari:** ik. biarri.
- bearrik, biarrik:** adlag, eskerrak, zorionez <Más vale, menos mal que...>. *Orai bea-*
- rrik in baitute etxe goi, bertzela... Bearrik ezginela sartu lezartan (Lin).*
- beartu:** ad. behartu, beharra izan <Necesar, verse necesitado>. *Gu beartzen garelaik, ez tugu sosik izain (Mez).*
- beatu:** ad. behatu, begiratu <Mirar, observar>. *Beatu biar dut labia orai (Mez).*
- beazun:** ik. berazun.
- bedeikatu, bediketu:** ad. bedeinkatu <Bendecir>. *Bedeicatua andre gucien er-tean (Erro). Ba, altziñéko urtean egiten zuzten bediketu (Zil).*
- bedere, bederen:** adlag, segurik, bederen <Por lo menos>. *Baño ez badire aski, biletzen dire pionak ordainka bedere (Mez, Per). Sin. sorik (Irag).*
- bederen:** ik. bedere.
- bediketu:** ik. bedeikatu.
- bedratzi:** zenb. bederatzi <Nueve>. *Bedratzi ilabetez depositacen cela andre gonen sa-belean (Erro).*
- bedratziurren:** iz. novenario <Nueve misas y nueve rosarios en honor a los difuntos que se sacaban a los días siguientes de morir>. *Bederatzi urrenean elize betea izeten da, ez dute niorek ere meza oyek utziko entzun gabe.*
- bedratztitan egun:** zenb. bederatzirehun <Novecientos>. *Bedracitan egun urte ba-zuen, Eva triste arrec negar eguiten zuela bere becatuaz (Erro).*
- begi:** iz. begia <Ojo>. *Bi begiek baño gehiago ikusten dute lauek (Mez, Intza).*
- begietan artu:** ad. gorrotoa hartu <Odiar o co-ger manía>. *Begietan arru dio (Lin).*
- begi gaistoa bota:** ad. begiz jo <Echar mal de ojo>. *Edo uste dutelaik begi gaistua bota diotela bere aziendan.*
- begigorri:** iz. eta izond. begi gorria <De ojos enrojecidos>. *Zenbaitzuren edateuntelaik patzen zaizkote begiek gorrituik, orduen ori de begigorrie (Mez).*
- begilun, beilun:** izond. begi ilun <Dícese de la persona de mirada triste>. *Oso beilune da gizon ure (Mez).*
- beginakur:** izond. begi makur <Bizco>. *Beginakurre izein de ori (Lin).*
- bei:** iz. behia <Vaca>. *Gure beak estrabilian dire (Mez)** **bei esnatzun:** iz. behi esnatzuna, esneduna <Vaca lechera>. *Bei esnaz-*

- tunek ginuze, baña kendu ginuze.** // *Esnaztune balinbeda ta balin beda Pirineo edo oyetakoia inen dizu aratxe xar-manta.* ***bei idor:** iz. behi idorra, behi le-horra <Vaca que tiene poca leche>. *Bei idorra balin beda, aratze ori egoi de beti miserien ta ezta bertzea bezala inen sekule.*// *Bei idorra da esnetako idorra dena, ta berdin emañiar diozu yatera, ta bertzeatek emain dizu irabazi geago.** **bei kaka:** behi-kaka <Excremento de vaca>. *Beikaka on-garri ona da* (Mez). ***bei nabar:** behi na-barra <Vaca holandesa, blanca y negra>. *Bei nabar oyek olandesak dire* (Mez).
- beidatu:** 1. ad. begiratu <Mirar> *Beidazacie, erratenciole, legue sandugau dela zuen ia-quintasun gucia* (Erro). *Eta Jesuchristo ei-llegatu celaic pare parera beidatu cion, eta erracion* (Erro)// *Beidazacie, erratenciole* (Erro)// *Sorginak labe atarie edeki zue eta labarnera beide zegolaik* (Mez, Per). 2. zaindu <Cuidar>. *Ainguiruec eta justoeic icusten eta beidacen diotela* (Erro).
- beilun:** ik. beginul.
- beikorle:** ik. baikorle.
- bein bet:** adlag. behin batez <Una vez, en ciertoa ocasión>. *Bein bétez Biskarréten bestetan* (Lin).
- beiratze:** iz. begirada <Mirada>. *Ongui asqui publicacen dute zure beguien beirace infame oyec* (Erro).
- beitegi:** iz. behitegia, ikulua <Cuadra de vacas>. *Beitegien daude gure beak* (Zil).
- beití:** adlag. 1. behean, beheko solairua <Planta baja, abajo>. *Edozein lan ta iten tzen kanpóan ta etxéan ta...estrabilen ta beiti*// *Ura gelditu zen bétian ta eiten zen orma* (Eu). 2. beheiti <Hacia abajo>. *An dabile, goiti ta beiti, egun guzian.*// *Ta in zue beittiotik, beitio ta an atra zue* (Mez).
- beitialdeko:** adlag. behe aldekoa, hegoaldekoa <De abajo, de los pueblos del sur>. *Aita ze beitialdekoa, Urroz ondokoa, erdalduna* (Zil).
- beitixko:** adlag. behetixko <Bastante abajo>. *Botatzen zire animeliak ta juaten zire bei-tixko.*// *Non goartzen garen an beitixko zi-rela senarremaziak.*
- bekainilun:** izond. bekailuna <Persona seria>. *Ori nexka bekainilune* (Mez).
- bekatu:** iz. bekatua <Pecado>. *Adanen eta Eavaren becatua cela medioz* (Erro).
- bela:** iz. gauean helduei eta gazteei ematen zi-tzaizkien eskolak, egunean zehar lanean zeudelako. <Escuela nocturna>. *Aurrek belara yoan dire* (Lin).
- belai:** iz. belaia <Terreno verde, de pasto>. *Gure ardiiek belai artan dire* (Lin). // *Erramu igande goizean bedeikatzen dire erramuak edo elorriak eta hoien egurrekin gurutzeak egin eta belaietara eta alorretra-ra* (Mez, Per).
- belarketa:** iz. belar bilketa <Operación de recogida de hierba cuando a alguien se le había quemado la casa>. *Belarketa yoaten zire etxez etxe.*
- belarrazi:** (Erro). ik. belazi.
- belarxilo:** ik. belarzilo.
- belarzilo, belarxilo:** iz. belarzulo <Agujero para verter hierba del pajón a la cuadra>. *Belarzilo arekin kaso in biar tzinduen*// *Belarzilo erraten diote kortxillari* (Zil), (Auz). Sin. kortxila.
- belatxa:** iz. belatxa <Corneja>. *Negu sartzian belatzak tortzen zire onata, emen badire orreak ta oetan tortzen* (Lin).
- belaurikatu:** ad. belaunikatu <Arrodillarse>. *Oficiale eta soldado guciec velauricaturic adoratu zute Jesucristo Crucificatuain Imagena* (Erro).
- belauriko:** adlag. belauniko <De rodillas>. *Sepulturain ondoan belaurico iarriric* (Erro, Irag).
- belazi, belarrazi:** iz. belar-hazia, belazia <Simiente de la hierba, que se desprende después de recogerla seca>. *Belazi oyeten ibiltzen zire ollo oyek* (Mez).
- beldurtasun:** iz. beldurra <Miedo>. *Abranen fedea, Isaquen beldurtasuna, Jacoben perseverancia* (Erro).
- belezar:** iz. belea, belezaharra <Cuervo>. *Belezar oek beti emen ingurueng egoten zire* (Mez).
- beltzadura:** iz. beltzadura <Moreno>. *Etze po-llita iruzkia in beltzadura* (Mez).
- beltzarán:** izond. beltzarana <Moreno>. *Beltzarán ez paratzeko aurpegia estali egi-ten ginue iruzkira ateratzean* (Mez, Per).

Bentarra: Mezkirizko etxe izena. *Bentarrañan zago nausie* (Mez).

benturetu: ad. benturatu, ausartu <Atreverse, aventurarse>. *Enitez benturetu tortzera, an gelditu nitze* (Lin) // *Ezkibela da ez dena benturetzen yendiaikin* (Lin).

beor: iz. behorra <Yegua>. *Zaldiek, an laxoan beorretarik berexite* (Eu).

beorrue: ik. ure.

beraiek: izord. beraiek, haiak berak <Ellos mismos>. *Ardie ezniote paratzen izena, baña berayek konprenditzen zirete zer nai nuen nik* (Lin).

berandu: ad. berandutu <Tardar>. *Berandiko da erikitzea, beño ori da denbora erikitze-ko* (Mez). * **berandu ontan:** adlag. azken honetan <Últimamente>. *Orei berandu ontan asite dire* (Lin).

berant: adlag. berant, berandu <Tarde>. *Yoain gara berantago gu zure etxera// Torri ze berant// Bertze etxia da berant ine* (Mez)
* **beransko, berasko:** adlag. berandu xamar <Hace no mucho tiempo, tarde>. *Fidel arrek oraño beransko erikitzen tzue artoa// Beransko kusi tut nik iretze metak emen// Etxera etorri zitzego Justa, berasko il zen ure re* (Lin).

beranta: izond. beranta, berankorra <Tardío>. *Patata berantak landatu tugu.*

berantenik: adlag. beranduenik <Lo más tarde>. *Emen inguru guzietan denetan berantenik* (Lin) // *Ardaitzen paratu ze argie* (Mez).

berantetsik: adlag. berandutua, luzetsi <Impacientarse porque alguien llega tarde>. *Non egon zara? Arrun berantetsik nago.*

berantian: adlag. azken honetan <Últimamente>. *Berantian saltzen tutze leku ontan azie, eztute baboxaik ekartzen.*

berarrek: izord. berarrek, berak <Él mismo>. *Olaxeiko azazkalak zituen zangotan, ta etze balio berarrek mozteko// Berarrek ez presatzeagatik, pastiko zuen miserie.// Berarrek erran zire.* **berarren:** izord. berarren <De su misma>. *Claro dago dela desprecio andi bet berarren magestadeai iten zaiona* (Erro).

berasko: ik. beransko.

beratz: izond. 1. koldarra <Cobarde, que no da la cara>. *Gorki beratza da gizon goi. 2. sentibera, samurra* <Blando, sensible, tierno>. *Ez tuena baloreik beratza da// A ze beratza dagon ori!/ Cein itz berachac erraten bide citioten* (Erro).

beraxilo: ik. belarzilo.

berazun, beazun: iz. behazuna <Hiel>. *Beazune badugu gorputzan, barnean* (Mez).

berdate: iz. berdatea, zomorroen kontra egiteko landareei ematen zaien ur berdea <Sulfato que se le echaba al trigo para matar los insectos>. *Gariai botatzen zekio berdatia, ori ze olako errauts bet berdia* (Lin) // *Garie erikitzeko iten ze lemixi garbitu, gero paratzen tze mownton batian, gero botatzen tzioite ureikin berdete oi, ta ederki nasi ta biramonian eraiki kanpoan* (Mez).

berdatu: ad. berdatu <Reverdecer>. *Sagoiak berdatu dire arrunt.// Berdatzen tzelaik guk urdindu iten ginue* (Mez).

berdel: iz. muskerra <Lagarto>. *Orai ezta berdelik ikusten* (Lin). Sin puzker, puzker berde, musker.

berdin: adond. 1. agian, behar bada <Tal vez, quizás>. *Berdin batre ibili gebe, segun non zen alorra, lantzen tzindue berriz brabakan* (Mez), (Lin) // *Berdin, biorrak ezin geldieziz zaldik erabilten bazinue, maten tzi-re astora, ta andik tortzen tzire mandókoak* (Lin). 2. berdin <Igualmente>. Egun on. Berdin. *Berdin* (Eu, Mez).

berdindu: ad. berdindu <Igualar, alisar una superficie cubierta de mortero o yeso>. *Zolak berdintzen zirelaik, zolaerdiek maten ginezko.*

berea: izord. berea <Propio>. *Nork berea bere, moro-errrian ere.* (Mez, Intza) * **berena:** berena, haiena <De ellos>. *Sartzen dire arara etxe gibeletik ta berena da altzinian* (Lin). * **beretik:** adlag. beretik <De por sí>. *Pasten da...beretik eztu edañiar ta fumetiar, baña edaten du ta gero bidian erortzen da* (Lin).

berean: adlag. bertan, berean <En el mismo>. *Lenago Erron berian bazire lau edo bortz borda, ta ayetan bizi zire familiek.// Emen ortan berian ni uskaras abituta itz bat ere etzekiten* (Lin).

- bereartan:** adlag. 1. han berean <Allí mismo>. *Bereartan dago amatxi. 2. <Así mismo, en tu misma posición>. Oyek bereartan goin dire beti.* ***bereartaik:** <De sus posiciones, de lo suyo>. *Yendiak badire ite untenak berartaik etaizkenak atrazi.* ***bereartara:** han berera <A su ser natural>. *Akorritu da torri berriz bere artara.*
- bereixi:** ad. bereizi <Separar, discriminar>. *Bereixi biar tugu ongi alubiek (Mez).// Ez bereixteatik bat ere artzen diegu denoigie, batei ta bertziai.*// *Erran zute berexi zirela senarremaztiak (Lin).*
- beren:** izord. beren <Su, de ellos>. *Bidian zezileik beren ertean yardukien, ta mandoai erremala moztu ta joaten tzire alde betera ta berzia bertze aldera.*
- berendatu:** ad. berendatu <Merendar>. *Berendatu ta neska aekin an yantzan, ola-xe pasten ginuza zortzi egin (Mez).*
- berendu:** iz. berendua <Merienda>. Artzayak berenduekin joaten tzirenak erematen zute bertze olatua oi (Lin). // *Berenduteko kartzen zute olatua ayek (Lin).*
- berla:** adlag. berehala <Enseguida>. *Imagena bordatuic cegona Aita Sanduain bandera, verla salutatu zue Armada guiac arequin (Erro).*
- beroiek:** izord. beraiek <Ellos mismos>. *Beroyek joaten dira eta Lanroberrian ien ta tzakurrek ematen tuzte ardiek. // Denendako bazuzte faltak ta beroyek ez-tute... ya, ya (Mez).*
- beroki:** iz. berokia <Lugar abrigado>. *Beroki da au, ta bertze alderdi goi ospela. // «Norata eguzki arata beroki».*
- berorika:** iz. berorika, cortesiazko tratamiento <Tratamiento de su señoría. Registro utilizado con personas a las que se les debía mucho respeto, como abuelos y cura>. *Amatxi eta apezari berorika egiten ginue (Mez, Per).*
- berorreka:** izord. berarrek <Él mismo>. *Berorrek biar du prestatu yatekua yañiar badu (Mez).*
- berotasun:** iz. berotasuna <Celo de la oveja>. *Ardien berotasuna (Lin).*
- Berregu:** Mezkirizko topónimoa.
- berregun:** zenb. berreun <Doscientos>. *Berregun pezta kostak zekire ori itea.*
- berri berriten:** adlag. berri berritik <De nuevo>. *Euskeria galdu de ta orai biar du asi berri berriten (Lin).*
- berriki:** adlag. berriki, azken honetan <Nuevamente>. *Ori berriki in tzen (Mez).*
- berrogei:** zenb. berrogei <Cuarenta>. *Ta bizi zu gara berrogeitar urtez elkarrekin (Eu).*
- bersuke:** adond. bertsoka <Haciendo versos>. *Anayak bersuke asten zire, bat bertzeai asten zire (Lin).*
- bertute:** ik. birtute.
- bertze:** izord. beste bat <Otro>. *Ta geo... geunden bátian belarrétan bertze atzutan ártoa ta patata ta ayek yorratzen (Eu).*
- bertze batzurek:** izord. beste batzuk <Otros>. *Bertze batzurek erraten zirete, goaye alako lekure.*
- bertze gañerakoan:** junt. beste gainerakoan, bestela <De lo contrario>. *Bota cezatela ixasora, berce gañeracoan guiac galduac cirela (Erro).*
- bertze gisen:** adlag. beste gisan, bestela <De lo contrario>. *Arbole bat balin bedago zutik emen zuzen-zuzena bearduzu ekendu emendik patozkat, bertze gisen, balin beda makurre, askiuzu gutiagokin. Sin. bertzelas (Lin).* ***gisa bertzean:** beste gisa batean. *Guisa bercean barcacen diozute zuri ofenditu dituzuney (Erro).*
- bertzealde:** ik. bertzealdera.
- bertzealdera, bertzealde:** junt. bestalde <Por otra parte>. *Bertzealdera adine...ta anitz gauz etzaket oroitu.*// *Bertzealde alkate nitez denbora aetan (Mez).*
- bertzelas, bertzenas:** junt. bestela, bertzela <De lo contrario>. *Aziendek ori yateko etute bertzetik izañiar, bertzelas uzteute aise (Lin).* // *Gabas ibili bear tzinen, bertzeenas... Sin. bertze gisen.*
- bertzenas:** ik. bertzelas.
- bertzoat:** izord. beste bat <Otro>. *Akabatzen zelaik, bertzoat.* ***bertzez:** beste batzuetaz <De otros>. *Ni enitze egon baña aitu nue bertzez.* ***bertzerik:** bertzerik. *Ogei urte nittuelaik asi zen gerra ta ez nue bertze erremediorik izen joan berzeik (Lin).*
- bertzun:** iz. bertzuna, supazterreko errautsa biltzeko burnia <Pala para recoger la ceniza del horno o del hogar>. *Gure bertzuñearrun zarra dago (Mez).*

- berure:** izord. berarrek <Él mismo>. *Berure ari balin beda beti yardukien ta eztizu uzten zuri yardukitzera... (Lin) // Orduen berure re, mandoure re etzeike balietu nai zuen bezala ta orregatik zeditzen tzue, domáteko (Lin).*
- besana:** iz. besana <Pañuelo al cuello>. *Besana paratu neko nik (Mez Per).*
- besanga:** iz. besanga, zuhaitz handi baten adar handienetako bakoitza <Rama gruesa de los árboles>. *Arbole batei kentzen zaiolaik puskat adarretaik, ori de besanga (Lin). «Sobrenombre dado en Mezkiritz a una joven que tenía las piernas largas».*
- besapea:** iz. besapea <Sobaco>. *Besapen kartzen zitue orrek abarrak (Lin).*
- besapeka:** adlag. besapeka <Bajo el brazo>. *Besapeka bota du pilotu (Mez).*
- besarka:** iz. besarkada <Abrazo>. *Besoetan iduquicea eta besarca ematea (Mez).*
- beso:** iz. besoa <Brazo>. *Bésoak ta anka lúziak mutiko arek (Mez).*
- besoetako:** iz. besoetakoa <Padrino o madrina>. *Bere besoetakoa da ori (Mez).*
- besomotz:** izond. besomotza <Manco>. *Gizon besomotz orrek erran zire (Lin).*
- besta, festa:** iz. 1. festa, jaia <Fiesta del pueblo>. *Bestara juntetzen ze yende anitz. // Eugitik torri bestetaik ta ostoirera (Lin). // Festetan kartzen baitutze tiroetarak... (Mez). 2. laztana <Caricia, mimo>. Nik galdera gisa guziek aizi gine aite eta amain besta guziekin (Mez, Per).*
- bestak in, festak in:** ad. festak egin, laztanak egin <Acariciar>. *Zakurrari iten tiot nik bestak (Mez).*
- bestale:** iz. besta egilea, festazalea <Juerquista>. *Bestalea da festa gustokoa duena (Lin).*
- bestondo:** iz. besta egin eta biharamuneko ez ongia <Malestar que sigue a los días de fiesta>. *A ze bestondo pasten ginue guk! (Mez).*
- betagarri, betegarri:** iz. betagarri <Leña que se echa a la carbonera>. *Botatzen ginue betagarrie palaikin (Lin). // Ziletzen delaik nondikbeit, sutan dagolaik, kentzen zayo lurre ta egur trozoekin betetzen dako zu ureta berriz paratu ori ta tapatu. // Petik asten zara iten dazkozu ziloak (Mez).*
- betegarri:** ik. betagarri.
- beti ere:** junt. beti ere, dena dela <De todas maneras>. *Beti ere aiekilik daude biek (Lin).*
- bez:** adlag. beza, aginterazko hirugarren forma. <Tercera. forma del imperativo>. *Zenbaitzuren erraten zute aita edo ama balinbeze, arbez! (Lin).*
- bezain:** part. bezain <Tanto como>. *Gizendiar tzena iltzeko etxian, maten zion yatera al bezain ongi, obeki.*
- bezanbat:** part. bezainbat <Tanto como>. *Ta olaxen eztire erretzen lenago bezanbat etxe.*
- bezenbatez:** part. bezainbatez <Partícula comparativa de igualdad que expresa cantidad>. *Gure Jauna guizon den becenbatez izan zela concebitua. (Error)*
- bezko:** iz. bezko <Caldera del fogón>. *Bezko yartzen ze egunoro suen (Lin). // Primonian bazute bezkoat andie, Frantzietik ekarrie Sorogaingo Pablok ta Juanpedro arek aldizke (Lin). // Primonian baze bezkoat, animeleko bezkoia (Lin).*
- bezpera:** iz. bezpera <Víspera>. *Ta gero Korpus Kristi bezperan pastu zitzeide neri ameka ilabete pastu nituen (Mez).*
- bezperain bezpera:** iz. bezperaren bezpera <Antevíspera>. *Festa bezperain bezperagokoan ta ola, karriken ta garbitesun puxket in ori iten da, bertzeik ez (Mez).*
- beztitu:** ad. jantzi <Vestirse, dotarse, revestirse>. *Arrek eztaki beztitzen. // Emen beztitiar bazute bruseikin iten zute ni aurre nitzelaik, bruse beltzak, ta gero ferietan ta joaten bazire tratanteak eta denak brusekin zire. // Beztitu zuela andre gonen anima bere gracia, virtute eta privilejioequín (Error) // Bi neskatxa xuriz besti edo aingeruz beztii (Mez, Per).*
- biar:** iz. beharra <Necesidad>. *Biarra balin beduzu yain duzu dena. // Biar andie pasten ari dire. // Yende bearrik eroa iduri ‘Bearrik eta goseak, egingo ez liraken gauza asko eragiten.’ (Mez, Intza). Paratu nue bei bet, ta gero bear nue bertze bei bet buztertzeko, gero buzterrie, ta gero karroa, olaxe joanitzue beztituz dena.*

- biarrangil:** iz. belarritakoa <Pendiente>. *Etzuzke biletu non zeude biarrangilek (Lin).*
- biarri, bearri:** iz. belarria <Oreja>. Ardiek *biarriean oxkat izeten zuten. // Barii batetik sartzen zaio, ta bertzetik at(e)ratzen.* «Atzenkorraz, edo esaten zaionaz axolik ez duenaz». (Mez. Intza).
- biarrik:** ik. bearrik.
- bibirixko:** iz. bibirixkoa <Gemelo>. *Ardi batetik bibirixkoak in tu (Lin). Sin. bibiro.*
- bibiro:** iz. bibiroa, bixkia, bikia <Gemelo>. *Bibiroak izen zitue andre orrek (Mez). Sin. bibirixko.*
- bibote:** iz. bibotea <Bigote>. *Ta maztiak... bibotiar izain tu arrek, gaztetik bazitue (Lin).*
- bida:** zenb. bi, bide <Dos>. *Bat, bida, iru... (Ai). Sin. bide (Gutxi erabilia)*
- bide:** 1. iz. bidea <Camino>. *Inocencieco bidea, da guciz suavea eta alegrea (Erro). // 2. zenb. bi <Dos>. Zenbat karri du? bide. Zenbat aurride zinete? Bide.// Bide gastatu ttugu.// Bide saldu dire emen, bi etxe zar (Lin). 3. part.: omen, bide <Probablemente>. Consolatu bide zen Eva tristeau// Joan bide zen lasterca (Erro).// Ayek ere ze gaba pastu bide zuzte elkarrekin.*
- bideje:** iz. bidaia <Viaje>. *Zenbait bideje iñi tauzkigu (Lin).*
- bidenabar:** part. bidenabar, bide batez <Mientras tanto, de paso>. *Aldi betez, emen baze mutikoat ardiekin bidenabar, egun te ogei sator arpatzen zituen urtian (Lin) // In tzazu zuk au ta nik inen dut ori bidenabar (Mez) // Lan goi lanian bidanabar ien ginue (Mez).*
- bider:** 1. part. bider <Dos>. *Bider o iru urte-taik (Lin). *bider o irutreituz:* <Dos o tres veces>. *Bider edo iru egunen buruen (Lin). 2. iz <Vez>. Sei bider kilo pisatzen nitue ta enuzke zapetak laztu. Bider o irutreituz gastatu zute animeleko sosa ta eztute konsegitu ja (Lin).*
- bidexka:** iz. bidexka <Caminito>. *Bidexka da yendia ibiltzen den bide titkie.*
- bidezenda:** iz. bide-xenda, bidexka, bide-zidorra <Sendero>. *Bidezenda ortaik abietzen gine egunoro.// Oyan batera izeten al da bidia karroindeko, ori ezta bidexenda ber-*
- te lekuetatik ibiltzen da yendia ta bidezen- da da ure.// Argi kebe badakizu zuk erriko bidezenda guziek ta bazailte trankil.*
- bieli:** ad. bidali <Enviar, mandar>. *Bieli tut au- rrek etxera (Mez).*
- bier:** adond. bihar <Mañana, el día siguiente>. *Ikusiko gara bier (Ilur).*
- bige:** iz. biga <Novilla de más de 8 meses>. *Emea balin beda ta altzineko utziar balin beduzu, andik goiti da bige, ta gero denboratez ellegatzen delaik bider o iru urte edo- la erditzena, orduen zayo bea (Mez).*
- bigo:** iz. bigoa <Sarde de dos púas>. *Bigoaikin ibiltzen ginue belarretan (Lin).*
- bil-bil:** esam. <Expresión utilizada para reco- ger a las abejas>. *Bil, bil, apal, apal, apal. (Mez).*
- bilatu:** ik. biletu.
- bilazi:** ad. bilerazi <Hacer reunir>. *Bilazi biar tugu seme guziek igendean egoteko (Mez).*
- bildots:** iz. bildotsa <Cordero>. *Bildots anitz izeten zute etxe artan (Mez).*
- bilerrozi:** iz. bilerrozia, txekorra <Ternero de uno o dos años, macho, castrado para ser buey>. *Iten delaik urte beteko edo bi urte- koa edola osatu ta da bilerrozia (Lin). // Orai dela urte multxuet Ariben izeten ze merkatue, orduen tratantiak tortzen tzire ta erematen zute emendik oñez pileka Barrrankara ta orrata bilerrozi oyetaik, ze Barranka ortan izeten tzuzte bi idi pare etxe bakarian (Lin).*
- biletu, bilatu:** ad. bilatu <Buscar>. *Biletu dugu alde guzietaiak ta eztugu aurkitu. // Entxufear bezala biletiko ziela (Lin). // Zure medioz bilatu dut galdu nuen gracia (Erro). *bileka:* adlag. <Buscando>. *Gau guzien bileka pastu zute.*
- bilgor:** ik. bilkor.
- biligerro:** iz. biligarroa <Malviv>. *Paratzen tzitue lazoak biligarro ta zozo ta oyendako (Lin).*
- bilintxi-balantxa:** iz. zabuka <Tambaleán- dose>. *An zebilen bilintxi-balantxa (Mez).*
- billabirjine:** iz. billabarkine <Berbiquí>. *Lenago zire ola, emen buru betekin ta ola iten zire (Mez).*
- bilkor, bilgor:** iz. bilgorra, urin gazzkabea <Manteca>. *Bilkor ure gordetzen ginue el-*

- tze andi oetan.**// *Artzen ginue olio xortat nasik bilgorraikin* (Lin).
- bilkorreztatu:** ad. bilgorreztatu, bilgorrarekin gantzutu <Untar con sebo>. *Lenago zapeta iten tzire bilkorreztatu* (Mez).
- billur:** ik. bilur.
- bilo:** iz. ilea, zerrí, zaldi, ahuntz edo zakurraren ere bada, pertsonarenaz landa <Pelo> (Mez, Lin, Irag). *Jateko artan beti arpatiko zinue bilo zenbait, ure ze andre zikine* (Lin) // *Guk erraten duu: bearrie, agoa, begiek, sudurre ta biloa* (Lin). ***bilo tzizpur:** ile kizkurra <Pelo rizado>. *Bilo tzizpurre du nexka orrek* (Mez) ***bilo zuri:** ile zuria <Canoso>. *Bilozurie izeten dute zartzen delaik* (Lin). ***bilo puntezka:** ile ten-tea. *Biloa puntezka paratzen tzute* (Lin).
- bilo mozta:** ilea moztea <Corte de pelo>. *Urtetik urtera eun pezta ieten du bilo mozta*. ***biloan gañean erabili:** zaldi gainean jarri <Montar sin montura, a pelo>. *Bai erabili gara biloain gañean ienik, ta Orzagotik ta erriraño tortzen ginen galopen* (Lin).
- biloztegi:** iz. biloztegia <Corralito pequeño para los corderos>. *Ardiendako korrale txarra da biloztegie*.
- bilur, billur:** iz. bilurra, begizta-moduko loka-rrria, ogi-bala lotzeko erabiltzen dena <Atadura hecha de ramas utilizada para atar los fajos o para fabricar nazas para las abejas>. *Paratu biar zindako bilur oi ongi eremateko* (Lin) // *Bilurre da zumia biurtute gelditzen da ola, orduan bertzeat sartzen diozu emendik ta iten duzu igual* (Lin).
- biluxik, buluzik, bulutsi:** izond. biluzik. *Biluxik sartzen gine ugeldian.*// *Buluxi yartzen zire oyek ugeldian.*// *Ian zuten bezain laster guelditu ciren bulussiric* (Erro). // *Bulutsik dago* (Mez).
- bilux gorrien:** adlag. biluzgorritan, biluzik <Desnudo>. *Bilux gorrien zegon, arropai kebe.*// *Orai eztu yausen falta egiten bilux gorrien kusteko* (Lin).
- bioka:** iz. behoka, behor gaztea <Potranca>. *Bioka bat erosi biar dugu* (Mez) // *Bioka da emia, biorra da bior ine ta bioka arek bezala izeteko biar du bizpiru urte* (Lin). Sin. xaldie.
- bior:** iz. behorra, zaldiaren emea <Yegua>. *Biorrak zaldire bildu biar tugu* (Irag).
- biorjende:** iz. behorra, ganado caballar <Yeguas en general>. *Biorjendei karretera bazterreko belarra, errautse baitu anitz gustatzen zaikote* (Lin).
- biortxa:** ik. biortza.
- biortza, biortxa:** izond. bi hortza dituen ardia <Oveja de dos años>. *Bigarren urteko atratzten zaizkio bi palak, orgatik erraten da biortxa* (Mez). Sin. biortzoko.
- biortzeko:** iz. bi ortzekoa <Oveja de dos años y dos dientes>. *Biortzekoak dire bi urteko ardiek.*// *Ta erran tzeko etzakela utzi era-matera biortxeko oi* (Lin). Sin. biortza.
- biorzai:** iz. behorzaina <Yeguacero>. *Biorzai bet idukitzen ginue etxian.*// *Biorrendako bertzeat izeten ze: biortzaia* // *Aski aurra nitzelaik izeten zela uneia eta biorzaña* (Mez).
- biramon, miramon:** adlag. biharamonean <Al día siguiente>. *Biramun goizian torri ze gure seme zarrena.*// *Ezpazute akabatzen... lemixiko egunian, pues, miramonian, otravezian, ta akabo!* (Ilurd).
- biramonagokoan:** adlag. bi egun barru <Al cabo de dos días>. *Biramonian o biramunagokoan torri zire oyek* (Lin).
- biribil:** iz. eta izond. borobila <Redondo>. *Biribil aetan yartzen zituzte ezpalak* (Lin). // *Eje bat biribile zue* (Lin) // *Arotzak lau puske iten zitue biribil oekin*.
- birika:** iz. 1. birika <Pulmón>. *Biriketan bala sartuik, eman tzuten urjentzieta* (Lin). 2. tixerriaren birikarekin egindako hertze-kia <Especie de longaniza hecha con los pulmones cortezas y restos más inferiores del cerdo>. *Txerriltzea iten ginuelaik birikak iten ginuze* (Lin).
- birle:** iz. birla <Bolo>. *Boloetan aitu dut birlekin yostatzen zirela* (Mez, Per).
- birrun:** (Ai) ik. burdin.
- birtute, bertute:** iz. birtute <Virtud>. *Ezdezoque aprovechatu becatariei Sacramentuec, bertuteic gabe, eta ain guti virtueac Sacramentuic gabe* (Erro).
- bis-bis, biz-biz:** esam. 1. piza egin <Voz con que se incita a los niños a orinar>. *Bis-bis in eta guatzera* (Mez). 2. <Expresión para

- recoger la abejas, se les llamaba pegando dos piedras entre sí>. *Bis, bis, bis!* (Erro).
- bisai:** iz. aurpegia <Cara>. Zangoak, eskuek eta bisaia garbitzen zute San Juan egun lenbiziko tenorian larrua garbia izeteko (Zil).
- bisita in:** ad. bisita egin <Visitar>. Bestónduan, setiembrian, setiembre erdialdera edola gon ginен kustera bera, bisititen (Eu).
- bisoseko:** iz. bisosekoa <Moneda de dos céntimos>. *Bisoseko bat ematen balin bazizute, boxik yartzen zine* (Lin).
- bistatik:** interj. nola ez, jakina! <¡Cómo no!>. *Abratsak dire oyek bistatik!* (Lin).
- bisten egon:** ad. agerian <A la vista>. *Serio ez daike izan gaztea delaik bat!* Bear du irrie bisten (Lin).
- bite:** ad. <¡Mire Vd.!> (Erro, Azk. Eransk).
- bitertio:** adlag. bitartean <Mientras>. *Ure fumetu bitertio, asten zire iñalaki eztulka* (Mez). // *Andre goi beti egoten ze etxian, bitertio bertze goi propie ze ta atratzzen ze yago* (Lin).
- bitika:** iz. pittike.
- bitreituz:** adlag. bi edo hiru aldiz <Por dos veces, por partida doble>. *Bitreituz esposatu zire lengusuen ertian, ta torri zire gero odolez pobreak* (Lin). // *Gero joan zaide bitreituz zangozolako larrue* (Lin).
- bitriola:** iz. vitriolo. Cf. Voc. Nav <<Mitrula o nitrola. Nombre que dan al sulfato de cobre con que rocían el trigo de siembra>> (V. de Ero). *Berze batzuek baliatzen dire bitriolaz, hur arrosatuarekin batean Mong. 592* (OEH)
- biurdure:** iz. biurdura <Retorcimiento>. *Erori ta biurdure in du* (Lin).
- biurgune:** iz. bihurgunea <Curva>. *Biurgune artan erori zen* (Lin).
- biurtu:** ad. bihurtu <Retorcer>. *Biurtu ongi trapu ori* (Mez).
- bixardeko:** iz. bi sardekoa <Horca de dos púas>. *Bixardeko utzi dugu estrabilian* (Mez).
- bixer:** ik. bizer.
- bixte:** iz. dirdira <Brillo, hechura>. *Zuk tuzu bixte obea ni peño* (Lin).
- bixtu:** ik. biztu.
- biyemeneko:** adlag. biaramunerako, hurrengo egunerako <Para el día siguiente>. *Asten dire ta biyemeneko nekatu iten dire eta eztie joaten yaus* (Lin).
- biz-biz:** ik. bis-bis.
- bizer, bixer:** iz. 1. muxarra <Lirón> *Bizer anitz artzen zuzten Ligezta alde artan* (Mez). 2. bizarra <Barba>. *Bizerra moztu du mutiko orrek* (Lin).
- bizerduna, gari bizerduna:** iz. gari bizarduna <Clase especial de espiga de trigo>. *Emen erekitizen ze garie, jeneralian tze bizerdune.*
- bizerzilo:** iz.izar-zuloa <Agujero de lirones>. *Bizerzilo ayetan egoten zire bizerrak* (Lin).
- bizi, bizitu:** ad. bizi <Vivir>. *Nola dago? ez ilta ez bizi.* «Norbait urritsu dabilela adierazteko»// *Nola in, ala fin. Nola bizi ala il.* (Mez. Intza) // *Emen bizitze zen zure etxea den orretan, ezkondu ze leenik Kondianeko bateki* (Mez).// *Orai artio, bedratzi urte t'erdiz ori bizitu gara* (Eu).// *Ta bizitu gara berrogeitamar urtez elkarrekin* (Eu).
- bizitore:** izond. bizitorea, bizitza maite duena <Persona trabajadora e inquieta, que aprovecha la vida>. *Makome ori bizitoria da, ez daike geldik egon* (Lin).
- bizitu:** ik. bizi.
- bizkar, bizker:** iz. 1. bizkarra <Caballlete del tejado, madero caudal que descansa en la cruz de la tjera>. *Etxe orren bizkarra kanbiatu biar dute uda ontan.* 2. aldapa <Collado>. *Bizker artan dire ardiek* (Lin).
- bizkar-bestea:** iz. bizkar-bestea <Fiesta que celebra el fin de la construcción del tejado de la casa>. *In dute oyek bizkarbesta.*
- bizkar-tella:** iz. bizkar-teilla <Teja de mayores dimensiones, que recubre los bordes superiores de las superficies contiguas cubiertas de tejas>. *Bizkar tella paratu dute* (Mez).
- bizkar-zura:** iz. bizkar-zura <Madera del caballlete>. *Azkenik, bizkar-zura paratzen gindue guk* (Mez).
- bizke:** izond. begi-okerra <Bizco>. *Neskatzuk bazire bizkek ta itxusiagokoak zire* (Lin).
- bizker:** ik. bizkar.

- bizkerka:** adlag. bizkarka <A hombros>. *Bizkerka karri zuen zaku bet, bakar batzuk ibili tauzkigu bizkerrian ta soñan.*
- bizkerlarru:** iz. bizkar-larru <Piel de la oveja que se pone en la espalda para protegerse de la lluvia>. *Bizkerlarru aye ki yoaten gine mendira ta ez gine bustitzen* (Lin).
- bizkerrezur:** iz. bizkarrezurra <Espinazo, espina dorsal>. *Bizkerrezur ure egosie arrun goxua izeten ze* (Lin).
- bizkitartean, bizkitertio, biztartio, biztertioan:** adond. bitartean <Mientras tanto>. *Vizquitartean zueci bi Armadaz bata berceangana urbildus* (Erro) // *Biztartean in tziguten etx'au ta onata torri ginen* (Eu). // *Bizkitertio guk inen dugu au* (Lin) // *Biztartioan yan biar dugu zerbait.*
- bizkiterio:** ik. bizkitartean.
- biztartio:** ik. bizkitartean (Erro, Azk. Eransk).
- biztertioan:** ik. bizkitartean.
txakur: iz. txakur <Perro>. *Tzakur au da beretzia biñio andiagokoa.* * **txakur eizekoak:** iz. ehizeko txakurra <Perro de caza>. *Txakur eizekoak batzuten baituzte.*

txakurtegi: iz. txakurtegia <Hogar, espacio que ocupa el fogón en forma de media cúpula, abierto en el muro de la casa y sobresaliendo al exterior de éste, su finalidad es introducir el extremo de los troncos largos del fuego. Es un lugar caliente donde se cobijan los gatos>. *Katuek or sartzen zire, txakurtegien.*

txalo: iz. txalo <Aplauso, tortitas. Cancionilla que se cantaba con los niños para que aprendieran los primeros gestos>. *Txalotxalo txin/ txalo-txalo txin/ gure aurruk bortz hortzin/ seigerrenak hutsin/, eragiozu eskutxu hori/ bein bat eta, bein besteari.* (Mez). Hauxe da Mezkirizko beste beretsioa: «Txalo txin bis/ gure aurruk bortz hortz in/ seigerrenak huts in/ Datorla amantxi/ opil audi batekin/ arekin zopak in/ denak ase gaitetxin» (Mezkiritz). Sin. talotxin.

txaltxigorri, txantxigorri, txaltxita: iz. gan-txigor <Torrezno o chinchorra, pasta elaborada con la grasa del cerdo>. *Txaltxigorri onak iten zitue gure amatzik.* Sin. txaltxita.

txaltxita: ik. txaltxigorri.

txamine: iz. tximenea <Chimenea>. *Usoek on-garrria iten zute or txaminen onduan, ta an-biztu ze, artaik* (Lin).

txanpon: iz. txanpona <Moneda>. *Bear diren gauzetalako ere ez du txanponik eman nai* (Lin).

txantxigorri: ik. txaltxigorri.

txanza: iz. txantxa <Broma>. *Txanzan ere ez daike deus erran* (Mez, Per).

txapa: iz. 1. txapa <Juego que consistía en tirar dos monedas al aire, si caían al mismo lado, seguía echando el primero. Si sucedía al contrario, era el turno del siguiente>. *Txapan yolasten ginue anitz* (Mez).// *Atratten badire bi bisosekoak arpegie goiti irezten duzu, batzuk yolasten zute alde ta bertzeatzurek kontra* (Mez). 2. ik. xapa.

txapada, zaflada: iz. zaplasteko <Tortazo>. *Txapada bat main dakot nik* (Lin).

txapal: iz. txapala <Llano>. *Plater sokonak eta txapala eros i tugu bideje ontan* (Mez).

txapitel: iz. txapitela <Ventana del tejado cubierta de cristal> (Huarte). *Txapitel ederrak etxe artan.*

txar, ttar: izond. 1. txikia <Pequeño>. *Ni txarra nintzelaitk zaundu nue ori* (Lin). 2. txarra <Pequeño, flaco, raquíntico>. *Auritarra da ori*.// 3. <Despectivo, malo, que tiene mal genio, envidioso, antipático>. *A ze txarra den gizon goi!*

txardin: iz. xardina <Sardina>. «*Txardin buru gorri, Perkaineko*» dio errefrauak, Aurizberriko etxe batekoak izendatzeko.

txarrantxa: iz. behiak garbitzeko burdinezko eskubila <Cepillo de hierro para limpiar a las vacas>. *Txarrantxa zar batzuk batugu agoztagien.*

txatar: iz. 1. zatarra, oihalki zaharra <Trapo viejo, estropoad>. *Txatarra da trapue ta bustitizen balinbauzu or, ola sekatzeko ta ola.* 2. <Trapos blancos atados a palos que

se agitaban en los montes para atraer y enderezar las bandadas de palomas hacia las palomeras de los cazadores. (Auritz, Orreaga) (Irib). Sin. abata.

txaur: ik. txagur (Ai, Ar).

txekor: iz. txekorra <Ternero en general>. *Txekor aundiek azi tugu auren (Lin).*

txerka: adlag. bila <En busca de>. *Ardien txerka yoaten gine astioro (Mez).*

txerri: iz. txerria <Cerdo>. *Ai urde txerri!*

txerri aketz: iz. txerri aketza <Masto del cerdo>. *Txerri aketza zute Orzagokoan.*

txerri ardiko: iz. txerri ardikoa <Hembra del cerdo>. *Txerri ardikoa erosi dugu guk.*

txerri bazka: iz. txerri-bazka <Comida del cerdo. Por extensión, se le dice a una comida de revuelto y poco sabrosa>. *Txerri bazka iten zire itxan egunero (Mez). // Ara, ze txerribazka in duzu baskatzeko!*

txerri gizentako: iz. haragitarako den txerria <Cerdo/-a para engorde>. *Txerri gizentakoa erosi dugu guk.*

txerrikume: iz. txerrikumea <Cría de cerdo>.

Beak, txérriek, txerrikúmiak, geo... arátxiak, ástoia, árdiek, bildótsak (Eu).

txerriltze: iz. txerri hiltzea <Matanza del cerdo>. *Biar txerriltzia diegu.// Txerriltzia ere ni sortu nitzelaik etze emen akaso etxe bat ola iltzen zutena tzerrie, ni sortu nitzelaik, gero berantago denborakin joan zire inez etxe andi oyek lenbixi gero bertzeak (Lin).*

txerritogi: ik. txerritoki.

txerritoki, txertoki, txerritogi: iz. txerritokia <Pocilga>. *Gure zerriak txertokien sartu dire.* Sin. txerritogi.

txertoki: ik. txerritoki.

txespal: ik. tzezpal.

txetxor: (Ai) ik. tzitzor.

txiger: ik. txikar.

txikar, txiker, txiger: izond. txikarra, txikia <Pequeño. Usado en la toponimia, en Mezkiritz existe un barrio denominado Biritxikar. Biritxikarren bizi naiz ni (Mez). Gero sekretarietik goitixeago Burtzikinek badu bertze [soro] andi bet, Urtxiger (Lin).

txiker: ik. txikar.

txiki: ik. txipi.

txikitasun: iz. txikitasuna <Pequeñez>. *Zocielaic bidean, bere chiquitasunez eta*

obequi icusteagatic iiacen arista baten gañera (Erro).

txilko, xilko: iz. txilkoa, zilkoa <Ombligo>. *Txilkua agerien zauken neska arrek (Lin).*

tximiko: iz. zimikoa <pellizco>. *Balin bazire lemexiko aldie zutela jantzi berrie paratzet zutela egiten niote tximiko bat erranez <<tximiko berri>> (Mez, Per).*

tximindegia: iz. tximinia, tximindegia <Chimenea>. *Tximindegia artan egoten zire (Auz).*

tximinegain: iz. tximinia apal <Repisa de la chimenea, vuelo de la madera sobre la que descansa la chimenea>. *Tximinegañan utzi (Mez).*

tximistari: ik. tximitx.

tximitx: iz. tximitxa <Tiras de avellano utilizadas para hacer espumas y nazas para las abejas>. *Esportako propiek iten zitue tximitxekin (Lin).*

txin-txin: esam. arretxin-txin, txun-txun <Llevar a alguien cargado en la espalda>. *Txin-txin artu ta yoan zire (Mez).*

txindi: iz. txindia <Chispa>. *Su garrek txindiek botatzen zitue (Lin).*

txindil: iz. diliña <Lenteja>. *Txindile nik uste den garbantzoa, eztakit segur e! (Lin)* (Bertze egun batean erran zigun «garbanzo» txitxirioa zela).

txindirio: iz. txindirioa <Callosidad, panadizo>. *Txindirioa du izena, tipula puxka bat bota su gorrira atera, eta olio gordina gañera eta ingura trapu xuri garbi batean txindirioa duen beatza berarekin ongi inguratu (Mez).*

txinel: iz. txinela. Pilarearen eta petralaren artean sartzen den zura <Madera colocada entre el pilar y la viga>. *Txinela oyek ongi inek zire (Mez).*

txingar: ik. txinger.

txingar: izord. txikia <Pequeña>. ***eritxingar:** iz. <Dedo meñique> (Erro, Azk. Eransk).

txingarte: ik. engarte.

txinger, txingor, zinger: iz. txingarra <Tocino de vetas, bacon>. *Nauzu txingerra ogaiakin? Lukerike edo txingerra yaten ginue guk goizetan (Mez, Zil) // Aren zingerrak ze urine atra biar zue??// Morzatu bederatzi ta erdi inguruau, ogi ta txingorra (Mez).*

***txinger-zati:** iz. txingar zatia <Trozo de

- tocino**: *Tinger zati ederrak yaten ginuze ttarrak ginelaik.*
- txingili**: iz. txingili <Juego consistente en tirar una piedrecita en el suelo y saltar a la pata coja en las losas>. *Elizeko atarian ari zire aurrek txingiliken* (Mez).
- txingiliken**: adlag. txingilka, hanka baten gai-nean <A la pata coja>. *Txingilike ari gine gu an.*
- txingor**: ik. txinger.
- txinguli-manguli**: esam. hala-nola <De una manera u otra>. *Txinguli manguli in ginuze gauzak* (Mez).
- txingurri, txinurri, tzinurri**: iz. txinurria <Hormiga>. *Txingurri aunitz ibiltzen zire ordik.*
- txinte**: iz. tinta, ttinta, ttantta <Gota>. *Ola arten da azukre koxkor bat eta arei bota aibertze petrolio txinte nola urre dituen eri denak, eta iru aldiz artu egunean.* (Mez, Per). Sin. ttanta
- txintxa, txintxe**: iz. joale txikia, <Cencerro pequeño con forma de campanilla, que se pone a las vacas>. *Txintxa berrieik erosit biar ttugu.// Or duzu kostunbre bat, joaten zara Sorogaña ta Frantzieko beak kusten bauzu txintxekin, señale luto dela etxean; balin norbait iltzen bada etxian beak karriko tuzte txintxekin, ez klaxkekin* (Lin) // *Zuen beain txintxa aitu dut Sorogañen* (Mez).
- txintxalelur**: iz. zizare-lur <Montones hechos en la tierra por las lombrices, más pequeños y finos que las toperas>. *Txintxalelurre ebek in tuzte txintxeriek.*
- txintxarro**: iz. txintxarro <Juego en el suelo no determinado>. *Txintxarroa ze bertze yolas bat* (Lin).
- txintxe**: ik. txintxa.
- txintxeri**: iz. zizarea <Lombriz>. *Txintxerie anitz dire emen.*
- txintxo**: izond. 1. txintxoa <Tono de voz fina o chillo agudo>. *Ara ze txintxo duen orrek!* 2. zintzoa <Fiel, honrado>. *Txintxo ibili zaite!*
- txintxurri, tzintzurri**: iz. 1. zintzurria <Garganta>. *Ogi puske goi kontratxintxurre yoan zaide.// Txintxurreko mine gargarekin sendatzen dire* (Mez, Per). 2. haitzen arteko pasabide estua <Foz>. *Ardaizko txintxurrira botatzen zire* (Mez).
- txintxurro**: iz. txintxurroa <Carámbano de hielo, churro de los tejados>. *Txintxurro andiek dire or* (Lin).
- txinuko**: iz. zimitz <Chinche> (Erro, Azk. Eransk).
- txinurri**: ik. txingurri.
- txipa, txipe**: iz. txipa, ezkailua <Bermejuela. Pececillo abundante en los ríos>. *Txipa anitz izeten zire Uberkasen.// Ugelde artan badire txipe anitz* (Mez).
- txipe**: ik. txipa.
- txipitu**: ad. txikitu <Empequeñecer, aminar>. *Txipituz yoan da.*
- txipu**: ik. tzipu.
- txirdila**: iz. txirdila <Colgajo, pingajo, recorte>. *Nora zazi txirdil goyekin?* (Mez).
- txirimindengo**: iz. probetxu <Provecho>. *Txirimindego guti atrakozu ortik* (Lin).
- txirimiri, tzirimiri**: iz. txiri-miri <Lluvia fina, suave>. *Txirimiri auserki gure errien*. Sin. langarra.
- txiringola, tziringola**: iz. txiringola <Aro de hierro que se conducía con otro recto y que servía de juego para los niños. Por extensión, pulsera, cualquier aro o pendiente que tenga esa forma>. *Aur ginelaik txiringolakin yolasten* (Mez) // *Ara, ara, zer tziringolak!*
- txiriye**: iz. txiripa <Casualidad>. *Nik ikesi nue euskera txiripez, nere aite baitze eraldadune* (Lin).
- txirmista**: iz. zirrikitura <Rendija> (Erro, Azk. Eransk).
- txirribile, tzirribile**: iz. txirribila <Devanadera>. *Txirribilekin iiltzen gine gu.// Emen tzirribile erabiltzen du onek esku onekin ta bertze oneki ordik tiretuz eta plantatuz* (Lin).
- txirribis**: izond. txirribis <Entrometido, metomentodo, descarado>. *Txirribis ure or dabil beti* (Mez).
- txirrika**: iz. txirrika <Rueda de hierro. Polea>. *Txirrike bat paratzen zute sabayoan belarra ieteko* (Mez).
- txirrimista**: iz. txirrimista <Ventana muy pequeña que se abre, preferentemente, en las partes altas y bajas de las casas>. *Adameneko txirrimista* (Huarte).

- txirrinta:** ik. txirrinte.
- txirrinte, txirrinta:** iz. txirrinka, irrika, gutizia <Anhelo, ganas de algo>. *Badut txirrinte andie ontoak yateko* (Mez).
- txirristilo:** ik. tzirristilo.
- txiskorratu:** ad. zizkorratu <Quemar las cerdas del cerdo con helechos>. *Iratziaikin txiskorratu biar dugu ongi* (Mez).
- txispurri:** iz. txispurri <Pelo negro y rizado>. *Elletzizpur ure anitz pollita zen!* (Mez).
- txistatu:** ik. triztatu.
- txisteka:** adlag. ziztaka <A pinchazos, a picotazos>. *Elorri oyekin tzizteka dabil* (Mez).
- txistetu:** ik. triztatu.
- txita, txite:** iz. txita <Pollo pequeño>. *Txita anitz atra dire loka artaik.// Ongi tortzen ta loka diren oetaik bat nai balinbeitzu klasa oneko arroziak tzitek atratzeko* (Mez).
- txitaberry:** izond. haurdun berri daudenek iza-ten duten zorabioak etab <Embarazo de pocos días, cuando provoca mareos en las mujeres>. *Juana ure txitaberri zagon* (Lin).
- txitatu:** ad. txitatu <Comenzar el huevo a empolllarse>. (Erroib, Irib)
- txite:** ik. txita.
- txitxi:** iz. haragia <En lenguaje infantil, carne comestible>. *Yan zazu txitxi pixkoat* (Lin).
- txitxirio:** iz. txitxirioa <Garbanzo>. *Mezkirizko Sakarten bazire txitxirioak.// Lenago emen baba ta denetaik paratzen ze, arrek paratzen zue txitxirioa, bertzek etzuten niork paratzen* (Lin).
- txitxor:** (Ar) ik. tzitzor.
- txizte:** ik. tzizte.
- txogle:** ik. txokle.
- txokalaba, txokolaba:** iz. etxealaba <Hija que hereda la casa>. *Axkaratek zue Batiten andria, Batiten txokalaba, ta il zekio, ta arotzain arrebaikin ezkondu ze, orduen galtzen tzitue deretxo guziek* (Lin).
- txokandre:** iz. etxeandrea <Ama de casa>. *Txokandriak erran zire: atraiar balin beduk, atraiar ataristik* (Lin).
- txokarratu:** ad. txokarratu <Requemar>. *Zerrie txokarratu biar dugu il ondoren* (Mez).
- txoklea, txogle:** iz. txoklea <Zuecos de madera>. *Txoklea berriek erosi ttugu* (Mez).
- txokolaba:** ik. txokalaba.
- txokor:** iz. txeorra <Ternero. Novillo pequeño destinado a ser buey de labor>. *Txokor andi bet dago estrabilian* (Lin).
- txola-txola:** interj. txola, txola! <Voz utilizada para llamar a las vacas para que se tranquilicen, mientras en ocasiones se les acaricia la cabeza>.
- txongolo:** iz. orkatila <Txingili, txongolo/gure aurra nongo/ ona bada etxeko/ gaiztoa bada/turutu...amarendako>. Mezkirizko kanta hau haurrari orkatilak eskuan hartuz kantatzen zaio.
- txoriburu:** izond. txoriburu <Despistado, chiflado, persona de poco juicio>. *Neska ori arrun txoriburue da* (Mez).
- txoriola:** ik. txoriolyantza.
- txorikafi:** iz. txorikabia <Nido de pájaro>. *Kusi dut txorikafi bat pareta zilo batian* (Mez).
- txoriolyantza, txoriele:** iz. txori jantzalea <Gavilán. Ataca y mata a otros pájaros>. *Txoriolyantza oyek bertze txori betzuk arpatzen zuzte.// Tzoriele goyek arren zuzten etxeko txitak.// Tzoriele oyek ibiltzen tzire inguruen, oen plumek kukuen klasera dira, pikotada gaiztoa du* (Mez).
- txorro:** iz. «Txorro, morro, piko, tallo, ke» <Cancionilla que se repite cuando los niños juegan al burro, a ponerse a horcajadas uno encima de otro>.
- txorrotxarri:** iz. zorroztarria <Piedra de afilar>. *Txorrotxarri orrekin ederki txorrotzen dire kanibetak* (Mez).// *Txorrotarrie da arrie zorrozteko aizkorak kanibetak eta oyek.*
- txosne:** iz. txosnea <Especie de pan alargado que se llevaba a la iglesia>. *Txosne oyek ematen zute elizera.// Gure amatxik iten zi-tue txosne onak* (Mez).
- txotx:** iz. 1. txotxa, ziri txikia, zotzaren txiki-garria <Clavija, palillo>. *Txotx bat sartiar dugu zulo artan.// 2. zotza <Palo pequeño utilizado para diversas cosas>* «Kerrena txotxez Kalixtoneko» dio Aurizberriko errefrauak.
- txotxolo:** izond. ergela, tuntuna <Tonto, simple>. *Mutiko txotxolo goi!*
- txugarima:** 1. iz. hegabera <Avefría>. *Txugarima anitz aurten.* 2. izond.

- <Apelativo dado a ciertas personas>. *Ori de txugarima bat.***
- txukarratu:** ik. txokarratu.
- txuku-txuku:** onomat. ttuku-ttuku <Onomatopeya que imita la murmuración>. *Or dailte tuku-tuku.*
- txula:** iz. xerra, puxka. <Filete de tocino o magra>. *Txinger txula bat yaten ginue guk. // Lintzoañen txinger puxka erraten ginue (Lin).*
- txultxo, sulso:** iz. barrengorri (*Psalliota campestris*) <Champiñón silvestre>. *Gure Sorozarretan txultxo aundiek izeten zire (Mez).*
- txulubite:** iz. txilibitua, txistua <Silvo o flauta>. *Txulubitue soñatzen zue aur arek (Lin).*
- txun-txun:** esam. arretxin-txin <En la espalda. En lenguaje infantil, llevar al niño en las espaldas>. *Goazen txun-txun etxera. (Lin, Mez). Sin. arretxintxin.*
- txungur:** iz. txungur <Hueso que queda después de quitado el magro al pernil y que se utiliza para condimentar la sopa>. *Txungur ori bota zopara (Mez).*
- txurra:** iz. ardi mota bat <Oveja de raza rasa>. *Ardi txurrak karri tugu.*
- txurro:** iz. txurroa <Carnero de pelo grueso y lana basta>. *Ari txurro bat saldu zute (Mez).*
- txurrukale:** iz. landare mota bat <Hoja de sabo amargo que quita la sed>. *Txurrukale oyek egarrie kentzen zute (Mez).*
- txurruste, txurrupe:** iz. zurrupta <Grifo donde cae el agua>. *Urik etze etxetan. Txurruste baze, paretatik kanpora ura botatzeko. // Txurrute bazute berayek an.*
- txurrutada:** iz. zurrutada <Trago>. *Txurrutada bet ur artu biar dugu.*
- txurrutaina:** iz. <Juego consistente en ponerse inclinados boca abajo y que los demás salten encima de la espalda. En castellano «el burro»>. *Elizeko zimiterio artan yolas-ten ginue txurrutainan (Mez).*
- txurrute:** ik. txurruste.
- txutik:** adond. zutik <De pie>. *An zagon txutik beire (Mez).*
- txutitu:** ad. zutitu <Ponerse en pie>. *Burue txutitu zue ta... (Mez).// Iarrik dagon tokitik txuti daiela bera eta gutira gutira as daien alki batei artuz bere eskuekin (Mez, Per).*

TZ

- tzakurkeri:** iz. zakurkeria, maltzurkeria
<Perrería>. *Ze tzakurkeri in duen!* (Mez).
- tzakurreztul:** iz. txakur-eztula <Tos ferina>
Ara ze tzakurreztule duen orrek! (Mez).
- tzakurtu:** ad. zakurtu, gaiztatu, maltzurtu
<Volverse malicioso/-a>. *Nola tzakurtu den goi, ze zakurre ini tagon!*
- tzapin:** ik. zapin.
- tzerrí:** iz. zerria <Cerdo>. *Tzerrie urtioro il-tzen ginue* (Mez).
- tzerribazka:** ik. txerribazka.
- tzezpal, txespal:** iz. ezpala <Astilla>. *Ta man tzirete pastilletzuk paratzeko gariekin, ureikin, garien desiteko an, gero ori bear nuen paratu tzezpal, txespal batekin* (Lin).
- tzikiro, zikiro:** iz. tzikiroa, ardien arra
<Macho de la oveja de tres años>. *Falta zuen tzikiroat ta. Lenago ezbaitziren yais-ten ardiek, beno yaitsi akaso inen zuzte baña, orduen uzten zuzte artxoak eta ari-koak altzineko, ta pentsamen zazu ze gas-tue zen, azuri goi biar tzindue iruki iru ur-tez zikiroa iteko, ta zikiroa ze aragik oben, obena.* (Lin) 2.iz. <Por extensión se denomina actualmente a la comida que se hace de cabrito o de cordero asado>. *Gaur zute tzikiroa Olondrizen.*
- tzilintze, zilintze:** adlag. zilintzan, dilindan
<Colgando>. *Or eoten zire tzilintze.*
- tzilipurdi:** iz. itzilipurdia <Voltereta, con la cabeza abajo y las piernas levantadas>. *Tzilipurdi bet eman ta lurrera bota ze* (Mez).
- tzilipurdika:** adlag. txilipurdika <Dar vueltas con la cabeza apoyada en el suelo>. *Tzilipurdika zailen aur goi* (Lin).
- tzimitz:** ik. tximitz.

- tzindi:** iz. txindia <Chispa>. *Aitu izan naiz ni bortzegi oyekin yantz, tzindiak atratzen tzutzela* (Lin).
- tziner:** iz. tzinerra, txinparta <Chispa>. *Su-tzi-nerrak, emen bada egur bet ta yotzen bauzu burdin betekin atratzen al duzu tzine-rrok* (Lin).
- tzinga:** ik. zinga.
- tzinge:** ik. zinga.
- tzinger, txinger:** iz. txingarra, urdaia <Tocino>. *Nauzu txinger puxkat?* (Mez).
- tzinguri:** iz. txinguria <Yunque>. *Tzingurie da piketzeko talla* (Mez).
- tzintzurri:** ik. txintxurri.
- tzintzurri zilo:** iz. zintzurri zuloa <Agujero de la garganta>. *Tzintzurri zilotik yoan zaide* (Mez).
- tzinurri:** ik. txingurri.
- tzinurri-kafi:** iz. txinurri-kabia <Hormiguero>. *Soro ontan tzinurri kafi ugeri* (Lin).
- tzinurritegi:** iz. txinurritegia <Hormiguero>. *Txinurritegi aundiek izeten zire arbole oyetan.*
- tzipu, txipu:** iz. tzipua, makala, zurzuria (*Populus alba*) <Chopo>. *Lenago bazire tzipoak emen xarmantak, baña zura bera-tza ute* (Lin) // *Zenbaitzuk izeten dire me-yak, bertzeatzu tzipuak bezala* (Mez) // *Au tzipua da... au bagua... neonek inek dire bi kuxeta ebek* (Mez).
- tzirimiri:** ik. txirimiri.
- tziringola:** ik. txiringola.
- tziritzorian:** esam. hemendik hara, noraezean <Andar de un lado para otro sin hacer nada en concreto>. *Au zailen tziritzorian* (Mez).
- tzirribile:** ik. txirribile.

- tzirriztilo, txirristilo:** iz. 1. punta batetik askatzen den korropiloa <Nudo>. 2. zirriztiloa <Trampa hecha con pelo de caballar para coger pájaros>. *Emengo gizonek tzirriztiloat paratzen zute txoriak arpatzeko* (Mez).
- tzirtzir:** iz. kilker <Grillo>. *Tzirtzirrek ederki kantatzen tzute* (Lin).
- tziruke:** iz. txiruka <Ruido chirriante, silbido>. *Armarioa erekizen asten nuelaik iten zue tziruket* (Lin) // *Urdansagarrek olako tziruket bezala iteunte* (Lin). // *Gurpil oek xagonakin iten tuzte arimeleko ziruke* (Lin). // *Ziruke da txitek iteuten goi, txitek gáztiaik direlaik iteunte, bai gósiak balinbedaude* (Lin).
- tzirurike:** adlag. txirurika <Silvando o tocando algún instrumento>. *Nor ari da or tzirurike?*
- tzite:** ik. txite.
- tzitetu:** ad. txipatu, blaitu, pelatu <Calarse, mojarse completamente>. *Bakarretan torri gera oyanezik tzitetuik.*
- tzitzirio:** iz. txitxirioa <Garbanzo>. *Aza o tzitzirioa paratzen gindue guk.*
- tzitzor, txetxor, txitxor:** iz. txingorra, kazkarra <Granizo>. *Tzitzor andiek bota tu aurten* (Mez). // *Egurie ta txitxorra in zue bart* (Lin).
- tziz:** iz. joku mota bat <Juego que consiste en tirar una moneda a la pared y después medir la distancia con un palo>. *Ttarrak gine-laik tziztean yolensten ginue* (Mez).
- tzizte, txizte:** iz. txista, errena, arantza <Pincho, espina>. *Elorriek tu tzizte anitz* (Mez). Sin. elorri punte.
- tziztetu:** ik. triztatu.
- tziztu:** iz. txistua <Silvato>. *Tziztue iten ginue lizer azalaikin.*
- tziztu in:** ad. ziztu egin <Silvido>. *Tziztu in ta ardiek goratu zute burue, ta zaundu zue bere ardie* (Mez).
- tzonbor:** iz. txonborra <Tronco grande>. *Tzonborra moztu ta karri inue.* // *Tzonborre deitzen dugu agur andi oyei* (Lin).
- tzopin:** iz. txopina <Hipo>. *A ze tzopine duen mutiko orrek!* (Mez).
- tzoriele:** ik. txoriyantzale.
- tzotz:** iz. tzotza, txotxa <Vara delgada, palo>. *Renfek kendu zitue bago aek denak ta utzi zitue tzotz batzuk, ola* (Lin).
- tzurrutzte:** iz. txurrusta <Cascada, agua que mana de un orificio>. *Txurrutzte andie ize-ten da iturri artan* (Mez).

U

ubalde: ik. ugelde.

uberka: iz. uharka <Presa, por extensión también se denomina así a los campos que están cerca de la presa>. *Uberkasen belarrak in tugu guk* (Mez).

Uberkas: Mezkirizko toponimoa.

uberraka: iz. euri jasa <Llover a raudales>. *Uberraka ari du.* (Mez. Intza).

ude: iz. uda <Verano>. *Ude ontan yende anitz ibili da errian* (Lin).

udeldi: iz. udaldia, uda garaia <Época veraniega>. *Udeldien joain gara zure errira // Urte batzuez onara torri te etxe ontara in tze udeldi bat* (Lin).

udere: iz. udarea <Pera>. *Udere arboleak bazire gure baratzian* (Mez).

udiki: iz. udikia <Tierra que se echaba para cubrir la carbonera>. *Udikia bota biar dugu iketz txondorrera* (Mez).

udondo: iz. udondona <Otoño>. *Udondoan tortzen zire gure aidiak.*

ufets: iz. ufetsa <Eructo>. *Ufetsa andiek iten zitue eri arrek* (Lin).

ufets in: ad. ufets egin <Eructar>. *Ufetsa in du zerrri orrek* (Mez).

ugalde: ik. ugelde.

ugela: ik. ugele.

ugelde, ugalde, ubalde: iz. ugaldea, ibaia <Río>. *Gu beartu orduko, ugeldian ez da urik izein // Guk biar dugularik, ubaldian ez da urik.* ‘Gure bear-orduan inork ez laguntzen’ (Intza. Mez).

ugela: ik. ugele.

ugele, ugela: iz. ugelea, uhala, txingola mehea <Correa>. *Ugeliaik ongi ertxitu bear tugu.// Man dakogu bilkorra ugelei* (Lin).

ugezama: iz. ugazama <Madrastra>. *Ugezamaikin azi zire aur goyek* (Mez).

ukaldi: iz. ukaldia <Golpe>. *Zenbat ukaldi man tzeko!// Aizkorukaldi bet artu zue* (Mez).

ukerai: iz. ukaraia <Muñeca>. *Mine andie zue ukerayan* (Lin) // *Besoa te ukeraia autsik* (Mez).

uketu: ad. ukatu <Negar>. *Oyek denek uketzen zute.*

ukitu: ad. ukitu <Tocar>. *Ukitu zazu poliliki.*

ukitze: iz. ukitzea, ukimena <Tacto>. *Anitzek ukitzaikin aski zute zautzeko* (Lin).

ukondo: iz. ukondoa <Codo>. *Ukondoa autsi zue* (Mez).

ukurtu: ad. makurtu <Agachar>. *Egun guzien ukurtuik lanian eta bizkerlarruaikin etze yaus bustitzen* (Mez).

uli: iz. 1. eulia <Mosca>. *Uli andiek izeten zire zoko artan* (Lin). 2. ulia <Fulano de tal>. *Ulia errege! o fulano rey!* esaten zen erregea aukeratzen zenean Eguberrietaan.

ulibeltz: iz. eulibeltza <Moscarda, mosca que pierde las carnes>. *Ulibeltz anitz ibiltzen zire lenago* (Mez).

ultzi: iz. ultzia <Trilla>. *Ultziak iten zirelaik bazire sardiak, saltzen zire feria oetan.// Gabaz ultzien biltzen aritzen gine* // *Ez gal-tziagatik egune ultzik in gebe, denbora kanbiatzen bazuen edo* (Lin).

ultzitu, untzitu: iz. ontzitu, jo <Zurrar>. *Ultzituko dizut e!* erraten zieten amak seme-alabei.

ume: iz. umea <Niño>. *Zerero bakizu Subiza... ta andik kartzen zuzten umendako* (Mez).

umealde: iz. umealdea <Cuadrilla de críos, crías>. *Umealde guziak iiltzen dire gisa berean* (Mez). // *Erle bakotxak iten du umealde bat* (Mez).

- umedatu:** iz. hezetasuna hartu <Humedecer>. *Belar goi umedatu de* (Lin).
- umerri:** iz. umerria, bildots hila <Cordero sacrificado>. *Umerri da iltzeunzuleik azurie, ori da umerrie.*// *Aragi erria, umerrie* (Mez) // *Umerri kuarto bat, errean eta kontent gu* (Ilur).
- umesail:** iz. umesaila, ondorengoa <Descendencia>. *Umesail andia zego famili artan.*
- umetu:** ad. umetu, emea umedun gertatu <Echar crías>. *Ardi auek umetu dute.*// *Ardi auek umetie tire* (Lin).
- umezai:** iz. umezaia <Niñera>. *Umezayak emengoak berekoak izeten zire* (Mez).
- umil:** izond. apala <Humilde>. *Andre ori gorri umille da* (Lin). // *An, bazkaltzeko tenorrian, yotzen baitzire apez arek an umilumile eote nitze* (Mez).
- umildu:** izond. umildua <Humillado, tímido>. *Erran tzire ez egoteko umilduik beldurre biar tzuela izan, bekatue iteko, ez yateko* (Mez).
- umuntzi:** iz. umeontzia <Matriz>. *Operatu ta umuntzie kendu dakote* (Lin).
- unei:** iz. unaia <Vaquero>. *Len Mezkirizko uneak eamaten zituen beakorrara* (Mez).
- ungarri:** ik. ongarri (Erro).
- untze:** iz. 1. ontza <Búho>. *Untze anitz ibiltzen zire ortik.* 2. huntza <Hiedra>. *Cusaciecer inderra duen untcec pareta edo arbole batzen arrimoan* (Erro).
- untzi:** iz. 1. untzia, ontzia <Vajilla>. *Botatzentzokote gazta iteko untzire* (Lin). 2. itxasontzia <Barco>. *Guciac cebilcan afluxituri eta arrituic uncico carga guciac txasora botacen* (Erro).
- untzitu:** ik. ultzitu.
- ur:** 1.iz. ura <Agua>. 2. izond. zapore gabekoa <Soso>. *Etze ez ure tez gatza* (Lin).
- Urbeltz:** Lintzoaingo etxe izena.
- urbil, -ra urbil:** adlag. hurbil <Cercano>. *Belar ure balin beze etxera urbil o bordara urbil, sartiar tzindue.*// *Arbiek balin bidaude elkarrei urbil ezta burue anditzen.*// *Bertze bolaat bota nue ta ure ere onata urbil* // *Nik uste zegola errire urbil* (Mez).
- urbilen:** 1. adlag. hurrengoa. <Sigiente>. *Urbilen aldian inen dugu ori* (Lin) // *Urbilen igendian torriko dire* (Lin)
- // *Kendu nue urbilen urtian ardi ure*// *Laster ineunte, fite, ez uzteagatik urbilian tortzera* 2. izlag. ondoko <Cercano>. *Urbilen erri oetakoak tortzen zire* (Lin).
- urdai, urdei:** iz. 1. urdea, txaeria <Cerdo>. *Guk baitugu bi urdai* (Lin).// 2. urdaia, txingarra <Tocino blanco>. *Tiarak gine-laik urdea yaten ginue goizian* (Irag). // *Urdea anitz goxoa zen.*// *Mutilek eta... bildu..lau urdei* (Inbu).
- urdansagar, urdensagar:** iz. urdansagarra <Erizo>. *Olloa paratzen ari dela arrotziak, balin beda urdansagar oyetaik, arek yaten al daizko arrotzeak.*// *Urdansagarra yan izan dut nik ta gorki ona da* (Lin).
- urdazpi:** iz. urdazpia, urdaiazpikoa <Jamón>. *Urdazpie geroko istorioa da, len beti tzin-gerra yaten ginue* (Mez).
- urde:** izond. irain hitza <Utilizado en sentido despectivo, precede a otros apelativos>. *Ai urde tripaundi! Urdezikin ori!*
- urdei:** ik. urdai.
- urdensagar:** ik. urdansagar.
- urdezikin:** izond. urde zikina <Cochino, marrano>. *Ai urdezikine!*
- urdindu:** ad. urdindu <Enmohercerse, canucirse>. *Doblon urdindu, Alkazarneko.*// *Emen pernilak urdindu iten tzire denbora atez, goatzian irukitzen zuten ta gero kontserbatzen zen, gero paratzen tzuzte zaku batzuetan ta etzire urdintzen.*// *Zingerra urdin-de* (Lin).
- ure:** izord. hura <Él, ella, aquél, aquélla>. *Bat bakarra balin beda ure, beorrure erraten da* (Mez).
- uregun:** izond. bihurria <Travieso> (Est. Azk. Eransk).
- Ureta:** oikon. Erruibarko baserria.
- urigel:** iz. urigela <Rana>. *Baltsa aetan urigel anitz izeten ze.*// *Urigela bai yaten zire, artu, garbitu, larrua ekendu eta irin piska batean pasatu* (Mez, Per).
- urin:** iz. gantza, koipea <Grasa, sebo>. *Urin anitz atra ginue zerri ortaik.*// *Ogie busti urinean* (Lin). * **urinekoak:** iz. urinean sartzen ziren txaeri puskak <Partes del cerdo que se guardaban en grasa para su conservación>. *Urinekoa erraten da baño, urin baño geago badu olioia* (Mez, Per).

- urineztatu:** ad. urineztatu, urinarekin gantzutu <Engrasar>. *Urineztatu biar dugu ongi errueda oyek* (Mez).
- urria, urrie:** iz. urria <Septiembre>. *Urrian iten zire urrisoraoak* (Ai, Est, Lin). Sin. agorrera.
- urrie:** ik. urria.
- urrikitu:** ad. urrikitu <Apenarse>. *Urrikitu men tzekion// Urrikitia naiz aur orretaz (Lin)// Ongi urrikitu zaide eta ongi alaitu naiz* (Mez, Per).
- urrin:** iz. urrina, usaina <Olor>. *Urrin goxua du orrek// Zer dago, urrin gaixtoa?// Eta udako ultzi urriña bide guzian* (Mez). Caminok dio egun *urrin on* nagusitu dela, baina lehen *atson* erabiltzen zela eta *urrin* ‘kerua, usain txarra’ zela. * **il urrin.** iz. il-dakoen usaia <Olor a muerto>. *Il urrinez bada eta etxerako bidean beti gauza berakin*. Nondik sumatu bear zue *il urrina?* (Mez, Per). ***minturrin:** bihotz erreaa.
- urringoxo:** iz. urrin-goxoa <Colonia>. *Obe da urrin goxoa putze beño* (Mez).
- urrisoro:** iz. urrisoroa <Hierbín, segundo cor-te que se le da a la hierba>. *Nik Frantzian kusitut soroa moztu, urrisoroa, ta esportan karri ta tzerriei botatzeko eta belar ure yaten zute* (Lin). Sin. soro.
- urritz:** iz. urritza <Avellano>. *Urritze ederrak izeten zire zuen sagoi kasko artan* (Lin).
- urrike:** ik. urrike.
- urrike, urrike:** iz. 1. urrika <Hembra de animales en general>. 2. txeorrharen emea <Ternera>. *Sei urrike ta bi txekor dugu estabilen* (Mez).
- urrun:** adlag. urrun <Lejos>. *Borda balin beze urrun, joañiar zindue oñez* (Lin). // «Urrungo eltziaik urrez; allegatu ta lurrez» (Mez, Intza). Itxuraren faltsotasunari egiten dio erreferentzia. // *Urrunera elzreak urrezkoak tun, allegatu ta lurrezkoak!* (Mez, Per) // *Orrek kusi dire urrundik* (Zil)
- ***urrunexko:** adlag. urrun xamar <Bastante lejos>. *Gure etxea urrunexko dago* (Lin).
- urrupe:** iz. hurrupa, zurrupa <Trago>. *Tori ardo urrupet.*
- urrupetu:** ad. hurrupatu <Edariren bat xorta txikitana eta atseginez edan>. *Artzen bauzu edari zerbait, urrupetu erraten da* (Mez).
- urte:** iz. urtea <Año>. *Bedratzi urte tu nesako arrek* (Mez).
- urtebetetze:** iz. urtebetetzea <Cumpleaños, aniversario>. *Orai iten dire gauze franko len etzire iten urtebetetziak eta oyek joaten zire bertze egune pezala* (Mez).
- urtioro:** adond. urtero <Anualmente, todos los años>. *Urtioro tortzen tzen gizon ure* (Mez).
- urtzintze:** iz. urtzintxa <Ardilla>. Sin. burtzintze.
- urtuxi, urtuxik:** adond. urtuzik, oinutsik <Descalzo>. *Urtuxik yoaten zire aur oyek// Aur ori ortoxi dabile// Au ere txakurra ortotsik* ‘Galtza zarrak nonahi izaten’// *Mezikiriztik izeten ze anitz gurutzedunak; bai eta ere ortoxiak* (Mez, Per).
- urtuxik:** ik. urtuxi.
- urzorri:** iz. urzorria <Camarón> (Erro, Erransk. Azkue).
- usadio, useia:** iz. usadioa, ohitura <Costumbre>. *Usadioa ze emen ori iteko. // Emen ezta useia ori iteko.*
- usategi:** iz. usategia <Palomera>. Auritzeko usategietan horrela oihukatzen zuten. *Iparra...usategitara...Pinpirinetara, Pinpirrineta, Goitiku-Tállua, Erdiko-Tállua* (Irib)
- useia:** ik. usadioa.
- usetu:** ad. ohituratu <Acostumbrar>. *Usetuik balin bazaude berarekin iten duzu nauzuna* (Lin).// *Astoak dire temosoak usetzeko. Usetuik baigine. Tzakurre ezbalinbauzu usetzen zeuorrek... // Ardiek zeude usetuik Estadokora, ta zenbait pastu zire Frantziekora ere (Eu).// Naiago dut onata kiderra, usetu baineiz, ezik bertze goi. // Usetu ze berendua yatera.// Erdaras use-tue zego.*
- usi, auxi, usu!**: interj. ausi! <Voz para espantar a las gallinas>. Auxi emendik!
- usiato, auxiato:** ad. ikaratu, iztu, beldurtu <Espantar a las gallinas>. *Olloak aise usi-zen zire* (Mez).
- usin:** iz. arraila, arrailadura <Grieta u hoyo>. *Pareta orrek badu usina* (Mez).
- uskara:** ik. euskera.
- uskera:** ik. euskera.

- uskeldun, euskeldun:** iz. euskaldun <Vasco, vascoparlante>. *Uskaldune zen nik uste (Zil).*
- usmetu, usmotu:** ad. usnatu, usain egin <Olfatear>. *Usmetu biar duzu ongi.*
- usmoka:** adlag. usnaka <Oliendo, olfateando>. *Usmoka dabile errexttoa.*
- usmotu:** ik. usmetu.
- uso denbora:** iz. uso denbora <Época de paloma>. *Otubria uso denbora da.*
- ustegabe:** adond. ustekabean <Sin pensarlo>. *Ustegabeen sartu ta etzuen iñorek biletiko (Mez).*
- ustu:** ad. hustu <Descargar>. *Zuen larrañian ustu zute trilladora.*
- uts:** iz. huts <Fallo>. *Lekuik txarrenetan ize-teunzu uts bet, ta andik bazazi (Lin).*
- utse:** izond. hutsa <Puro, simple, desprovisto de mezclas>. *Abendue, xai uts eta gau uts (Intza). ‘Jaia eta gaua besterik ez dagoela adierazteko’.*
- utsin:** 1. ad. huts egin, galdu <Perder>. *Bidia utsin zue (Irag).// Erri ttar batian pasatzen ai ginelaik bidia utsin ta joan gine larrain betera (Mez)* 2. ad. huts egir <Hacer falta en el juego de la pelota>. *Uts in du pilotari arrek.* 3. iz. hanka sartzea, akatsa, huts egina <Fallo, defecto>. *Guizonac zautcen tutelaic beren utsiñec (Erro).*
- utzi:** ad. utzi <Dejar>. *Bi aldiz autobusera ige-nik gerrara jateko utzitzen zireten (Mez).*
- usu:** izond. usu <Espeso, cerrado>. *Baze irez-torri bat usu (Mez).// Batzuetan ezpel uxu zegoen tokien artitzela erraten gindekon (Mez). Mezkirizko esapideak dira hurrengo hauek: «Elurra ari du? Bai, usu ta larrri»// «Izarrak argal badira, biramenean eguraldi ona; usu badira, euria» (Intza).*
- usuala:** iz. usuala, patarra. <Aguardiente inferior obtenido de residuos de la uva>. *Gizonek alorrera joatean usuala edo patarra edaten zute.// Usuala izigarri fierra zen, ogi puxka artu ta usuala edaten zute, ori zen beren arrankia (Mez, Per).*
- uxkur, kuzkur:** izond. uzkurra, kuzkurra, ixila, berekoia <Acoquinarse, atemorizarse>. *Uxkurtuik dabile neska goi (Lin).*
- uxkurtu:** ad. kuxkurtu, uzkurtu, umildu. <Humillar, acoquinarse>. *Ongi uxkurretuik yoaten zire oyek.// Uzkurtue eoten al da bat otzak ero ola, otzak biltzen ttu zañak (Lin).*
- uxo:** iz. usoa <Paloma>. *Uxuak pasten dira emendik goiti.*
- uxu:** 1. ik. usi. 2. ik. usu.
- uztei:** iz. uztaia <Collar hecho de madera de avellano para los animales>. *Uzteak iten zire etxe ontan.*
- uzterri:** ik. buzterri (Mez).

X

xabar: ik. zabar.

xabartu: ad. zabartu <Hacerse el remolón, descuidarse>. *Xabartu dire anitz aur goyek* (Mez).

xagon: iz. xagona, xaboia <Xaboia>. *Orduen ezbazindue untetzen gurdien gurpilak xagonakin iten tuzte arimeleko ziruke, ta bel-dur izeten zute bixteko. Ez duk kusten obli-getzen zela?* (Lin) // *Karro itsu ayek biar tzindue xagonaikin untetu, bertsenas biz-tzen zire* (Lin).

xa(g)onada: iz. lixiba <Colada>. *Ta xaonada ta lixe eitera joan bear ginuen itúrrire* (Eu).

xagonatu: ad. xaboia eman <Enjabonar>. *Bizi delaik beztitzen den bezala, bala ongi xagonatu eta ur auserkikin ongi garbitu on-doan* (Mez, Per).

xaguxar, saguxar: iz. gauinarea <Murciélagos>. *Xaguxarrak bazire* (Eu).

xaldi: iz. zaldia <Potrico>. *Bioka ta xaldie ero-si tugu guk.* Sin. bioka.

xai: ik. yai.

xalma: iz. txalma, zamariei gainean paratzen zaien tresna arina <Montura>. *Xalma be-rrie erosí zute oyek.*

xalo: izond. jatorra <Majo, afectuoso>. *Oso gi-zon xaloa da* (Irag).// *Gizonik xaloena ze ori.*

xaloki-xaloki: adond. poliki <Suavemente>. *Aziendandako gauzaik onena da xaloki mintzatzea* (Mez, Per) // *Xaloki-xaloki aise da artu eta lotu etxe bakotxak oitura duen tokian* (Mez, Per).

xamur: izond. xamur, haserre <Enfadado>. *Ze, xamur?* (Mez).

xamurrezi: ad. xamur erazi, haserre erazi <Hacer enfadar>. *Txakur axatzalea da xamurrezi iten duena* (Lin).

xamurtu: ad. haserretu, samurtu <Enfadarse>.

Gure aurre xamurtu de.// Xamurtu zire ta bi aldera banatu zire mutilek (Mez).

Xan Mark: iz. <San Marcos>. *Xan Mark; ba-lin ba'uk, emak!* (Est. Intza).

xango: iz. zangoa <Pie>. <<Xango mangolo/gure urra nongo? Ona bada etxeko/ gaiztoa bada, kanpoko/ Purrun, purrun, aitanda-ko>> Haur kanta da.

xango-makur: izond. zango-makur <Luxación> (Erro, Azk. Eransk). *Pello xango-makur dabil* (Mez).

xapa, txapa: interj. xapa! txapa! <Grito a los perros para que azucen a las ovejas>. *Xapa or!*

xapi: interj. xapi <Expresión utilizada para asustar a los gatos>. *Xapi emendik!*

xarmanki: adlag. ederki <Estupendamente>. *Xarmanki ai dire ikesten* (Mez).// *Emen lan-nian aitu dire ta xarmanki entendatzen ni-te ayekin* (Lin) // *Beak xarmanki dauzkite estrabilian* (Lin).

xarmanta: izond. ederra, polita <Bonito/-a, hermoso/-a, majó/-a>. *Emen yantzari xar-manta zire e!* Bat baze atratzen al den maz-tekit xarmantena.// *A ze aratxe xarmanta in ze!* (Lin).

xarpa: iz. ardiak umedun ez gelditzeko jartzen zaien oihaltxoa <Trapo que se pone a las ovejas para que no se queden preñadas en tiempo de celo>. *Xarpa paratu.*

xerpatu: ik. xerpatu.

xartaxa: iz. xartaxa <Trapo con que se les tapa los ojos a las ovejas para que no se pongan en celo>. *Xartaxa paratzen zen begietan, ardiak etzutelaik nai ernari para zeizten begiak estaltzen ziote trapu batekin* (Lin).

- xaskitto:** iz. saskitoa <Cesta con velas que se llevaba a la iglesia>. *Xaskittoat ematen zen elizera* (Mez).
- xato:** ik. zato.
- xau:** 1. ad. xahutu, bukatu <Acabarse>. *Xau dire Uritzen karakolen biltze*ko (Est. Intza) 2. ad. xahutu <Limpio, aseado>. (Est. Azkue).
- xauregi:** iz. jauregia <Casa señorrial, palacio>. Erroko toponimoa. *Xauregiko soroetan zauden*.
- xautu:** ad. xahutu <Limpiar, asear>. *Xautu tut bazter guziek*.
- xaxari, xixala:** iz. xaxaria, pilota partidetan tantoak kontatzen dituena <Chazador, el que lleva en cuenta los tantos en el juego de la pelota>. *Pilotari zarra xaxari on* (Intza, Mez). // *Xixalak kontatzen tu tantoak*// *Olako yokuetan denetan dei-tzen ze, kalban ere aitzen zire*.
- xe:** izond. xehea <Menudo/-a, pequeño/-a>. *Ardiek ortza balin bedu xea obeki erosiko izute bai. Ardiek ortza luzia balin bedu lau urtetako o bortz urtetako asten da galtzen, orduen ardiek balinbaitu iten zayo anime-leko utse or... ta arrekin eztu arpatzen yana nai duen bezala. Ardiek bear du ongi iteko ortza xea, igual amalau urtez aguan-tatuko dizu* (Lin).
- xeatu:** ad. xehatu <Desmenuzar, picar>. *Anbulua aizkorekin xeatu te egosi iten ze* (Lin).
- xei:** ik. yai.
- xela:** iz. gela <Cuarto ciego en la parte baja de las casas para guardar patatas y enseres>. *Etxeko xelatik karri zitue patatak* (Mez).
- xenda:** iz. senda <Senda pequeña>. *Gero ugelden saetsetik xenda bat baze Amenaxilora joateko* (Lin).
- xendarme:** iz. polizia (<fr. gendarme>) <Policía francesa>. *Xendarmekan an iltzen tzire*.
- xende:** ik. yende.
- xerpatu, xarpatu:** ad. zerpatu. Ardiei araldian ernari ez gelditzeko oihala jartzea <Operación que consistía en poner un trapo para impedir que las ovejas quedan preñadas en tiempo de celo>. *Orduen biortxekoak iten zire xarpatu, patzen zekote trapuet ez gelditzeko ernari* (Mez).// *Ardiek xerpatu tugu goizian* (Lin).
- xerradatu, zerradatu:** ad. zerratu, zerraz eba-ki <Aserrar, cortar en ruedas>. *Solomua ongi xerradatua*. 2. <Cortar más finas las leñas>. *Ongi xerradatu biar tugu belar go-yek* // *Gero xerradatzen da xoko eta bazter guziak eta ongi idortiak direlaik abar gu-zien gañean paratzten dire* (Lin).
- xertatu:** ad. txertatu <Vacunar>. *Ardi xerta-tzen egon nauk* (Irag).
- xiamе:** iz. xiame <Comida formada por el ganchón y los altxarres>. *Xiameak yaten zire garai artan* (Lin).
- xiaurri:** iz. (Bot) andura, zihaurria <Plantas que daban frutos bajo tierra parecidos a los ajos, sacaban flores blancas y eran comestibles. Azk. yezgo.> *Bazire... bertzeatzuk... xiaurri erraten zekote* (Mez).
- xigortu:** ad. xigortu, zerbait sutan dagoela erre gabe gorritu <Tostar>. *Ogie xigortzeko pa-ratzen ginue plantxan* (Lin).
- xiletu:** ik. ziletu.
- xilkо:** ik. txilko.
- xilo:** iz. zuloa <Agujero>. *Xilo artan sartu da katue* (Mez).
- xin:** ik. yoantxin.
- xingili:** iz. xingili <Juego con los niños-as pequeños-as consistente en moverles los pies alternativamente a la vez que se les cantaba una canción>. *Xingili-txongolo/ gure aurra nongo/ ona bada etxeko/ gaiztoa bada/ turrun-turrun aitaindako* (Mez).
- xinjuenpaxa:** iz. yinkuen paxa.
- xixala:** ik. xaxaria.
- xo:** ik. ixo!
- xoratu:** ad. txoratu <Marrear, enloquecer, perder la cabeza>. *Xoratu in nitze bai kutsue, etxera iritxian* (Mez).
- xorratu:** ik. yorratu.
- xorta:** iz. xorta <Líquido en poca cantidad>. *Esne xorta batekin artu nue kafia* (Mez). // *Barua hausteko hartzen zute anise xortat galleta batekin* (Mez, Per).
- xueldo:** ik. sueldo.
- xukatu:** ad. xukatu, lehortu <Secar>. *Beiñere beguiac etciceizquiola chucacen* (Erro).
- xunbil:** iz. <Tajo>. (Erro, Azk. Eransk).
- xunke:** iz. arbia <Nabo>. *Lenago bazire sago-yétan ta izeten tzire, xunkek erraten tzako-tenak, eta atratzen tzuzte lurretik burúe ya-teko* (Lin).

- xuri, ixuri:** ad. isuri <Derramar>. *Xurtzen ari de.*
- xurialde:** iz. arropa zurialde <Montón de ropa blanca>. *Nik arropa xurialde bat eroi nue* (Lin).
- xurki:** ik. zurki.
- xurtu:** ad. ixuritu <Derramar>. *Xurtzen ai de ure* (Lin).
- xuxen-xuxen:** izond. zuzen-zuzen <Directamente>. *Biramonian xuxen-xuxen joañiar ginue lanera* (Lin).

Y

yago: zenb. gehiago <Más>. *Edan zazu pixkat yago* (Lin).// *Biar bazue su yago o gutiago graduatzen zinue* (Mez). Sin. geago.

yagoenik: zenb. gehienik <Principalmente, sobre todo>. *Ezpelezko kuxetak ematen ginuze yagoenik Geronara.// Ni yagoenik enaiz yoain.// Ta emendi kanpo errietan lenago Lintzuñañen iten ze uskera yagoenik ballean, ta orai eztute iten batre* (Lin).

yagoko, geyagoko: zenb. gehiagoko <Más>. *Emen ezta yagoko gizonik* (Lin).// *Eztugu izen yagoko laneik.// Ordutik altzine etzut yagokoik erosi gisa ortakoik* (Mez). // *Emen ezta geyagoko euskaldunik* (Lin) // *Nik eztut yaoko eskolaik izen* (Inbu).

yagozi, yagozik: adlag. esate baterako <Por ejemplo>. *Baboxakin aziendak iten dira anditu, beak eta ori; orai idortie... yagozik alfalfa idorra da gauzeik obenetik.// Por ejemplo... yagozik Eugiko Urbano ure.// Mediku ebek orai... yagozik Erroko au...* (Mez).

yagozik: ik. yagozi.

yaguen-yaguena: zenb. gehien gehiena <Principalmente, sobre todo>. *Yaguen-yaguena aurrek izeten zire* (Mez)// *Yaguen yaguéna bídia, lenágo zen bídia, ni oríntzen naiz nola in zutte karretéra* (Zil).

yai, jai, xai, xei: iz. jaia <Día de fiesta, festividad>. *Igendetik kanpo dauden egunak: gaur yai duk, bier yai duk* (Lin) // *Astea pastute baita igéndia, jaya orréi, jaya.* (Lin).// *Julia. bier xei* (Erro).// *Xai atsalde batez.// Xaetanorrata joateko denboran, iten zuten festa etxian familiekin, etzute gastatzan yausere nion* (Lin). *Lenago bizi iten giñen, pues, xaiak ta astegunak dena lanian* (Eu) // *Abendue, xai huts eta gau*

huts ‘Abendua, jai anitz eta gau luzeak’ (Mez, Intza).

yaitzi, yaitsi: ad. jeitzi, zenbait abererentz errapetik esnea erauzi <Ordeñar>. *Yaitzi nere amak iten zitue* (Lin).// *Lenago yaisteko kaiku oyek denak zurezkoak zire* (Mez).

yaizteko leku: iz. ardiak jeizteko leku <Sala de ordeño>. *Yaizteko lekue ona ginue guk. Ik. deizteko lekue.*

yaki: iz. jakia <Comida en general>. *Otorduetako salda eta yakie ere bai* (Mez, Per).

yakin: ad. jakin <Saber>. *Etzue yakin nor ze* (Mez).

yakinai: izond. ikusnahia <Curioso> *eta cer eguin zuen Evac?, andrearena, beti bezala curiosac eta iaquin naiac* (Erro).

yakin sun: iz. jakintsua <Sabio/-a>. *Gende batzuc ain iaquinsunac* (Erro).

yakintasun: iz. jakintasuna <Sabiduría> *Ceinetan eracuxi baicion munduari bere iaquintasuna eta bere poderea* (Erro).

yantza: ik. dantzaz.

yantza leku: ik. dantza leku.

yantzale: iz. janzalea <Comedor/-a, goloso/-a>. *Mutiko goi yantzale txarra da.// Apetitu ona du yantzale andie baite* (Mez).

yantzari: ik. dantzari.

yantzatu: ik. dantzatu.

yarduki: ad. jarduki <Hablar> *Gauze oetaik yardukitzen ginue* (Mez, Erroib, Est). // *Batzurek sobera yardukitzen dute ta bertzeatzurek biar dutena yardukitzeko eztute fundametuik* (Lin).// *Yardukitzen dut, nik aise* (Ilur).// *Ene adinean ia Iruñaraño erabilte ze: Lintzoainen, Erron, Urrozen, Zubirin, Eugin yardukitzen ze euskeraz, Aezko aldean emen baño yago* (Mez).

- *yardukien:** adlag. solasean, jardukian <Hablando> *Emen oetaik ari ginen yardukien.*// *Yardukien ai zen* (Mez).
- yardulari:** iz. jardularia <Hablador>. *Mazteki yardularien ele ederrez ez fie* (Intza. Est). ‘Emakume berritsuen hitz ederrez ez fia’.
- yari:** ad. jario <Manar>. *Orren eltziai esnia yariten ez* (Intza).
- yarraulkia:** iz. aulkia, eseritzeko tokia <Asiento>. *Yarraulkie paratu zue* (Mez).
- yarri:** ad. jarri, eseri <Sentarse>. *Yarri zaite emen* (Lin).// *Ortxe yarri nitze ta erran nue, orai enaizorrata ta arata joain, orai gelditiardit émen* (Lin).
- yasi:** ad. iasi, jasan <Aguantar>. (I. C.)
- yastatu:** ad. dastatu <Probar>. *Yastatu ta dena iretsi zue* (Lin).// *Erematen diote gibel puxket eta bertze txinger puxke bat yastatzeko denek aien txerri iltzetik* (Mez, Per).
- yateko:** iz. jatekoa <Comida>. *Etxetik eman nue yatekoa zazpi apezendako* (Mez).
- yatza:** iz. isatsa <Escoba>. *Yatsa karri ta garbitu biar dut estrabile* (Auz, Mez).
- yaus:** ik. deus.
- yautsi:** ad. jautsi <Bajar>. *Yautsi eskale oyek.*// *Gipuzkoan izen ginelaik dozenat Debara yausten gine* (Mez) // *Ta gero karreretara yausten ginen* (Eu).
- yauzi:** iz. jauzi <Salto>. *Igual iten du yauzie zuk baño altzinego* (Lin).
- yauzike:** adlag. jauzika <Saltando>. *Lenago mandokoak ere ezten nitue nik, elurre iten zuelaik ganera ien ta or yauzike* (Lin).
- yauzkatu, yauzketu:** ad. jauzi egin <Saltar>. *Badire larrañak pareta au baño anitez gorago dutenak yauzketu naizena ni eta kazkarratuik* (Lin).// *Ni leotik yauzkatzen nitze* (Lin).// *Yauzkatzen tzire zaldiek* (Lin).
- yauzketu:** ik. yauzkatu.
- yayo, jayo:** ad. jaio <Nacer>. *Balderron yayo erraten da, ta Iragin berriz, sortu* (Irag). // *Berce bat jaio cen mundu guciaren erredimizalea eman duena* (Erro).
- yazteko toki, yeiztegi:** iz. jeizteko tokia <Sitio para ordeñar en la chabola>. *Yeiztegi polite zagon txabola artan* (Auz).
- yelostu:** ad. jelostu <Celoso>. *Aurrekin berdin yelosten al da* (Mez).
- yendaki, yendeki:** iz. jendakia, ahaidea <Pariente>. *Gure yendakiek bizi zire oso urruti* (Lin).
- yende, jende, xende:** 1. izond. jendea, jatorra <Persona, afable y maja>. *Nexka ori arrun plantakoa da, arrun jendea.* // *Emen Frantzieko alde ortan ola yende basoindako, ori ezpaituk arras yendia, ori basa baituk. Martin ze yendia den!* 2. iz. jendea, pertsona <Persona, como sust. contable> *Nik zautu itut egun ta emezortzi yende. Tortzen balinbeda yende bat...* 3. iz. jendea <Gente>. *Jende anitz bizi de orai Iruñen. Pluralean erabilia: Normaiec ezautuco du bada nere gente onac* (Erro). *Bertze xende bat tortzen tzire Burletatik Madalena eta sartzeko Iruñen, portal... Frantzi, Frantzieko portalia, portaletik* (Ilur).
4. Como segundo miembro de compuesto, referido a animales. ***biorjende:** caballar <Yeguas en general>. *Biorjendei karrerera bazerreko belarra, errautse baiitu anitz gustatzen zaikote.* (Lin).
- yendeketa:** iz. jendetza, jendeketa <Gentío>. *Pentsa ze yendeketa izeñiar tzuen* (Lin). *Ori izen da etxe bat beti arimaleko yendeketa sartu duena* (Lin).// *Lenago Luzeiden animeleko yendeketa zegon* (Lin).
- yendeki:** ik. yendeki.
- yin:** ad. etorri <Venir> «*Etzite yin lan egunez, zato igande arratsaldez*» (Azkuek bildua, gaur gutxi erabilia).
- yinestatu:** ik. sinestatu.
- yineste:** iz. sinistea <Creencia>. *Yineste ortan zeude ayek* (Mez).
- yinestu:** ad. sinistu <Creer>. *Yendia egin ze yinestuik bazka egosik bazuela balore yago* (Lin).
- yinko, jinko, Jainko:** iz. Jangoikoa <Dios>. *Yinkoa taki zenbat lan in duen emakume arek* (Lin). *Nik siñestatzen dut Yinkuan* (Lin) // *Yinkoa taki nola ibili zen* (Mez) // *Ongi dabillena Jainkoak laguntzen du* (Mez, Intza).// *Jinkoak daki bakarrik zer kostazen zaiden etxetik ateratzia* (Mez, Per).// *Emen biziko naiz ta emen ere, Jinkoak nai badu, ni bezela, ilko naiz ere* (Mez).
- yinkuen paxa, xinkuen paxa:** iz. ortzadarra, Jainkoan paxa <Lit. faja de Dios, arco

- iris>.** *Yinkuen paxa kusi dugu (Eu).// Xinkuenpaxa polite atratzen ze egorie ondoan (Mez).*
- yo:** ad. jo <Pegar>. *Yo zue emen mallueki.*
- yoaldun:** iz. joalduna <Oveja con cencerro>. *Ardi yoaldune ze, bere azuri artxoainkin (Mez).*
- yoale, yuale, goale, fale, oyale:** iz. joalea <Cencerro>. *Klaxka ta yoalia erraten dugu emen (Mez, Lin, Est)// Guk jualeak erraten dugu eta aitu izen dut lenago jualeak jo zituztela an edo emen (Mez, Per). Oyal ederrak erosi tugu guk (Ger).// Bai badira jualeak eta ardi bakotxak erematen du berea (Mez, Per).// Bei orren falia galdu de (Irag).// Goale ederrak erematen zitzute ardiek (Eu).*
- yoale mie:** iz. joale mihia <Badajo>. *Yoale miengatik zauntzen nitue nik gure ardiek (Lin).*
- yoan, joan, goan:** ad. 1. joan <Ir>. 2. <Caer bien, parecer>. *Iruritako neskatxei etzagote ongi juan zu emengo mutil batekin ezkontzea. (Mez, Lin, Zil).* * **zazi, zoazi:** zoaz <Vas>. *Zazi emendik fite. // Nora zazi? // *zoazi: Erran tzozute apostoluei (Erro).* ***zazi ze:** zoaz zein!, <Vete a saber!> *Zazi ze mile duro gastatutenei bider o iru epokaz!!! Zazi ze kotxe ederra erosi duen orrek!! Zazi ze puske ormigonez ini tauden ugeldian.// Aixtian aitu dut Balentzien zazi ze millionak artzen tzuten erletaik (Mez).// Ni e nintzen aunitz joan eskolara (Eu).// Ameriketara goan tzien batzuk, bertze batzuk lanak arpatu zuzten (Irag).// Danonera eo eztakit nora goan tzien (Irag).*
- yoantxin, joantxin:** iz. joan-xin <Viaje rápido de ida y vuelta como el que se hacía a Pamplona para transportar el carbón>. *Joantxin... nik uste dela ola argiko joaten ziren Irúñera joaten ziren emendik ematen zuten ikétxa (Zil).*
- yokaldi:** iz. yokaldia <Jugada>. *In dik yokaldi bat ona.*
- yokatu:** ad. jokatu <Jugar>. *Sosa yokatzen zuen ayek nola egoin zire partide artan (Mez).*
- yoku:** iz. jokua <Juego>. *Emen bertze yokuat baze, ola... (Mez).*
- yolas:** iz. jolaso <Conversación>. *Ta ola zeudelaik, yolas oetan, torri ze Iñaut. (Lin) // Etxakiten oyek yolasik in (Mez).* 2. juego <Jolaso>. *Ola erraten tzen yolas batendaiko.// Txintxarroa ze bertze yolas bat.*
- yori:** izond. jori, ugari. <Abundante>. *Yori yoria dugu belarra (Azkue, Est).*
- yorra:** iz. jorra, jorratu <Escarda>. *Banae patata yorrara (Mez).*
- yorraile:** ik. jorrail.
- yorratu, xorratu:** ad. jorratu <Escardar>. *Yorratzeko eztu importa altzurrek ze tamáñua duen.* ***yorran:** adlag. jorrano <Escardando>. *Emen ari naiz yorran (Mez).// Ta artoyórran ta patatayórran ta patata atratzen ta...artoa biltzen ta déneitaik (Eu). Patatak erein eta xorratza andre lana ze (Mez, Sar).*
- yostaketa:** iz. jolaso <Jugando>. *Lenago au-rek yostaketan aitzen zire (Lin).*
- yostaketen:** adlag. jostaketen <Jugando>. *Aurrek yostaketen ari zire egun guzian.*
- yostakin:** izond. jostakina, jostalaria. <Bromista, que le gusta jugar>. *Gizon goi yostakine da (Lin).*
- yostatu:** ad. jolastu <Jugar>. *Yostetan ari zire oyek (Mez).// Elkarrekin joaten ginen ta yostatu ere amaiketan elkar iten ginuen, oyek ere badakite euskera aunitz (Eu).// Ez dire tokiak yostatzeko inguru ebetan ertearen (Mez).*
- yostorratz:** iz. josteko-orratza <Aguja de coser>. *Jostorratzaikein yosten zue amak (Mez).*
- yuale:** ik. yoale.
- yunkadi:** iz. junkadia <Juncal>. *Junkadi an-diaik izeten zire an (Est).*
- yustu-yustua:** adond. justu-justu <Justamente>. *Bi aur izan zuzte yustu-yustua (Lin).*

Z

zaazporratu: ik. zarboratu.

zabar, xabar: izond. zabarra, baldarra
<Desgarbado, descuidado>. *Zabarra da gizon bat ele anitz maten duena ta eztena muitzen, eztu sekulen tenoreik etxera joateko te ori* (Lin).

zabor: iz. zaborra <Suciedad, escombro, residuo>. *Zabor andiek iten zire inguru oetan* (Mez).

zae: ik. zare.

zaflada: ik. txapada.

zafra: iz. zafra, zafla, matelakoa <Patada>. *Man zire zafrat* (Lin).

zagi: iz. 1. zahagia, ardoa gordetzeko ontzia
<Odre para llevar el vino>. *Zagie ze ardoa emateko, bazekie bai, Mezkirizko Buruzurik, arrek erematen zue mugera ardua. Zagiek zire ardi ero auntz larruekin inik* (Lin).// *Zagiek, lenago bazire zágiek ardoa irukitzeko, larruekin inik zágiek, animele batena baña eztakit ze animele zen* (Lin) 2. zahia; ale-azal xehatua <Salvado>. *Zagie zue bai guk yaten ginue ogi beltzak* (Mez).

zai: iz. 1. zahia, ale-azal xehatua <Salvado>. *Zaye anitz botatzen gineko zerriei* (Lin). 2. izond. zail <Duro, correoso, arisco>. *Gizon goi zaye da; arboleari ere zai erraten altzayo* (Mez).

zail: izond. zaila <Correoso, fibroso, duro>. *Zume xurie arrun zalla da, ta ibiltzen tzen mantxaderak iteko* (Lin).

zain: iz. zaina <Raíz>. *Zazi ze zañak zitue arbole orrek* (Mez)// *Anbulua atraiar ziñue zañetaik, gero abretan kartzeko sartzen tzi-nue zakuen ta karri larrañan* (Lin).

zainzuri: iz. zainzuria <Alimoche, buitre>. *Badiare buitreak bezela batzuk, oyek bezain*

andiek, ayei erraten diote emen zainzuriek (Lin).// *Zainzuri: buitre* (Mez, EAEL)

zakar: izond. zakarra <Torpe, zafio>. *Arrun zakarra da nexka ori* (Mez).

zakarkeria: iz. tzakarkeria, zakarkeria
<Zafiedad>. *A ze tzakarkeri in duen* (Mez).

zakarratu: ad. zakarratu <Totalmente estropiado, viejo>. *Etxe oyek daude zakarra-tuik, ta zuk bixten duzu sue ta erretzen da dena, in tzen bezala orgo etxe oi* (Lin).

zakarrera: iz. zakarrera, zabarrera
<Torpeza, rudeza, fealdad>. *Zakarrera andiek iten zuzte aur goyek* (Mez).

zaku: iz. zakua <Saco>. *Zakue petatxuen alde ‘Lapurra, lapurraen alde’* (Intza)// *A oi bai, uzten bazinoten zákue, zákue dena yentsiko zuten* (Eu).

zakuto: iz. zakutoa, sakutxoa <Alforja, saquito>. *Zakutoa atzendu zaide bordalean* (Lin).

zalapartaka: adlag. 1. zalapartaka, oihuka
<Haciendo ruido, moviéndose violentamente>. *Aitu gine zalapartaka yantzan. // Bestetan akordionisten aitzinian zala-partaka yantzan asten tze.*// 2. oihuka <Alborotar>. *Oyuz zalapartaka asi gine. // Zalapartaka euria ai zuen // Igual aza plater bat yan eta beren pobrezan gañian zalapartaka irriz asten zire, ta orai yateunzu manjareak ta eztuzu gogoik yaus iteko* (Lin).

zaldare: iz. zaldarea, pentsua <Pienso>. *Gure biorrak zaldaria erki yaten du* (Mez).

zaldi: iz. zaldia <Caballo>. *Buelta man ta zaldiek gibelera // Ábria eman bear zuten zaldíre* (Zil).

- zaldi paradakoa:** iz. hazitarako zaldia <Caballosemental>. *Lintzoainingo Martxantxenian zute zaldi paradakoa* (Lin).
- zaldikotxe:** iz. zaldiak eramaten zuen gurdia <Coche de caballos>. *Etortze zire Iruñara zaldikotxe batzuk dena soñuz beteak, kaxkabile eta txintxez beteak* (Mez, Per).
- zali:** iz. zalia <Cazo>. *Ori eltze anitzetako zalie da.* 'Behar ez lukeen gauzetan sartzen da' (Intza, Mez).
- zalke:** iz. zalkea <Veza>. *Zalkia ere erekitzen ginue gure etxian* (Mez).
- zalui, zauli:** izond. zalui, laster, agudo <Ágil, rápido>. *Austen bada zalui konpontzen da.*// *Mugi ai zalui* (Irag) // *Oso zauli dabil le gizon goi* (Lin) // *Zalui inen da egune* (Ilur).
- zamakatu:** ik. zamatu.
- zamatu, zamakatu:** ad. zanpatu <Aplastar>. *Gure agoztegien zamatzen ginue ongi belarra* (Lin).
- zamuke:** iz. behor azienden gainean paratzen zen oihalki biguna, espartzuz edo artilez betetako, gero gainean basta jartzeko <Albara donde se depositaban los fajos>. *Lenago zamuke kartzen ginue belarra* (Mez).// *Zamuke da basteko abereindako* (Lin).
- zanbaluzka:** iz. zabua, ziboa <Columpio>. *Etxeko estrabilian zanbaluzka ederra paratzen ginue* (Mez). Sin. zinibili-zanbala.
- zangaluze:** iz. hanka luzea <Persona de piernas largas>. *Ai urde zangaluze!* (Mez).
- zango:** iz. zangoa, bereziki gizakiarena, oina <Pie>. *Bota baze zangoz... eztakit* (Lin).// *A ze zango ttxikiak tuen.*// *Nik iruki nue tobillotik autsik zangoa, mando batekin lasterka nindeelaik.*// 'Baniz, non gogo, han zango' (Intza).
- zangoaundi:** izond. hanka handia <Persona de pies grandes>. *Ara ze zangoaundie den goi!*
- zangolepo:** iz. zangolepoa <Espinilla, tibia>. *Zangolepoan artu dut mine* (Lin).
- zangomakur:** izond. zango makurra, oin makurra <Patizambo/-a>. *A zu, zangomakur!*
- zangome:** izond. zangomehea <Persona de piernas delgadas>. *Ni ala izeteko, zangome naiz* (Lin).
- zangozola:** iz. zangozola, oinzola <Suela del pie>. *Erakutsiko dizute non biauzun zangozola busti, sartzeko estrabilian* (Mez).
- zanpaka:** adlag. zanpaka, kolpeka <Onomatopeya de caer con fuerza de arriba a abajo, o de pegar golpes>. *Arrunt ai duk elurre zanpaka* (Mez).
- zanpar:** iz. zanparra <Catarro fuerte>. *A ze zanparra artu duen!* (Lin).
- zanpatu:** ad. zanpatu, astindu <Golpear>. *Ile goi ongi zanpatu bear tzen* (Lin).
- zapaburu:** iz. zapo burua <Renacuajo>. *Zapaburu anitz Ligeztan.* Sin. Kapon.
- zapata:** iz. zapata <Viga solera, madero asentado de plano sobre fábrica para que en él descansen o se ensamblen otros horizontales, inclinados o verticales> (Est. Huarte). Sin. Karrera. *Zapata ederrak etxe orrek.*
- zapaterorratz:** iz. zapatero-orratzak <Zapatero-orratzak>. *Zapatak yosteko erabiltzen ziren orratz andi betzu, zapaterorratz* (Lin).
- zapatu:** ad. zanpatu <Pisar, aplastar>. *Biar ziñuzelaik gaztañak iten tzinue zapatu, ta orduen atratzen zire* (Mez).// *Zapatzen den goi da zangozola* (Lin).
- zape:** iz. zapea <Juego que consistía en colocar monedas, cada jugador ponía una, y con otra moneda se tiraba hacia el montón. El que conseguía que se acercara más, tenía la vez la siguiente ronda. (Mez, Lin)>. *Lenago bazire yoko batzuk, «al tzape» erraten gineko, paratzen zinuze, balin bazire sei lagun, sei sos elkarren gañan, ta botatzen zindue bisosekoa emendik, zeñek urbilego uzten zuen sosken ondora ure ze lenbixikoa kolpetzeko* (Mez).
- zapeta:** iz. 1. zapata <Zapato>. *Zapetak tortzen zaizkire zabal, pizke bat zabal* (Mez)// *Igendetan zapetak* (Mez, Per). 2. zapata <Umbral, peldaño ante el portal> (Huarte).
- zapin, tzapin:** iz. galtzerdia <Calcetines gordos que hacían los pastores, especie de pollainas>. *Tzapin beroak zire oyek.* (Mez). Sin. eskarpinek.
- zapo:** iz. apoa <Sapo>. *Putzu oyeten zapo anitz atratzen zire* (Mez).
- zapukatu:** ad. zapaldu, zapukatu <Aplastar>. *Zapukatu biar duzie ongi belar ori* (Lin).

- zar:** izond. 1. gaiztoa, txarra <Malo>. *Serpiente zar gaisstoari burua austera.* (Erro). 2. txarra <Viejo>. *Etxe ori gorki zarra da.* ***zartzera:** zahartzera <Al envejecer>. *Zartzera bere tokira.*
- zaragata:** iz. zarata, nahasmena <Ruido, follón>. *A ze zaragata in zute mutiko goyek!*
- zaraka:** iz. zaraka, bago meharra <Haya delgada, bosque formado por árboles bajos y matorral. Se marcan generalmente unas cuantas para el lote de una familia cada año>. *Zaraka atratzen da o bien arbolearra ondotik o kendu arbolia ta berriz betetzen da plantaz. Oe tire zarakak, ortik formatzen da oyania gero* (Mez).
- zaranda:** iz. zaranda, lurra berdintzeko pasaten zen zura <Madera con hierros que se pasaba para igualar la tierra>. *Zaranda oyek pastu biar dire* (Mez).
- zarandaja:** iz. nahasmena <Lío, jaleo>. *Ixo zarandaja goyekin!*
- zarata:** iz. zarata <Ruido>. *Zarata anitz emen* (Lin).
- zaratrako:** iz. 1. zaratrako, ihauterietako morroa <Disfraz de hombre con una cabeza grande>. *Muzizarko zaratrako, quítate ese trapo* oihukatzen zuten Mezkirizko hau-rek ihauterietan. 2. itxura txarreko pertsona <Persona de mal aspecto>. *Arrun zaratrako zagon.*
- zarboratu, zaazporratu:** ad. zahartu <Aviejar, avejentarr>. *Ta pobreak beti po-break ta zarboratuik, desinik lanian aituz* (Lin).// ...ta ez neikela ibili, anka ebek eztirete seitzen, zaarporraturik nago (Lin).
- zare:** iz. saskia, zarea <Cesta>. *Zária ibiltzen ginue beti.*// *Karri zare bat sagar.* Sin. zae.
- zarkume:** iz. zahar-ume <Adindu ondoren haurdun gelditzen diren andreak> *Çarcume* (1644), *Zarcumerena* (1726) da Ardaizko etxe-izena.
- zarmant:** ik. xarmanta.
- zarpa:** iz. zarpa, zarta <Mano grande y fea>. *Ara ze zarpak tuen orrek!*
- zarrakamalda:** iz. zarrakamalda <Marrazo. Gancho para quitar matas de los ribazos>. *Zarrakamaldaikin kendu biar dire belar oyek.*
- zarrantza:** iz. zarrantza <Cepillo para limpiar las vacas y las yeguas>. *Zarrantzekin garbitzen ginuze beyak* (Lin).
- zarre:** iz. zikinkeria <Suciedad>. *A ze zarria zuen orrek!*
- zarrera:** iz. zaharrera, zahartasuna <La vejez con sus achaques>. *Zarrera beti txarra da.*
- zarri:** iz. eizarri, jarri <Ezarri>. *Kokoriko zarri de* (Mez).
- zarta, zartako:** iz. zartako <Sopapo, tortazo>. *Man zizkire bidian bi zarta.*// *Main zizu zartat arek bai.* // *Ematen al zizun zartat igortzen zizuna arata* ‘Eman ahal zizun zartako bat igortzen zintuena hara’ (Lin). *Main dizut zartakoat* (Zil) Sin. zarta.
- zartako:** ik. zarta.
- zartatu:** ad. kareberritu <Revocar, enlucir> (Egoz). *Etxe guzie zartatu zute* (Huarte).
- zartegi, zarteria:** iz. zartagia <Sartén>. *Zartegia garbitu biar dire ongi.*// *Zartagie eskuistik dauke.* ‘Bere eskuko da. Bera da agintaria’ (Mez, Intza).// *Zarterien intez ze, eztute goxuak izein, zozkúmeak?* (Lin).
- zarteri:** ik. zartegi.
- zarzutu:** iz. zahartzaroa <Vejez, tercera edad>. *Aurzutue ta zarzutue, beti aur-kontue* (Intza. Est).
- zata:** iz. zata, abarka <Abarca muy tosca, de goma>. *Atari artan beti izeten zire zatak* (Mez).
- zato, xato:** 1. ad. zatoz! <Ven!>, *Xato onata!* 2. iz. zhahaoa <Bota de vino>. *Obenian zatotik brokala kendu te edaten tzizu ardoa, gero tortzen ze etxera ta asalde guzian ala erailtzen ze* (Mez).
- zaude:** ad. itxoin!, egon! <¡Espera!>. *Zaude ixten pat!*
- zauli:** ik. zalu.
- zaun izan:** ad. nabaritu <Notarse>. *Orai eztu iduri au errie dela, orai ezta jaere zaun, baña denbora artan emen zen umoria ezta diruikin ere karriko* (Lin). ***zaun de:** ezagutzen da, ikusten da <Se ve>. *Oyetik ere guti zaun de orai.*// *Orduen zaun tzire emengo gaztiak* (Lin).
- zaundu, ezaundu, zautu, ezautu:** ad. ezagutu <Conocer>. *Maztia eztut zauntzen* (Lin). *Zaundiko du orrek.* // *Ikusi baña nik eztut ezautu.* *Lenbixiko... ortaik zaundu nue* (Lin).// *Zenbat zauntz zitue gizon garrek!*

- (II) // *Zundu zindue Fidel?* (Lin) // *Zautu, norbait tortzen balmidea erraten al duzu olako gizona zaundu diet egun* (Lin).
- zaunke:** iz. zaunka <Ladrido>. ***zaunkeka:** adlag. <Ladrando>. *Orzagokoan nindego ta atra tzakur bat ta asi zaunketa ta joan nitze Gereñiñe* (Lin).
- zaupegi:** iz. ezaupegia, zerbait antzemateko albideea <Golpe de vista>. *Orrek zaupeia ona du ardiendako* (Lin) // *Orrek badu zaupegie ardiendako*.
- zautu:** ik. zaundu.
- zazi ze:** ik. yoan.
- zazpi ilebetean sortue:** izond. zazpi hilebete-kin jaiotzen direnak <Sietemesino/-a>. *Arreba zazpi ilebetean sortue da, sietemesina da* (Mez).
- zeape, ziape:** iz. zeapea <Mostaza amarilla, planta perjudicial que sale en los cultivos y en los patatales>. *Ziape oyek kendu biar tugu ongi* (Lin).
- zeillu:** ik. zeiu.
- zein:** galde. *zein* <Cada cual a su lado>. *Zein bere alde* (Mez).
- zeintan:** galde. *zeinetan* <En el cual> *Aurizberri aldera guazilaik ikusten da zelai eder bat zeintan egoten dire bei, beor, auntz eta ardiak.* (Auz)
- zeiu, zeillu:** iz. zeioa, aitzur txiki baten antze-ko zurgintza tresna <Hierro para agujear las cucharas de palo>. *Zeyuekin iten ginuze kuxetak* (Mez) // *Anayak agoa ziletu zi-yuekin* (Mez).
- zekale:** iz. zekalea <Vaina de la alubia verde>. «Apodo de uno de Erro, debido a su rostro arrugado». *Berde oyek dire zekaliak* (Lin) // *Zekalea da alubie, baña* (Lin).
- zeken:** izond. zekena, elkorra, lurraz mintzatuz <Dícese de la tierra dura y húmeda>. *Lur zekena soro ontan* (Lin).
- zelaitu:** ad. zelaitu <Dejar sin arbolado>. *Erran tzuten zenbait lekuetan pala oyekin mendiek in zuztela zelaitu* (Lin).
- zenbait:** zenb. zenbait <Alguno-a>. *Lertu zekio dudikebe zain zenbait ta odola joan zekio franko* (Lin). // *Nik zer dakit zergatik il-tzen... izein zuen min zenbait.* // *Nik uste nue ileri zenbaitetara joaten tzirela baña ezta olakoik* (Mez).
- zenbaitzu:** zenb. zenbaitzuk <Algunos>. *Zenbaitzurei man tzigute ederkia bazkaltze-ra ta bertzeatzurei ogi ta txaurrek* (Lin). // *Mingarretxe anitz izeten ze Xubindo lurre oyetan, ta zenbaitzrek yaten tzute, nik ez tut lazki yan* (Mez).
- zengatik:** ik. zerengatik.
- zentzu:** iz. zentzuua <Fundamento>. *Sekulen ez aiz zentzuuen sartiko* ‘Sekula ez haiz zentzatuko; axolakabe ta kaskarinari esaten zaio’ (Mez, Intza).
- zerbaitere:** izord. zerbait <Algo>. *Erran zion Iruñako orrei ya in zezen zerbaitere* (Lin).
- zerbitzatu:** ad. zerbitzuan egon, zerbitzatu <Servir>. *Zerbitzatu bear tut mai oyek.* // *Eztuzu ebec cerbizatu, eta adoratu?* (Erro).
- zerbitzteri:** iz. 1. zerbitzaria, apezarekin bizi zena <Ama del cura, a menudo su hermana o su madre>. *Apezaikin zegon andria zerbitzerie ze* (Lin). // *Zerbitzerie emen zaun dutena nik zen apezain arreba, Orbarakoaa, amairu urtetan oraño yotzen zire neri eli-zen apez arrek* (Lin). 2. Festetan bazkariak prestazten laguntzen zuena <Mujer que ayudaba en las fiestas>. *Kozinerie baitzute, zerbitzerie.*
- zerengar:** adlag. bадаеzпада <Por si acaso>. *Zerengar ekarri dut yokie; eta bearrik.* (Erro, Intza)
- zerengatik, zengatik:** adlag. zeren <Porque>. *Iru erri oyek arras onak dire udako zerengatik etzu berotzen beste leku zenbaitetan bezela* (Lin).
- zergatik:** galde. *zergatik <¿Por qué?>*. *Cergatic dembora evetaco christauec urre gucion beressi barinbadute dembora pisscabat* (Erro).
- zerike:** galde. *Zer moduz?, nola? <¿Cómo está?, ¿qué tal está?>*. *Fernando zerike dago?* (Lin). // *Aber eskopeta zerike zegon. Eskopeta kobratue ere inik dago ongi.* // *Zerike dao bizie Sansebastianen?* (Lin).
- zernai:** izord. edozein gauza <Cualquier cosa>. *Orduen denborartan bazire mando ta asto ta zernai.* // *Tortzen zen, yaten zuen, berrendatu, zernai kontu atratzen tzue...* // *Zelai ortan zernai ur bada* (Lin). // *Denbora ayetan baze arbole anitz kofa zutenak, baze zernai erle.* ***zernai gise:**

- edozein modutan** <De cualquier manera>. *Zernai gise, o balin bazue sosik o ezbalin bezue, iñiar zindue limosnat bezala.* ***zernaitako:** adond. edozein gauzatarako <Para cualquier cosa>. *Andre ori zernaitako dago or.*
- zeroiek:** izord. zerok <Vosotros mismos>. *Zeróyek in (Zil).*
- zerra:** iz. zerra <Sierra>. *Zerra bat ibiltzen gi-nue guk negurrien mozteko (Mez).*
- zerradatu:** ik. xerradatu.
- zerraka:** adlag. zerraka <Cortar a ruedas>. *Piltzoa zerraka ebaki ta erreik yaten gindue (Mez, Per).*
- zerratu:** 1. izond. zerratue, zerratue <Dícese de la oveja a la que se le ha completado la mandíbula y se le igualan los dientes>. *Sei ortzekoa da berdintzen baizaikio ortz guziak. Ta andik goiti zerratue, ortzak berdintzen baizezko, pues... zerratue ura (Lin).* 2. ad. itxi <Cerrar>. *Zuen tribune goi zerratuik zego (Mez).// Bide oyek orai iñok ez baitu auzolanik eiten zerratui taude* 3. ad. zerratu: <Aserrar>. *Lenago denboraz, ni sortu biño lenago ta gero guti denboraz iraun zue, agoztegien patzen zute belarra piletuik, orduen bazire segatzuk kider bateki ta iten zute zerratu, ta zerratuz be-zala zazi gastatuz (Mez).*
- zerrenda:** iz. zerrenda <Fila, hilera>. *Zerrendan paratu biar duzie lenik (Mez). // Zerrenda oyek bildu biar tuzie.*
- zerribazka, tzerribazka:** iz. tixerri-bazka <Comida de los cerdos>. *Lenagoko zerribazka ayek ta iten zitue nere amak (Lin).*
- zerriki:** iz. zerrikkia <Carne de cerdo>. *Zein ona den zerrikie.*
- zerriltzaile:** iz. txerri-hiltzailea <Matarife del ganado porcino>. *Zerrie iltzen duena atsaldean tortzen da partitzera zerrie, orduen zerriltzaliaindeko guardatzen dire oyek (Mez).*
- zerritogi:** iz. txerritokia <Pocilga>. *Artama beren kume guziekin mendira eramatzen zire, zerritogiak iten zire an; orai eztute uzten itera ja ere, zeure propiedadean eztau-keze arbole bat bota (Mez).*
- zerrol:** iz. zerrola <Tablas del pavimento>. «*Zerrol mea Zunzarrengoa*» dio Irozko bertso batek.
- zertako:** galde. zertarako, zergatik <i>Por qué, para qué? Maria, certaco negar eguiten duzu? (Erro) // Zertako ez duzu iten periodiku artan idatzi? (Lin).
- zertara:** galde. zertarako <i>Por qué?> *Andrea, zertara negar eguiten duzu? (Erro).*
- zeru:** iz. zerua <Cielo>. *Zerue ilune egun (Mez).*
- zeurorreki:** izord. zerorrek <Tú mismo>. *Tzakurre ezbalinbauzu usetzen zeuro-rek....*
- zezenko:** iz. zezenkoa <Novillo>. *Zezenkoa da osatu gebe dagolaik (Lin).*
- zezpal:** iz. ezpala <Astilla>. *Zezpalekin iten ze su ederra (Mez).*
- ziape:** ik. zeape.
- ziarraize:** iz. zehar haizea <Viento noroeste, vendaval>. *Gaur goizian ziarraizia atra da (Mez).*
- ziendoko:** ik. eltziondoko (Ol).
- zigorraldi:** iz. zigor <Castigo>. *Eta eman ziorte bertze zigorraldi zerbait (Mez).*
- zikin:** izond. zikina <Sucio>. *Ai urde zikine!*
- zikinkaeria:** iz. zikinkaeria <Suciedad, cochinda>. *Zikinkeri anitz dago sukeldet ontan (Mez).*
- zikiro:** ik. tzikiro.
- zildai:** iz. zildai <Collar>. *Lepokoak eta zildaiak eginzaleak ere badire (Mez, Per).*
- zil izan:** ad. zilegi izan <Licitar>. *Sakarteko berokian kafea artu dut bein baño geago, eta goxoki baño erran zigute ez ginduela zil, eta badu anitz urte ez dugula erain (Mez, Per).*
- ziler:** iz. zilarra <Plata>. *Zilerra zuri zurie arrun pollite da (Mez).*
- ziletu, xiletu:** ad. zulatu <Agujear>. *Ongi ziletiar da ori // Fernandok iten tzue agoa xi-letu ta legundu pixket, forma pixket man ta (Mez).*
- zilintze:** ik. tzilintze.
- zilo, xiyo:** iz. zuloa <Agujero, cavidad de cueva>. *Zilo aundi bet in dugu or.// Axaxilon sartu dire gure beak (Mez).*
- zimendu, zimentu:** iz. zimendua <Cimiento>. *Zimentuz inik balin badauke muro bat ona, orduen eztu peligroik, atratzent baituzu ori iteko zimenduek, sostenitzen da indarrain. ***zimendu atera, zimendu bota:** ad.*

- zimenduak** atera <Sacar los cimientos.>
(Huarte). *Etxeko zimenduak bota zuzte.*
- zimentu**: ik. zimendu.
- zimiterio, zimitorio**: iz. eliz-ataria <Atrio de la iglesia, donde antiguamente se hacían los entierros>. *Elizeko atarire zimeterio erraten zayo.// An mentzego zimiterioan esperoan gizon goi.*
- zimitorio**: ik. zimiterio.
- zimitza**: iz. tximitxa <Utensilio cilíndrico empleado para elaborar quesos>. *Zimitza aye-kin iten ginue bi gazta egunian* (Mez).
- zinbel**: iz. zinbela <Cinbel>. *Erroko Aldaburu artaik pasten zire orduen xarmanki usuak, iduri zue gerra. Orai eztago olakoik ta usuak yoaten dire Antxuako goratasunian. Lotuik paratzen tzute ta gero kuerdatekin ibiltzen tzutze ola, ta banda eldu zelaik tor-tzen tzire* (Lin).
- zinbili-zanbala**: iz. zabua <Columpio>. *Lenago zinbili-zanbala deitzen ze; nere alabak dio orai zanbaluzka deitzen dela* (Mez, Per). Sin. zanbaluzka.
- zinga, tzinga, tzinge**: iz. txinga <Pieza de hierro con una cuña que se clava en el tronco y con un arco en que se ata la cadena>. *Ta tzingat sartzen tze zurian ta kate batekin lotu pastu bi anilletan ta errestratzeko zu-rek* (Lin).
- zinger**: ik. txingar.
- zingile**: iz. zingila, petrala <Cinchilla para el basto>. *Zingile da basta paratu animele batei ta gero ixten duzu beren zingilekin ez jo-ateko basta ori bere lekutik* (Lin). // *Olako zingile bezelako batekin pextxo parerik ar-tzen tzute aidian ta ankak tiretzen tzekote alderdietara* (Mez).
- zingilitarda**: iz. sugandila <Lagartija> (Irib, Erroib). Sin. segundila.
- zinpi-zanpa**: onomat. zinpi-zanpa, dinbi-danba <Onomatopeya de golpear>. *Makila artu ta zinpi-zanpa asi zen aurre yoka* (Lin).
- zintzetu**: ad. zintz egin, mukiak indarrez ateratzen egiten den soinua <Sonarse las narices>. *Zintzetu pixkat!*
- zintzileketu**: ad. zintzilikatu <Colgar>. *Lukerike goyek zintzileketzen zire* (Mez).
- ziñez**: adond. zinez <Verdaderamente>. *Ciñez, gende andia* (Erro).
- ziondoko**: ik. eltziondoko.
- zirein**: iz. izaina <Sanguijuela> (Erro, Azk. Eranski).
- zirikeka**: adlag. zirikatuz <Enredando, incordiando>. *Zirikeka ari de mutiko goi.*
- ziriketu**: ad. zirikatu <Enredar, molestar, provocar, pinchar, hostigar>. *Bizerrak atratze-ko biar du ziriketu ziloan* (Mez). // *Beti ai de zirikiatzen mutiko goi* (Mez). Sin. ziri-kiatu.
- ziriku**: iz. zeta <Seda>. *Zirikueikin iten zire atorrak.*
- zirin**: iz. zirina <Líquido, jugo>. *Orrei atra bear dakote zirine guzie* (Lin) // *Orrek ate-rako dizu zirine bai!*
- zirri**: iz. zirria, zikinka <Suciedad>. *A ze zi-rrie dagon atari gibelean!*
- zirri-zarra**: onomat. <Onomatopeya que indica de un lado para otro>. *Makil mearra ka-tuei zirri-zarra yotzeko* (Lin).
- zirriki-zarraka**: onomat. adond. zirriki-zarra-pa <Sin cuidado, zarrapastrosamente>. *Or-dabile zirriki-zarraka*. Sin. zirriki-zarrapa.
- zirripi-zarrapa**: onomat. ik. zirriki-zarraka.
- ziruke**: ik. tziruke.
- zirurike**: ik. tzirurike.
- zito, zitu**: iz. ijitoa <Gitano>. *Zituen gise: az-ken itze bere*. ‘Ijitoak ala omen dute. Beste leku batzuetan ‘Apezak du azken itza bere’ (Mez, Intza) // *Guk zitoa erraten dugu, kit-toa erranteunte zenbaitek.// Eta orduen, etxeko nausiek, edan (sic) tzue Zuriengo zi-tuei mateko abisetzera, abisetzeko* (Ilur).
- zitu**: ik. zito.
- zize**: iz. ziza <Seta>. *Aurten zize ederrak atra-ko dire eguri onekin* (Mez).
- zizel**: iz. zizela, harria eta egurra arrailatzeko erabilten den tresna. <Cincel>. *Zizel ori ibili biar dugu egurre arrailatzeko* (Lin).
- ziztetu, tziztetu**: ad. zizzatu, zizta egin <Punzar, pinchar>. *Ollaga oyek nola zizte-tzen zute!*
- ziztu**: iz. txistua <Silvido, ruido estridente producido por una puerta>. *Ta, ni deskuidotan baze ganbaran armario bat, eta armario arek iten zue erekitzten asten nuela nik ola-ko ziztu bet, orduen amitxik aitzen tzue ure ta olako abar batekin segitzen zire ganba-ra guzitik* (Lin) // *In omen tzue ziztuet ta ardiek goratu zute burue* (Lin).

- ziztu in:** ad. txistu egin <Silvar>. Zenbaitzurek iten dute ziztu erikebe, bertzeatzurek eriekin (Mez)
- zoi:** iz. zogia, lur puska belarra gainean duena <Tepe, trozo plano de tierra con hierbas en su superficie utilizado para tapar sitios donde no hay hierba, o pedazo de tierra que se saca con la laya o con la azada>. *Sagoi artan zoye anitz paratu gindue.// Layaikein iten tuzu zoyak, layaikein buelta ematen da-kozu zoyai* (Mez).
- zoketa:** iz. zoketa <Guantelete de madera que emplean los segadores para protegerse de las manos>. *Zoketa anitz izeten zire or dilinden* (Mez).
- zokete:** iz. zoketea <Freno del carro>. *Zurezko zoketeak paratzen ginuze.*
- zokitón:** iz. ohea <Cama, dicho siempre en sentido humorístico>. *Banae zokitonera* (Mez).
- zokon:** iz. sakona <Hondo>. *Plater zokonak paratu tugu mai gañian* (Mez).
- zokoteatu:** ad. zokoak miretu <Registrar, mirar los rincones>. *Aur oyek dena zokoteatzen ari dire* (Lin).
- zokotera:** izond. ikusnahi, jakinahi <Persona curiosa que le gusta mirar los rincones>. *A ze zokotera inik zauden!*
- zola:** iz. zola, oinarria, zimendua <Suelo>. *Zolara bota da aur goi* (Irag, Zil). ***zolaerdi:** iz. zola erdia <Media suela del zapato>. *Zolaerdiek man dazkot zapatei* (Mez).
- zoladure:** iz. 1. zoladura <Tarima del suelo>. *Zoladure artan maten ginue argizerie.* (Est). 2. sapai <Parte superior de las estancias de un edificio que las cierra y cubre> (Eu. Huarte). Sin. Lur.
- zolatu:** ad. 1. zola bota <Echar el suelo, cementar>. *Orai estrabiliak zimentaz zolatu tuzte.* 2. zolatu, zolak paratu <Echar suela a un zapato>. *Zapetak ere... etxian negurten ziguten zangua iteko.*
- zolda:** iz. zikinkeria, zolda <Mugre, suciedad>. *Ara ze zolda duzun or!*
- zoldazu:** izond. soldatsua <Sucio, lleno de mugre>. *Au mutiko zoldazue!*
- zolu:** iz. zola <Suelo>. *Sukaldeko zolue in dute berritu* (Lin).
- zonbor:** iz. enborra <Tronco grande> *Eguerritan kartzen ginue zonbor audi bet* (Irag).
- zonkortu:** ad. konkortu <Encorbado>. *Gizon goi zein zonkortui tagon!* (Mez).
- zopirin:** iz. zotina <Hipo>. *Mutiko orrek zopirine aundie du* (Lin). Sin. zotin.
- zoratu:** ad. zorabiatu <Marearse>. *Orai joaten naizelaik biaje ortan, orai zoratzen naiz.*
- zori:** iz. zoria <Suerte>. *Zori onean jaio doneilla ederra; dichosa eta milla aldiz dichosa zara zu* (Erro).
- zorne:** iz. zornea, materia <Pus>. *Zorne anitz atra zekio* (Lin).
- zorri:** 1. iz. zorra <Piojo>. *Zorri ugeri izeten zute aur goyek* (Mez) // *Igual orduaak zorri iltzen burutik* (Lin). 2. izond. zorra, zirikatzailea <Dícese de la persona salsera, entrometida>.
- zorritsu:** ik. zorruzu.
- zorruzu, zorritsu:** izond. zorruzua <Piojoso>. *Ai urde zorritsue!// Zorriuek!* (Mez)
- zorro:** iz. 1. zorroa <Tripa>. *Ara ze zorro duen orrek ere!* // 2. zorroa <Costal o saco para transportar grano>. *Aldiz yoaten dire zorroak errrotara* (Mez. Intza). ‘Aldizka etortzen dira zoritzarrak, behin bati, behin besteari’.
- zorroka, xorroka:** iz. 1. zurrunga <Ronquido fuerte> 2. <Dícese de la tos agitada de animales o personas que recuerda a los ronquidos>. *Ardi orrek zorroka andie du* (Lin).
- zorrotz:** izond. zorrotza <Afilado/-a, agudo/-a>. *Orren kanibeta arrun zorrotza dago.*
- zorrotzarri:** iz. zorrozteko harria <Piedra de afilar>. *Arrie zorrozteko aizkorak eta kani-betak ta oyek.*
- zotin:** iz. zotina <Hipo>. *Zotineki asi ze aurre (Lin). Sin. zopirin.*
- zotz, txotz:** iz. txotxa <Palo fino, leña menuada>. *Txotx bateki konpondu zuen arek.*
- zozo:** iz. (ornit.) zozoa <Tordo>. *Aurten zozo anitz tortzen dire onara yatera.// Primedera allegatu te alderdi guzietak kantuz te..., orai eztuzu zozoat kusten* (Lin).
- zozokafi:** iz. zozoaren kabia <Nido de tordo>. *Zozokafiek ere artzen tzire denboratez* (Lin).
- zozokeria:** iz. zozokeria, ergelkeria <Bobada>. *Zozokerie da gauzatzuk eztutena fundementuik.*

- Zubri:** iz. Esteribarko herria <Zubiri>. *Pasatu dut iru urte Zubrin, Zubrien (Ilur).*
- zugarro:** iz. zugarroa <Olmo silvestre>. *Zugarro oyek guziek denak eri dire.*
- zuge:** iz. belarra eta ahotza. <Hierba o paja almacenada en el pajar>. *Lenago berrogei egunez eoten ziren animaliek etxearen, orduen agoztegiak sufritzen zute ta gero tortzen zen primedera ta zugeak etxeakoak akabatuek zire (Mez).// Belarra o agotza o zer den, sugéa erraten da (Lin).*
- zuin:** iz. zuina, aziak jartzen direnean paratzen den marka <Trazado, traza que se hace en un campo antes de la siembra>. *Aziek botatzen zirelaik paratzen ziren zuñek (Mez).*
- zuirindu, zurindu:** ad. zuhirina, pipihautsa <Apolillarse>. *Atari goi dena zuirindue da (Lin).*
- zukre:** iz. azukrea <Azúcar>. *Orreri zukrea bota biar tzayo.*
- zuku:** iz. 1. zukua <Puré>. *Atra zazu patatazukue (Lin). Gu aurrek ta andixeago inik, artsian zukue ta esnia talaoikin yaten ginue arraziotako (Mez) // 2. <Plato de caldo>. Aza patatakin ta iler berdiak patataikin yaten ze, zukua erraten ze (Mez).*
- zume:** iz. zumea, zumerika <Mimbre>. *Bilurra da zumia biurtu te gelditzen da ola, orduan bertzeat sartzen diozu emendik ta iten duzu igual (Mez)..* ***zume beltza:** <Mimbre negra, utilizada por los gitanos para cestas etc>
- ***zume xuri:** <Mimbre blanca, utilizada para hacer mantxaderas, muy fuerte y flexible>. *Zume xuri goi alor moetan atratzen tze.*
- zumerike:** iz. zumerika, zumea <Vara de mimbre>. *Main dizut zumerike batekin e! (Mez). // Asmakizuna: «Luze ta mear, mundu guzia in bear, da zumerike» (Lin).*
- zunbil:** iz. zunbila, lurra lehuntzeko erabiltzen den harrizko zilindroa <Tronco grande cilíndrico que se utiliza para partir leña, o carne>. *Zunbile larrañian dago.// Zunbile usetzan al duzu aragie xeatzeko (Lin).// Zunbile da alako arbole puskat, zerrekin moztu ta usatzan duzu aragie ta xeatzeko (Lin).*
- zunzun:** izond. zuntzuna, ergela <Simple, de poco fundamento, bobalicón/-a>. *A ze yende zunzune!*
- zur:** izond. zuhurra <Agarrado/-a, tacaño/-a. Se cantaba en los bautizos cuando echaban po-
- cos caramelos a los niños-as. *Amatxi, zurre, aitatxi zurre! se cantaba en los bautizos. Ori makume zurra, etxe artakoa! (Lin).*
- zuraje:** iz. zurajea <Maderamen de la casa>. *Etxeko zurajia in zue zurgin orrek (Lin).*
- zureria:** iz. zureria, egur lotea <Lote de leña>. *Zureriek errieik ematen tzuen prezioen erdien (Mez).*
- zurgin:** iz. zurgina <Carpintero>. *Zurgin beti izeten ze erri auetan (Lin).*
- zurgintegi:** iz. zurgindegia <Carpintería>. *Zurginek lan egiten duten lekua.*
- zuriale:** ik. zuriel.
- zuriel, zuriale:** iz. belar txarra <Hierba con cabeza amarilla, y con una especie de vainas granadas. El fajo de hierba mezclado con eso hacía mucho ruido>. *Zuriale ayekin kriski-kraska iten zute belarrek.*
- zuirindu:** ik. zuirindu.
- zuringo:** iz. arraultz zuringoa <Clara del huevo>. *Gero iten tzue arrotzia gorringua kendu ta zuringuakin ta lengo etxamin oetan baize kedarria... (Lin).*
- zuritu:** ad. zuritu <Blanquear, pintar de blanco un lienzo de pared>. *Etxia ongi zuritu zute (Mez).*
- zurki, xurki:** adond. zuhurki <Con tacañería>. *Zurki in dik etxe ori!*
- zur:** iz. zurra, zartakoa <Castigo, corrección>. *A ze zurra man zeko aurral!*
- zurrietu:** ad. zurriatu <Dícese de la persona que ha trabajado mucho y se encuentra cansado>. *Gizon goi ongi zurrieta dago (Lin).*
- zurrunga:** iz. zurrunga <Ronquido>. *Zurrungaka ari zen goatzian (Mez).*
- zurrutarri:** iz. zurrut-harria <Vertedero de la cocina, piedra de fregar>. *Lenago bazire etxe oketan zurrutarriek (Mez).*
- zurrutero:** izond. zurrut egitea gustatzen zaiona <Bebedor/-a>. *Oni ardoa kuadratzen zayo, arrun zurruteroa da (Lin).*
- zurtu:** ad. zuhurtu, zekendu <Escasear>. *Ure zurtzen delaik gaizki pasten da (Lin).*
- zutu:** atz. Denboraldia adierazten duena -zitu, -zutu <Sufijo que indica época>. *Aurzutue ta zarzutue, beti aur-kontue (Intza. Mez). Ik. zarzutu.*
- zuzen:** adond. <Recto, derecho>. *Zuzen zuzen gelditu de.* ***zuzenian:** adlag. zuzenean <Al derecho>. *Para zazu ori zuzenian (Mez)*

2. KAPITULUA:

TESTUAK:

IDATZITAKOAK ETA AHOZKOAK

0. Sarrera

XIX. mendeko edo XX. mende hasierako urteetan egina ziren *Erroko* testu batzuk ekartzen ditugu orain. Eskuizkribu hauen fotokopiak eskuratu genituen osaba baten eskutik. Berak erran zigunez, herriko apaizak eman zizkion beste kopia batzuk Jose Maria Satrustegi zenari, eta horiexek dira, gero *Euskal Testu Zaharrak* liburuan argitaratu zituenak (1987: 261-273), bertan dio hauen originalak galdu zirela. Hiru sermoi ziren, folio neurriko 9 orrialde, ezker-eskuin idatzirik. Arrunt gutxi direnez hizkera honetan idatzitako testuak, hona ekartzea egokia dela pentsatu dugu.

Honezaz gain, bazen beste testu bat Oliadura ematekoa: *Exorto para el que ha de recibir la estrema=Unción (sic)*, testu hau gure *Erroibarko eta Esteribarko hizkera* liburuan transkribatua agertu zen (2000).

Edukiari dagokionez, esan behar lehenik herriko apaizak prestatutako sermoiak direla, horregatik herriari zuzenduak dira eta hizkera bizia erakusten dute. Sermoi bakoitzaren goiko partean, latinez idatziriko esaldi bat dator, eta gehienetan dagokion kapitulua eta apostulua jarraian idatziak agertzen dira. Puntuazioaz den bezainbatean, testua koma eta, puntu eta komen bidez berezia badago ere, gehiena jarraian idatzia agertzen da, ia pasarterik gabe.

Gure edizioan sailkatu ditugu sermoiak: Erro. A *testuak* deituko diegu Satrustegik (1987) argitaratutako I eta II zenbakidun sermoiei, eskuizkribuak ikus-teen, letra bera zutela ikusi genuelako, Erro. B *testuak* izango dira Satrustegiren III eta IV-a. Gure transkribapena eta Satrustegirena ez dato bat kasu guztietan, arrazoa eskuizkribuko letren interpretazioan datza. Testu hauen guzien iruzkin dialektologikoaren berri izateko ik. (Ibarra 1997).

Hitzen egiturari dagokionean, aditz nagusia + aditz laguntzaile, izena + era-kusle, eta zenbait morfema (barin, bide) aditzetatik bereizi ditugu aldaketa fonetikorik ez dagoenean, gaurko modura egokituz, gehienetan itsasirik agertzen baitira. Honelakoetan ez da testu-oharretan ezer adierazi. Aitzitik, aldaketa fonetikoak sueratzekotan, dagoen dagoenean utzi ditugu. Ortografia iluna dagoenetan, eta horrelakoetan, orrieko oharren bidez zehaztu dira dagozkiengos iruzkinak.

Orrialdearen originalak <> zeinuen artean bereizi dira, eta paragrafoak ere, hobe ulertzeko, parentesien artean jarri ditugu.

1. Erro. A testuak

VALDE MARI UNA SABBATORUM, VENIUNT AD MONUMENTUAN; ORTO JAM SOLE. MARC. 16

(1) Sosegu andian, eta descuido gueiagorequin lo cegon Profeta Jonas Unciaren barren barrenean, dembora berean Unci ontaco Capitan, Mariñel, eta Pasajero guciac aurquicen cirelaic mundu ontan pensa aldaizquen trabajuic andie- netan: instantebatetic bercera Ixasoaren boladac goiticensituen ceruco odieta- rño, bereala sarcen cituen Ixasoaren ondarreraño. Tenpestadec eta tormentec arrallacen cioten Uncia, Aice gaisstoec austen citioten Unciaren belac eta cuerda guciac; aguercent ciceizquiozen goibel bet- bazuc oñazturez, eta ortoxes beteric guciac arri- cen eta loxacen zustela. Ixasoaren orroec lazacacen cizuela; Urec batac berceai gol- pe emanez, abuñac ceruraño goiticensituen cirela, eta andic berceco Ixasoain ondarreco areac ikusi artean urac partien cirela.

(2) Lance triste eta lastimoso gontan, trabaju even gucien erdian lo cegon Profeta Jonas sosegu eta descuido andiarequin. Baiña Mariñel eta Pasajero guciac cebilcan afluxuric eta arrituic uncico carga guciac ixasora botacen, mercaduria gu- ciac, eta orañic bear zuzten alimentuac ere, berin biciac libraceagatic; oiu eguiten zutela negarrez Cerura misericordiaren eta socoruaren billa. Iratzarri cen bada noiz- baitere Profeta Jonas, eta icusi zuelaic tempestade bat ain itxusia eta loxagarria, Mariñelac eta pasajeroac erdi ilic beren bicieez esperanzaric batrere etzutela.

(3) Habiatu cen oizuz Profeta Jonas gucien alcinean erraten zuela, ura cela me- dio moguitu cela tempestade gura, eta nai bazuzten beren biciac libratu bota cezate- la Ixasora; berce gañeracoan guciac galduac cirela: *per me orta est hec¹ mittitte me in mare*. Neregatic sortu da tempestade gau nai baucie libratu bota nazucie Ixasora. Habiatu ciren bada tratacen cer egunen zuten, eta azqueneco determinatu zuten Ixasora botacea, eta botatu zuten bezain laster aguertu cen Balebat agoa edquiric eta sartu zuen oso osoa bere tripan; bereala sosegatu cen Ixasoia, eta serenatu cen Cerua, andic irugarren egunean eillegatu ciren Niniveko Portura, eta arara aguertu cen. Biliare Profeta Jonas bere tripan zuela, eta an botatzuen atealdibatez idorrera² pro- feta Jonas biciric, iru <2> egunez bere tripan iduqui ondoan.

(4) Orai bada considera zagun ongui, eta atencioarequin cer gustua eta conso- lua artu zioten Mariñel evec, eta Pasajero evec beren buruac icusteaz osoic eta sa- noic peligro evetaic, eta tempestade evetaic campoan, eta Profeta Jonas biciric atra cela Balean tripatic, iru egunez orciric egon ondoan. Nor naiec ezautuko du bada nere Gende onac, Pasajegau, eta lancegau dela figura bat, ero semejanza bat ongui propioa egungo misterio andi eta sandu gonena; Jesuxristo gure Redentorea guizon

1 Latinezko hitz hauek, e idekiz transkribatuak agertzen dira: guk denak *ae* bidez transkribatu ditugu.

2 «Pon», «profeta» baino lehenago idatzia eta ezabatua agertzen da.

eguin baño len, mundu ontara etorri baiño len, iduri zuen ló cegola, eta dembora beren mundu gau gucia cegon tormentaz, eta tempestadez beteric gure lemissico Aiten, Adanen eta Evaren becatua cela medioz. Tentacio gaisstoen aiceac cebilzan furia eta errabia andiarequin, trabajuen Ixasoa cegon nasiric eta coleraturic pena, eta lastima guciac batean ematen cituela; etce iñorere segur cegonic azquenean Patriarca sanduec Profetec, eta Jaungoicoaren aissquidec senticen zuten, eta sufriren zuten trabaju gau, eta desgracia gau, cergatic evec ilcearequin even arimac erausten ciren, ero erorcen ciren infernuco garcel ilunetara, Abranen calabozora.

(5) Iratzarri cen bada noizbaitere Jesuchristo gure Redentoria, etorri cen erran naidut, mundura guizon eguinic, gure erredimicera, tempestade evetaic eta tormenta evetaic libracerera, Luciferren azpitic atracera. Habiatu cen bada disputa cen Escriba eta fariseoequin, eta pendencia cembait izan ondoan condenatu zuten, botatu zuten bere trabaju eta pasione sanduco Ixasora, emen irasoi zuen eriocearen Baleac, iru egunez bere tripan iduquicen zuela.

(6) Icusagun bada orai cer eguin zuen Jesuchristo gure redentoreac ilic egon cen iru egun evetan. Fede sanduac eracusten digu, eta christau guciec ala confesacen dugu Jesuchristo erauchi cela infernuetara an ceuden anima sanduen libracerera. Lau infernu badire, lemissicoa condenatuena barren barrenean dagona, bigarrena purgatoria gracian ilcen diren animen lecua baina oraiñic becatuen manchetau ongi garbitu eztirenac. Irugarrena limboa aur batataiu gabe ilcendiren quartoa. Laugarrena Abranen calabozoa, anima justoen garcela, lau lecu ebetan bada manacen zuen Luciferren autoridades eta domino andiarequin, berac iduquicen cituela calabozo evetaco guilzac, aliqueta Jesuchristo erauxi artean.

(7) Bazuen bada aicea Luciferrec, Profeta sanduec erranic, Maria Santissimaren seme batec, Jesuchristo deicen cioten Jaungoico eta guizon batec il bear zuela munduko gende gucien favoretan, eta erremediotan, onec erauchi bear zuela infernuco <3> atarien idiquicera, eta Demonioari autoridadea eta potestadea equencerat; bacequien, eta etzuen sinestacen baiña beti cegon duda eta beldur andiarequin. Lucifer bere beldurraiquin cegon atendicen eta barrondacen ia Jesuchristo erausten cen, eta icusi zuelaic Jesuchristoren anima, gorpuza sepulturan utciric divinidades bietan aurquicen cela, majestade eta autoridade andiarequin erausten cela infernuetara, itzuli cen guibela lasterca oiuz bere lagunei erraten ciotela, Demonioac arma zaizte, ersguigun atariac ongi, guc sinestatu nai ezguinduena eguietan atrauc, guc beldurra guinduena elduduc, gueren buruoc, eta condenatuoc berere segurazguigun. Sartu cen bada Jesuchristo Abranen calabozoan, anima justoen lecuan gloriaz beteric, arguicen ciotela calabozu ilunura, ainberce urteanetan deusere icusten etzutela, deseoa andiarequin esperacen zutela mundu guciaren redentorea.

(8) Considerazagun bada orai pissa bat, nere Gende onac, cembat consolu, cembat bozcaric, eta cembat gusto artu zuten anima justo evec Jesuchristoren visita gonequin. Cein itz berachac erraten bide citioten S.n Josei, S.n Juan Bautistai, Dabidei, Abranei, Job sanduari, eta gure lemissico Aitei, Adanei eta Evay, erraten-

ciotela tristeac eta miserableac consola zaizte. Beida zacie cemba trabajutara botatu ninduen zuen becatuac: Dembora berean Jesuchristoren visita gonec infernuetara Demonioendaco, eta condenatuendaco izan cen tormentu gueiagotaco, errabia, eta desesperacio gueiagotaco, Demonioei, cergatic equencen cioten autoridade eta dominio gucia, condenatuei, cergatic etciteioten gueldicen infernutive atraceco esperanzaric batrere. Irugarren egunean bada juntatu cen Jeschristoren arima bere gorpuzarequin, eta atracen biciric Profeta Jonas Balearen tripatic, viztu cen Jesuchristo errezutitatu cen ez secula berriz ilceco: *resurrexit sicut dixit*.

(9) Bada Jesuchristoc berac erranic ceucan San Mateoin amabigarren, eta berrogeigarren capituloan; ala nola Jonas egon baicen iru egunez eta iru gauez Balearen tripan, ala arrec ere egon bear zuela iru egunez eta iru gauez lurrazen tripan: *sicut enim fuit Jonas in ventre ceti tribus diebus, et tribus noctibus, sic erit filius hominis in corde terrae tribus diebus et tribus noctibus: <4>* eta il bear zun bezper arrarean erran cioten bere discipuloeri amorio eta sentimentura andiarequin nola guciec desamparatuco zuten ilceracoan.

(10) Baiña erresucitatu ondoan guciei esperacen ciotela Galilean an icusico zutela guciec: *Postquam autem resurrecero praecedam vos in Galileam*. Egun goicean bada, argui astean, Iruzquia atra bezain laster balsamoac erosiric zoecin iru Mariac, negarrez, lastimotairic, guciei biozac particen, eta urcen citiotela Jesuchristoren gorpuceco llaguen untacera. Eillegatu cirelaic sepultura, eta icusi zutelaic an Jesuchristoren gorputza, orduan ciren bada andre even negarrac, eta lastimac, ustez norbaitec ebaxi cioten, baiña particularqui María Madalenarenac, erratezuela ! O nere Jesus, O nere Maistru Maitea, cer eguinen dut bada nic zu gabe, nora joainaz zure bila! cerc eremanaci nindue ni bart zure oïñetaic, ojala emen egon baniz zure guardian, etcinduzat utcico ebastera! O nere Jesus dulcea, norat ereman zaitutze ¿cer eztire contentatu zu ilceaz eta acabaceaz zure exaiac? orañic il ondoan ere eztizute descansuic emanai?

(11) Itz evec erraten aicelaic beidace zuen maiz sepulturara, ustez beguiac engañacen ciceizquion, eta ontan cegolaic icusi cituen iarcen il obian ezquer escuñetaic bi ainguiru zuriz beztituric, eta batec erran cion bereala, andrea certara negar eguiten duzu, consolazaite, alegrazaita, eztuzu cer loxatu, badaquit bilacen duzula Jesuchristo Nazareno crucificatua, erresucitatu da ia, ezta emen, icusazte orci zuten lecuan; zoaci, errantzozute apostoluei, particularqui S.n Pedrori, alegra daitecila eta consola daitecila nola Jesuchristo erresucitatu den, ta Galilean esperacentuela. Au da bada eguna, nere Gende onac, Jesuchristoc guciei erraten diguna alegra gaitecila, eta consola gaitecila, arimaco eta gorpuceco bozcarioequin celebra zagula egun andi gau: *haec est dies quam fecit dominus exultemus et laetemur in ea*.

(12) Cein izain dabada cristaua egun alegracen eta consolacen eztenea bere bici gucian graciak eta esquerrac ematentiola bere Redentoreari egun errecibitu duen favoreaz? egun alegracen dire apostoluac eta Mariac, ainguirua, eta guizonac, justoac eta becataric, Cerua eta lurra, eta azquenean infernua berare, cergatic egun libra-

centuen bere prisioneroac, aita sanduen animac atariac idiquicentuela cerura iateco, etzuen bada Jesuchristoc iñorere beressi favore gontaic, guciei ceucan amorioaingatic ilcen, eta resucitatu cen ainberce pobrengatic nola abraxengatic, chiquiengatic nola andiengatic, eta ainberce becatariengatic, nola <5> justoengatic.

(13) Iñorquere eztu cer achaquiaric, ero escusaric alegatu ezparinbadu fabore gontaic provechuric atracen, bera da culpa, eta ez bercena, bera beresten da, eta apartacen da favoregontaic: Egun goicean, argui asiorduco len lemissicoa balsamoac erosiric,³ Joan cen María Madalena sepulturara Jesuchristoren bila, eta ala lemissicoa izancen lograto zuena Jesuchristo erresucitaturic gloriaz beteric icustea. Sepulturain ondoan belaurico iarriric negarrez aicen oracio eguiten; eta aguertu ciceion Jesuchristo, erraten ciola, María certaco negar eguiten duzu? bereala ezautzuen María Madalenac, eta errespondatu cion nere Maistru maitea, eta berce itcic errateco biocic ez izanez eurtiqui ciceion lurrera oiñac adoratu bearrez. Berriz erran zion Jesuchristoc, María uz nazazu, prisaca nago, orañic ez naiz iian Cerura nere Aitarengana, an adoratuko nauzu espaciorequin, orai zoaci zu berce bi Marietara, eta nere Apostoluetara errantzozute nola icusi nauzun erresucitaturic, baiña particularqui erran zozu Pedrori.

(14) !O cer pasajea au! ; O cer itzac evec! nere Gende onac, missterio aniz dutenac. María Madalena egun ain goiztar moguiceac Jesuchristoren bila; erran nai digu bada, guc ere nai barin badugu eta deseacen barin badugu icustea Jesuchristo erresucitaturic, goicic moguitu behar dugula, goicic eman beartiogula graciac egunoro eguiten digun beneficioez, eta faborez. Au eguiten zuen bada Dabidec Jesuchristo erresucitatu baño len, eta au eguin bear dugu christau guciec erresucitatu ondoan. Bere egun eta emezorcigarren salmoan erraten duen bezala, *Pravenerunt oculi mei ad te diluculo, ut meditarer eloquia tua:* Jauna nere beguiac iratzarric daude, eta lencen⁴ zaizquio Iruzquiai zure alabacera, eta graciac ematera.

(15) Jaungoicoac legueac ezarri citiolaic guizonari, deusere etcion ain erchiqui, escatu, nola baita Jaungoicoaren escuetaic errecibicen zituen favoren, eta bereficioen agradecimentua, eta correspondencia : ala dio San Juan Crisostomoc bozgarren salmoan: *Oportet enim gratias tibi agendas solem prevenire.* Guizona graciac ematera Jaungoicoari lendu bear zaiola Iruzquiai, cergatic Jaungoicoac beti ematen digu esperacen dugun baño gueiago. María Madalenac esperancen zuen Jesuchristo llagaz beteric aurquituco zuela, bada llaga even untaceco erosi cituen balsamoac. Baiña icusi zuen gloriaz ederturic; Job sanduac etcion berce gauzaic escacen Jaungoicoari, baissic justo iateco, eta bezticeco bear zueña munduontan, eta Jaungoicoac errancion, Job guti escacenduc, i izainaiz Iruzquia atracenden alderdiko guizonic abrazoena, eta <6>⁵goi-

3 Letra larriez idatzia agertzen da, igurzkari belarez, beraz.

4 Ziurraski lendu <lehen - du> aditz partizipioa bihurtu da, sei lerro beherago berriro agertzen baita.

5 Orrialdearen goiko partea denez lerro bat tolestua agertzen da eta ez da argi ikusten.

coa.....

...besoetan iduquicea eta besarca ematea: Zaqueo guizon chiquitoac naizuen icusi Jesuchristopa andi baten erteau zocelaic bidean, bere chiquitasunez, eta obequi icusteagatic iiacen arista baten gaiñera, eta Jesuchristo eillegatu celaic pare parera beidatu cion, eta erracion, Zaqueo erauchadi laster aritz ortaic, gaur ire echera noanec ostacera.

(16) Icuscacie bada orai nola cumplimentuen gure deseoa, baldin ongi deseacen bada. Jesuchristoren erresurreccioac eracusten digu egun, guc ere bear dugula erresucitatu. Baiña lenic escacen digu gueren arimen erresurreccioa. Baldin barin bidaude ilic becatu mortalain mediodz, biztuzguigula confesio on batequin, berce gaiñeracoan gaizqui alegratuko, eta consolatuco direla.

(17) Etcen bada contentatu Jesuchristo, Ainguiruac errateaz Maria Madalenari ereman cezala noticia andi gura Apostolueri; berac erraten dio bigarrenaldian. Maria zoaci nere discipuloetara, eta errantzozute nola icusi nauzun erresucitaturic, baiña particularqui errantzozute Pedrori. Pedrori Jauna? orañic ezturiru egun erraten zuela juramentuainquin, Deabruet ereman cezatela baldin ezaucen bazinduza, i cer ain laster eman nai diozu consolu gau! orañic fresco dago becatua, utzazu guti bat negar eguitera; ez errantzozu. O cer itzac evec, nere Gende onac, baldin ongi comprendi baguindeiza!

(18) Erran nai digu bada, den becatari andiena izanic ere, baldin eguiten badu penitencia, escacen badu misericordia, eta barcamendua, prest dagola barcacera eguitentioten ofensac, eta bereala acencendela. Pedro cegon iru egun aietan quarto batean bacarric negarrez, escacen zuela penitencia eta misericordia bere becatu eguinatz, eta argatic dauca Jesuchristoc ainberce cuidado ereman dezoten noticiagau.

(19) Ontan eracusten digu bada guri ere, nola beartioguten guc ere barcatu gueren proximo lagunei eguitentiguten agravioac, eta ofensac, estalcen tiogutela caridadez, eta sufricen tiogutela pacienciarequin beren faltac, eta flaquezac. Baietaere nola bear diogun escatu Jaungoicoari penitencia eta misericordia guerec eguiten tiogunez. Maria Madalena bacarric⁶ gueldicea belaurico iarric Jesuchristoren sepulturain ondoan, erraten zuela etzela andic moguitu Jesuchristo bere Maistru maitea icusi artean, erran naidu, perseverancia. Baldin erdetchi barin badugu Jesuchristoren gracia Bazcoa < 7 >cuidado andiarequin, persevera zugula Maria Madalenac bezala mundu ontan gracian, ta guero espaciorequin adoratuco dugula seculakozeruan. *Quan mihi et vobis praestare dignetur In N. P. et F. et SP. S. Amen.*

< 8 > COEPIT MOYSES EXPLANARE LEGEM, ET DICERE ! DEUT.

(20) Escritura sanduaren lemissico capituloan erraten digu Jaungoicoac, Moises habiatu cela legue sanduaren explicacen dembora gartaco genderi erraten

6 Originalean, r bat bakarra agertzen da.

ciotela, aizacie dotrina gau cuidado eta atencio andiarequin. Beida zacie, erraten ciotet, legue sandu gau dela zuen iaquintasun gucia, eta doctrina gonequin beartu ciela, pasatu eta garaitu bentaja andiarequin mundu ontaco berce gende guciac: *Haec est vestra sapientia et intellectus coram populis.*

(21) Atendi zacie erraten ciotet Moisesec, bada icasten baucie Jaungoico sanduaren legue sandu gau Ereje guciec admiracio andiarequin erranen dute zuengatic *¿ cer gende dire evec?* gende batzuc ain iaquinsunac, ain aituc, eta ain andiac? ciñez gende andiac nere, Gende onac, Jaungoicoaren leguea daquitenac eta leguearen araberako obracen dutenac: Nic ere nai nuque bada egun habiatu explicacen pissa bat legue sandu ontaic, Moisses bezala, ez ainberce izpiritu, eta iaquintasunequin nola Moises, baña bai ainberce deseorequin, ero gueiagoequin aprovecha dezanagatic zuen baitan cerbait: badaquit legue sandu gonequin munduko legueac, ero munduac artuituenac eztirela ongui etorrico, eta gaizqui atraco naizcela nere contuetan, baiña alare eztezaquet cerbait errateco utci, bearbada norbait aprovechatu da .

(22) Baiña erranien lemissian legue sandu gonequin etcirela ongui etorrico mundu ontaco legueac, cergicat dembora evetaco christauet urte gucian beressi barin badute dembora pissa bat beren diversiotaco, negociotaco, escesotaco eta maldadetaco, da Abenduko dembora pissa gau, gucia da bulla, gucia da esceso, eta gucia da maldadea. Eztut bada erranai nic eztatecila divertitu, baisic diberti daitecila honestoqui, eta Jaungoicoac manacen duen bezala, becaturik eta escesotic guardacen direla, beren debocioequin eta obligacioequin cumplicen dutela, prevenicen direla confesio on batequin ⁷Jesuchristo gure erredentorearen errecibiceko, bada au ongui eguiten badugu cumplituco dugu Jaungoicoaren legue sanduarequin, erdechiko dugu mundu ontaco gracia eta bercean gloria. < 9 >

MISUS EST ANGELUS GABRIEL AD VIRGINEM DESPOSATAM JOSEPH.
LUCE. V

(23) Egun celebracen du gure Eliza ama sanduac gure erreligionearen, edo legue sanduaren misterioric andienetaic bat, gure erreligionearen, ero legue sanduaren obraric andienetaic, eta sanduenetaic bat. Misterio gau, edo obra gau ceiñ andia eta sandua den oficialec eta materialec berec eracusten digute. Oficialec dugu Jaungoico Aita eternua, bere semea, eta Ispiritu sandua, Materialea dugu María santissima, considera zagun bada orai nere Gende onac, cer obra den au : egun celebracen dugu bada María Santissimac Jaungoico ayta eternuaren seme bacarra concebitu zuen eguna, San Lucasen erratendigun bezala lemissico capituloan, *Misus est Angelus Gabriel.* Biali ciotela Ayguiru San Gabriel mandatuarequin, ero embajadorrekin erran cezola María Santissimari Jaungoicoaren partetic, nola concebituco zuen semebat Izpiritu sanduaren obraz, libratuko zuela, eta Icena emain ciola Jesus.

7 Jesuchristo baino lehenago, «gu» idatzia eta ezabatua agertzen da.

(24) Irur gauza egun cituen Jaungoicoac andiac eta admiragarriac, ceiñetan era-cuxi baicion munduari bere iaquintasuna eta bere poderea. Lemisicoa egun cituen Ceruac bere asentutaco, eta descansutaco Ainguiruec eta justoec icusten eta beidacen diotela. Bigarrena egun zuen mundu gau, garcela bat, edo desterru bat bezala, eta Irugarrena egun zuen Maria santissima bere seme bacarraren depositutaco. Bedraci ilabetez depositacen cela andre gonen sabelean garcel batean bezala, eta azquenean bezticen cela guizonaren miseria eta trabaju guciez mundu tristegau erredimiceco. ¿Cer Andre da bada au, nere Gende onac, ainberce fabore meressi izan duena, Jaungoico bat bere sabelean iduquiceco diña izan dena? Aynguiru San Gabrielec erraten digu itz gutitan cer andre den au: *ave Maria gracia plena*: Maria gracias betea.

(25) Dudaric eztago Jaungoicoaren Amac bear cituela izan virtute guciac, gracia guciac, eta doi guciac, becatuaren mancharic secula izan etzuela. Ala erraten digu San Caietano Cardenalac, Maria Santissima bere Ama Santa Anaren sabelean izancela santificatua Jaungoicoaren gracia eta privilegioz, eta gracia gura secula etzuela galdu; etzuque bada gutiago egun Jaungoicoac andre gonequin, cergatic au autatu zuen, ero beressi zuen bere seme < 10 > andiarren Amazat, eta alaco semearen amaren baitan aurquitu bear ciren Jaungoicoaren gracia guciac goien goieneko puntuau, Jaungoicoaren privilegio eta favore guciac. Claro dago bada, nere Gende onac, Jaungoicoac autacen badu, ero beresten badu presuna bat oficio bateco, ero es-tado bateco, ematen ciola oficio artaco ero estado artaco beartuen calidade eta cir-cunstancia guciac, dignoqui eta bear den bezala cumpli dezan bere estadoarequin ero oficioarequin.

(26) ¿Norc dudatuco du bada Jaungoicoac autatu zuenaz gerostic, ero beressi zuenaz guerostic andre gucien ertean Maria Santissima bere seme andiarren Amazat eman zitiola, ero beztitu zuela andre gonen anima bere gracia, virtute eta privilejioe-quín goien goieneko punturaño? Ala bada andre gonec izan zuen Patriarca guciec baiño fede gueiago; Profetec baiño iaquintasun gueiago; Apostoluec baiño cuidado gueiago; Martirec baiño paciencia gueiago; Confesorec baiño templanza gueiago; Virginec baiño inocencia eta humildade gueiago.

(27) Maria Santissimaren baitan aurquitu cen Abelen inocencia; Noen justicia, Abranen fedea, Isaquen beldurtasuna, Jacoben perseverancia, San Josepen honesti-dade, Moisessen mansotasuna, Josuen obedencia, Daviden humildadea, Salomonen iaquintasuna, Heliasen cuidadoa Jaungoicoaren honraz, Ezequiasen negarrac, Job sanduaren paciencia, Tobiasen misericordia, Isaiasen sufrimentua eta San Juan Bautistaren sandutasuna. Arma fuerte eta eder evequin veztitu zuen bada Jaungoicoac andre gau bere izate naturalaren lemissico instantetic, cergatic baice-quín fite ero laister atra bear zuela batallaco campora, Lucifer serpiente zar gaissto-arri burua austera, eta abarricacera.

(28) Luciferrec iaquin zuen bezain laster Jaungoicoaren errevelacioz, Donecella gazte batec concebitu zuela bere entrañetan Izpiritu sanduaren obraz Jaungoico eta guizon bat mundu gucion erremediadera eldu cena, bereala aviatu

cena conjuracen eta < 11 > armacen Jesus aurraren, eta bere amaren contra, equeñen citiotela viciac sorcen ciren aur guciei, baldin Jaungoicoaren providenciaz eta avisus ezpace iiesi joan Maria santissima bere Esposo San Josequin.

(29) Icusi cituen bai Jaungoicoac guizonaren misericordia eta trabajuac, gure lemissico ama Evaren medioz eterriac. Ezarri cituen Jaungoicoac Paraisuan Adan eta Eva paseaceicela lecu eder artan, devacak ciotela arbole bateko frutua bacarric; baiña cer guertatu cen ! Sartu cen Lucifer gaistogura, eta erran cion Evari, baldin iatzen bazuen debecatuic ceukan arbole arren frututic Jaungoicoac bezanbat iaquinen zuela, eta cer egui zuen Evac, andrearena, beti bezala curiosac eta iaquin naiac, artu zuen debecatuic ceukan fruturic ian zuen, eta ianaci cion bere senarrari, Adanei; eta ian zuten bezain laster gueldituz ciren bulussiric, Jaungoicoaren gracia galduric berrendaco, eta beren ondoreco guciendaco, guelditu ciren Luciferren esclavo, eta eriocearen sujeto ero menean berac, eta beren ondoreco guciak.

(30) Icusi cituen bada Jaungoicoac guizon tristearen misericordia eta trabajuac, eta lastimatu cen bere idurira, eta semejanzara eguinikako guizon tristeaz. Determinatu zuen bada Jaungoicoac guizonaren miseria eta trabaju guciak erremediacea, even gucion erremediaceco, obequi estima guindezanagatic favore andi gau. Biali cigun mundura bere seme bacarra, guizon eguiten cela maria Santissimaren sablean Aytaren, semearen, eta Izpiritu sanduaren obraz, cerbizacen zuela materialetako, ero Jesuchristoren gorputzako Maria Santissimaren entrañetako odol pisca batec; au da bada, nere gende onac, egungo misterio, ero obra andi gau, Jaungoicoaren semea guizon eguitea, eta mundura etorcea becatari gucion salbacera, *Christus venit in mundum peccatores salvos facere*: Jesuchristo eterri cela mundura becatari gucion salbacera.

(31) ¿Cembañ gracia, eta cembañ esquer eztiozu bada zor, nere gende onac, Maria Santissimari favore onengatic? ¿eta nola ezquinduque alegratu bear eguingo misterio andi ontaz? Bada Andre batec galdu bazuen mundua, berce bat jaio cen mundu guciaren erredimizalea eman duena. < 12 > Eva tristeac galdu bazuen Jaungoicoaren gracia, Mariac bilatu cituen guciak. Eva tristeac ezarri baguinduza Luciferren esclavo; Mariac eman digu libertade osoa; Luciferrec engaiñatu bazuen Eva, Mariac abarricatuiole buruac infernuco Lucifer guciei. Zori onean jaio donecilla ederra; dichosa eta milla aldiz dichosa zara zu, bedeicatuadre gucion erteau: bedracitan egun urte bazuen, Eva triste arrec negar eguiten zuela bere becatuaz, beiñere beguiac etciceizquiola chucacen. Aytu zuelaic bida egungo misterioaren, ero obraren noticia gau nola alegratu eta consolatu bide cen Eva triste.

(32) ¿Cembañ consoluiqui, eta bozcarioi qui joan bide cen lasterca Maria Santissimarengana graciak, esquerrak, eta enorabuenain ematera: erraten ciola, ay nere Donecilla gazte ederra, nere Ama zabala zuc zuc bilatuzu nic galdu nuen alaja preciosoa; zu izan zara bacarric digna andre gucion erteau nic egui tuan daiñu guciak erremediaceco. Zure medioz bilatu dut galdu nuen gracia, eta zure medioz erdechiko dut despreciatu nuen paraisua: itz evec, eta berce anitz alako erraten cition Evac tristeac maria Santissimari: ¿Cergatic eztiozu bida guec ere egun eta vici ga-

ren egunetan consoluz, eta enorabuena emanen andre goni eguin digun favoreaz? Cer eztugu aimberce parte, eta interes obra gontan nola Evac? Bai nere Gende onac, guciengatic concebitu zuen eta guciengatic eman zuen mundura bere seme maitea.

(33) ¿Ceiñ izan da Christaua artuco eztiona Maria santissimari devocio bat sандua bere avemarien, salven, eta letanien medioz? Ceiñ izain da christaua iduquico eztiona erreverencia bat eta errespetu bat andia? Bada Maria gau guelditu cen mundu ontan, Evaren ordez, gure Amataco, gure abogadataco, gure amparotaco eta gure medianerataco. Ama gonen medioz bear dugu erdechi mundu ontan gueren tristecitan consolua, trabajuetan paciencia, eta conformidadea, eritasunetan, eta naigabetan sufrimentua, obra onetan perseverancia <13> eta azquenean Ama Sandu gonen medioz bear dugu erdechi Jesuchristo bere seme bacarrarengatic mundu ontaco gracia eta berceco gloria: *Quam mihi eti vobis praestare dignetur in N.P. et F. eta Es. S. AMEN.*

2. Erro. B testuak

*HIC FIERI INCIPIENTIBUS, RESPICITE ET LEVATE CAPITA VESTRA.
LUC. 21.*

(1) Bi bide dire solamente cerurea. Bata inocenciooa, bercea penitenciecoa. Inocencieco bidea, da guciz suavea eta alegrea: bide ontaz doacinec⁸ gaton (ζ) gabe Bautismo sanduco gracia, ta becatuen manchaic den gutienic gabe, dificultadeic gabe edequiq ceruco atarie. Al contrario, penitenciaco bidea guciz penosoa, guciz trabajue ta dificultade vide ontaz docinec, ez dute berce guise ceruco ataria edequico, baicic castigatuz, ta mortificatuz veren pasiona, ta inclinacio gaisto guciec. Eta cein bidetaz guaci gu? guaci acaso inocencieco videaz? Badire acaso aniz gure er-tean Bautismo Sanduco gracia conservateutenac?

(2) Ah! zaumentuc izan guiñan bezain laster asi guiñen. Jangoicoa ofenditcen, eta gueiago dena, eztugu berceic iten baicic añaditu egunetic egunera ofensac. Ezta acaso Jangoicoan legueco edo Elizaco mandamentuic, quebrantatu eztugunic. Cer bide guelditcen zaigu bada cerureco? Ez berceac, baicic, penitenciacoa. Ezta erre-medioa, edo penitencia in beaugu mundu ontan, edo padecitu ta penatu eternidade batez bercean. Ontan ezta dudaic. Penitencia consideratu daique, Sacramentue bezala, eta virtute bezala. Penitencia Sacramentue bezala ezta berceic, baici confesio dolorosoat gueren becatuen⁹. Sacerdotean absolucionequi bateren¹⁰; au da comunqui deitcen dugune confesioa. Penitencia virtutea bezala, da biotcen dolore edo sentimientuac, ceñen medioz aborrecitcen du guizonac becatue, cergatic den Jangoicoan ofensa, prometitcen diolaic satisfacio matea bere bici moduen emiendaiqui.

(3) Ain inseparableac dire vi penitenciac bata bercean gandic, ec ez dezoque aprovechatu becatariei Sacramentuec, bertuteic gabe, eta ain guti virtuteac Sacramentuic gabe. Onegatic nai diciet gaur manifestatu penitencien necesidadea arretara gonvidatcen gaitu Eliza ama Sanduec Avenduco dembora sanduontan, pasatcen tuelaic gure beguien bieten azquen juicio egunen ailciñen izain diren señale terribliaiec.

(4) Penitencia necesarioa da Jangoico ofendituen placatceco. Ontaco iaquin beargu becatua dela injuria bat, despreciatcen duena Jangoicoan magestadea. Cergatic, dauquelaic Jangoicoac debecatuic becatua vere autoridade guciaiqui. Arren mandamentuen contra obratcea, Claro dago dela desprecio andi bet berarren magestadeai iten zaiona, eta posible balitz nai luque becatariec, becatua iten duelaic, eztaien icen Jangoicoic; cergatic nai luque eztezan zautu arren becatua, edo eztezan aborrecitu, edo eztezan izan autoridadic castigatceco ezpalu Jangoicoac zautcen becatua, ez litceque infinitamente Sabioa ezpalu aborrecitan¹¹ ez litceque iceiñ infini-

8 Ez da oso argi ikusten.

9 Ez da oso argi ikusten.

10 Ez da oso argi ikusten.

tamente¹² Justoa, eta ezpaleza castigatcen <2> ez litceque iceiñ infinitamente poderotsoa. Orgatic indignacioz beteric exclamatcen du San Bernardoc: ¹³ *Crudelis Dylana, et omnino execranda malitia quae Dei sapientiam, institiam et potentiam perire desiderat.* O malicie guziz cruela becatuena, deseiatcen baitu acabatcea Jangoicoan sapiduria, justicia ta omnipotencia.

(5) Cusie becatuen cruidadea, iaquin beaugu, naiz ez posible izanic erecriatu-re¹⁴ batec satisfazio man dezan amberceco dilituez, orrequi guciaiqui Jangoico ofendituac eztu nai galducer a drechotic; antes bien nai du satisfacio mandezogun azque-neco maravediraño. Baño cer satisfacio main diogu guc? Ez berceic, baicic penitencia eguziezcoat. Eguie da gure penitencia den andiena izanic ere, considera-tcen bada bera bacarric, eztela capaz satisfacio mateco Jangoicoai intiogun ofensaz justicia rigurosuatec escatcen duen bezala, baño capaz izain da juntatcen balin bau-gu Jesuchristo gure Erredentorean pasio Sanduco meresimentuequin batean; mo-duontan bai man dezoquegu Satisfacio abundantea.

(6) Orgatic ofrecitcen diogulaic Jangoicoai gueren becatuen satisfaciolan, edocein obra on, edo trabaju, edocein penitencia, beaugu in Jesuchristoren pasio sandua merecimentuequin batean. Au gabe, gure obra on guiac untece bezala izain dira. Cusacie cer inderra duen untcec pareta edo arbole baten arrimoan. Dembora labur ieten da goitico esquiñeraño; baño quen zocie pareta edo arbolea, ta cusicocie aiñ humil guelditcen den. Guise berean gure obra onac, Jesuchristoren pasio Sanducoindar aundia dute, baño aice gabe aguitz apal guelditcen dire.

(7) Penitencia necesaria da, becatuen manchan borratceco, eta quentceco becatuen ondoan guelditcen diren resulta, edo inclinacio gaistoac: barcatuagatic Jaungoicoac becatue vere misericordie infinitua dela medio, eztu choill barcatcen becatuengatic meresi guíñuen pena. *Dominus transtulit peccatum tuum erran cion Natan Profetac David Erregueay.* Jangoicoac barcatu dizu becatue, baño orrequi guciaiqui ill bear du zure Semeac becatuen pena edo castigutaco. *Verumtamen, filius qui natus est tibi, morte moreretur;* becatuen ondoan guelditcen dire resulta edo inclinacio gaistoac, eta aien quentceco preciso da penitencie continoat.

(8) Orgatic engañatcen dire anitz becatari pensatcentelaic confesoreai erranez gueroziq beren becatuec ya eztela aietaz cuidadoic izan bear,.....iñ ezpalin baño gueiago. Cein diferenraqui pensa duten penitente eguiazcoac dembora gucietan. Adam gure lembicico aitec aitu zuen Jangoicoan beran agotic, barcatcen ziola in zion ofensa, orrequi guciaiqui, bedratci sigloco penitencie continoatequi, procuratu zuen aplacatcea Jangoicoain justicia. Bazaquien David Erregueac, profeta Sanduec

11 Ez da oso argi ikusten.

12 Originalean *in fin te* (*te* gorago idatzia agertzen da).

13 Latinez idatzitakoa azpimarratua dator originalean.

14 Ez da oso argi ikusten idazkera.

erranic barcatu zitiola Jangoicoac, in cituen becatuec, orrequi guciaiqui, oguien leguen iaten zuen fuko antsa, ta negarrez beguiec beteri escatcen cion Jangoicoai iago ta iago guarvi zezala bere becatuen manchetaic. *Amplius lava me Domine as iniquitate mea, et a peccatu meo munda me.* <3>

CECI VIDENT, CLAUDI AMBULANT, SURDI AUDIUNT. S. MAT. C. II.

(9) Esplicatu ondoan egun zorci penitencien necesidadea, iaquin biaugu penitencie eguzcoaten señale principalnetaic bat dela, bici moduen mudanza. Au entendatcer maten digu egun Evangelio Sanduec escatcen digulaic: Itsuec custautela sorrac aitautela, mainguiec badabilcela, ta illec resucitatcen direla: ande Dionissio Cartujacoac erraten digun bezala: Itsuec custeute, Jangoicoan graciens arguitasune dela mediante, guizonac zautcentutelaic beren utsiñec: sorrac aitaute, orai artio ca-soic ez inaiez egon direnac, aitcentelaic Jangoicoan boza: mainguia badaviltce: pe-rezoso ta descuidatuec asten direlaic obra onac *item mortui resurgunt* illec resucitatcen dire, becatariec itautelaic. Au da Mudanza penitencia eguzcoatec escatcen duena.

3. Perpetua Saraguetaren ahotik bildu testuak

Honatx Mezkirizko Perpetua Saraguetaren ahotik bildutako testu batzuk. Lan hauek Satrustegik argitaratu zituen *Anuario de Eusko Folklore*-n «Mezkirizko Langintza» deitutako artikuluan 1984. urtean. Lanaren edukia Etniker galdegiari erantzunez burtu zen. Jakina denez, magnetofoitik hartutako transkribapenak ez dira erabat dialektalak, hizkera jasoagoa erabili zuen Satrustegik. Esaterako deklinabide bukaerak: «mekanikaren, indarrarekin, direnak», bukaera «apainduak» direla iruditzen zaizkigu, baita lexiko zenbait ere: *berebile, aketa, lursagar...* eta horregatik hizkuntza idatzia ereduari hurbiltzen zaizkio, ez dute hizkuntza mintzatuaren kontrako eta, aldi berean xarmarik islatzen. Hala ere, testuen edukiarengatik eta Perpetuak egindako ekarpen etnografikoengatik biziki interesgarriak iruditzen zaizkigu.

NEKAZARITZA

1. Erriko etxe geienetan egiten dire labrari lanak orrengatik errain ditut etxe geienetako aitu dituden gauzak. Etxen izenak erranak dire lemexiko egin den lanen. Badire zenbait etxe bigarren biziäldean dutena sukaldea, labea, lo egiteko salak edo kuartoak. Pikortegia edo «granero» erdaraz. Saka deitzen diren zaku audi batzuren barnean altxatzen dute. Bizi toki ebatan ere erdaraz deitzen da «cuarto de baño» eta euskeraz garbitasunein gela edo sala. Azpiko edo lemexiko bizitokian egoten da estrabilea bere azienda aldearekin oraiko aldian geagoenak dire beiak zerengatik saltzen da esne anitz «Kopeletxe»ra; goiz oro juaten da Iruñetik esne alguziaren eske. Etxe geienek baditzute bi atari: bat ongarritegira laister ateratzen badute ere beren sagoi edo alorretara eta maiz garbitzen dire. Lursagar edo patatategia ere beitiko biziäldean idukitizen dute bai eta ere labrarrien erramiantza gisa guzietarik. Gañaldean egoten dire agotz eta belar gisa guzietarik. Al bezain ongi konponduak

dauzkite beren xoko guziak. Eta batzurek badute ure etxe barnean aziendak edan dezan nai duelaik. Ala ez bada, beren etxetara urbil dute denek, eta zentzu audiarekin erematen dituzte edatera. Zenbaitek badute etxera urbil aski bertze borda zenbait, txerritegi zenbait barnean, berebile edo tratore zenbait idukitzeko tokie.

5. Etxe ebek badituzte bakotxak berengana urbil baratze zenbait, eta beretan biltzen dute tipule, porru, zanahorie, baratxuri, iler eta patata. Zenbaitek landa ederrak erri inguruan, bai eta ere sagoi xarmantak, ugeldera urbil. Baratze tikiak geienak laia eta altzurrarekin konpontzen tuzte eta aundiek balenbadire tratoreaikein. Erri ontako lurretan geiagoen patata eraiten da orai. Lenago biltzen zen ogi pikorra, oloa, garagarra, esparzeta... artoa, bada ilerra, alubie, aixkola, txitxirioa... eta neure oromenak duden idaztietan erraten duden bezala gure Sakarteko berokian eginikeko kafe edo aketa artu dut bein baño geago, eta goxoki baño erran zigute ez ginduela zil eta badu anitz urte ez degula erain, berrogeita amasei seurik. Sakarteko alor ontarra oroitzen naiz lurre ontzeatik iketza egin eta iketz plaza beretaik sartzen gindue iketz orruse eta lur berria. Alor onen bazterretik iausten da ure alorretik goraxago sortzen dena. Mendi bazterretik doaie. Alorre au konpon daike tratorearekin, bai eta goldeaikin. Ni aurra nitzelaiak ala egiten zue nere aita zenak bi beiekin buztarrien paratuak. Oroitzen naiz dena altzurturik ere.

6. Lur gogorra baño lodia patata eraiteko xarmanta nere ustez.

8. Landak eta alorreak.

9. Erran duden gauza guzietaik baño azia ez da ez eraiten eta ez biltzen. Aziendaindeko beardiren belarrak. Ongarria zabaldu negu eta udaberrian, eta gero ebaki idortu, bildu eta agoztegian sartu uden. Alorretan berriz itzuli, xeatu ongarriekin nasi eta erain gogo dena, urte batean gauza bat eta bertzean bertzea.

10. Orai erran bear dut nola egiten diren labakiek, Aur-aurrean ikesie dut. Lurre emanet geroz geienean ematen zute 4 edo bortz urtetako; ez dut uste bear dela deus ere idatzik. Ortan euskaldunen itze askide. Gero lemexiko gaula lur alde guzian eken-tzen dire lar mota guziak,urrek, ezpelak, ellorri eta gisa guzietako abarrak eta denak multxuka paratzen dire, lan ebek obeak dire uda azkenean egiteko. Gero xerradatzen da xoko eta bazter guziak eta ongi idortuak direlaik, abar guzien gañan paratzen dire zerradatuiko purruxke guziek eta egur idor batez su eman multxu guziei erretzen aidairelaik ongi ailtzurtu, barnalago eta obeki, eta denak barreatu ondoan egin guzitik xegago eta obekixago. Lemexiko aldian eraiten da ogi pikorra; au aitek botatzen zue eta guk pollik pollik altzurtzen gindue. Ondarra ematen zue nere aitek otoitzak: «*Jaungoikoak duela parte; aingeruek bertze ainbertze, eta gaistoeak ez batre*». Lan ontan bear zire aizkora, lar austekoa, sardea, altzurrek... ez naiz oroitzen geiagotaz.

11. Nik uste dut erran dudela erri ontan erain eta biltzen diren pikor guzien izenak. Gañera landare geienena ere; litxue ez dakit baño bertze dakidenak bai; xorratu patata eta landare geienak xorratzen dire maiatzearren ondarrean eta uztailaren erditsuan.

12. Emen geiagoena ongarrie ematen zaio eta geiagoena udaberrian. Kisue egiten ze Berregu aldean kisu arria da eta zenbait laba erre izen dire nere denboran. Lan berri zenbait egin bear balin baze etxe zenbaitetan lenik kisue egiten ze. Azaroan eraiten ze ogi pikora, eta patata martxo edo aprilean. Esaera au aditu dut anitz aldiz: patata eraiten bada martxoan nola aprilean ez da maiatzeraño agertiko.

13. Sagarrondo on guti da eta aranak ere ez dire sobera. Denbora otzak ez du sobera laguntzen. Emen ez dugu ez olloik eta ez sagar ardorik baño bear dugulaik erosten dugu.

15. Lan ebek uden egiten dire baño guti izeten da denetaik. Ez da mats pikorrik ere eta ez izeteaikin ezin iakin deus ere afera ebetaz.

16. Moxorroak, gizonak bezala bai eta ere andreak bezala paratzen dire alorrean baño ez dut iakin zeñek norei izitzen duen.

17. Lenago erran dut aparexuen izenak labakiek egiteko orai tratorekin egiten dituzte; aisego da. Orai agotza pikorretik berexten da trilladoraikin. Bada pikor, alubie eta ilerrak eskuz berexten dire, eta arto ain guti da... aski da eskuz berexteko.

19. Ez dut karrorik ikusi aspaldien eta atzendue dut.

20. Gauze ebek aspaldien ez dire ikusten. Aspaldiko gauzek dire eta antziek edo atzenduek dire.

21. Orai tratoreak dire eta dena mekanikaren indarrarekin egiten dire; baño len, nere aurtzaroan, idi eta beien inderrakin golde eta bertze iduriekin itzultzen zen lurre zelaietan, baño xokoetan altzurreikin edo laiekin altzatuik dauden tokietan. Etxe bakotxeko langilekin egiten al bada prestatzea eta eraitea, ez da nior ere deitzen lanera, baño ez badire aski, biletzen dire pionak ordainka bedere eta gaur batera, eta bier bertzeña egiten dire. Lan gise ontako geienean buzo deitzen direnak eta berez arront zabalak, paratzen dire. Ongarrie eremateko landa eta alorretara, bide ertxiek balinbadire erematen tuzte zaldiek, biorrek, mandoek eta astoek. Ebebi bastaren gañan paratzen zaiote esportizoak deitzen diren aparexu batzuk bi aldetara dilinden gañeraño ongarriz beteak, eta ola erematen dute alorretara baño bide zabalak balibadire, idi karroan al guzie ongarriz betea erematen dute karraua eta erematen dute landa edo alorrera. Buzzarie orai apaingarritako etxe geienetan bada.

22. Golde edo ori iduriak errestatzeko ezta abereik paratzeko oituraik.

23. Erran ditut tratore, makina, segariak, itz batean nekazariain laguntzale geienen izenak, ez dut erran ogi pikorra egotzeko errota; ez dut deus erran eta Mezkirizkoek beti izen dute uretako errota; bai berdin zue ogi pikorra egotzeko gendearendako, eta arto eta iduriak hazienda gisa guziendako. Ez da guti.

24. Badire erri berekoendako tratore eta bertze makine zenbait denendako arront ongi eldu dena eta geiago ez balin badu bear duenak. Badire ur aska ederrak eta arront ur onak aska oiendako.

24. Iturri ederra iru kañuk eman al duen uraikin, karrikin erdian. Lemexiko barride Txorrondo deitzen denean bertze iturria, aska ederrarekin. Ur beretik dire denak. Hazienda dabilen mendietan ere bada ur auserki. Mari-iturrin erreka pasatzen da Arreste, Usein eta sagoyetatik, Uerkatik pasatzen den ugaldera. Erro deitzen da ugalde au. Gero Izoztara urbil Askarreta. Iturria bere aska urez batearekin. Bada Aurizberriko egira iritxi baño len bertze iturria, bete urekin; deitzen da Egiko Asketa. Turtziberan ere bada erreka tiki bat, Sorogañen bada ur auserki, ugaldea gabe, eta inguru aietan sortzen da ugaldea.

25. Nere idurikoz, azi, planta eta ongarriz landra bertze ganerako gauza guziak nekazaritzako Iruñetik erosten dire eta gauza geienak erematen diote goizetan Kopeletxeko esneak erematen dituena. Altxairuek konpon dezaketen gauzak Erro edo Auritzen konpondiko dituzte; zurgin kontue balin bada Erron badire bide onak. Txerri erostunak ibiltzen dire etxez etxe. Arrotzik balinbada saltzeko juaten garenek erosten ditugu. Aurizko arakine juaten da astean bi aldiz aragi saltzera. Errikoak non saltzen diren? ez dakit. Ez dut galdegin. Merkatu eta feriek Auritzen eta laronbataren izeten zire lenago eta uste dut orai ere ala direla. Uste dut ere maiatzain lemekiko aste ondarrean izeten dela ferie, eta agorrain 18tik 22re gutiz gora bera eta merkatuak amabortionetik laronbatetan. Lenago arakindegia eta okindegia bazire bire erri berean baño orai Iruñean eginikeko ogia erematen da errira: astelenetan, asteazkenetan; ortzileretan eta laronbatetan. Lenago bazire bi etxe gauza bearrezkoak saltzen zirenak, baño orai ertxiak dire biek.

27. Karretera nagusitik kanpo dago erria baño Bentatik asi eta erri guzie inguratuz bada bertze karretera bat errikoa deitzen dugu. Esnoz, Antxue (Ainzioa) Loizu, eta Ardaizko erritara juaten gara. Sakarteko menditik barna juaten gine zaIdi, mando edo asto gañan aurrik ginelaik, orai uste dut Errotik barna daien karreteratik juaten direla berebiletan. Artziberra ere len Sakarte burutik juaten gine baño oraiko berrik ez dakit. Uste dut anitz aldiz juain direla. Nere aurtzaroan ere Aurizberrire Kisulabeko oianetik juaten gine baño orai lar anitz omen da Arriurdingo ondo artan. Maiatzan Ama Birginarengana Orreagara juaten da erri au karreteraz-karretera, Zilbetitik asi eta Mezkirizko Bentaraño denekin eta karretera zarrera ateratzen diren erriekin: Gurbizar, Ardaiz, Loizu, Antxue eta Esnoz, Mezkirizko Bentan biltzen direnak. Erro, Olondriz, Linzoain, Gereiñe, Zilbetti eta Mezkiriz Uretaikin. Mezkiriztik izeten ze anitz gurutzedunak; bai eta ere ortoxiak. Erri bereko Mariaren alabak beren estandartearerin bi neska aingeru xuriz beztia bi aldetik.

28. Nere aitak egiten zitue neguan esportak, laia, altzur, aizkora, segakiderrak eta abar; gazteago zelaik kuxeta eta lau ortzekoak. Orrekin erran nai dut Mezkiritzent egiten direla gauza oiek denak. Badirela kuxeta egileak eta lengusuak direla. Kider guzietak egiten direla eta egintzaletan nere aideak badirela; esporta egintzaleak uztei zaleak. Itz batean denak langileak.

29. Ez dut ikesi itz bat ere, berrik, gauza saltzeko eta ez erosteko ere. Bakarrik badakit kontu zenbait uzten badu nagusi edo etxeko andre zarrak ordaindu gabe il delakoz lenago gaztek laisterka ordaintzen dutela. Ez balinbeda paperik ere lege gizonek eginik.

30. Iru errien artean artu zute Sorogaindik ura erri bakotxeko Linzoain, Gereiñe (Biskarret) eta Mezkirizek iru errieik sartu zute berenetan ur auserki eta guzietan bada bear guzia. Nere ustez ongi konpontzen dire elkarrekin. Erri bakotxak baditu bere oianak, bere iturriak, bere eliza, bere kontuak. Erri ontako mendietan bagua nausi da: baño aritz zenbait ere bada. Pinoa paratu zute baño etze erdietsi lurra artzezan. Errien bizi direnendako egur loteak izeten dire, baño urte erdia bizitzen de-naindako ez da deus ere ez eta ere etxe konpontzen direnendako, nagusia ez bada bizi arront errian.

32. Nere etxea konpontzeko bearra izen dut zerengatik lau toki bakarrik zitue lo egiteko eta ogei eta amar biltzen gine. Orduan egin ditugu amabi kuarto edo sala eta paradaizke ogeite bortz guatze bedere eta badugu non egon senide guziak. Ez dugu tokik aziendaindeko eta kontent gara ala ere zerengatik amasei billoba eskola-ra juan daizkenak badute beren aite eta amarekin non egon. Baditugu bi baratz tiki etxera urbil. Urbilenean aurrek iosta daitzen eta bertzean patata eta tipula bedere erain eta plantatzeko. Baditut bi alorre eta patata aide uzten daiet belarrak. Uste dut ireztorri ere batek protxatzen duela.

33. Len errana dut erriko denek edo geienek berek egiten dituztela beren lurren lanak, geienek badituztela beren aparexuak beren lanak egiteko eta norbaitek ez badu errieik badituela bereak eta denek egiten al dutela direnegin. Pion zenbait ordañez bedere artu dezaketela baño geienean bakotxa berekin konpontzen dela. Arboleik guti da ez bada bakotxak bere alor edo landetan, ez dena erri guzikoa. Maiatzaren iruan gurutze sandu egunean oitura da alorre bakotxeko gurutze bat egin erramu goizean bedeikatuikoko lizar edo erramueikin eta ontzi batean artu ur bedeikatua arekin ereman eta bedeikatu toki bakotxa eta paratu gurutzea erditsutan eta otoitz Jaungoikoak bedeika dezan xoko guziak gero iru gurutze egin artuz erramu bedeikatu arekin eta erran «Jaungoikoak duela parte: aingeruek bertze ainbertze, eta gaixtuek ez batre» aite gure bat, gero berriz gurutzeak egin berriz «Jaungoikoak due-la parte aingeruek bertze ainbertze, eta gaistuek ez batre»; be aitegurea, eta irugaren aldiz berriz gauza berak; gero il bada norbait ondar urtean beren etxearen animaren alde aite gurea, gero San Cristobalendako bertze aite gure bat. Familieko il guzien animendako bertze aitegure bat eta Ama Birgine Orreagakoaren dako iru agur Maria, eta bertze alor batera eta alorre guzietan berdin. Etxeko atarien berdin. Hazienda dagon tokian bertze ainbertze. Gauza ebek beren asmo Oberenekin egiten zuzte, mantxo mantxoa batre lastertu gabe. Ni bein baño (geiagotan) Juan naiz eta ikusi eta otoitzak ere egin ditut amatxi, ama edo aitarekin. Eta aiengatik gelditu dire nere idatziak aiei ikasiak.

ESKULANGINTZA ETA BESTELAKO LANBIDEAK

1. Ez da len bezainbet. Orai nekazarien lan guzien gañetik juaten dire zortzi ordu lanera Zubiriko errira Magnesitas deitzen den lantegira. Berebil audiarekin erematen dituzte eta lana egin ondoan itzultzen dituzte bere etxera; bitartean artzen dituzte langile geiago. Len baño Ian geago eta jendea obeki da. Ez dut uste orren-gatik aparezuen kiderrak kanpuan egiten dituztela, baizik berek egiten dituztela. Bazire lenago bi zurgin onak: Ignazio Errea eta Felipe Billanueva; baño biek il zire eta Felipein semea zurgin ona da baño Iruñen bizi da eta lan anitz du dagon tokian. Lepokoak edo zildaiak eginzaleak ere badire eta ongi onak eta ederrak; gañera ebek berek egiten dituzte esporta audiak belar eta agotztako.

2. Karro egintzaleik ez dut uste badela baño konpontzaleik bai ikusi izen dut bide edo iruen artean konpontzen; elkarrekin ongi konpontzen dire Jaunari eskerrak. Uste dut zur onarekin egiten dutela.

3. Ez dut egundaño ikusi langisa ortarik egiten. Nik uste dut gisa ortako gau-zak Lumbier delako erritik ekartzen zirela, beartzirenak.

4. Burdin lanak uste dut arotzek egiten dituztela eta ori Auritzen edo Erron eginzaleak badire.

5. Ez ezda baño, etxe geienetan bada buztarria xokoak obeki apaintzeko.

6. Ezagutu izen dut eginzale zenbait baño orai ez da nior.

7. Zumekin egiten ikusi izen dut baño kanpotik etortzen diren «zitoei».

8. Len errana dut kuxeta egileak badirela, eta lenago geiago zela. Nere bi aita-txiak anaiaik zirela, kuxeta egileak zirela eta bien artean bazutela umealde ederra de-nek bazekitel a Ian ori egiten, gañera bazirela iru anaia geiago eta ebek beren ume-kin ere kuxeta egileak zirela. Ezpeletik ateratzen zuzte kuxeta eta lau ortzekoak.

9. Bai badire jualeak eta ardi bakotxak erematen du berea, bai eta ere auntz ba-kotxak berea. Ardi eta auntzek negurri eta soñuan ere berdintsuak dire. Biorrek erematen dituztenak ere ez dire audiak; Mezkiritzen beiek erematen tuzte jualeik aun-dienak. Ez dire erri ontan egiten eta ez ikustiaikin ez dakit nola egiten diren.

10. Orai ez da arginik erri ontan; lenago Aezkoakoak etortzen zire argintzera. Aietaik bat ezkondu ze Mezkirizko alaba batekin eta Iruñen bizi izen zire. Badire etxe aski arripiketuekin eginek direnak, eta bada dermioa «Arripiketuzko iturri» dei-tzen dena. Bada ura berean eta arripiketuek ere.

11. Ez, ez da.

12. Lenago bai, lenago ikusi izen dut neure etxearen arizko gauzak amatxik egi-nek, baño orai ez da.

13. Denbora ebetakoak dire brodazaleak, eta aspaldian nik brodatzen irezten nue neure eta neure senar eta umen bizio. An edo nindegon tokien. Eskulana izen da nere denborak pasazi dituena. Neure seme alabek, eta beren ume guziek erematen duzte nik puntuz-puntu eginikeko jantziak, txamarra euskaldunak deitzen direnak. Euskadiko eskudo guziekin; ongi bero eta eder ibili dire denak beren denboran Jaunari eskerrak.

14. Eitzari fine baze bat: Pedro, Pedro Ferminena. Egun geinetan ateratzen ze bere txakur arekin inguraldi bat ematera baño ala ere zituen bei eta aratxeak lustre ederraikin idukitzten zitue: eta ere jar gutikin alorrik. Onek bere txakurrarekin bakarrik aski zue eizteko erbi eta azeriak. Baño Zepoak ere ikusi izen ditut alar zenbaitetan. Orai basurdeak dire makurrenak alorretan kalteak egiten dituzte.

15. Ez dut uste otso kabik edo tokik baden nion ere.

16. Ez da eta errana da.

17. Berriz ere ezetz.

18. Bai, badire aizkolari onak eta iketz egileak ere. Nere aita ala ze eta iketz egiten autsi zitue bi besoak. 1920ko apirileain ama bortzean. Etze sendatu. Lan gisa ortako denboraik oberena, uda azkenean eta negu pasatuxean eta uda berrian. ¿Aparexuak? zerra audiak, aizkora audiak, burdin ziriak, mallu burdinak (ebek egurrek egiteko), pala edo endoi audiak, ikeztokia lurrez estaltzeko, eskalera bat ie-teko betegarriak emateko eta bai ere sue sartzeko barnera, zoiez estaltzeko dena ere bai. Ateratzen dire lanak usteik gutienerakoak eta beartzan da usteik gutieneran apare-xu guzietaz.

19. Errana dut orai ez dela zurginik.

20. Bada elektrizista lana. Lengo zurginek egiten zuzte mueble onak eta ederrak. Fontanero zenbait uste dut badela, baño ez bada Erroko Makario ez da txarra.

21. Ez du anitz bide bazirela, baño orai kanpotik ekartzen dute dena. Aragi, eta arrañak, berdura eta fruta, zukre, arroz, legunbre mota guziak, garbitasune egiteko gauze guzietarik eta bertze anitz gauze ekartzen dute Gereindik berebil audi batean etxez etxe.

22. Erakuszale bat; eta andrea ze ondarra, baño ez omen da aurrik aski erakus-tun geagorendako. Ez dakit azkenean aurre gaixoak Zubiriko edo Garraldako errira eramain dituzten. Denborak aldatu dire, ni aurra nitzelaik ba omen zire berrogeite amasei aur; eta orai amarrik balinbada. Gezurre iduri du. Baño egia da. Ikastetxe bat bakarrik da. Lenago nexka mutilak denak Ikastetxe berera juaten gine.

23. Lenago ur otz bustialdiekin sendatzen zitue erriko alaba zen andre batek aski erixko zirenak. Baño lauetan ogei eta amarretara urbil zelaik il ze bera. ¡Goian bego!

24. Erriko igureiak egiten ditu lan ebek. Etxez-etxe juaten da erratera noiz den ontzena edo batzarrea. Bertzen alorretara sartzen bada kanpoko azienda edo berena ez dena ateratu eta sartzen ditu toki ertxian eta nagusiak ezin atera ditu, saritu gabe diru zigorra ematen dutena. Bertze gauza anitz adierazten dute etxez etxe denak iakin dezaten bearrezkoa dena. Loteak markatu bear dituztela edo eginak direla... Auzelana egin beardela eta alako tokian edo egian... Erri tikia da eta ez da igurei bat baizik.

25. Nik dakidela ez da deus ere alakoik.

26. Ez da deus ere. Erriko lurtaldea. Nere idurikoz arront toki politean dago erri au.

4. Esteribarko esaerak

Hauek dira Damaso Intzaren lanetik hartutako Esteribarko erranairuak. Badira beste batzuk gehiago 1926., 1927., 1828. urteetan bildutakoak, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera* liburuan (2000) agertu zirenak, horregatik hemen berriak direnak bertzerik ez ditugu ekarriko. Bakoitzaren ondoan erantsi dugu Intzak jarritako azalpena, baina, egungo batuaren ortografia aldaketak erantsi dizkiegu.

Esteribarren honako hauek izan ziren informatzaileak (ik. Intza 1974: 12).

Horrela zioen hitzez hitz:

Esteribar: Eugiko seme Frantzisko Iribarren. Gartzango apeza; Osterizko Benito, anai kaputxinoa.

Erro: Aurizperriko seme Simon Urtasun, Gerendiain-Biskarret-eko apeza, ta aren etxeokoak. Mezkirten Perpetua Saragueta, oraiño Iruiñean bizi zaigun andre buru-argi ta euskaltzale bikaña.

- *Aize egoa, andren gogoa*. Emazteen gogoa iduri hegoa.
- *Andik apur, emendik apur, eultzia bete dugu zuzen edo makur*.
- *Besteri ebatsiz bizi zirenak esan zioten ori*. Eultzia larrainean bildurik dagoen garipila, an garia jo eta pikorra bereizteko.
- *An ere txakurra ortotsik*. Galtza zarrak nonahi izaten.
- *Agoteko atsoak pastuko tuzie*. Haiiek baino berritsuago, itzontziago izango zarete.
- *Atzeko laakua yo ta gelditu*. Ler gaitzo eginik gelditu, nekaurraturik.
- *Autxok, autxok: orain artuko tuk ireak* (Eugi). Ago, ago, ordaina etorriko zaik.
- *Au ere ez duk leku batean gelditzeko, ez*. Inon laketzen, etsitzen ez duena da.
- *Aztutik ezautuko'uk gizen dagon*. Aztutik=pisutik. Txarrez esana.
- *Batek kanta, bertziak kanta: deabruet dantza*. Dantza luzegi edo.
- *Batzuetan baian (galbaian) ure, ta ferratan ez*. Etxean itzik ezin aterazi, eta kanpoan ezin ixildu.

- *Bazter guziek iretsi nai tuen merkola da ori.* Deusek ere asetzen ez duena.
- *Bein be(de)ren!* Arreko ezkillak erran zuen. Noizpait ere!
- *Eguberri zerekin, Urteberri arekin.* Asteko zein egunetan Eguberri, asteko egun berean Urteberri.
- *Erbie lotan ortxe dago!* Lapur ori ez daukazu arrapaturik!
- *Eri beratx, il gogor!* (Zuriain). Beti eri edo gaixo direnak, luze irauten. Esaera ori izan zen lendabiziko bildu nuena. Zuriainen, ostatuko etxeko andre zarrari entzun nion, 1913.garren urtean.
- *Erio suar dago.* Ez-egitekoen bat egiteko zorian dago. (ik. Azkue: a punto de)
- *Erran eta egin* (Osteriz). Itza itz; itzemana atxiki, bete behar da.
- *Esne guti ta erresto aunitz.* Zuen pixka galduz zijoala.
- *Euki dogun gutxi, euki dogun beti.* Dugun pixka gorde dezagun.
- *Ez dio sakeleko odolak irakiñen, ez.* Ez da estutuko, lasaia da.
- *Ezta piru (b)at ere ez dut.* Piru bat = ari puxka bat; txanpon bat ere ez dut.
- *Etxon, etxon, orain artuko tun ireak!* (Idoi). Ago, ago, artuko ditun ordaiñak.
- *Gizon erdel (zikoitza) ori ez banu ikusi!* (Eugi). Zikoizkerien bat egin dionaz.
- *Gizon gaitzets ori emen dabil* (Eugi). Gizon aspergarri, iguingarri ori.
- *Gizon puzmiñe da gero ori!* (Eugi). Gizon zakarra, latza.
- *Guk bear dugularik, ubaldian ez da urik.* Gure bear-orduan, inork ez laguntzen.
- *Gure etxearen Pittiri sartu da.* Pittiri = gosea; garia ta irina akitu, bukatu.
- *Gure etxeko andria nongo, gure aidiak ango* (Eugi). Olatsu beste lekuetan ere.
- *Ik eraman duk nere zura. Ez! Bai!* Ez ba, nere manduak arrastan (Iragi).
- *Itxea gaiñez, eta guziak iretsi naiez.* Etxean guzian izan, ta alere bazterrak iretsi nai.
- *Kuli-mulike zabiltzate?* Zer egin ez dakizuela, edo lan gutxirekin.
- *Lekeda baño etxekarriagoa da ori.* Etxeki=itsatsi: etxekarria=itsaskorra; pa-perak eta itsasteko erabiltzen den lekeda (goma) bezala.
- *Nagi-ure laratzan dago* (Eugi). Nagiaren, alferaren ura laratzian dago, nagiaren zai.
- *Norata iguzki, arata beroki.*
- *Norata ezkurre, arata txerrien muturre.* Jendeak bezela, txerriak ere bizigarrria den tokira nai.
- *Odei (edo goibel) oiek leokaturik daude, ta ez da euririk.* Odeiak berex samar daude, leokaturik tartean leio-antzeko utsuneak dituzte.
- *Olabeko idi-saltzaleak esana; Idi au duk, otzendako otz-bera, idorreindako gorbera; idi au ez daila (dedilla) itzul yagokorik Olabera.* Otzendako otzbera bezala, beroendako gorbera, beroa ezin yasan duena.
- *Ongi mendekatuik dauke yaten duena.* Ongi irabazia, bere lanaz.
- *Orrek mii altzairretue du.* Mingain zorrotza, mintzo gogor bizia.
- *Orrek miie bere lekuuen du.* Mintzaira garbi ta argia du, garbi mintzo da.
- *San Juan eta San Pedro, astero balego!* Ta Ama Birjina urriko? Iñoz ez al duk etorriko? Pesta-zale zikoitzak esana.
- *San Luk, erein zak balin bauk.* Billa zak ez balinba uk.

- *Txindor idorrik ez du ekarri.* Pits legorrik ez du ekarri.
- *Xau dire Uritzen karakolen biltzezo ez baiote euritzen.* Xau dire = akabo dire. Uritz Artzibarko herri koekorra.
- *Zoaz ardit-ardite ta ekartzu.* Zoaz arin baño ariñago.
- *Zure galtza-kordak izain du korapillo ori.* Naspilla ori ez al da zure etxekoa, ta ez gurea edo bestena?

Mezkiritz

Inauterietako kanta

Ñutre, ñutre, ñutre
la señora de esta casa
es una santa mujer
pero más santa sería si nos diera de comer.

Haur txikien bi zangoak hartuta

Xingili, xongolo,
gure aurak nongo
ona bada etxe
gaixtoa bada Pellorendako.

Xingilo-xongolo
gure aurra nongo
ona bada etxe
gaiztoa bada tututtu
amaindako!! (Mezkiritz)

Txalo txin bis
gure aurak bortz hortz in
seigerrenak huts in
Datorla amatxi
opil audi batekin
arekin zopak in
denak ase gaitetxin (Mezkiritz)

Mezkirizko kanta. Julia Saraguetak errana. Seaska kanta

Bonbolontena nere laztana
ez egin lorik basuan
azeritxuak eremango zaitu
erbia zaralakuan

atzo erran zigun apaizak
nere etxia zerua dala
ordutik idurtzen zait... (ez dakit nork errana)

AHOZKO TESTUAK

Atal honetan bildu ditugu azkeneko hiztunen mintzairaren pasarte batzuk, testu hauek guztiak grabaketen bidez atera ditugu. Jakina da hizkuntza mintzatua eta idatzia ez direla berdinak, eta, hori dela eta aitzinean ikusi ditugun idatzizko testu horien ondoan paratu nahi izan ditugu beste hauek, hizkera honen bi aurpegi desberdin balira bezala.

Hiztunak *Erroibarkoak* eta *Esteribarkoak* dira, eta XX. mendearren bukaeran eginiko grabaketak ditugu, gehienak neronek eginak; kasuren batean ikasleren batuk burutu du. Hiztun batzuk beti aritu dira euskaraz, beste batzuk ez, ohitura galdua zuten, hala ere, guk zati interesgarri batzuk aukeratzen saiatu gara, eta hori jarri dugu izenburu gisa.

Ortografia kontuetan, «y» sartu dugu soinu igurzkaria ordezkatzeko eta, «j» erdal jota soinutik bereizteko.

HIZTUNEN ZERRENDA

Gabriel Soto	Lintzoain
Francisco Beaumont	Urniza
Beatriz Etxeberria	Eugi
José Mari Belzarena	Eugi
Gaspar Lintzoain	Iragi
Marcos Saragueta	Mezkiritz
Juanito Ernaga	Mezkiritz
Juanita Agorreta	Mezkiritz
Ceferina Iribarren	Zilbeti

Hiztuna: Gabriel Soto. 78 urte

LINTZOAIN. 1994/9/9

Elkarritzketazalea: Orreaga Ibarra

Gabriel Soto, uno de los últimos hablantes del euskera del valle, ha sido un informante incansable que siempre nos ha recibido con agrado en su casa. Mantiene una memoria clara sobre todos los acontecimientos vividos y un euskera rico y preciso. Ha sido nuestro mejor informante, sin ninguna duda, por ello este libro también se lo dedicamos a él.

En esta grabación Gabriel Soto habla sobre su experiencia en la guerra, sobre las fiestas de los pueblos y sobre su destreza bailando jotas y demostrando una capacidad inusual. Asimismo nos habla sobre la relación con los pueblos de Baja Navarra situados al otro lado de la frontera, responde a algunas preguntas concretas, y explica algo en relación a su afición a fumar tabaco, también sobre el uso del registro hika y sobre la gente de los pueblos vecinos. Finalmente nos cuenta alguna anécdota en relación a las Américas y a las bodas entre parientes y enumera los nombres de las casas de Lintzoain.

Gerra kontuak

Gerran egon zara?

Salbo gerran... izen nitze, bertze denbora guzien etxean.

Non egon zine?

España guzítik ibili nitzen. Asi Gipuzkoatik Bizkaia, gero Santanderren eta Santanderretik buelta, gero Teruelen ta ordik joan gine Kastellona ta gero andik divisionen erdie joan ze eta Ebrora. Bartzelona aldera bertze erdie Balentzia aldera, ta an akabatu ze gerra.

Zenbat urte egon zine?

Iru. Ogei urte nituelaik asi zen gerra ta ez nue bertze erremediorik izen joan berzeik ta deitiar baizirete... joan nitze voluntario. Orduen, soldadongan ireziar batuuen bi sueldo, voluntario juateakin irezten nue pezetat egúnian. Boluntario nitze... pezetat egunian.

Hori aunitz zen?

Bai, denbora artako bai. Soldádoak irezten zitue bi sueldo o pezta erdie ta nik pezta bat, ilebete batez, irezten ginuen egunian zortzi egunteko nik banitu mille pezta.

Oso ongi, ez?

Arras ongi. An juntetzen gine dozenat euskeldún, orduan Gipuzkoan izen ginenlaik dozenat Debára yausten gine, ta Debatik joaten gine Elgoibarra, ta an akordeonista bat artzen ginuen gure kontutik, eta orduen denbora artan balio zute... ogei ola balio zute. Duro erdi bet ta berendatu ta neska aekin an yantzan, olaxe pasten gi-nuzen zortzi egun. Gerran, gérran... zegó geldítuik fréntia.

Orduan gerran ere umore ona zegoen?

Bai, bai, txarra, ere baña onaz ere, gero gerra akabatu zelaik ere, izen gine Benikarlón... erri bet Kastellonen, itxaso baztérian dago.

Orduen an ere baginuen geuren orkesta ta ástian bi egunez asten ginue dantza ta an árdoak ere ona zire ta... gero andik igorri ziguten ... gerra akabatuik, gero, pues Sanfermíntera iruetanogeite amar naparrak. Orduen Sanfermin bezperan eldu gine eta... trénian Arrotxapéara, gero ordik Iruñera igen ta... ortxe pastu ginuze iru egun, artzen ginue rantxuen rebajetik, iruetanogeい pezta bakarra. Ta pastu giñuzen iru egún, ta ondárrian lerrínik gelditu gine lo bar bátian...

Ta atra zigute nonbait errextan edo ataríre ta biramúnian iruzkia asi zélaik berotzen orduen iretzarri gine ta etxéra.

Dantzari ona izandakoa

Zuri beti dantza gustatu izan zaizu?

Néri bai, ánitz, ánitz. Mandiréte prémioak eta déna.

Zure semeari ere gustatzen zaio dantza eh?

Ba, eztute balio ezta nere zangoen oñetako ere. Ni gáztia... ze, oyen adínean? orduan aitzen ze yantzan górkí ongi, erri ontan, emen beti izan de dántza, Lintzoañen bai, ta Eugin.

Igendetan?

Igendetan bai, ta astelegunetan juntetzen bagine... orduen baze gazterie anitz. Familiek baizire igual sei zortzi aurride edo amar pues nonai bazire lau akordio eta... mutilenak, ta nornayek soñatzen zue dantzan yartzeko bezala. Ta ála...

Neskak ere bai. Nik emen ezaundu tut erri ontan, ogei te... ameka mutil Republike denbora eta ogeite bost neska... bosgerren egúnian bestetan ezaundu tut ogei tebost pareja, emen errikoak, yantzan. Ez orai bezala, orduen soñue edo atra-

tzen zelaik kafe artzen edo balinbazire gazteriak erri guzítik, soñua aitu orduko, an gine... yantzan.

In dut yantzaldie, orduet eta erdikoa jotan, akordeonista ateki balle Anuen. Esain bada erri bet, arara joan nitzen ta an kontratatu ginue akordioniste, zitue ogei ta urte egun ta ogei kilo pisatzen zitue. Ta erran gineko... ure akordiona yotzen ta gu yantzan apostatzen ginekola ta ondarrian akordiona ertsia biar izen zue ta pastu gi-nuze orduet ta erdi.

Iru mutil tiru neskeki, baño orai buelta ematen baitute, guk maten giñuze iru buelta ta. Nik orai kusten dutelaik yantzari oyek ta ola yende gáztia, buelta atekin te gelditu... ori ez tu yantzan aitza!!!

Gu terríbliak giñuzen ortako.

Nik pisetzen nitue iruetanogeい kilo edo ola, beño orai lauetanogeい te emezor-tien, en el 88 joan nitzen klinekera, nindebole kurandero batekin... bueno brujo... Ta allegatu nitze extremo batera, ozka in gebe enituen pasatzen amar metro, gero ereman zirete Iruñera, gero San Juan de Diosen paratu zirete tratamiento ta orduan artu itut kilo abek, pisatzen tut lauetanogeい kilo. Oyek denak artuitu andik barna.

Beraz, gaixo egon zara, baina orain ongi zaude.

Segido pasatu zekidan. Nere áitearreba ze kuxetagilea.

Non bizi ze? Emen, bertze etxe ontan. Nere emazteain aite.

Zure emaztea hemengoa zen?

Bai, etxe ontákoa. Frontonain ondokoa, etxe andi artakoa, baitu arri pikatuik... fatxadan, or sortue naiz ni.

Nola du izena etxeak? Maixtéria.

Euskararen inguruan

Zure emazteak badaki euskara?

Ez, konprenditu iten du dena, solasa ere pixkuat, baña, ez anitz... gurétxian konprenditzeunte dének baña in... eztute iten.

Zure suiak badaki euskara?

Eztu iten orrek, ez, eztaki. Solas eztakite. Nere denbóran emen bi familie zire, or karretera ondoko oi... ori bat Orzagokoa, ta bertzoat or Urbeltz.

Horiek ere bazekiten?

Ez, oyek ez, bi familia oyek etzute iten euskera, bertze gúziek. Denek iten zute, bueno sekretariok ere ez, iru familie, bertze dének. Orai gelditu gera, iru lengusi né-riak badire or errén ta beitiko artan, etxe bakar bat baita or bizker ortan, gelditu de aita

ta amaikabe mutikoat eta soltero dago... ori lau, ta nik bortz, emen ezta geyagoko euskaldunik. Mezkirten aldibet baziren, orai Markos goi ta Fernando... Fernando... erdi erdara erdi euskara. Orain Markos eta Juanito.

Herrietako bestei buruz

Ori bizi de, Maria oi? Eztut aspaldien ikusi. Ta máztia? bibótiak izain ditu árrek! gaztetik bazitue... Bein bétez Biskarréten bestetan... broman erran nion abernai zuen ezkondu nirekin te... deabruet bezala, laztu te joan zen, bueno yantzan ai giñen ta ori erran nion te...

Orai zenbat egun daukazue besta?

Orai lau, egundik... atzo bezpera... asten zire atzoko eguneki. Amaberjine, orai dire Orre(g)an ere, lau.

Kanpotik torriko dire seguráski, baña erríen gazteri guti de arrun guti! ta baituzu gero berantagoko ta ze... eztute norekin yostateko moduik izen!

Frantsesekin te aitu beite Amerikétan lámian, gero izen gara biek Frantzian ta bestetan ta. Frantzian zuk iten duzu uskéras frantsesek bezala, ta nik ezetz...

Behenafarroarekin harremana

Eta nola yoaten zineten Frantziara?

Gu joaten gine Frantziera, Korpus Kriste egune asterdíen báite... uzten zute Frantzian urbilen igenderako, orduen urbilen igéndian baze dantza ta dénetaiak eta joaten gine bi pareja emendik bi neska ta bi mutil. Méndiz, méndiz,... ta joaten gine arára ta pasatzen ginue ta aitze gine zalapartaka yantzan, ta arimeleko kórrua iten zigute ingúrtuti ta erran baidizut yantzatzen ginela denborartan. Gero andi torri bérrez ta ostáture ta gau gúzien yantzan ta gero arropa kanbiétu ta lanera joate gíne.

Erretzeari buruz

Izen dugu aguántia terríblia, baitut nik iruetonei te emerétxi urte beteiar dut orai. Beteiar dut diciembren amaséian.

Beti fumetu duzu?

Baitu iruetanogeitesei urte fumetzeutela pakete bat egúnian bai, in daike emendik Txinéra bide bat ferrokarril bideat nik in duten zigarroikin.

Medikuak ez dizu ezer erraten?

Erran dire aldi bétés biño eztiot kásioik in. Néri eztirete ematen zenbaitzuek bezala asi orduko zigárroa eztule, neri eztule eztire atakatu sekúlan. Ebék... kilo ebek estorbatzen direte tabako biño geyágó. Pues eztut pastu... denborártan, iruroeita oean... eztut pastu... ogei egun pastu nituen kliniken, kendu baitzirete giltzurrin bet, pues ogei egun aek fumetu gabe berze dénbora guzitan...

Ori gure lengúsue da, Joakinen lengusua... oyek iteunte euskéra baña diferéntia. Erran nion altzínean: zuek biar ziñute Naparróko uskéra ikési. Lén emen erri oé-tan dénetan izentzue berze tono bat nai bauzu, biño uskéra émen, Erron Gerendín. Mezkirítzen, Auzpérrin, dénetan iten tze uskéra, ...Garráldan.

Euskararen inguruan

Non uste duzu aldatzen zuela?

Izeten tzue pues... deje pixket igual erri berétik bertzéra. Eméndik Gerendíñe bazue... bai, bai, bazue. baña uskéra iten ze erri guztiétan. Eugin ere denbora bátian iten ze anitz uskera, baña ola... bazterretxé anitz baize. Bazterrétxia bakizu zer den? Caserío. bazterrétxia bai. Oyek deitzen dire bazterrétxiak. Iteunte uskera gorki po-llite Iragin. Izan zara Iragin?

Pasatu baña, egon egon ez naiz egon.

Pues joaten bazara, akaso, ellegatuik ta joaten bazara... bat bada Kruz deitzen dena, pues intzezu arrengandik galdin.Ta áyek dének iteunte... baña ure ezta nik uste lánian ezten asten orai... pues ...arrek... ure ere or ze ta balléko besta... arára tortzen da.

Zer... zure laguna hori?

Axkídia. Bai soltóra da. An bizi diré ni takitéla iru anaia sórik. Bide esposá-tuik tire biño ori soltóra dago.

Galde-erantzunak

¿Cómo se llama? Nola deitzen da. Eta nola zayo? Ere bai.

Eman honako hitzak euskaraz:

Zerúe, mundúe, burúe, begié, tsúsie, atárie, áizia, lúzia, bésoa, góize, áidiak, súbia, lépua, atra kanpóra, eztut yaúsere, goibélak (nubes). Kusi, man, záundu, ándria ta maztékie báitere, erraten al duzu bi gisétan. Nere maztékie edo nere ándria bi gisétan erran daike. Bulúzik, anáya, býeyak.

Ellos son guapos: Oye tiré propiek.

Segi beste honako hitzekin:

Artzáia, geágó, mágara, zérrie, txingérra, gizéna, zurie ta mágara. Yinkua, artsa, gabérdi, bágua, bixtu argié, bákia, nago kontént. Gorpútze, pikórra, joan mendíre.

En Francia dicen festa, nosotros decimos besta.

Jaya... igéndiai, astea pastute baita igéndia, jaya orréi jáya

Sandu gúzien egune... balinbeda Amabérjine abuztuen amaborzian balinbeda... Amabérjine egúne. Santiago egune ogeitebörzian baite... Santiago egune... ta ola.

‘Señor’ jaune, ‘pegar’ yo, jítoa, ‘cesta’ zária, bortz, ortziléria, értzia ‘intestino’, ortzegúne, iru, lau, nik inen dut au, nik errain dut egíe, ni izein neiz ona. Nik emain dut nauzune, gero según zer den neskákoa edo mutíkhoa: mutile ta néska; zikine, lóya, ‘prima’ lengúsie, ‘primo’ lengusúe, illabéte bat, mile, baut oñázia. Mine due-nak oñázea izeten du. Minek maten du oñázia, sorgíne.

Morfología

gizonak in du au (sg) / gizonek in dute au (pl)

apezak man du meza (pl) / apézek man dute meza (pl)

torri naiz semiakin (sg) / torri neiz semékin (pl)

balinbedire bat erraten duzu semiaiki, biño balin badire iru edo lau... semékin.

yo malluékin

torri naiz alabáikin (sg) / ...alabékin (pl)

banae etxéra/ nórা zazi?

mandákot sagar bat sémiai/ madakotét sémei sagar bat

etxe au da ttxíkia, ttarra. Gizon goi da lúzia, andíe ere erraten da

neskaoi da própie. Onek erran du egíe

mutiko ure da gáixtoa. Etxebetan iten du anitz otz

gizon onek iten du lan aundía. Sortu nitzen errí ontán

sor te il. Alor ure da gúria

ertxiazu atari goi. tzakur geu de ure beño audiagókua

áurrek nai direte anitz o sémieki nai direte ánitz

orreki uskera orrundik. main dizut zartat

zuek badúzie tzakur bet. bauzie sósa éskuen

gósiak... nago gósiak/ nagó aséik

Hiketari buruz

Iketan balinbeze... según adine ite ze ori, balin beze zarragóko gaztenda-ko! iten ze ika, orái bazire bertze itz betzuk itéko aldrebés ori eztizut. Apézai ta aitái ere... áitei berorrek... Zenbaitzurek erraten zute aite edo ama balinbeze: «arbez». Maten bazeko zerbait, or zauntzen dut nik or kanbio ori ze familie kon-tatutén. Iten zena gise órtan, nik aite ta ama deitze nítue, baña bertzeatzuten errate zute: arbez...

Neskek egiten zuten iketan?

Etzekiten néskek jenerálian gizonak ziren geyágó... neskek eztakit ordúen idu-ri zuen bajeha edo... konprenitu inen zute dének seguruaski, beño yardúki eztute iten.

Pues emén... erri ontan joan den sei o zazpi urte óntan etxe nagúsien etxe gú-zitan... dének bazakiten uskera orai aek joan dire... egun betétik bertzéra adió Lintzoaingo euskéra !

Etorri zaizkizu artzera euskara (grabatzera)?

Iruñétik edo eztait nón dik baña torri dire, izen diré alabain eta rekomendazioz torri díré onára, ta orai zu bezala.

Mezkiritz, Lintzoain eta inguruko jendeaz

Mezkiritz eztut záuntzen. Ezbainaiz ainbertze ibili Mezkirítzen, Mezkirítzen ibili naiz gorki guti. Nere máztiak andregáya zélaik ori... joaten zen ori eta Julia ure badakizu... ezbaze ura aizkoraki... Ure kartze zúte kozinera onára, emen zélaik nere ándria, orduan pues ori joaten tzen arára, joate gine gu yantzára orí alabain etxéra.

Nora atratzen da?

Aratágó ezta atratzen, emén goiti, eméndik buéltan ango leku artáraño, ta leku órtaik aráta badiré alórrak ta ará joateko. Ta bizkér órtan eré badiré alórrak, bueno sagóyak...

Nola du izena mendi onek? Ipete

Eta zer sartzen zuten emen?

Oláxe uzte ziré, pestétako. Yéndia yoan zen déna libertízera, yostatzéra, pues býak onára botatzen zire. Guardatze zire orai ártio (iraila) ta orái denak bota ta denak plazára yoaten tziré. Orduan beyak guardátzeko eta olá. Bai, primedératik así ta or zegó yáusere ukitu gabé ori... Alanbrez ertxik, orduen pues besta bázpera allegatzen ze ta dénak ikusiko ziuzté beyéki... Eméndik orrára. Lenbixíko egúnian yaten baitzuté ongi... biramúnian eméndik aráta etzinue beyéki joan beárrrik joatentziré bérak, ta eméndik itzultze ze yéndia ta dénak plázara.

Eta, ainbertze arbola zituen lenágo?

Bai bai, izan ttu yágore, badire lenagótik yago, baña oráño badire franko. Arizti pollitena au du Lintzoaiñek.

Gereñeígoa au. Au de etxe orren... gero órdik Gereñéko kanposántutik alor ortára atratzeko. Orí de etxe orren zortziegun erreguenerrie, bueno an bauzu oraño arátago ere. Orzagúre ze lenbixíko, bertze au iñe da ni sortu biño guti lenágo, gu giñé an...

Berberarena da? Ba Berberéna (Orzagokoaren etxeaz ari gara mintzatzen)

Oye bazire amar o amaika aurríde ta orái gelditu diré bide, il diré bertziak ta orai tortzen diré udán onára. Bueno, uden pastéra ta bat... joan den úrtian gelditu ze itsútuik, anai arreba zire ta itsútui gelditu ze ta orái ezin zire onáta etorri.

Zer ziren zarrak?

Zárrak eta bat... gizóna bortz urte ni biño gaztiágo ta néska sei o zazpi urte gaztiago. Soltéroak dira biek.

Ta yende gáztia etzen ibiltzen?

Bai izeten tze, izen dute bertze anai bet montéraua Aurítzen ta esposátuik zegó lengo sekretarioaren alabáikin, Luis goi ezauntzen duzu?

A bai, Sekretarioa...

Arren alabaikin ezkondu ze, bueno alabaiki... ezkon... esposátu zen maztéki ure... ta izen tzitue lenbixiko senarretik bide: mutikoat eta neskátoat. Gero mutíkoak zegó esposátuik nere arrebateki Irúñean ta zen... «mutilau de gerra, guardián de prisiones», ta bertze arreba zegó montero orréki esposátuik taorrén sémiak badire bi séme, oyék tortzen dire noizebéinka, bata Magnesitetan aidé lánian.

Eta lurruk nork eramatene ditu? Emén azienda ta in zute arrendátu ta dudikébe.

Ordúan etxálde aundia zen ezta? Bai etxáldia ginue. In gíñe gu orí luzétu ta segurátu.

Ta ura zer da ba?

Ure tze borda bat aziendakin, ardíek irukítzeko orí, nere ama iltzélaik... kanbiétu in dakóte. Borda pollite da.

(...)

Bai píxket trastornátuik, gazte joan, sobéra gazte joan ta trastornátui tago. Orai dela... joan den úrtian altzinagókoan izen tzire nere máztia ta Joakina ta...

Amerikétan?

Amerikétan izan dire, bai, ta ordúan oyéki... bertzelas ez omen du kasoa iten apena erdi yangábe ta motel bátian dago, Nevádan.

Eta soltero?

Bai, bai, soltero ure. Gero bertzeat bagíndue esposátuik an, joantze arára lanera ta bazuzte beyek osabek, arimeleko ardíek ta ure il baitze ta gelditu ziré amalába ta esposatu nai zuté alabáiki ta ordúan ereman zué bera ere. Eztakitzentzen milla zuté... artzáyak eta eméndik reklamatzen zituen arrék. Anitz joan diré arrendako, gero il tze orí San Fermíntan orai dela bi urte.

Ebek il diré iru anaia, batek itentzue artesania eta, kuxetak eta, Mezkirizko Markos orre pezala, ta bertze gauze franko, kolgadore eta... bueno... mile gauze iten zituen, paratuik zeuzke motor étxean parátu eta iten zue ándik górkia pollite. Tortze zire yendiak eta... enkargátzera ta gero kuste bazuté bertze zerbait inik zeukela, eróstera. Ta ure iltze eritasunez.

Gero bertzoat arpátu ginue emén ílik étxean. Egun bétez, gure etxéra tortzen zen orduen orí... Prat orrek iten báitu konkurso oi... «Justo... precio», gure étxian izen ze artean, según ze erraten ziñun, «justo o falso». Biramúnian ezpaitzun atarik

eta idikitzen... ta alágiñaude ta artsalde artio egon gine, bertze aldi bétez ere igual egon tze, beño, gero arrátsian asi gine or yoka ta ...jaere, ta... alayétaik igen gine. Ta asi ze... nonbáit sukeldeko léyoa ireki náyen zerbáit emantzen ta eróri ze lílik, bárbara biziik erori ze baña lílik zegó or.

Pues famátue ze, Isak erraten zekóte, górkí trástia zen. Ta ori iru anaya bi edo irurte denboran.

Ameriketako kontuak

Zenbat jende joaten zen Ameriketara?

Lén etxe óntaik joanik nere amain anaya Ameriketára, pentsamentzazu nola bide zegon ure. Ure apoderatu zenerako ainbertze... arimeleko terrenoak baituzte terreno beren mila ardie oek irukitzeko niori molestatu góabe.

Pentsamen zazu ze terrenoak tuzten, ta orai pues eztait zerinen duten, seguras-ki saldu in biarko dute pagatzen omen dute arimeleko inpuéstoa. Erosi zeko... Mugaire o Baztan edo orgo batek erosi zezko ardiek, ebek on zireleik orai ardinik eta konten joaten ziren leku aetan étxeak eta inik, bazuzten artzaindeko bañue ta déna, nai bezu artu...

Ahaideen arteko ezkontzak

Lau familie badire ta alaba ezik eta intzute askidántza ta or esposátu; or espo-sátu zire lengúsiekbide edo iru familie; oraingo ébek ondárrak alare bazun sémiat... tortzen tzire zuen etxétik onára zuen amitxi. Orgo amitxi aixkide aski de. Pues emen zeuke arrek.

Ordúen maztegáya Zilibétikoa bazuen ta... axkurealdi bat artu zue mutiko arrek ta bere lengúsie torri zen kureitera ta enamoratzen dire ta esposatu ta, karri zuzten aur betzuk penagárriek irudiute áiztiak emañiar tzuela.

Iruñera eman zuté bat áiztiak eta botatzen zué lúrrian. Irúñera, ta bertze etxan dagon goi ere... orire penagarrie tire olá firme egótiar belin bedu, pues eztaki yáus ere. Ta bérztzia esposátuik étxian, ta bertzeúre pues olá eztaki... ze penagárr! Ori iten du pues odola odola násteagatik.

Oriek zer ziren?

Aitek ziren... ta bide edo iru pareja izen dire olá aiden értian esposátuik, ta gero torri ze ta gero ondar jenerazioa ezpaitzute balio ibiltzeko ere. Te ogei urte-tik goiti zozi ze kanbiátzen zaunden or, ta ure orgátk ereman zute... egun bátez atra zen or atárire ta úre orregátk eman zute, egun bétés atra ziren or atárire eta zerbait mugitzen zela ta torri nítze onáta ta áizia botaik zeude. Ta ure ereman zute ta... zenbait egun izen ze permisoikin ta errateunte joaten direnak arára kustéra omen dago an dirénetan denétan obekiena ure. Ta bertsek, erran zairezu zuk nola dauden!

Baimena behar zuten ahaideen artean ezkontzeko?

Aíden értean iteko, bai (permisoa ezkontzeko) Orái naibauzu ikusi mutiko oyek zein fuétiak diren, ze diferéntiak biño bertze óyek tu, tu, tu, ola iblitzten da. Onék alába an zeukete Iruñan ta karriar izen zuté.

Guk ematen dugu kartería. Bai, nere máztiak, firmat botaiar balinbaute bertziak kanpoan balinbadire, firmatiar balinbadute atso orrek eztu firme botatzen, etzake déus, penagarri da ori.

Orain erran dute pixket asi dela yardukien da ola, UVI ortan iruki dute illebeteat o yágó ba. Bai nik uste sartu zuten, abúztuko ilebética astéko déna pastu du an, déna.

Nik eztait, arpatu zute karretilleki zegola... orduen man tzio zerbáit eta bótaik, gero erama zute pulmona eta déna nik eztakit zerekin bétia... fumétzia o zer iten zue an, ta óri garbítzia gostatu zayóte ánitz.

Herriko etxeak

Erraidazu herriko etxe izenak:

Orzagókoa, Argiñénia, Tanazárria, Primónia, Alkatréna, Joanpedróña, Maixtérrnia, Martxantxéna, Burtzikínia, Etxebérrie

Apeztégie Apezain etxe, Kaxénia, Sastrénia, Erloténia, Baltégie

Nikolaxénia, Juankarloséna. Elizéria órdago elizein óndoan, Pako Martimaringo orrék tu. Juanpelipéñia, Motxáña, Juanxargiñénia, gúria, Sotóña erraten diote, nere apellido. Burtxíkin erran dizut.

Bertzia Anttonéna ta bertze oek dénak berríek eztakit ze izen paratiko dakoten.

Izkíñean dagoen etxe ure, telebisióniak iten zuen, bertze oek dénak kanpokua tire. Bat Larrasoáingoa, gero au... Burgeteko... gero or bi bizimodu in tuzte, bat Joseantonio erraten diote ta bertzoat Fontanero. Oyek in zute, Fontaneroak in tzue ta bertzeak zaborrero, bien értian étxea in tzute, gero ori in du joan den úrtian. Ta gero emengo aten anai batek bertze etxe bat or bérrian etxe zar bat bazeó ta saldu zute ta gero or aixtian pastu den gizon kalbo gói, orrek in du.

Eztakizu erraten badizute Prantxiko ori Migelitoña. Arren anayak ere erosí zue or. Oyek salbo gure Pedro ure, bertziak dénak Zilbetin zeo gizon bat esposátuik Mezkirizkoatekin. Orduan an azi zire oyek bertze oek dénak: Antonio, Daniel, Prudentzio, Bautista, Dolores, Urbana, oyek dénak or, etzuten aurrideik ere. Prudentzio Agoitzera joan da, orra joan tze or otel zenbaitetan, denboraz joaten ba-ziren Erron ta Zilbetin bazire.

Herriko bestaz

Noiz dira hemengo bestak?

Bestak dire Errosarion bueltan, orai pues emendik Zilbetire joaten gine Zilbetikoak tortze zire etxera bezala, ta gu ere arára, orduen emengo gaztedie ta Eugin

ere baize yantza. Pues an juntetze gine yantzari batzu xarmantak ta errie ere nola sueratzen zen, emengo mutillekin erri beteko neskek déeenak nai zuten dantzatu.

Emen badakizu ze erri zen, neskak eta ongi dantzatzen tzirenak, Olondrítzen. Olondritzen nik uste entsayatzen tzuten beróyek, Olondritz ezautu dut nik neskak obekien obekiena yantzatzen aitzen tzirenak ta emen urte batez «campeonato de jotas» in zute orduen man tziréte nerí mille pezta prémioa ta geo biggeren premioa man zute Olondrizko... Bien ke!... Ze denbora áye!

Baña orandik ongi zaude!

Bai, iduriz

Nor- nori

Me gustaba estar en el monte: kuadratzen zekide mendian egótia
guri kuadratzen zekigu árdoa.

Ahal

Podemos hacer esto: Guk iten al dugu au. *Arar la tierra se llama* landu, landu zázie lurre.

Hiketa lehen aldia

Yo tenía: Nik banuken (hiketan). Arrék bazuken, neri kuadratzen tzekiden.
sémia joan da astóain kargatzera.
gustetzen zaide yátia ogié.

Haurren gosea

Primoniak zue sagardi bet ederra ta ándie, ta pentsamenzazu denbora artán yéndia nola bizi zen! Orduen joaten tzirelaik sagarrak biltzera, joaten tzire ematen tzuzte saltzeko ta erri oetara... joaten tzire aurrek arara baitzeude gósiak, ta i(b)iltzen tzire.

—Vicente, ¡dáme una manzana!, ¡Dáme, dáme!

Ola... gero yaten tzutelaik ori, oraño bertzeatek artu ondarrure ta azie ta erematen duen goi... ayek garbitzen zuzte denak.

Familie andie tzire, ta ori... etxian iten tzelaik ogie, pues erosiar balinbazue orai bezala...

—Artorriak badire?

Badire artorriek. Pena ederrekin utzi tzue erekitzetik ártoa eta... Fidel

Kisue eta bizerrak

Bizer... orai ezta bizerrik, asteko emen eztu nior ekartzen Mezkiitzen, igual oraño bai.

Izterie izen naiz ta ibili naiz eskopetáikin alderdi guzietan, ta kusi tut kuebak... prestatu zeizko animeli oyei. Ta len emen ere iten tzute kísue ta orduan denbora artan kisue iten tzuten oyan artan, pues aritzek ta bazuzte zíloak ta bazire bixerrak, baña orai aritz ayek dena kéndui taude ta orai eztute.

Erle kontuak

Erlia er artzen zuzte, lenago Saigostik eta tortzen tzire yendiak ultziekin te érliak biletzera, tortzen tzire onara, ta emen balin beze iturri bet ta or balin beze maldar bat mendi bet, maldan, pues erlia an balin bazego emendik artzen tzute onara ure, orduen érlia kanbiatzan tzekote bertz lekuetera. Bazuzte naza, beren káfie, orai ezta érleik, lenágó bai.

Bazire balória zutenak, eskúeikin ibiltzen zuzte, igual arrapatu adin erleku bat ta baziren áidiak, nire aita bera, pues... artzen tzute reina erraten dena, ta orrek dominatzen du erleku gúzie ta erle oyek, pues. Or sortzen dire bider o iru biño batek biar du garbitu biertzai... il orduen... nagusitzen da ortaik ta erle... Aditik mauke, lotu puntatik ta maldar zegona illarrosi ta or artu mauken erlakúmia ta etxera. Ta emen zirenak pues orai ya denbora ontaik altzine iruzkia atratzen delaik asten tzire úmiak botatzen tzuzte... orduen pues arri betzurekin ola kaxka-kaxka iteunte geldiezi nai zuten léku. Baituzte ezpel batzuk ere, geldi zeizen, ta bertzeatzuk yende faltan joaten tzirelaik atratzen zirelaik joaten zire orrata, ta oyek gelditzen tzire oyan oetan. Ta orai ezta nior ibiltzen orrendako...

Zozoak

Zozokafiek ere artzen tzire denboratez joder!, orai baño zozokume yago yaten zuten yendek, baña ordun baze barbaridede bat oyétaik, zozo bera, baztar guziek betetzen ze zozoz, joder!

Prixituak yaten ziren?

–zitoak? (ez du ongi aditzen)

Katuak jan

–Zarterien inte... ze, eztute góxuak izein, zozokúmeak? Gerran yan nue bat, aldi betez, an aparezitu zen gero gátue marrakaz, apokas enitue bota bazter guziek kanpora, eztut yan yágoik.

Bazire yendiak eta... len atarieki... etxebetako atarieki bazute ziloat, orduen gátxuek iiltzen tzire sartuz joan kanpora... lengo gazte atétaik... mutilek eta paratzen tzakote lázoak, ta arrapatzen tzute, ta gero prestatu ta yan.

-Belea ere bazen?

Bélia guti de oyetaik ere,

Belea erraten zenuten?

Belia errain duzu? Bi, belia, bertzeat, txitek ematen tzituena, mírue.

Hitzuna: Francisco Beaumont
URNIZA (Erroibar) 1994ko uda
Elkarritzketazalea: Orreaga Ibarra

Como es bien conocido, el euskera se había perdido en este pueblo de la parte meridional de Erro, antes que en los del norte. A pesar de todo, Francisco, que había nacido en Urniza, pero había vivido los últimos años de su vida en Olondritz lo conservaba. Aunque no hablaba euskera ni con su mujer ni hijos –y tenía, por tanto, un euskera muy anquilosado– es el último testimonio del habla de esta parte del valle. Francisco responde bien a ciertas frases que recogen características fonéticas o morfológicas, y además nos cuenta cómo realizaba el trabajo transportando maderos por el río Erro.

Zure emaztea nongoa zen? Larrain borda... bat, bertze bat... Sorogáindia.

Eta anai arrebekin?

ayeki béti euskeraz? erderas

Eta Urnitzten zer?

Beak eta ...pixket eta garie ta dénetak ta albolba

Mendian ibiltzen zineten?

Bai, karroeikin. Olondritz bai, ta emen bizi... pinuak atratzen ziren ederki dé-nak ta guartzen ginduen... bota dének ta...

Badago pinuik orian?

Ezta bátere

Aritzik bada?

Bada...

Aritze botatzen zenuten?

Ez aritze ez... egurre atratzeko.

Isidro ezagutzen zenuen?

Bai... Zarragókoa ze... nik uste baetz.

Eta nora joaten zineten, festetara?

Mezára beti, igéndero. Oñez... Igual ze

Joaten ginen igéndero... zapatak

Zenbat yende bizi den emen?

Guti, zazpi o zortzi familie...

Euskaldunik badago?

Ez, ezta...

Ateratzen zara kalera?

Asun yoaten da egunoro ta arrekin yoaten naiz ni.

Neska ona da?

Bai, ta langília,

Zenbat seme?

Zazpi. Bat Aintzioan ezkondu ze Aintziora, ta bertze bat, ...urbil... eta
Emaztea il zen?

Bai bigerren emáztia orain dela urtia ta amabi egun, iru ilebete.

Soldado egon zinen?

Bai Bartzelonan. akzidente, ogei te bortz ilebete akzidente. Eztaike irian...
déná, jende aunitz ta dénetai...

Zenbat denbora egon zinen?

Ogei te amalau il(e)bete

Nork egiten zuen etxeko lanak?

Bertziak... aite ta gure sémiak.

Semei euskeraz in diezu?

Bátere, erdaraz asi ziren ta erdara... ze in biar dut nik?

Ameriketan egon zara?

Ez... aratxeago... andik bada...

Ardaitzera yoaten zineten aunitz?

Bai mezara, zenbeit aldiz mezara.

Zer zegoen hurbilxego?

Ardaitz urbilkxego, urbilkxego Ardaitz.

Ardaiko etxeek nola dute izena? Zuriona, Etxebérri, Sastrena, Sansoténia,
Pattánia... dénak -na. Géyenak ...ezta yendeik an, zortzi yende dire.

Lenágó etxalde ona izaten zuten.

Bai, ona

Ta Urniten or bizi da orai?

Iñor, béti ártuik... ta akaso Ollokin daona tortzen da loitera.

Ardaitzen bada euskaldunik?

Bai, anitz, seguro... ezta jendeik an.

Baina zein etxetan mintzo da?

Iñon ere, dénak.

Lenágó uskeras yardukitzen zenuen?

Ez, guti.

Nola zaio neska oni?

Juliana

Hiketan egiten zenuen? Nornaiekin

Eta amakin ta aitakin? Zuketan.

Apézak man du meza.

apézak man duté meza

au man diót sémiai

man diotét sagárrak sémei

Nos gustaba ir a fiestas: Gazteaik... gustetzen... bestetara...

orai ...kargatu iar dugu ástoa

Banae kustera alaba Aintzióara

Naoaye kártzera ógie

Zuek duzié dírue eskúen

Te voy a pegar: Yo biar dizut (nire laguntzarekin)

Los nietos me quieren: nietoak maite... áunitz

Aitek erran tzio sémiari

Aitek erran tziote sémei

Guk iten aldugu oi

Guk bagindue txakur bet

Sémia, zérue, móndua, búrue, bégie

Es feo: da txarra. Atárie, áizia, au da lúzia, bésoa, pariéntiak, lagúnek, aixkídia, súbia, lépua, máztia, kusi, mán, artú, anáea, béak

Esto es para ellos: au de aendako.

Artzaea, móntia, oyánia, Yínkua, gaba

Herskariak

Págua, bixtu argié, bákia, gorputz, bekatue

x/y

Fan oyanéra, yan, féstak, yo, gitano ‘zítua’, cesta ‘zae bat’, yauna, sortu de terneroat.

Ortsegune, ortzirélia. Bortz, bide

Esto está sucio: au dugú zikin

Ésta es la hija: au da alaba

Esta chica es muy trabajadora: neskako au da langílea

Los hijos son sucios: sémiak dire zikinek

Esta casa es grande: etxe au da áundie

Ese hombre es alto: gizon goi da lúzia

gau/au

Gizon gonek erran du egíe/ gizon gau da órgoa

Torri neiz ándik/ torri neiz ordik

Yo mañana iré a Mezkiriz: ni bier fain naiz Mezkiritze

Aditzak

Noa zazi?

Zuk noa zazte?

Ni enaiz egoten al emen

Nik kartzen dute eskuen
Nik kusteunt eerki
Nik zauntzeunt ederki árdiek
Guk erosten dugu árdoa Iruñen
Zuek kusten duzie ongi

Zuek bazindute ógie?
Bai, bai bagindue

Esnia da ona osasuneindeko.
Lenago in duzue lan.

Egurra nola eramaten zuten

Bai aunitz ta aunitz. bota ta garbitu ta gero man biar dugu Urrotza. Nola? ugéldian. Eta *zer egiten zenuten, almadiak?* Ez suéltoak. Guk... ta gantxoakin ta gero maten dute gantzoarrekin.

Eta yoaten zinete oñez?
Kanpotik... Sei o zappi gizon, Urnitzekoak ta Ardaizkoa.
Bazenekien igerikan?
Bein bota nitze ta asi zire lasterke, ni... orduen putzure, ta enekien batte, makil bet, ta nausien sémiak makil arreki atra zire.

An atrazen zenun ta Billabara maten zuten kamionen.

Hainbertze pinu zegoen?
Aunitz, mendi bet, Urnitzekoak, ta Larraingóka ta dénetaik.
Pinue bakarrik sortzen zen?

Bai, lendik atra guti ta izozten ze pantalona... atratzen da, bustitzen ginen iiltzen gine an. Diputaziona gu ginelarik ...orduan Madrilgoa, saldu zio Diputazioneai. Ardaitz, Olondritzen eta Larraingora. Ta an Urrizen. Bertze familieik ez. Gurbizan ta eskun. Lau etxe... Urnizen ...iru, ta Larráingoa bortz, orai ezta iñorrere. Siestako denboran arrantzure ta... artu te ...una red menuda ta an joaten da por junto a la cueva y le da con el palo,

amorraea, ta txipa. Dénak yaten giñuzen.
eizé yoaten tziñeten? basurdea ere bai. Laixterka, basurde gutxi.

Otsoa bazegeon lehenago? Ez
Axerie, ta katue, azerie. Konejua, ardillas... Badire... sartzeunte sagoian ta an iukitzeunte,
Beak... emezortzi, umiak iten daude, umiakin dagona. Ta esnea erosí...
Emendik Burlatarra iru ordutan, emendik ta andik Iruñera.
Kontrabandoa? Bai aunitz

Hiztuna: Gabriel Soto

LINTZOAIN 1999/8/25

Elkarritzetazailea: Orreaga Ibarra

En los siguientes pasajes, Gabriel Soto en primer lugar responde a algunas preguntas concretas que contienen un objetivo gramatical para constatar su uso. Posteriormente explica asuntos relativos al ganado ovino, a las danzas, a la matanza del cerdo, a los alimentos de antes y los de ahora, a la muerte, a los funerales y demás celebraciones. Asimismo reflexiona sobre la despoblación del valle y las bodas prohibidas de los herederos de casas pudientes; también aporta datos sobre el pueblo de Ardaitz y los suicidios que sucedieron en tiempos pasados, tiempos de fuerte miseria. Gabriel Soto nos da datos sobre su dura experiencia en la guerra, en el frente, sobre la huida de los presos del frente de San Cristóbal y sobre el contrabando. Recuerda también cómo vivía una familia en Sorogain, cómo eran los términos llamados «Ipete» en los pueblos, cómo era el euskera en el pueblo, con quién hablaba en hika, y con quién no. Finalmente relata cómo hizo su casa, cómo curaba su madre, que era curandera de huesos, etc.

Galderak

El último vino tarde. Ondarra torri ze berant.

El perro muerde, el perro ladra. Zakurrek ozkaiten du, zakurrek iten du aunke.

Estornudo. Atrije erraten dugu emen.

Estoy aquí porque he venido. Emen nago torri baineiz, naizelako ere bai (baina berak ez du erraten, ezagutzen du baina, bi alditan bait-ekin egindakoa ateratzen zaio) emen ola erraten dugu.

Nieve. Elurre andie da, ai du elurre.

Petirrojo. Ttori ttar bat, badire emen txori ttar batzuk papogórriek, oyetire emengo txori ttarrenak, papoa gorrie ute ta orrengatik erraten tzaiote papogórriek.

Dios. Yinkua.

Makurgunea zer da? Makurgunea da pues, karreran rebuelta oyek, makurgunea tire oyek.

Es muy grande. Da gorki andíe, da ttarra, ta ándie. (txiki ez du esaten)

Txit polita? ez gise ortan ez.

Yo mismo he hecho esto. Nik in dut au, neonek in dut, ere erraten al da.

Yagozik in baneza nik esportak ta ereman erraten al nue ori neurorek in dut esporta au.

Cola. Puzténa. Zuek ere moztiko zinezkote axuri urrixei puztenak ez? Altzineko uzteko... emen etxe ebetan denetan pues altzinerako uzten ziren axuri artxoak pues puztena mozten zekizkiote.

Axuri eta ardieng inguruko kontuak

Axurie da ttarra delaik, urteat duelaik antxue, bi urte tuelaik primela, ta irurte tuelaik lauortxekoia. Ta andik goiti zerratue, ortzak berdintzen baizezko, pues zerratue ura.

Bildotsa, ez emen ezta kostunbre andik bildotsa errateko, axurie, arikoa arra ta artxoa emia. Umerrie da iltzeunzuleik azurie ori da umerrie.

Bizkarreta edo Gerein toponimoari buruz

Orai Bixkarreta paratu baitute, len Gerein erraten ze, Gereindik torri naiz. Lenbixiko aldie.

Dantzen inguruau

Oraingo neskak yantzatzen dire guti, desgraziez. Denbora atez gazterie kusi o oraingo gazterie kusi, nere denboran ze kanbio artu duen onek. Lengoak ...emen de-nak gine yantzariekin ta orai badire gáztik ta eztire yausere dantzatzen.

Galderak

Erroa edo errapea erraten da? Beain errapia, érrua ere bai. Karri du erroa andie, *eta errape andie?* baitere errape andie, berdin-berdine.

Miretu zer da? kusi ta... begiretu berdin. Zenbait lekuetan erraten dute ori, zuk erran duzun goi, ta emen erraten duu «miretu».

Aberea eta azienda

Aberea zer da? Abria da animelia baztakoa. Azienda izeten al da dena, bertze guziak.

He ido hasta el monte: Joanaiz etxeraño (-ñoz ez), joan naiz mendire.

«Doi-doa» erraten duzue? Banabile justo-yusto, doi-doya. Bat baldin bedaye ta ezbalinbadaike segitu, o temple txarrez o... joan naiz doy-doya.

Estamos callandico. Gaude emen ixil-ixile.

Tengo un coche muy grande. Dut autoat andi-andie.

Ven! Zato! Vete! Zazi! Nai baduzu joan dayen arata pues zazi arata, baña nai bauzu zuregana datorren, zato.

Iten al duzu / dezakezu, berdin da (bere ustez)

Jaten zenaz, azak, zekaleak...

Nik in tut lanak. Jañiaut patata zukue. Zukue da «caldo».

«Salda» erraten al ginue zopaindeko, baite arine, orrendako bai salda, baña balinbedira alubiek o garbantzoak o pues... bertze gisen, zukue o aza o zer den, atraten al duzu zukue. Gero nai belinbeduzu zerbait geyago, pues, atra zazu arrazoa!

Orai paratzen balinbadire badakizu, nola azten diren animeliak konpuesto ta orrekin. Bueno, ba orduen tixerriek azten zirelaik, paratzen zire, etxe bakarrean, asteko, ni egon naizenetan, obenean paratiko zinuen mile bortzeun aza zerriendako ta yendiaideko. Zerriendako beitiko óstoak kentzen zinezko ta repolloa familiendako, gero alubie ere biltzen tze.

Berde oriek nola dute izena?

Zekaliak. Asten diren oyek, berde, zekaliak, oye tire zekaliak baina erraten dutenak dire zekaliak. Eztait nola erraten ...emen erraten duzu bere izenaikin alubiek, Baztanen errateunte ilerrak, emen alubiak.

Bestetan zer yaten zen?

A beztetan, eztuzu kusten... baziren étxiak, iten tzire festa gogorrak emen denboratez. Iltzen tzire igual bi arakai, tortzen tzire aidiak alderdi guziétaik, beztetara. Mai andi oyek etxe andi oyeten béteik oten tzire, obenain mai betzuk andiek paratu, pentsa ze yendeketa izeñiar tzuen. Iru botella igual kokatzen zuzte, iru pintekoak, bazire olako botellatzuk, ayetaik.

Txerri hiltza, olatak...

Bai, bai... tzerriek iltzen tzire eta... ongi aziek irineikin te artoa ta garie, etxe-ko konsumoko, bider o iru zерri iltzen tzire, pues...

Lukerikek, ta birikek gero iten tzute magroatzurekin txorizoa. Txingerra ta solomuak ta... tripota erematen tze etxetara, denetara akaso ez beñ geenetara bai, aidiak ta aixkidiak eta zerbait gisetan. Apezai ere, akaso bai, apezai, apezak denborartan, ogie iten zelaik etxeko ogie, irineikin pues, iten tzire olatatzuk artzaendako, olakoak ta apezaindeko bertzateatzuk, orduen denborartan, a(t)soak adinetako a(t)so oyek, tortzen tzire egunoro mezara ta mezara tortziaikin kartzen tzute olata ori apezeindeko.

Eunoro, ta artzayak berenduekin joaten tzirenak erematen zute bertze olata oi, iten tze ure. Zakur betzuk larruek irukala (= iruki ahala) gizen irukitzten zuzte.

Nola? larrue irukala, erdaraz erraten dute, ‘todo lo que cabe en la piel de gordas’.

Etzue gastatzen sosik, kunplitzeko. Orai eztute ez anbertze mezaik iteko, orai kanbiatu dire aferak, lenago, gero ileri...

Heriotzaren aurrean. Hileriak nola egiten ziren

Iltzen tzelaik norbait, eze igual etxe nagusietan nola etxe pobretan. Pues pobre ayek gelditzen tzire arruináuik, entre ilerie, gero aidei maten tzekote bazkariek eta gauzek, ilerie kobratzen zute denbora artan... Zer dakit nik zer kobratiko zuten? nik aldi betez pagatu nuen bat ta zortziegun pezta pagatu nue, ta etxetik emanik yateko guziek, zazpi apezendako.

Apezei, yatekoa da dena pagatzen tzire.

Tortzen tzire... orai ilerie iten du apez batek bakarrik igual, orduen tortzen tzi-re bospasei al tzuten guziek tortzen tzire; ta gero ayek iten tzute animeleko bazkarie, beño bazkarie, zer nai zuten yan ereman biar tziñekote etxera, kozinerie baitzute, zerbitzerie. Orduen arek prestatzen tzue an... ta gero akabatzen tze ilerie pues juergatian, eztu kusten ainbertze edarie edateko an? lenbixik ardoak igual iru pinte-ko botellak an, mayan, gero berriz, denbora artan etze ez anisik eta koñakik edaten, baña ardo ure aski ze kazkarratzeko.

Ze ori balin be ze... ori moztu ze, in zute arras ongi, porke zenbait igual kan-tuz asten zire zenbait igual ta ori eztao ongi.

Nola erraten zenuten «te acompaño el sentimiento»? osasuna enkomendatzeko.

Hainbat etxalde nola hustu diren

Pattania (Ardaizko etxea) orai utsi tago; yabia dago... yendia tuzten leku oe-tan... or dago Elizondon, ta orrek yain du Pattaneko étxea, bizitzen balin beda anitz...

Olako leku etian dago, Gereñeko Ansoneko baitago, pues gise berera dago, pues oek yain dute etxea ta geago igual.

Ez dute semerik? Ez, ez dago.

Eri izetiakin lenbixikoa gizon garek etzue bertzeik izen nai, beldurrek torriko zirela denak eri, etzute izen.

Eta zu mutil ibili zara?

Ni ez, ez, ni eonaiz Primonian Lintzoainen, joate nitze bestetára. Ez, ez, Ardaitzentz ez. Primónian, neri aita il zekire lau urte nituelaik. Orduren ama ta arrebat nitue, arrebat Iruñan dago, orduen eskolatik atra nitzaika or asi nitze lanian, Primonian, or aitu nitze? zenbait urtez... gero ordik juanitze gerrara. Gerratik torri nitze... ta gero berantago nere amak erosi baizue etxe au... pues joanitze, ordik atra nitze, ta oyanera, lanera. Ta pastu nue denbora pusket ta akabatu zelaik lana torri nitze etxe ontara, ta emen sartu nitze, ta emen nago.

Ardaitzen jendea putzuetara botatzen zeneko kontua

Ardaizko etxeetan baziren putzuek?

Bazire putzuek, bai, bai, ta Pattanian ere gizon bat, iru egun iten zuzte besta, pues ni egonitze an pestetan. Laugerren egunean etxean bazute putzu bet oyétaik, kendu ezpartinek eta galtzuñek ta putzure bota ze ta an ito ze. Ezta nola bota zen, bota baze zangoz ere izein zuen putz arek eta emengo yendiak, zer daki? eztaki nadatzen ta yausere.

Gero baze bertze lekuet, nola erraten zekote? kaguen diez!, Ardaiztik beitiago zego, lekutik onat eztut aitu nior suizidetu dela. Ardaitzan sartzerakoan emendik ere bada putzu bet, te orai aprezierten baitituzte oyek, putzu klase oyek. Pues subentzionea man diote, iteko len zen biño obeki paratzeko. Ardaitzan, obeki paratzeko, orai artio izein ze abandonatuik egin ze seguru.

Ura hartzen zen?

Pozale bat paratzen tzute kuerda bateki lotuik ta botatzen tzute urera ta beteik atratzen tzute, denbora artan. Karretera bazterrian baitego etxe goi, orrek ere beitioko estrabilian onduan bazue estalpe bat ta bere putzue an zeuke. Orai tapatui tago, beño iturrie atratzen da finka ortara, etxe ondoan dauken ortara. Or ere orgo nausi zarra bota ze, beño urera, beño, beño, urek etzue artzen onaraño baizik, ta atra zute ito gabe.

Ure emen Lintzoañen, beño or suizidetu zire anitz Ardaitz ortan, zer dakit nik nola iten tzire? yendia desesperatuik egin ze.

Oyek len tzen putzu klase oyek subentzionea mandiote patzeko len tze beño obeki, Ardaitzan, obeki paratzeko, orai artio izein tze abandonatuik egin tze.

Eta ura ateratzen zen?

Pozale bat paratzen tzute kuerdatekin lotuik, ta botatzen tzute urera ta bateik atratzen tzute. Denborartan karretera bazterrian baitago etxe goi, orrek ere beitioko estrabillia ondoan bazue estalpe bat ta bere putzue an zeuke, orai tapatui tago. Beño iturrie atratzen da finke ortara, etxe ondoan dauken ortara. Or ere, orgo nausi zarra bota ze, beño... urera, baña urek etzio artzen onaraño baizik, ta atra zute ito gabe. Ure emen Lintzoaiñen, beño or... or suizidetu zire anitz Ardaitz (sic) ortan.

Eta, zer pasatzen zen ba?

Miseria gorria, ezin bizi, lur pobrea eta familia handiak

Zer dakit nik nola iten tziren?

Yendia desesperatuik yoin ze, miserie, asten tzire... peñen ertian ta erikitzen zute garie zenbeit lekuetan. Bolsan artu azie ta bota ta ori... gizon batzuk, zarboratuik... asto ttar batzuretarra ieten zuzte ta joaten tzire alorrera. An gero bear tzue ber-

tze norbait etxera tortzeko ieteko astoain gañera, ta bidian erortzen baze astoa, pues an gelditzen tzire.

Zarboratuik zer da? Zartuik.

Orai yendiak baitu subsidio goi, orduen etzuten ja ere, ta pobreak beti pobreak ta zarboratuik... desinik lanian aituz... bañan biarrian gañian joan biartzuten lane-
ra, orra, ta denborartan ere pasatiko ziren gauzek, obenian, laneko balio zuena igual
joain ze Ameriketara ta igual pastiko zitue an berrogei urte ta, ara.

Denborartan familiek zire aur anitzekin etzakien zer eman yatera, baño aurrek
montonka, emen ere bazire familiek amar amabi aurride, or ondarreko etxe ortan,
karriketik arata...

Gero etxe oi in dute orai, nola erraten dute yende ebek tortzen ...etxe oyek,
nola izena, nola paratzen dute?

Veraneante oyek tortzen baitire, or in dute etxe bat, Kaxenia zayo, baña nola
deitzen dute ori? Casa Rural.

Familia batek nola egin zuen ondasuna denda batekin hasirik

Bueno, orgoa zute oyek ama ta etxe ortan zire senarremaztiak ta ...mutil zarrak
etzirenak esposatu sekule aen amain aurridiak. Orduen tripe betetzena tortzen tzire
orrara artu lau edo bortz ume ta tortzen tzeorrara. Ta or yaten zute... armarioa ere-
ki ta or artu etxeakoak zire bezala... ta orai... gero joan tzire Ameriketara, ta pastu
tzute ...iru anai zire, ta pastu tzuzte iru urte bakarrik, kontratan torri zire.

Iruñe anditu baize denborartan, erosi zute pisoa ta paratu tienda... orduen sal-
tzen tzute bertze tiendak biño karioago beño yendia. Emen karioago pagatu ...na-
yago zuen emen pagatu ezik Orzokoraño joan peño, ta ola in zute ondasunek.

Ta orai, nok daki zer duten, orai familie, karrera manik eta millonekin, ta bertze
pisuetzuk erosiek. Orai etxe ortakoak... Juankarlosena zaio orrei. Ta emen bizi dire?
Ez, ez joan den urtian o orai duela bi urte saldu zute etxia... Iruñen, Iruñe orai dela irue-
tan ogei urtetaik onat Iruñe badakizu zuk zenbat anditu den... pues anditu da anditz.

Oyek torri zirelaik paratu zute Iruñen berrie in zen lekuene, erosi pisue ta para-
tu tienda, naiz karioago saltzen zuten, yendiak nayago zuen emen pagatu ezik joan
araraño bile. Ta oendako... oek ola in zute ondasune. Oraño ere bada bat oetaik, ta
semea karrera manik eztaik zenbat piso tuen, San Nikolas ta San Gregorio patatez ta
abastatzen tzun egunero,

Enanzue?... izen dire

Ameriketara joan beharra dirua ateratzeko

Jende oriek bazuten enanzo eh!... nola errain dizut nik? guardatuek ...zenbait
joan dira Ameriketara ta irezten zutena mendien gastatzen zute errien. Orduen ezti-

re sekulen torri onata ...ta ebek oon tzire mendien ta in tzuten sosakin torri zire. Ori, denborartan oraño kanbioa zegolaik bajo, beñó karri zuten sosa arrek... denborartan ta berantago Iruñen balio zuten pisuek berrogeitamar mile pezta o irutanogei mile pezta.

Bat bada or Elondrizkoa, Txiletik torri ze, Plaza Kastillon baze pisu bet saltze-ko irueten ogei te amabo(r)zt mile peztetan, etzue sosik aski. Orduen in bear tzuen arrek bankuai eskuai sosa prestamoat te aseguretu eta pisue, pues obeki joain tze, beñó... erran zue, etzue sosik aski ta banae berriz! tortzen aizelaik saldiko ut baña bitartion.

Gerrara joan zenekoa

Ogei urte nituela orduen... ta ai ginen papera eiten ama alargun beize, libre-tzeko soldadongati; beñó gerrak etzue errespetatu yausere ta utzi ama ta arreba ta joañiar zinue.

Lenbixi joanitze Gipuzkoa ta Ondarroa ondora, Gipuzkoa ta Bizkaieko mugera, or pasatu ginuze sei o zazpi ilebete deus tiroik ta yausere gabe. Gero asi zirelaik or gauzek ereman ziute bertze lekuetera a Leon, bueno or, gero Santanderren ta Santanderren entregatu zire iruetan ogei te amabozt mile gizon ta Norteko gerra or akabatu ze.

Gogorra izan zen?

Arras goorra, ondarrian asteko, lenbixinen ez, lenbixinen ere baña... bat iltzen balin beze, salbatzen zire emeretzi. Eztuk kusten lengo bala oyek zirelaik?, mauser ayek gero karri zuzte bala explosibek, orduen ayek yotzen bazuzte besoa, igual besoa joaten tze arata. Tripen yotzen bazizute desiten zizuten tripe guzia ta bu-ruen igual, oyek paratzzen zute biloa puntezka buruen.

Tokatu zaizu ikustea zuri?

Bai, tokatu zaide, beñó izen dut suertia, erosi nue kaskoat, azeroko kaskoyetaik bat, bi sueldo pagatuik, ta arrek salbatu zire burue. Tanke bat botatzen zitue bonbetaik, yo zire an buruen ta kendu zire ola erdiz erdi, atorra ta kamiseta ta dena kendu zizkire, ta emen intzire marka bat lepoan, or izen nitze seminario ortan zortzi eunez o eztakit zenbat.

Gerra kontuak

Non yo zizun?

Bizkaian, ta karri zizuten onera, erraten ziote, «las peñas de Lemona», eztait aitu duzun zuk. Bueno, orduen an gineude ta aitu... ai gine atsalde batez yardukien bertze aldeko batekin, ta arrek erran zuen: batzurek yinisteagatik Yinkoan ta bertze-atzurek ez, ederra armatu diegu! erran zue, ta, bier... erran ziun ondarrian, bier Yinkoak nai bedu pues bizkar ortan egongo diet.

Ta guri relebatu zigute orduen, ta gineude mendien bertzialdian, ta biramun goizian joan zirelaik oyek kendu zekote an zeudenei ori. Orai eztait ongi atraten yardukitzten ure o... baña betire arara joan zire. Orduen ayek artu zutelaik ori karreteratik eldu zen tanke bat botatzen zitue bonbak, batzuk pasten zire luze, besteatzuk gelditzen tzire labur. Ginde or errekatian ni, erreka onaraño... ze ezponda, orduan batean gelditzen tze or, bestean pasatzen tze arata, gero ondarrian yo zire ta bota zire pusketian arata ta arropa kendu zire ortik ta kasko arrek salbatu zire.

Bertzelaz eramatene dire buruen erdire ta gero... adios enuen yagoko izen, batzuk baziren denborartan ziren munizioakin lemixi eldu zen munizio arekin, ola balin bazego etzanda, sartzen bazeko bala bat ortik eta emendik atra.

Etzue pasten zortzi egun ospitelean, segiden an presentatzen zen sendatuik, bala ayekin bai, bañan, berze ebek kanbiatu zuztelaik, ebek arbole lodi oetan tiretzen zire ta saltatzen zire kanpora. Puntez baitute, trenakin raile oetan olaxeko boketeak eiten zuzte; bala miserable ayek, gero aldi betez suertatu zen, ogei te amalau laun ginaude ta joañiar gindue, baze barrio bat, an ugeldiain bertzialdean ugeldian ai ziren atsoatzuk arropa garbitzen ta ola ta izil izile.

Ta oyek barrio artan zekiten (...) inik joaten gineko guk te asi ziren sentitzen guri tiroka asi zire, ta nonbait erituik gelditu izein ze norbait. Ta tiretzen zute gero, puf!... ta gu an arbolan kontra, ola zegola arbola ta burue emen paratu ta antxe. Asaldian (sic) ola zego abarrez ola ure, ta ogei ta amalau oetaik obeitamar zuzte andik, eztait nola atra ziren. An ere bat ola zego bi aldetaik, ola makurtuik ta kusi nuen nola yo zekon bi belaunen erteau balak biarbada moztu zezkote bi zangoak.

Amak bazitue aziendak eta dena, eta ardiek eta dena ze gorki langilia nere ama, gorki langilia.

Eta moldatzen zen lan egiteko zure ama?

Bai, belarrak eztait nola inen zuzten, peonekin ta ola, ni joan baño len. Arara, bertze etxe ortan asten gine denek egunes igual lanian ardi-yeizten ta asten ze uden ta nere ama, gu sabayan artzeko lanian.

Joan gine boluntario lau, emendik, bat il tzute amabortz egunen buruen ta bertzoat iltzute berantago. Nere lengusu bet nere adinekoia. Ure kusi nue karriartzute-laik arrei yo zeko tripen ta an zeuke kaka atraik, ‘perdonekin’ kanpora, ta emitze benturetu tortzera, an gelditu nitze.

Zuek boluntario joan zineten?

Bai, ta boluntario joaeaikin... joan baigine forzoso ireziko ginue bi sueldo egunian ta boluntario joateaikin irezten ginue peztat egunian, ta denborartan peztatek bazue balore gogorra.

Eta bi sueldo, zenbat da?

sueldo bat, bo(r)st sos, ta bi sueldo amar sos.

Eta pezta batek zenbat sueldo zituen?

Ogei... ta duroatek eun. Iruñera joan gine, or egon gine iruola egunez o bortz, enaiz oroitzen e!, egia errateko. Baña nola egon ginen or bai, ta Iruñeko kartzelian inez guardiak ta ori. Ta denborartan erraten tzute an onenbertze denborangatik egoñiar zue... Zentila alerta!, baña etzute denek kontestatzen, baña denborartan yendia ez baitze usetuik lokartu iten ze orduen joaten tze kustera, aber an zego o joantzen andik .

Maixter zeuden yendiak etxetan ta ori, pues maten zezkote komunismoa fazi-lidete goorrak.

Eta hemen Erroibarren baziren nazionalistak?

Komunistak ere bazire, bai. Orduen intzire eta afilieta ortara, gero torri zelaik gerra, pastu ginuze oberenak, zenbait lekuetan il zuzte, emen salbatu zire nonbait, baña, baña emen iltzuten?

Ez, emen etzuten il, beño Urrotzen ta orrata bai, apezak izein zuzten or ikustekoak baña... yendiak, pues oyek... etxearen erraten baitzekote, pues afiliatzen bagine komunistera ya betiko aiz. Etxetik... dagon etxetik eta iten zizkote juntak eta ola ta... Erron zego oyetaik iten zena nagusi, argiein enkargatu bet Manolo erraten tzio-teten, ze gallegoa, zaundiko... bear bada, zaun duzu.

Bertze seme bat, ta man tziote indarra biar baño lenago ta an gelditu ze seko, bai... ta bazire maestro bider o iru sorik, ta ori ereman zute. Reketek ereman bazu-te ilen zute ta ereman baizute guardia zibile beti maten tziote ayei ta guardia zibilek man tzutela, bertzelaz enterratuik nindego.

Nola eraman zuten, kartzelera? Bai

Eztait zenbat denbora pastu zuen, denbora artan bazire emen Reketek eta Gereñiñen zeudenak batei «maton» deitzen zute, arrek zazi zenbat il tzituen!

Gereñen biltzen tzire, ibiltzen tzire erri ebetan denetan, bai or denbora puskat pastu bear tzute or..., bertze batzurek Eugin te ola... emen asi zelaik gerra pues guardiekin, joaten gine Sorogaña, an iten ginue zerbitzua, Sorogañen, eztuk kusten obligetzen zutela! an gabaz eta... guardia iteko, ta mendi aetan ta iiltzeko.

Eztuk ikusten mendia eskapatzen zela leku anitzetaik Frantziera?, miserie gororra, ta Agoitzen etzuten il yago gende porke juan tzire boluntario, gerrara, ta an salbatu zire, orduen bengantza gogorrik izan dire... Obenian, zuk zor bazirezu neri mile duro edo... pues orrek zor zire neri, ta... ala iltzen tzute yendia fundemetuik gebe.

Iruñeko fuertetik ihes egin zutenekoa

Gero atra zuzte ordik ere, Iruñeko fuerte ortan... bazire yendiak atra zuzte duikebe zuzte suterranoan beitixko, ta kasi denak tuberkoloso atra zire, andik balle Anuen. Esainen zazpi aetaik eskapatu zire... juateko... zute orreki ta arpatu zuzte ta fusiletu te... erriko gizonetaik batzuk.

Bieli omen zuzte enterratzera ta, bat omen tzego yarrite ta Esaingo gizon arrek, zaundu nue bai Esaingo

Gero, berantago, aizkoratekin yoka buruen il omen tzue, yarrite zegon gizon gure. Joan tziren enterratzera, ta bat zego or yarrite gaizki erituik, ta orrek, ala, ta zaundu nue... eztakit ze bizi daman... bañan zaundu nuen mutiko ure, errain tzekote: mantziok kaskoen gañean ta yasta!

Emen ere badire, emengo kanposantuan bide, enterratuik oyetaik, or konfesatu zuzte eta Sekretariatik beitiago, ta or il zuzte gero, ara karri zuzte, or daude enterratuik emengo kanposantuan.

Eta zer ziren, emengoak?

Ez, ez, miserie goorrian.

Emen arrapatu ta konfesatu ta gero il?

Etze orduen baloreik, apezak erraten tzutena ta ja ere, oyek tortzen tzire iltzeira, ta il te fuera... bertze gisen in baizute komunistek, bertzaldetik... pues igual, igual-iguala.

Kontrabandoa

Kontrabandoan ibili izan zara?

Guti, eztiot enbidiaik ibili denai..., gutxi ibili naiz bai. Aldi betez joan gine amalau gizon, an artu gihuze amalau zaldi ta ala-ala in zue, lerriteko eurie, torri gine... atra gihuze Urrotz ondora.

Lizoain erraten den erri betera, denbora txarra baizego ta zubi... erreka onetaz joanez, zubi... ta ueldera joaten tzire zenbait zaldi beño, bazazi erdi laxoik eta ola. Ellegatu gine berant, ta joan tzire kamionak, orduen erri ttar batian pasatzen ai ginenetik bidia utsin ta joan gine larrain betera. Larraña badakizu zer den? Galduik, gabaz baize, pues larrain betera joan gine eta, gañeko leyotaik tiroka asi zire...

Denbora ori biño lenago, iiltzen tzire zitoak, biorrak ebasten zuztenak, orduen erranik zeude, autematen balin baduzue zerbait pues... man zazie parte ta.... Pues, ori, man tzute parte, ta kendu zizkiote zaldiek; or ezbaite emen bezala oyanik estaltzeko. Gero ordik estaliar gihuze, egunesko nolabait, ta joan gine pinedi betera an, eguzkie dena garbie ze. Guardiek torri zire arara, zaldiek utzi gihuze, ta asi zire zaldiek gure gibeletik ta itzuli ta lotu pinuei ta...

Gero erri... Lerruz... o eztakit nola zaion erri orri, an joan gine bi etxetara, baña man ziute ogie eta eltxaurrek yateko, ta bertzian berriz, man zekote ederki baz-kaltzera.

Gero torri gine or, zalapartaka euria ai zue, eta alorrapak eta zeude erekik, ori ze nik ogei urte bete nitue egunian, loya, gosiak ta loya zapetai lotzen ze ta ezin errex-tatuz zangoak... jo!, amar peztendako, amar pezeta!

Amar pezeta?

Bai, ori man zirete, gero arrek man tzue partia gaurdia zibilei, gero joan ze bel-durrek eta ilen ginduela, joan tze fraile denbora puskatez, ala joan ze, beño paper fal-suekin te atra zuzte berriz altzine, ez bazute kendu bezala

Baina, egun orretan tiroka asi zelaik zaldiak kendu zizkizueten?

Ez, ez, ez ginuze utzi, eztuzu kusten etxetik ai zirela? gu atra larrain artara ta tira altzine, amar pezetengatik biaje oi, gero eldu ginelaik enaiz, sekule yagoik izen. Elizetik pastu gine, ta gero aldapa pastu biar gindue ta... loyak ezin errextatu, kontent ikusi gine, ta zenbait an gelditu zire, etzukete... bertzoat...

Kontrabandista baten istorioa

Ameriketara joan tze, iten zitue astokerietzuk, sosa bazue pileka, onara torri ze bein betez bodatera, Auritze. Ta, emen zire festak, ta nai omen tzue atra, bueno pa-ratu musika arrek, ta bertzek etziote ametitu ta torri ze onara ta emen ai ze sosa es-kuetean ta koñaka bertzeatian. Ta autoeki iten zitue, joaten ze firurikeka, altzuen gu-zie, gero zu or balin bezaude, emen iten zue frenatu, baño olako astokerietzuk iten zitue, biño Uerten o Burletan iltzue mazte bat autoekin, gero joan tze Ameriketara ta an pastu zitue(...) ibiltzen tze Iruñen ta arrek iten zitue sos goorra, ta bere son-breroaikin ta ibiltzen tze ederki beztituik.

<< pertsona baten bizitza kontatzen du, lerro hauetan ez dugu jarriko >>

(...)

Kontrabandoarekin segituz

...gero, eztuk kusten oberenian gaur bezala, edo gaur baño makurrego oyan oe-tan igual paketakin te ori te igual zalapartaka... ortoska ta iñazturek ta ori, beti bel-durrek joan biar, beti leku txarrenetaik te emen ibili zire bai. Berantago zenbait, ta bakizu, nailon ure zelaik..., beño kanbietu zire aferak. Ayekin iten zute ordutetz o orduterdieteza eta lana, ta gero libre ziren, etapa laburre paratzen dizkote, ta igual irezten zitue mile pezta gaba bakarrian orduen zauntzen... zaun tzire emengo gaz-tiak or zeiltzenak, joaten gine Gereñiñe ta... Aspiltxen etxian berendatu... bazute akordion bat. Bizenta ure eztait zaundu zinue zu, Azpiltxen andria, arrek erraten tzue: nayago diet Lintzoaindar bat Gereñengo gizon guziak peño. Sos yago ematen tzuela, Lintzoaingo gizon batek Gereñengo guziak peño.

Gereñingoek ere traidoriak zire, asten tzire musian ta atratzen tzute porron batean edarie igual iten zute sei partide ta ezute edarie atratzen bi partide beizik. Ta etzue a(t)so arek irezi egiten aekin yausere, gastatiar tzitue argie ta gauzek, orgatik arrek erraten tzue: nayago diet arrek Lintzoaingo gizon bat, Gereñengo guziak beño!

Nailokin hasi ziren paketeak eramatene?

Bai. Biño igual Sorogañen artiko zute, ta ortxe tortzen tzezkote artzera berzeatzuk, orduen ortik etxera segiden presentatzen tzire ta, gaban loiteko zaukete ta biramonian prest zire erozein gauzetako. Naut erran disimuletzeko ori ze...

Bañan okerrena ze aziendakin ta ibiltza

A bai! Aziendak... makurrego ze, bai, porke lenago Itolegin te ola. Ni suertatu naiz, ardiek ta izen baititut arata ta ola... Itolegin ni frankil a ber azienda biletzen nuen ta Beltxain alaba oyetaik antxe egoten tzire.

Igual aziendan multzoetan, beak o biorrak o ola ta ure an egunes aen guardien, ootenean tze. Orduen Itolegin eun demonian bagoak bazire explotatzeko yausere etzeago Itolegin orduen, orai eztut kusi oraingo Itolegi, baña seguruenik differentzie ederra baduela ordutik, oyek artzen (aritzen) zire kontrabandoan denak, denak...

Beltxakoena istorioa

Orduen denborartan Estadoak, nik eztait denboraz ola, kendu zezkote erri oyei, orai eman dezketen oyei. Oyan goitik onata, pues, Estadok, or elur andie eiten bai-zitue, pues Beltxa ure torri ze Etxarri Aranazetik Auritze mutil ta maztia re zego neskato or. Ta esposatu zire ta joan tzire Sorogaña, bertze etxe bat ere bada Gereñengo Batitena Sorogañen, etxe bat an ta bertzeat emen. Uren iturrie baite zuen ureña, ta gureaña ordik goitiago, ori de Gereñengo Batitena.

Ya or arimaleko familia azi zue... neskáyek, Gereñen Jozeandiñera esposatu zen ure ta ayek ...ikusi biar ziñuze aizkorakin nola artzen ziren lanian

Ikatza nola egiten zen Sorogainen

Eta denborartan, iketza ein an Estadoko oyanian elurrekin asten tziren ayek eta botatzen tzuten arbole ayek ematen tzezkoten lau sosetan Beltxai, ari eldu baizio obeki, beño andik karretera jeneralera ekarriar tzitue onara iketza, karri zitun bai Gereñe esposatu zen arrek biejeorrara.

Eta nola ekartzen zuten? Abrian... Kamiona, Orrara bi.

Republika denboran balleko oyanian aitu zire zazpi urtez lanian. Gereñen esposatu ze bat eta bigerren aldien Ferrandoñeko batekin. Pepita zekio ori, ori ze kontraste ta ...Santanderinoak ta ari zire lanian or... ta Baztango ta bazterretexe oetaik etzekitenak itz bet erdara ta ja ere. Ta mandazayek iten zute iketza. Mandazayek baki zu zer iten zute? botatzen tzute ugeldera zákuek, gero kamiona tortzen zelaik, langile oyei mugiezi goatzetik iketz ure ugeldetik artu -pisetzeko yago- a kargatu kamionan.

Oraingo gazte ayekin etzute olako lanik inen, ez, gero oyek oatzetik muitu an, arratsen... gaben erdian tortzen bazen kamiona mugitu goatzetik ta ayek atra ortik ta kamionera. Bai anitz lekuetaik bazire yendiak or, Santanderinoak iten zituzte trabiesak baña, bertze iketza ta ...iten tzute oyek pues oyek zire langiliak iketza iteko oyek kentzen tzioite material obena iteko trabiesak ta bertzek ez iteatik iketza...

Orduan Beltxako hauetako Etxarri Aranaztik etorriak dire?

Ure, bai angoa ze, baña bertzia andria, emengoa ze, Urnize edo orgoa, ta atso ure, ta anbertze ume, obenian olaxeke elurra atarian, ta igual aurre izeteko ooten tze, ta an etzuten nioren auxilioik, an Yinkoa takien bezala atratzen tzire altzine, bai niorren laguntzeik kebe.

Nola erran duzu?

Nola errain dizut bertze gisen ...pues an atratzen tzire Yinkoak nai zuen beza-la, bai atra zire...

Bein betez... joanitze gerraondoan, ekartzen tzute... iten tze ogi bet gáixtoa... ta festetako joanitze... bertzoatekin Urepela irin bile, eztait aitu uzun, biar bada aituzu... Gillonen bordara, Gillon Belaskoaindik beitiogo, nire lagunek artu zitue ogei tamar kilo ta nik artu nitue... neri pagatu zizkire ogeite ameka, bueno torri gine ta Sorogañen gelditu gine, leen tzen etxea... tik, bixker ttar bat iten du, bertzialdian deskansatzera pixket, ta neri lagunek lokartzen zaide an, tortzen al gine orduen berrian, andik burutzetu ballekora ta... etxera lokartzen zaide an... gero ilundu zue... ta joanitzen ni Beltxain etxera.

Eta zuk ez zenuen iratzarri?

Ez nuen iretzarri, Beltxain etxera igoz zire, a ber bazen Guardia Zibileko... ta berarrek artu bien karga ta joan tze arara, an in ginue gaba, pues pareta ayek eta polite zeude, an kuarto aetan, denak umedeziituik, jode!

Txikia zen etxea?

A bai!

Eta orai norena da etxia?

Batitena izein de, eztakit eztut aitu saldu duela. Batitena saldu ze, baña ori ez-tut aitu. Batitena Sorogaingo oek erosi zute ta ori bertze ostatu berriko oi ere, oyek erosi zute.

Zuek nola erraten zenuten?

Posada Nueva errateunte, baña uskeraz de «Ostatu Berri». Bai, gazte denbora pues ori errain gindue, eztait, Posada Nueva errain gindue, Erroibar (erraten zuten), bai eztait olako gauze oetaik yardukitzeten ginue, Estiribar bai, bertzea Artze.

Voy a casa de Martxantx: banae Martxantxen etxera.

Martxantxenera baitere (nik esan ondoren).

Argiñenia, Tanazárria, kasi denek tuzte uskerako izena. Tabernazarria, taberna zarra izein ze lenagotik ere, gero orai erraten tzekote erdaraz «La casa Marmoa», beño orduen ze ori, gero Primonia, Juanpedroña, Maixternia, Martxantxena, Burtzikina, Apeztegie, Kaxenia lenbixik.

Erlotenia badakizu norena zen denboraz Erlotenia? Mezkizko Bartoloña, eta non da? Kaxeniain ondoan dago, etxe zar bat, or, ta... gero Sastrena, Sastreneko orrek bazuen Mezkiritzen etxe bat ta Bartolok zue bertze au, orduen in zute kanbio, ure zenak? man zeko Bartoloñai, ta Bartolok ori Urbeltzei.

Ez, ez bertze etxe zar bat or eta... Kaxenia ta Urbeltzen ertian. Baino, Mezkiritzen ze etxe eman zion?

Ori zu takizu... nik eztakit ze etxetan bizi den, bizi den etxia izein tze, ala izein tze.

(Nik hainbat gauza aipatzen ditut.)

A, ori eztizut errain... porke ori de ni nitzelaik aurre o ola inikeko tratue da ori.

Gero, Baltegie, Nikolaxenia, beno eskola utzi dugu pastera, ta Juankarlosena, gero bertzeat... ine nik zortzi o mar urte nituelaik, Falantxon. Gero bertzeat Juanpilipeña, erritik onata etorriz etxe bakar goi, gero elizerie, Motxaña, Juanxargine, (argin bat zegoen), or... etxe ortan.

Ori ini zute urte bat lenago, au gero, orrengatik erraten dute anitzek, ola iru urte diferentzia ta onek dun portala da arrizkoa ta orrek zurezkoa, pues ori galdeitzen zuen, baña emen ze Juanxargine, gero Atanaxenia, ta Antonena, ta Ortzokoa, ta Sekretarie.

Orai badu denbora utsi tagola, Sastrena ere asi ze bertze anai betekin pleituen. Sorogañen bizi ze Juanpedro, uskalduna izein ze ure, orduan amakin an bizi ze, ori ze Urbeltzena, Sastreneko oi aurridia, orai izeñiar zute, bi aitetaik izeñiar dute. Pablo il tzuten or Sorogañen, ta Juan Pedro izeñiar zute aiterena, baño Urbeltz dute apellidua ez?, o ama diferentia... ama izein zute diferentia, oyek ere denak aurridiak zire denak.

Urbeltz zen oi torri zekio... Ameriketaik anai bet, orduen etxien erdie arreglatu zue, denborartan Mezkiritzen bazire Kolixen etxian bider o iru zurgin te balientiak, or karrera oetan, ta dena utsik ta karrera zuen, eskinera joan eta an dibujoen eiten ta aritzen zire, zein balientia tiren!. Gero aetai pat eztait non oon tzen bestetan ta festetaik etorri ta lizerrein itzela men da fierki gaixtoa, ta nonbait lizer zenbeiteen pean o etzan tze. Ta adios, andik altzine garbi... iltze!

Oyek bi aurride dire oetaik, pues biek ola bertzia eman zute Iruñera ta ure orai nik uste obeki dagon, lenago aiztiak botatzen tzue igual kanpoan, len tortzen tzen

zuen amitxiorrara, oroitzen naiz, pues ori oñiar du penagarrie, gero orai Kaxeniakoa ere. Kaxeniako Madalena zauntzen duzu', pues orire... eritesun bet, or dago, kateratik ez daike muiitu ere, naut erran katedera «silla de ruedas».

Hemen egoten da?

Emen dago orai, bai, ooten tze Iruñen beño...

Portillo: ataka, bai, bai atakak dena, ezkortiak o balangak igual. Exkortia da ori ataka, batek izein du kaprixoa iteko exkorte bat. Exkortia da barratzureki iñe, kapritxoz, eztala? igual paratzeunzu bere gise gietzen dena, soltatzten zute jakin gabe, joaten da bere gise... Gero berri, artzen zu ta paratu an, balangak badakizu zer diren?

Ta orai dira alanbrezko exkortiak, lenago balangaz zire geen geienak balangaz, eta aitak... yendia pasabidia ibiltzen duena ta aziendekin te andik ibiltzen dena.

Estoy de miedo: nago beldurrek.

Estoy de hambre: nago gosiak.

Artu neko beldur anitz Pedro.

Estoy al sol: nago iruzkiera.

Estoy a la sombra: nago itzelera.

Ipeteak zer diren

Bada mendi bat izena duena Ipete?

Bai emengo oyan goi. Ipete ze denboraz. Lekue ta oyan gau denborartan zego garbi, orai ere batu pusketzuk garbi, baña zego garbi. Iten tzire lotiak mendien iretzekoak, goatzetako, familiendako...

Emen iten tzire orbeleindeko, denborartan orbela iten tzue mundu guziek or, gero guardatzen tze emengo bazka festetako. Festa bezperan yendia festa o karri denak pues festa bezperan sartzen tzire beak or etxeen zebiltzenak. «Aldikoak» erraten tzena orduen, erematen baizinduzte eztakit nola deitze uzien gañeko errebuelta ortaik sartute mendi orrei. Bai, Errebelura.

Len Mezkirizko uneak eamaten zituen beak orrara. Emen ibiltzen tzire beak al-diz, nik nitue lau bei, lau egun iten nitue, pues festa bezperan ya etzuten unei bearrik. Bakotxak iñiar zitue beriak, igortzen zitue emendik orrara, ta denak festara... yostatzera. Orai ezta kasoik eiten... gero ori yaten zutelaik asten tzire beak sagoietan ta ola, soroak ta inik pues sagoyetan.

Bentazar. Benta zar bat bazen lenago. Emengo gizon zar bat esposatu... eztait, balleko etxeen bizi zen denborartan ...ta joan tzen bentara... benta... nik zaun dut etxia orduen an arara joan tze bizitzera, paratzen tzitue lazoak biligarro ta zozo ta oyendako ta arrapatzten zitue oyekin, denborartan kontribuzionea pagatzen omen tzue.

Gero eztait etziren izen oyek ere eta Ballekotxeko Anizetaren eta Dorotea Sorogaingo arenak eta aiten tamak arenak eztait bizi zen, gero Fidel torri zen Tanazarrera ta Tanazarria ze denborartan, eztait extranjeroak zire eta nausiek ta representantea ze Gereñengo ori txokolatero. Alaba joan zekizko Ameriketara ta orduen alabek igorri sosa, emezortzi mile pezta gosta zekio etxe goi.

«Traigo pan»... «badakarrat ogie» erraten duzue?

Bai, ori re erraten al da, aitut ori re. Baña, kartzen dut ogie.

Ezbainaiz ni orai joaten inora?

Lenágo pues ogie ordainketa iten tze. Pues kartzu bet, karrikoizut iten duguleik ordaña, bai ordaña erraten ginue, ordea... gauze bera. Zenbait lekuetan erraten da gisetian ta bertzeatzutan...

Badamat ogie... bai.

Ya puedo ir: banae ni (banoake ez du errepikatzen) baitere erraten da igual zenbait lekuetan erraten dute banoake, ni banaye. Eztut erraten ez (banoake).

Euskarari buruz, hika erabiltzeari buruz

Hiketan badakizu?

Gure, geuren adineko yendiaikin, len lengo zar gayek iten tzute, distingitzen tzute ori ere, zarrei erraten zute bertze gisetian. Zenbaitek erraten tzute aitai ta amai pues zerbait mañiar bazekote, arbez... o ola, uz bez o...

Uskeraz eztait aitu ere neskekin, neskek eztait emen ikesiutен uskeraiak, nik uste ezetz. Nik ikesi nue txiripez, txiripez ikesi nue, nere aite ze erdaldune bai, Urrotz ondokoak ze, bueno orduen aite il tze lau urte nituelaik, ta gero amaikin ta arrebaikin ta Primonian ere uskera iten ginue. Primonian ere mutikoak zire denak, geenak pues beti uskera iten ginue, ta ni nee amaikin te arrebaikin pues ama bizi zen deño, beti uskera yardukitzen ginue, ta orrengatik, baitut or lengusuek eta... tortzen bazara zu, nai belin beduzu zerbait in, eztizute inen, errain dizute: «goaye Juanxenenera? Gabrielengana».

Bere etxea nola egin zuen

Hau da zure etxea? nola izena du?

Juanxargina, erraten dute, Soto ene etxia, Sotoingenaren zazi, errain dizute.

Zu oroitzen zara nola il tzen zure ama?

Bai emen il ze, etxian il tze, zitue labetanogeitako amazazpi urte zitue, ta Iruñen zego arrebaiki ta bota ze... ta botatzian anka autsi zeko, ta karri zute onara, ta oriltze, ori ama, ama, amatxi ez.

Zure amak zenbat urte zitue? labetanogei tamazazpi, iruretengatik etze (())ra eldu.

Oroitzan zara nola il zen zure ama?

Ni bai, joanitze bertze batekin... bertze gizon bateki, zeye ongarriekin mando-ekin ta Ortzoko ortaraño. Ordunen Sekretariain, ordunen Sekretariekin artzen duen ori ze sagoya, arek ongarria ematen tzuen sagoya. Ta or zakur bet atra ze ta ni itzuli nitze. Ta... ze in nue nik? Gereñeñe joan, joan nitze... ta an gizon batek... ordun Martxantxenian zute zaldi paradákoa ta eldu ze biorrekin Martxantxenera ta arrek karri zire ta... aite atra ze bidera antxe man zizkire bidian bi zarta, artaik oroitzen naiz... bi zarta.

Bakizu zer den bi zarta?... ta ortaik oroitzen naiz, pues ure bizi izen baze uskera atzendiko ze guretxian, ure ze erdaldune. Ta duikebe amak erraten zire, itz bet, orai eztakit nola erraten ziren, aitek erraten zirela. Zu etzara oroitzen nola erran zi-zuten? Ez, ez, banekie aurre nitze, baña baneki... emen izen ze... elizein bertzeal-detik zementerioa izen ze lenago.

Nola erraten zenuten zuek?

Kanposantua... pues or banekie nun tzegon enterratuik. Gero atra ginduze orgo resto guziek ta eraman ginduzie bertze etxera... in zutelaik.

Enterratuik erraten duzu edo ortziik?

Bi gisetan... ortzik eta bi gisetan... enterratu klaro, kasik erdaldunena da, ortzi...

Bere ama Ciriakak, nola sendatzen zituen hezurrak

Ciriaca ori zer zen, zure amatxi? - Ama, ama.

Etzute kusi nai ere... Erron baze medikue ta Gereñiñen ere etzute kusi nei ere ta tortzen tzire Estiribartik eta ordik, bertze balle artaik yendiak.

Nik ere iduki nue eta... tobilloat autsik mandoatekin lasterka nindeilaik bota ta mando arrek botatzen tzelaik iten tzue inbuluzketu. Ta baze batxe bat or karretillean ta arpatu zire zangolepotik bizkerrezurrekin ta autsi zire. Ta asi nitze etxera joan nayez biño in zekire temple txarra ta gelditu nitze paretaten kontra an, ta ama zego mezan ta gero paratu zire an. Torri zelaik asi zekire anditzen dena, beñó paratu zire biño ori... bai te, ilebete baten buruen ero zerbaite geyago asi nitzen erabiltzen.

Non ikasi zuen?

Bere aiteikin, arrek iten omen tzitue... zaldiek eta biorrak eta beak eta denak desankatuik balin bazeude, paratzen omen ziote animele arek... ama peñó indar yago bai tzuen... amak etzue... ara mine kentzeko etzue yausere, inyekzionik eta jaere.

Ori ez zue, aguantatiar zinue zen bezala, berak iten zizuleik afera, gero zuri irukitzeko torriko ze zure familietik norbait ta inen zizun lana ta gero andik errain

zizu... iten tzue gero mezкла bat arrotze zuringoa ta kedarria... etxaminetan izaten den erraus goi orrekin iten tzue, ori masa bat. Ta arrekin paratzen tzue, gero benda-tu ta gelditzen tze igual nola inyesatuik, igual-iguala. Gero andik errain tzeko ator lau edo bost egunen buruen edo kusteko nola daon. Tortzen tze kusteko ta, emen bizi ze ondarrian Mixterniain, frontoinen ondoko etxe artan.

Eta atari nork erakutsi zion?

Eztait, ori bai eztakitelua, ure ze gañera, omen tze ttunttuneroa, joaten omen tze Aezkoara ta...

Ttunttuna zer da?

Tziztue ta atabala. Pues oyek biek soñatzen zitue, izein zitue lagunek ere nondikbeit ere eztait nik, izein tze, Aurizperrin ere. Pedromartinen etxian Antxoatik joana nausi iten tzuena, ori, Silberio, baña ori ze berantagokoa, nere apitxi nik ez dut zaundu.

Horrela egon zen zartu artio lanean?

Bueno, pastu zitue ondar urtiak aise-xago arrebain etxian ta ola, beña tokatu zekio tokatu arrei ere. Gero anayak bazitue Ameriketan ta bieltzen tzute bien ke!... yendiak... an ere zenbait aldiz sosakin ta bertze batzuretan arruinatik Ameriketan. Orduan arruinatuik zeudela langiliak baizire, bankuak prestatzen omen ziete sosa... ta Garraldako gizon bat ba omentze tortzen tzena onata ta igortzen omen tzute multxuetek sosa arrekin familiek ta gizon garrek etzue entregatzen ja ere.

Aldi batez, nere tioatek ...kaskoa autsi omen zekio gizon arrei. Ustez launtzen zituen bere amei ta ori pues, etzute sosik biltzen, gero amak erran omen tzeko eta... kuadratiko zekiola erosten bazute etxe goi, erosten bazue etxe goi. Ta etxe goi de Primoneko ta Primoneko txokandria zen nere amain aurridia... zie anayeak aparte iru aizpe, ba Urrotzen bertze bat Primonian ta Maixternian nere ama. Oyek iruak ta bider edo iru anai Ameriketan... pues torri ze ori etxea ero-steatik, ta ustez erosiz zue asi ze exten alorrik, ta gero desin zekote tratue berriz ta joan tze, nola joan tze desesperatuik... Amak erran ori te... ezin kunplitu gero, iltzelaik etziote zentimoat utzi oyei. Gorrei, famili orrei etziote utzi, bertze aurridei utzi tziote ta ola.

Gero Erroko gizon batek erran tzire aldi betez: orga nausiek, Primoneko nau-siek pues... amein mediazio erosi zue etxe gau... Emen ze gizon bat Olloki, Ollokiko esposatuik onara, ta arek beti arata iten zeko indarra ta Ollokire joateatik saldu zue etxea ta ene amak erosi zue. Baña gero erran omen tzeko Erroko gizon batei... eta orrek Bizente zekio... koño pena diet... neetako gelditzen al nie etxe oi!

Arek erran oment zeko, ire goñatak ere zerbait bear dik ...ola erran tzire.

Au anditu gindue orai dela ogeitamar urte, ze bertze oi bezala, ta gero bazitue borda gau bi sagoyeki bi alderdietatik orduen man tzekote etxe orren kontra eiteatik ontaik, man tziote baratze oi goyei...

Orgoa ze etxe ortakoa, anai guziek bazekite bazik orrek, denek, Erron bada bat, bertze bide il dire denek bazekite oek uskera.

Zenbat euskaldun, eta euskeraren ulermenari buruz

Eta Lintzoañen badire geyago?

Ez, orrek konprenditu iten du dena, bai beño, eztu yarduki... obligetzen baduzu iñen du biarbada baña... bertze lodi bet... ayekin entendatzen nitze gorki ongi, bertzeautzureki... Leitzekoak bazire. Ayekin ez enintze endendatzen.

Gero emen bertze etxe goi arreglatu baitute... pues or ere, Baztangoat egon tze bertzeat Sunbillekoa ta ori, ayekin ere pues pasten nitue bueltatzuk ayekin ere iten nue pixkeat, endendatzen nitze xarmanki ayekin.

Bukatu dute urarena?

Ez, ez paratu in dute etxetara, orai desaguek falta tuzte ta or... eta zu nondik torri zera herritik? ortik? Pues or utziute kaskajoaikin trozoat, ori utziute gaizki, nik eztait nola utziuten kotxiak ibiliar arruntian ta ebek... erritik bueltan ibiltzen dire.

Bai, bai badakit... ineunte bai.

Bai uskaldunak dire...

Baña, badire bi klasetakoak.

Norekin ulertzen zara hobeki?

Ni Goizuetakoekin, (Leitzekoekin) ez ain ongi. Beren ertian asten zire yardu-kien ta enekote konprenditzen erdie ere. Baña bertze ebek eta emen axkiantza goorra in ginue ayekin. Dire majoak oyek ta juergistek izeñiaute, oyek... Joakina izen ze ta festetan ta Gereñeñen yaeunte ta Aurizperrin eiteunte zenbaitzurek. Ta joan omen tzire Auritze, joe! egun demonio festa armatu omen tzute oyek, oi, oi ala erran zue Joakinak rediez!, ze tenplia gizon goyek!

Batzuk esposatiak egongo dira? eztakit nola duden baña.

Agurra

(Bagoaz).

Konten zara? bai? nayago dut konten ezik...

Zu nekatua egoin zara, ez? ez, ez artu dizut dena kontuan segidan.

Ez zara atratzen karrikera?

Ez, atra gabe, gaur eurie amenazatzen tzue, ai nitze egur xeatzen. Semia dago Baztanen lanian.

Bai zertan?

Tellatuanen eiten, kaguen diez, ze erri! Joaten da astelenian ta tortzen da ortzi-relian, artsian.

Norekin?

Redondo arrekin, kaguen diez! dago... or dago eta Frantziekin fronteran, ezta Urdax, Urdaxen onduan, Zugarramurdin, berdin de.

Bodan egon zinen?

Bodan? A, bai, konbidatu zeko?

Aitu zinete yantzan? Pues joan tze, Erroko festak utzi te astelenian joan tze.

Redondo ori ongi dabil e?

Duikebe, egon dire apartatuik, elkarrengandik eta orain berriz eztakit... A! Errazu de ori... ta joan tzen ori re iñiar omen tzute. Etxetik atratzen den goi peli-grosoago beti... pues beldur orrekin torri ze goizik loitera, joan tze kuerdo.

Nola konpontzen duen teilatua

Semea teilatu bat konpontzen ari dela dio.

Arin ibiliko da zure semia.

Bai, baña lotuik ere ibiltzen da. Len aitu zen Iruñen lánian ta baitu erramientak lotuik ibiltzeko ere. Emen in tzue gure etxeau in zutelaik ure Garraldako Damaso ure. Or errateunte, arek erraten tzue Damaso arrek, emen dago kuadroan gañeko oi ta eiten du, kantoak bizkerrez, ba omen du seme bat, «El infierno» erraten tzeko. Gaixtoa ze, bueno jurementuek aitzen ze beti, ta esposatuik Esnosko batekin. Pues arek erraten tzue, nere semia zur ortan entregu puntetik puntera joatera, etxen puntetik puntera erori gabe.

Baña beira! ure iltze, ezta itzaileak iltzen gero, Rafael ure, Rafael ze bat gazte-na... ure bat Garraldan, ta errateunte ez lazki goratik... bota ta seko gelditu ze, etze-la lazki goratik ta seko gelditu ze botata, ta gero bertzeat bazute kamionakin iiltzen tzena urere il de, orai Damasoin serrerrie ertxik egoin de, ze taller xarmanta zute ta ze lanak iten zuzten bai! emen in zute elizeko ori entarimado, emen ere ala patu zute... eztakit Garraldako Ayuntamantuko tabla zarretaik inikebe prestatuik, baño orra... urere beti lan ortan ta ala errateunte aetz oek, ya atratzen delaik konbersa-zioa... pues etzuela goratasun andik eta.

Informatzailea: Beatriz Etxeberria. 78 urte

EUGI

Elkarritzetazailea: Ainhoa Iturri

Beatriz Etxeberria es una de las hablantes del euskara de Eugi, casada con un paisano del mismo pueblo, ha vivido en el caserío Iruzelaiko Borda hasta la vejez; con 72 años se trasladó a vivir al pueblo. Su vida ha transcurrido prácticamente en Eugi donde ha criado a su numerosa familia. Beatriz recuerda la época de la escuela en Eugi, donde había separación entre chicos y chicas, llegando a ser treinta las niñas que acudían a diario y un número parecido de chicos. Relata la vida en el caserío y la relación con los niños de los caseríos colindantes, reflexiona sobre la pérdida del euskara –lengua que habló con su marido e hijos– y el cambio de costumbres. Una vida, la anterior, con trabajos más brutos, pero más tranquila y sin prisas; en su opinión se vivía con más alegría antes que ahora.

Nos cuenta cómo era el trabajo en el caserío, donde no había agua y tenían que acarrearla con el burro. También da detalles sobre el cambio que ha experimentado el pueblo después de la construcción del pantano, sobre los animales que tenían en casa y, finalmente, relata sus salidas como donante de sangre a algunas ciudades.

Izena nola duzu?

Beatriz Etxeberria Ziaurritz, dut iruetan ogei te amaborzt urte eitera noaye. Ezkondu nintzen oeitabi urtetan nire senarra Pedro Zerkeun Pedro Añorga Etulain, ta bizi gara berrogeitar urtez elkarrekin, berrogei ta amar bai, ta il zen... orai iru urte il zela.

Non jaio zinen?

Eugikoña naiz, Iruzelaiko bordákoña naiz, Argiñen bordan Zárkeon ni bizitu nai-zenez eo Arginen borda, andik ...ago zen... ta dao, Iruzelaiko borda oi zen Martikonékua angoa da au beréna zen Argiñenékua.

Eskola garaia

Eta eskolara hemen Eugin joan zinen?

Bai, con doña Circun. Klaro pues estudiatzia. Gutti e... ni e nintzen aunitz joan eskolara. Badakizu, noiz joaten nintzen? denbora txarra zegolaik joaten ginen.

Ginen gu sei nesako ta ama, zazpi, zazpi mazteki ta gizon bat bakarrik ta baserrikin joan bear zinun oyanéra, ikeztegieta lantzen zinen, ikaztegi atratzen, iketza iten bai-tzen, ezakiten ordun denbora artan iketza iten baizen, iketzitzen, ta emen iiltzen gi-nen láñian. Ta geo... geunden bátian belarrétan bertze atzutan ártoa ta patata ta ayek yorratzen, ibiltzen ta... olaxe ibili ginen.

Gaztetan baserrian eta ezkondu arte baserriz aldatu zinen, ez?

Beno... baserris aldatu bai. Oeitabi urtetan ezkondu nintzen eta an bizi nintzen irutan ogeitabi urte artio, beño ez zen orain bezala, ziren denborak... olako suertea da ordun iluneko joan bear batzinuen etxera, iluneko bertzenaz... o ez zizutzen uzten. Erraten zizuten... «pa la oracion a casa» ta egon bear tzenun iluneko etxera e, denboa ortan ola izeten zen.

Eta hemen Eugin eskolan ze, haur asko egoten ziren?

Bai, orduan izaten ziren franko, bastantes. Oain baño yago izeten tzen. Nik ez-tait, igual ogeitamarren bat eo. Nesakoak eskola bátian eta mutikoak bertze atian eo-ten zien. Beño... nesakoak bai igual bai oeitamar ... (i)zaten ginen.

Bereitzuak, a Ide batetik neskak eta bestetik mutilak.

Beño... bi eskoletan e!. Bata errian sartzian ta bertzea emen, or... bueno or dao or ematen diote orain mutikoen eskola ortan ematen diote orai neska ta mutikoei.

Herriko bestak

Eta festak hemen Eugin zer?

Niri eztaozu ori galdein. Badakizu noiz ikusi nuen lendabixiko aldien ori ga-basko beilia? Ezkondu ein nuen úrtian. Orduan nere abueloak bizi zien érrien, Eugin bérian ta gu ezkondu ginun ta erran tziguten «bueno afaltzera gaur gure etxera» ta yeitsi ginen afaltzera aen etxera ta ordun ikusi nuen lenbixiko aldia bestetakoa. Nik enuen ikasi dantzan ta zea ere, klaro ilunian atratzen zen! ilunian ya... ori dantza ta zuk ilunian joan bear tzinuen gu etxera ina zuri bueltan dantza plazarat, nik e nuen ikasi, egia, enun ikesi.

Ihauterietan ezta, ze emen Eugin iaunteriak egon dira beti ez?

Ez, ni ere... ja ere ortan. Bai iñauteriak izeten ziren gorki májoak.

Herriko euskararen egoerari buruz

Badago hemen Eugin, euskera zu bezala hitzegiten duen norbait gehiago?

Ez daki ongi nere aizpe beño, bere senarra bai, badaki euskera au. Bakite bai euskera dakite denak emen.

Eta zuk euskeraz egiten duzu haiekin?

Bai aunitz aunitz ere. Bada emen (...) dan gure barrio bekua ba elkarrekin aziek, elkarrekin ttarrak gineleik pues ziren, Iruzelaiko borda, Txalote borda, Boiarren borda ta Indiaboneko borda. Oi lau borda kasi ingurutxotan, or bazein orai bezain urbil zaudela artara ibili zinaden ta gero elkarrekin tortzen ginen eskolara, elkarrekin joaten ginen ta yostatu ere amaikestan elkar iten ginuen, oyek ere badakite euskera aunitz.

Bueno, mantentzen bada...

Ba. onek e, ttar onek badaki franko ongi, beño da... batua. Aitek eiten dio aunitz, aitek baitaki euskera. Emen ez da mutikoik oyen adinekoik, gure adinekoik guria bakarrik dute ta iten dute euskera, bertzek ez dakite niok ere euskera. Ta geo izen batzuk nai bauzu bada bat Julian Seminario erraten diotena, au edadena, orrek ere bai kutsue, beño ori re zartxao in dia tenak, beño guti, yendia ola gaztia, eztakit ba... Izen zen ordun denbora puske etzutena uzten ola euskeraz eitera. Gu bai, an bordan dena euskeraz eiten ginuen, eta ala ikesi zuten denek, labek, lau mutiko eta labek.

Bizimoduaren aldaketaz

Asko aldatu al da bizimodua zu gazte zinenetik?

Aixe. errain dute oain ainbat geyago. Nai bauzu orduetan eon bear zie lekuetan, ordun ez zinuen oi, erraten zinuen «gaur joan bear dut «ta goizi joan bear bazein, joaten zen goizik, beño lautako, laurterdieten joaten ba zinen ya ez zuen importatzenean. Ez zen orai bezela, beño lánian, lánian yago ola izen zen, brutoago, aixe brutoago zen. Emen ibilia zen artara ta igual, igual.

Ni oroitzentzen naiz, eo... oroitzentzen naiz aitzez, kanteran ari ziren ta izen zen azidente bat ta guk an ginuen ala, azidente ura izen zen pare parean, iten zituen uoldiak, iten zituen separatu o berexi ta ni bere aitzinian ta zen, au zen sortzeko, ogei egun lenao, sortu zen ori maetzien ondar aldera ta au zuen, izen da ekainen sortue, ta an nere aitzinian eiteko lurre arreglatu, lenago zinan an ginauden... an nitzen egun artan, orrengatik, orai biño aixe, ba! brutoago izen zinen an.

Biño bueno, ola be izen beize, pues ez zizun maten mini maten, batez minik maten. Denak igualtsu bizi baiginen, pues... ta ona iuitzen zait neri bizia alegríago zela. Goiz meza, iendetan, goizetan, iende góizian (i)zeten zen zázpietan, ta denbora ontan, zazpirek ya noiz diren, denbora ontan pues egoten zen ilun ilune ta farolak emen ezta batere, farolak beren belaikin izeten ziren, ta aek bixtu ta artzen ginuen mendia kusteko, pues faroleitik, ta ikusten zinun ixkin batetik farol bat, bertzetatik beste. Ta gero karreterara yausten ginen, gure etxera ez zen karreterarik ordun mundu artan, karretera yausten ez zinelaik eo ta re beste batzukin yoten zinen, ta gustora! oten ginuen bezela, gustora! Ta gero itzuli ere bai elkarrekin, pues gustora!

Gero bakoitza bere etxera, ezta?

Lo ta dena bakotxa bere familiekin, beño gero egunez, ola yende tanta juntatzen ziren, orai eo juntatzen ginengin batzuk, gaur etxe batera biar bertzera ta olaxen ililtzen ginengin ta gizonak ere bai.

Ta gizonek non egiten egiten zuten lana?

Baserrien eta gero ortan ere bai, oyánian, oyana erten ginion guk beño oyana, an egurriten, iketzíten ta gero berriz igual ori guk ezkinun ardiak, gero nere... ezkondu nintzen etxeen bai; izeten tziren beak, txérriek, biorrak, ta oyen lana ere in bear zinuten, iten gintuen dena. Geo emen bai, emen ezkondu nintzen pues or bazuzten ardiek ere, beño ni ez nintzen arditan, ez nintzen aunitz ez zuten pentzetara... ez nintzen joaten, iten zituen senarrak.

Ezkontzean baserrian semeekin lana ugari ezta?

Ta gero aparte ere bai, ori... semia... ama biziik zuen senarrak, sémeak igual ba ttarrak zirelaik pues maten ziñoten baziakta ta botzen zitun siesta ta zu bueltan ta launtzera senarrai. Biño yorra erten ginun gu ‘a escardar’, orduan euskeraz ori yorran, ta artoyórran ta patatayórran ta patata atratzentz... artoa biltzen ta dénetaik etortzen zen. Erten zutena, ure bezain lodixe, gustatze izun, ez zigun importatzen.

Ola zen bizitza, ez?

Ola zen ta zuek orai nola zabiltzate ixkin batetik bertzera? pues gu igual, ola-xe, gure lana ure zen ta... ori bai zela brutoago bai, ori bai. Gero erraten digute orai «ba, beño zuek ez zinuten orduko ego bear!» Ez, ordue preziso aski bortzeraño joan bear duzie edo lauterdietako o seetako, guk seetako joan bear dugu beño, iatzen bagara ordu kuartoat berantao o guk ez ginuen ja ere ortan, beño ori duzie, ori duzie zuek. orai duzie ordue, ori bai, beño bertzenaz ura aixe gogorrago.

Ta guk ez ginuen urik, bordan, ta joan bear ginun astoekin. Espuertak eztuzu yakiñen zer diren? Bai, bai.

Bi espuerta patu bastan astoi, gero espuertai baten zuten kuerda bat bi aldetara ta an batzen zintuen katxarro atzuk, porronak erraten ginion guk ta aekin joon bear tzinun iturrire, ta igual iturrire izen genuen, bai bai, kilometro erdi. Ta egunero-egunero joan bear tzinun ur bila arata, egunero, igual zen uria ai bazuen, beño edateko eta zendako ta beti garbiago nai izeten ginuen iturrítik karri (...) bai berandu artio, berandu artio, orai arte bueltan. Ta xaonada ta lixue eitera joan bear ginuen iturríre, urik ez ginuen étxian, pues kanpóra.

Ta gero badakizu noiz izeten zen gaixtona, urexke joaten ziñelaik orma izeten zenean, ta orma izeten zelaik, igual, ura gelditu zen bétian ta eiten zen orma ta or irrixtatzen zen ástoia, ta botatzen zakigun, zea gu... ttarrak, gáztiaiak ta negarrez, oi oi oi ure izeten zen makurren-makurrena, izeten zelaik orma. Botatzen zuen ástoia ta

zu... igual katxarroak jaurtzen zakizkizun ta gero urbil man etxera, ta gero bueltan, berriz, gutti aldiz in zakigun bai, beño beti e kutsue bai izaten ginuen oyek.

Herria ala baserria

Eta herria, Eugi asko aldatu da?

Ba, aunitz. Aixe pollitago zen len. Neretako, ta nik uste gure adinekoendako denendako ere (pantanoa egin baino lehen). Dena karretera bajaren erdiz..., ta alde-tara pentziak, ilobia ta etxiak eta... gorki pollita zen len, orai beño politago zen len. Klaro orai kanbiatu baitu bizitzia! pues au ere ez dago gaizki dagon bezala, beño, aixe politago zen len, aise.

Haundia al zen lehen?

Ez, ainbertze etxe etze, ainbertze etxe ez, beño, gorki majoa zen, gorki pollita zen érria.

Non bizi zara hobeto, hemen edo baserrian?

Non bizi naizen gustobian? Orai emen. Klaro, bestela bakar bakarra eon bear nuen an ta bakar bakarra, ze ein bear nuen an? Ta orai begira orra nora joan den ta amarrak artio ez datozte bertze egunten ere bueltaxka at ematera joaten ta amarrak artio ez da ailegatuko, gero goizeko seitan atratzan da ta ezta emendik ere bordara ezta aunitz, zenbat izein de kilometro erdi bet? Ez geixeago, geixágo. Beño dago leku onian gorki leku óniain. Orai, senarra biziutu izan bazen neri ez zakidan importatzen an bizitza e, ni gustorago biziko nitzen e!. Baginuen ure goiti, ure beiti, karretera etxe atarireño, panaderoa yoaten zakizun, bear bazintuen gauzek ere joaten ziren etxeraño, emen bezain gustoa bizi nintzen ni an, an gustorago.

Eta zerbait behar bazeuiten semeei esan eta eramango zuten ez?

Semei erran ta ematen zuten ori re. Nik ez tut batee enbidiaik onei auengandik, ni gustoa biziutu izen naiz an, igual bai, beño ze ingo dut bakarrik an? ezin dut eon bakarra.

Bertsolariak egon dira hemen?

Bertsolariak emen aitu izen duzu Urbano? Urbano ori izen da emen bertsolarie. Sarasan, an dao orai bera. Egon ginen ikusten au joan zen Sanfermin pastera emendik, eta egon ginen gu... bestónduan, setiembre erdialdera edola egon ginen kustera bera, bisititen. O kontetao eztakit ze baño zagon. Ta an mazteki bet ni bezala ezin ibiliz pastu zen mazteki bet kanta dantzen ta: - ta ori de nere dantzarie. Ta ori de, eztaki ez daiteke ez dantzan aitu ez, baina ori de nee dantzarie! Ta ori de! bainan gero irri iten tzioten. Konten, gorki konten dago. Ta gu ere... obeki dago an emen baño, ze in biardut emen bakarrik etxe ontan? eiten zion bazkarie mazteki betek, bazkarie eiten tzion ta gero afarie ta dena beño gero... egun gúzien bakarrik ta ondárrian asi zen arrunt... Orai nik uste konten dagola an. Ba! baitu geo

lauetan ogeite zazpi urte, asko die bakarrik egoteko ta orrek eztu kalefazionik ez du kozine... eztuzu gogoik lana iteko ta gaizki zabilen.

Etxeko aziendari buruz

Zer, animaliak zenituzten bordan?

Beak, txérriek, txerrikúmiak, geo... arátxiak, ástoa, árdiek, bildótsak. Baserrien, bai, eo basérrieta. Lana denboa artan baginuen auxerki. Eta belarrak eta geo belarren onduan eiten ginuen erregatu péntzia ta atratzen zen beste belar bat, sóroa erraten zioten ta ori egoten tzen agostoaren erditik altzin, setiembrean berrix konten iten ginuen sóroa. Bildu eta gero eman etxera ta igual guardatzen zen ardiek iten ziren erdi... erditzen zirelaik, pues ematen zieten sóroa ta yaten zuten gustóra.

Gatza ere ematen zenioten?

Gero ere gatza puxket bat maten zakioten ardiei ta gustora... ori maten zieten primaberétan, fuerte egoteko, ta nik eztait... izeten zuten deseoa aiek ere gatza yateko. Aunitz izeten zen, igual ástean bi aldiz, ta bi (e)do iru astez, igual astean bi aldiz ematen ginuen. A oi bai, uzten bazinek zákue, zákue dena yentsiko zuten.

Kontrolik gabe... bai, kontrolik gabe.

Baba ez tut ikusi yaten, baño, ártoa ta garagarra ta óloa eta ori dena nasi te gústora yaten zuten, ta ziren yana pues sánoa, dena naturala. Ta ollaskoak eta dena, pues ollaskoak ere ze ematen ginioien, pues ártoa iten ginuen?. Errota bazen emen? errien, errota erran nai du «molino», errrotak, kartzen zenuen errota ta iortzen ziren ta ttarrak zirenei ematen zinoten ortaik. Gero etxeen izeten ziren bertze errota klase bat, zea, ártoa iortzeko beño... larriago, ta ártoa ematen ziñoten... ta artoa yaten zuten ollaskoek ta txerrie ta denek, denek, denek.

Ez zen orai dauden olako problemaik, klaro orai, duplikatu de yéndia ere ta, geixeao, beño ez ez geo ba! ez ziek mundun eiteko ta geo bertze gauze izendu de, txingerra ta aixe... zinez guzti au joango da.

Herritik atera zenbat aldiz

Askotan atera al zara herritik?

Donante de sangre izen nintzen, ta oyek urtian bein maten zizute besta, ta egon nintzen, en Olite, en Roncesvalles, eon nintzen en Bayona, egon nintzen San Sebastianen ta olaxe (...) bai. Ortaz ta ordun nerekin batio senarra ere yoaten tzen, ta joaten ginen biek. Gero mendira ere, bera gustatzen zakion joatia oetara, feriatura, azienda ferietara arata Elizondon, gero Burgeten ere izeten tzen, Auritz. Euskera Auritz. Ta gero merkatuek izeten zien Uerten, merkatuek izeten tziren txerrienak, Uerten. Aziendaik ez zenez ... pues yakitera ze prezio zuten ta saltzeko, ikustera!

Eta ahizpetatik zer zara zu, zaharrena?

Ni... zarrena ta gero bertze lau batut, bide... bat en Buenos Aires, bertze bat en Inglaterra, bertzeat en Madrid ta bertzeat en San Sebastian. San Sebastiangoa da, Sierva de María, Madrillen dena da... eztakit oiek zuek e beño oiek errateute ala tola, beño oiek ez die... ala die del Opus Dei, Inglaterran dena ere bai del Opus Dei ta Arjentinan dena, La Sagrada Familia, ori re moja, lau monja. Ta emen gara bide, bi aizpe ta Ixabel dao ezkondui tago or. Gu zazpi giñen ta zazpi neskak, ni bortz izen nituen ta bortzak mutikoak. Lenbixikoa... da zazpi ilebetekoa, ta nola erten da. «embrazada» da susto batetik izan leike ito, min nuen, susto bat artu nuen ta ordun. Ori re zen mutikoa, euki nuen bortz ta bortzak mutikoak, ta gu zazpi eta zazpiak nesa-koak.

Informatzailea: José Mari Belzarena Vidaurreta

Eugi: 2002/11/2

Elkarritzetailea: Aitor Lesaga Orradre

Jaiotze data: 1911. urtean

Jose María Belzarena, de 81 años, ha vivido siempre en Eugi, de donde también procedían sus progenitores. Nos habla de cómo era el modus vivendi de la gente del pueblo, de las fiestas de antaño, con músicos mayordomos y tuntuneros, de cómo ha cambiado la vida y del tipo de relaciones con los pueblos del entorno. Recuerda en su relato la manera de hacer el matatzerrí, el reparto de los presentes y finalmente el asunto del monte Erregerena.

Lehenagoko bizimoduaz: bestak, aziendak...

Nolakoa zen lehenagoko bizimodua?

Lenago bizi iten giñen, pues, xaiak ta astegunak dena lánian. Igendetan iten giñuen besta beñó lanian aitu ónduan. Etxean bagintuen beak ta aekin bear gintuen deitzi te moldatu bear gintuen ta geo lan in tonduan joaten ginen o stature ba ratoa pastera, lagunekin goizeko bi orduk artio oola joaten giñen ta eoten giñen lagunekin an, dantzan ta aitzten ginen ostatuen.

Baina, lehenagoko jendea lehen erretiratzen zen.

Beti ere goizeko bi orduak, según, zenbaitzuek igual goizeko lauetan, ta aunitzuk igual gau gúzien. Larunbatetan etzen karromatoa... geyenetan xaietan.

Zenbat egun egiten zenuten?

Bestetan pues lau egun, bezperatik asten ginen. Bezperan atsean asten ginen ta lau egunek, lau egunek an. Ta gero bestetan igual batre lo ingabe.

Bestetan aziendarekin zer egiten zenuten?

Bestetan ez, guk orduen etxeán gintuen beak, orduen beak emen etxeán eoten tziren, puzterriko beak. Puzterri bakizu zer den? Guk beak iten ginuen, bueno, ta gu bezala bertzeok ere. Etzen errien bertze idi pareik, taiak zire Martikokoak ordun. Ta karo, pues orduen bei paria... udeko, bertze beak maten gintuen oi, Auritzera udeko, ude pasteko. A! Beñó makurrego, bakeangátk. Emen órduen oyanak or goiti dirrenok zituen Estaduak, ta karo, uak? joaten ziren Estadokora ta guardak iten tzigutent denuntzieta ta bakeangátk ematen gintuen Auritzera ematen gintuen.

Basoan aritzen zineten, ikatzetan?

Iketzetan aitzen ziren bertzeatzuk, beño gu ez. Guk etxeen baginuen lana franco oyanera joan gabe, giñen aita ta ni. Neri aitek amalau urteak artio igorri ziren eskolara, ta amalau urte battu joan bar bazinek eskolara bear zinuen pagatu. Ta ordun amak... orduarte idukitizen zute mutil, mutile, beño ya gero nik amalau urteak bete nituelaiak ya mutile joan zen ta etzuen mutil yagorik artu aitek.

Emen len ez baitzen pantanorik, denak ziren larre andiak.

Dena kanpoa zen, dena pentze, alorra. Emen orduen ereikitzen zen ártua ta patata, oi, ta remolatxa puxket, ta gari puxket ereikitzen tzen emen orduen. Orduen dena ori, pantanoak daukan dena, oi pentze zen.

Orai ederragoa da Eugi?

Ez, orduen zen ederrago. Ni operatu zidatelaik in tzidatelaik operatu prostataik. Iruñen baitut lengusuak ta joan tziren bi lengusu ta joan tziren medikure bisite itera, ta arek, batek erran tzuen: oi, oi orai Eugi pantanoaikin orai pollitago ematen du! ta bertze aizpek erran tzion: ez, lenago Eugi pollitago zagon orai beño pantanoi kabe. Ta zautu duenak, kanpotiarak, aek denek erten dizute lenago pollitago zagola orai beño.

Orain turista aunitz etortzen da?

Orai turista aunitz tortzen da onata au kustera, erten dute erri pollite dela, pollite dela. Gero familia baituzte, ta baituzte aurrek ta, ta karo, pues an Iruñan eduki-tuzte písuen, beño emen tortzen dire aurrekin ta aurrek libertádea ta dute, ta emen yostatzen dire ta.

Herriko festak

Lehenago bazen musika orkestarekin?

Leno musika kartzen ginun gártiak, ez orai kartzen tuten bezala, gaztiak. Guk pagatzen ginue musike lenago. Ta dantzan denak, gazterie gúzie dantzan, orai beño geyago. Ta gero diana. Musikoak emen tortzen tziren bezperan ta lau egunek emen, biramunian joaten tziren. Ta orduen tortzen tziren musikoak ortik, Puente La Reina ta Obanostik, ortik kartzen gintuen musikoak, orkestak baziren or ta ortik kartzen gintuen. Ta emen lau egun eotenean tziren ta yatera joaten zen egunero. Ordun nonbratzen ziren ori bezala, prigoreak erten zioten, mayordomo prigoria erten ginotenean orduen. Ta orai bezala, lenbixiko egunian musikoak bantzera ta afaltzera mayordomoin etxera ta bigerren egunian mayordomoen etxera ta irugeren egunian, lagune iten baizen, mayordomoan lagune, aren etxera ta laugarren egunian mayordomoan lagune, aren etxera ta laugarren egunean, mayordomoan etxera ondar egunian.

Orai, desayunetu iten tziten ostatuen, ta gero kostunbria zen lenágo, pues, etxez etxe ibili orkestakin, musikakin.

Tuntunakin?

Ez, ez, orkesta orkesta. Tuntun ori lenagokoa zen, tuntune zautut nik emen beño tuntuneroa ziren nire aite ta gazte zirelaik. Gaiteroa ta tuntuneroa, bi kuadriile ziren ta elkarren artian yotzen ziren yotzen, diferéntiak baiziren ta orduen, pues bordatiarrak tziren alderdi betekoak ta errikoak berteatekoak, ta gero elkar yotzen tziren.

Harremanak inguruko herriekin

Inguruko herrikoekin ongi moldatzen zitetenet?

Ba, zenbaitzukin... emen Iregikin bai, Iregi te Zilbeti beño Urtasun te ya ortik beitikoekin... partikularki Urtesun ta Zubirikoekin. Orai dela denbora puxket ba, batekin, pantanoan aitzin den lanian batei, oi, Juston seme orrei erran nion: lenago gu Zubirikoekin ez ginен... ta erran tziren: ba, orai ere ez!

Lehenago euskara mintzatuko zinaten, ez?

Denak denak. Gure etxean emen, denak euskera, denak denak euskera, aite, abueloak eta amiña ta denak, denak euskera. Nire gazte denbora euskera, etxen ber-tzeik mintzetzen. Galdu, pues au galdu de orai, orai galdu den. Emengo gerratik... gerra izen genuenetik, ordutik onata galdu de aunitz, ez baite mintzetzen. Gerra den-boran pertsegitzten zute, bai.

Gerra denboran nola bizi ziren

Nola bizi izan zen gerra?

Gerra denbora? Orduen emen gaizki, gaizki. Etxean bérían ginен bi anaia ta arreba ginен ta, karo, neri gerrara eman zireten ta anayak orduen ze izein zituen, zen-bat urte izein zituen... neri ogeitabertz urtez raman zireten... pues anayak izein zi-tuen igual ameka, amabi urte, ta emen azeindaikin aite ta karo, gero, lan denboran pionak kartzen zuzten.

Gosea pasatu zenuten?

Ezkenun goseik pastu, ez. Bai izan zen eskasia, bai, ogia te razionatuik beño artoa biltzen baikinue ta errota in tziguten prezintetu beño gabas igotzen zen, bai, gabas ematen ginuen ta igotzen ginuen ta yaten ginuen oi, tálua.

Matatzerria

Nola zen matatzerria?

Matatzerria, ba, denbora ontan, matatzerri egúnian afaltzean biltzen giñen multxoet, zenbat, eztakitzan zenbat. Orduen bazeñ emen gure etxera tortzen tzen iltzera ori, Garroneko bat, oken bisabuelo o tatarabueloa tortzen zen gure etxera. Gero,

Martikonean ere bazuten bat soltórea, oken tioa ta arek ere iltzen zituen ta ola, bakkron bat o bertze biltzen tziren etxez etxe. Por ejemplo, gure etxera, tortzen zen ori ta gero biramunian igual joain zen bertze etxe batera.

Eta presentea?

Presentea, pues, txerrie il ta tripotak iten baizuzten gero atsaldian tripotak partitzera.

Alkatea eta apezari eman beharra?

Ez, ez, etzen olakoik, emen pues maten ziñioten pues bazen, por ejemplo zenbaitzuk etzutena zerrík iltzen ta batzuk ta amistádia ziñuna ta arrei maten tzinior tripota. Bai gu kontesko, tripota partitzera zengatik atratzen ziguten sosen bat.

Nola izan zen Erregerenako afera?

Erregerena da Eugikoa, ezta, Baztangoa ez.

Eta nork egin zuen?

Gobernuek in tzuen, Urralburu kabron orrek, orrek in tzuen Baztaneko man. Oribili de bueltaka bueltaka Eugi ta orai Erregerenako oi ba amarretaik bat da Eugikoa. Ez, ez ta gañera emen badire istoriadore yakin zuten bazirela bat, fraile bat Lekarótzen ta Iruñean bazen bertzoat ta joan tziren konsultetzera oyengána ta erran tzioten Erregerena etzela Baztangoa ta Iruñako orrek igual zioten, etzela Baztangoa.

Ta orduen emengoak joan ziren, erran tzioten Iruñako orrei ya in zezaken zerbaitere, oi Eugikora pasteko, ta arrek erran tzuten etzela yaus itenal, porke izeki emaztea zuen baztandarra arrek, Iruñako arrek, Zigekoa naski. Bai ta ola ibili ziren ta orai pues Baztanek baitu bedratzi erri ta orrekin amar ta orduen amarretaik bat de Eugikoa, Erregerena.

Informatzailea: Gaspar Lintzoain

IRAGI (Esteribar)

Elkarizketatzailea: Orreaga Ibarra

Gaspar Lintzoain de alrededor de 70 años nació en Eugi y ha vivido en Iragi. Su madre procedía de un pequeño pueblo del sur del valle de Errro, Larraingoa, y decía que de pequeños hablaban en euskera, aunque debió de ser la última generación. En Iragi viven cuatro familias y en las cuatro se habla euskera, aunque haya alguien que no lo entiende, se puede decir que es uno de los pueblos del Valle de Esteribar que mejor lo ha conservado. Gaspar nos habla en primer lugar sobre la situación del euskera en Iragi, para luego explayarse en asuntos del contrabando, algo habitual en un pueblo fronterizo como es éste, cuenta las hazañas de pasar andando a Francia por la frontera de Quinto haciendo contrabando de puntillas y penicilina, relata cómo pasaban muchos de un lado a otro y algún pasaje triste fruto de este peligroso oficio. Nos cuenta brevemente cómo se celebraban las Navidades, algo sobre la caza, los hurones, etc. Finalmente nos habla sobre los niños nacidos en la Inclusa y sobre gente conocida de Usetxi, Mezkiritz y Lintzoain.

Euskararen egoeraz

Aurrek (erakutsi diente euskera) labek badakite. Gure ama zen Larraingoékoa, ta uskera bazakien, Larraingoatik joan ziren Garraldara, gure aman úmiak an... semek eztakite batek ere, gure lengusien semek eztakite batek ere.

Arrun euskalduna, ta Larraingoakoak ere erdara baño yago zakien uskara, oken amak e! oken amak, goñata Garraldakoa, etzakien euskeras baitzen Erreakoa, joan tzen txokandria, ta arek etzekien euskeraz orduen umei erakutsi zieten dena erdera, oken lengusuek iten zuten dena erdera.

Felipe: Bazakien uskeraz, uskeldune raso izeki.

Ama: Antonia eta?, ez, etzakiten. Abuela ori... Erreakoak uskeldune zuten, gure Salvadorra, errira torri zena orrara Larraingoara, arara, gure aman goñatua zen uskeldune ere, gero aen umek in zuten erderas, batzuk bazeikitzen uskeraz, beño beste batzuk ez.

Eta herri honetan denek dakite euskaraz?

Denek, denek iten dute... pues mandendu de, guk elkarrekin dena uskeraz iten duu, lau famili bakarrik gaude e! ta lau familiek uskeraz iten dugu. Etxe batian da

txokandria erdaldune biño aren umiak dire euskeldune, Leanozkoa da, eztu ikesi, badaki ulertzen du dena, beño ez.

Zure aitek eta eztute... nik zure aitei beti erderas in... gero karabineroek ere il baitzuten zure osaba, ta arrek ere dena erderaz.

Kontrabandoa

Denboa artan or ginen denak... denak sasi oetan.

Zu ze urtetan yaya zara?

Zu, Balderron «yayo» erraten?, guk sortu erraten dugu.

Kontrabandoa zerena egiten zenuten?

...maten tziutena, puntillak ta ilo de nailon, geyene ori tortzen tzen, gero anbertze klase tortzen tzen, kafia ta lénago, gero paketean asiz geroz.

Nik zautu dutena zen gerrónduan, emengo gerra bukatu ta segidoan, alemanak gerra mundialean baitzeuden Frantzian orduan emendik ematen tituzten mandoak alemanendako Frantziéra. Ni ortaz oroitzen naiz, ni gáztia nitzen biño mándoan, egunes, deskansatzeko denbórean gure aite ta launek... mandoak.

Aien kasiten mendien, utzi lotuik mendien ta aien kasiten ez eskapatzeko. Gero Alemanak erretiretu zirelaik berriz asi zen mandoa, onata, mando gáztia ta beorrak eta laneko... emen ezpaitzen makineriaik, baño montonka, Frantziétik libre zen ateratzea, andik salida libre, emen kontrabandoz. Andik mandoak eta libre, gu joaten gine deskargatzen, kamionak deskargatu ta artu ta kartzen gintuen, ogei ogeitamar, berrogei igual aldiene... igual astian bi bieje ta Iruñe ondoraño, emendik oñez joan tapa-tapa Frantziera.

Nondik pasatzen zenuten muga?

Frontera? altzen tokitik, Kintoko fronteratik geyénian. Or Sorogaindik Mezkirizkoak, gu Sorogaindik eztugu andik ein, aldion batez, beño...

Mandoak, gañera gáztia, mandoak sei zortzi ilebeteko mandoak, laxoan beorreraik berexite, mixeri bet zen, lasterka ara ta onata, gaztiak bai ginen. Eoten ginen gu, zenbait aldis, zapeta zangotaik kendu gabe.

Loiteko bai... ez?

Bai, ze usteuzu non loiten ginuela! Euditik goaten ginen Aldudera, tapa-tapa-tapa. An berendatzen ginuen ostatu, kamiona torri artian, kamiona tortzen tzen deskargatu artu te... tira! ta lemixiko gabian onata, nonbaite, mendi oketan, gu emen egune in ta ilunabarreko sartzen gintuen beiti, ta or mandoekin batio ilarreken gañian o etxe oketan lo pixkat in ta de mala manera, mandoak an kargatu or Iruñeko baztar artaraño ematen gintuen, Otsagainen kargatzen gintuen guk mandoak aun-

ditz, ematen gintuen Billabaraño, kaputxinos baite, araraño... oñez, Elkano badaki-zu non den arata ere bai, Uertera ere bai, ta ze paliza!!

Eta hainbertze diru pagatzen zizueten?

Mandoak alde batera izeten gintuen, gero gu peonak izeten gintuen, biño guk pionak baño lan geyago iten gintuen aise, emen peonak relebatzen gintuen ta gu bei-tireño. Gu «doble jornada», peonak bai eugiarrok ta gero emengoak beitikoak, emen relebatzen tzien gero emengoak joaten tzien gibela ta emendik beiti Urdaniz te Gendulain ta oyetako jendia berriz.

Ultzamako uskera ezagutzen duzue?

Bai igualtsukoa, ez tela berdine, berdintsua beño ezta berdine, ta Anuekoa ere ezta berdine, badire itzek eztugunek berdin erraten.

O, gaisoa! nik uskerak denak maite tut, ta deneki ulertzen naiz, baztandarrekin, ni ibili bainaiz frantsesekin geyenik beño baztandarreki ere aunditz, gizpuzkoane-ki ere franko, bizkaitarreki gutxiago beño bizkaitar uskelduneki ere konprenditzen gara aise gu.

Zerratuago dire bizkainok. Guk... nik eta nere familiek izan dugu frantseseki relazione geyenik, orai artio, ta orañik segitzen dugu relaziona, beti laneko istoria.

Kontrabandoa, berriz

Idatzi beharko zen zerbait historia horien gainean, kontrabandoaren gainean...

Bai, baña zetako bildu oyek?

Bilduek, aitu dire biltzen, izen zen emen gizon bat, nundik... izan zen? joan den urtian, igual aurtengo neguen... lenago, eztakit ze urtetan. Navarra independiente zelaik kontrabandoa Ebrokin iten zutela. Nongoa erran zuen zela gizon orrek, de Marzilla? Erriberakoa, ta gero nai zituen emengo istorioak, ta gero erran nion nola iten zen kontrabandoa ta ze modutan.

Bai, gure osaba horietako batek hil zuen kontrabandoan ari zela.

A zure osaba... bai... ya... badakizu rekordatzia, berriz oroitzea mine berritzea baite.

Zuk duzu ama Gilentrona... bai, ta denboa artan il tzuten Subizakin Erron bizi zen bat, Villanueva bat, Alician anaya. Usetxiko Aliciain anaya, etzen gaztia, ez-konduik ta bizi zen Erron ta aitzen zen, paketeak eta an dudikebe Subizendako pa-keteak biltzen eta gero, Subizakin kargatuik kamiona bazayen ta gero Arren tiroka-tu zuten ta gizona il. Trasportia, ta goiz ortan ni pastu nitzen motuan ta kusi nituen Arletako kruzian berian karabineroak, bueno karabineroak guardia zibilek beti ka-rabineroa, karabineroak ziren lenago gerra aurrian, ziren fronteretako etzien oyek...

ta guardia zibilek ziren «pal orden público», guardia zibilek zien aparte, independiente, ta gero karabinero kuerpoik aundieta joan tzen «con el gobierno actual».

Republika baitzen ta ezkerra baitziren, ta gerra irabazi zuten eskuñek orduen karabineroak arpatu etzuztenak «en la zona roja», emen etzienak man tzioen pasteko «a la gaurdia civil», ya desaparezitu zen. «El cuerpo de carabineros» desaparezitu zen orduen gerrakin, ya gerrondoan atra tziren todos guardia zibilek, karabineroak zirenak len gero guardia zibles. Guardia zibiletan baziren bi komandanzia, «rurales de orden público y de fronteras», baña denak ziren guardia zibles, baña guk «a los de fronteras» erraten ginioten karabineroak, oyek etzuten trikornioik patzen, oyek tzuten bisera bakarrik, berdia, uniformia dena berdine zuten, baña gorrua zuten, bidera fronteretakoek ta bertsek zuten trikornioa.

Ta Eugin baziren bi kuartel «de fronteras y rurales» ta kontrabandoan artzen ginen gu frontereikin ta bertsek zuten trikornioa. Bertsek deretxo bera zuten arpatzen bazute kentzeko, beño fronteretakoek bijiletzan zioten bertzei, gaizki ta ...bazakiten fronteretakoak ta defenditzen gine etziutela sekulan arrapatu izan, fronteretakoak ginauden «en contacto» denekin.

Nongoak ziren karabineroak eta?

Erdalduenak, Kintoan izendu ziren bi euskeldun biño karabineroen sémiak ziren Baztanen sortuek.

Dirua ere gutxi izanen zuten.

Arrun gutxi zuten... ta gero mandoak emen asi zirelaik makinaria, mandoak asi ziren merkatzen ta gero... ya etziren ekartzen asten baginen gu urriten lánian mando kartzen ta aitzen ginen Martzo artio beño kartzen ginuen zientoka eunka, mandoak, terrible.

Lerrinik, loa ezin errextatu, zutik lokartzan, eztuzu kusten joan bear baiginuen beitixkoraño, emen langiliak, emen releboa ein, emen beitiko Urdaniz, Gendulain, Inbuluzketa, orgo yendiak onara ekarrazten gintuen ta orra, ta Eugikoak joaten ziren, ta andik berriz, torri biar ginuen, berriz joan biar ginuen lasterka ara... zutik, zapeta kendu gabe aste osoa, gazte baiginen, ogei urte ta ba... gero paketiak.

Ta gero noizbait suertatu zen arrapatzea, karabineroekin topatzea ta...

Bai, beti gertatzen tzen... aldi beten moldatu ginen Iruritakoekin, karabineroak Iruritekoek frontera ...muge zutenena, andik pasatzian ilundu gabe zen ta atra zakizkigun ta gero moldatu ginen ayekin. Ayei ere interesatuko zitzaien, baina, beti oroitzan naiz ze pareja klase zen, gañera denboa txarra zen tiroat ere tiratu ziguten. Kusi ziuten pasten... ta gibeletik erdetzi ta arpatu ziuten, ta betire gelditu ziren denak animel guziekin bi karabineroak.

Penizilina ere pasatzen zuten?

Ori lenago izein zen, nik eztakit ni... oroitzen naizen kontrabandoak izain ziren, lemixikoa izein zen Alemanendako mandoak EspaÑatik arata, emendik persegitue zen Frantzien ya artzen zuzten alemanek. Alemanek Frantzia artuik baitzeukan, biño emen persegitzen tzuten azkar, nere aitei ta kendu tzioten Adin ta mugara allegatzian tiroteo terriblia.

Zure aitek zaunduko zun, bai, gizon... bandido zar bat ola mozkor ta iltzen tzen bazuen ori... «venta ambulante» patentia iiltzen tzen mandoakin, fronteran barna Frantziko Urepeleko baserri oetan ta denetik ta Karabinero or baitzituen, kusten zuatenak bestenak salatu... ta arek ikusi mandoak Zilbetitik zamazkiten ta arek kusi ta nere anai bet ta aite ziren aldi artan Zilbetikoekin ta Zilbetikoak bertziak, ta an tiroteoa terriblia, ta mandoak kendu zizkioten ta gibeletik segitute, guk erraten dugu gibela, zuek errain duzie «atzetik».

Urepelen ta ere, beti gibela, Baztanen ere gieletik, ez gibeletik.

Eta, Valle de Arce, Artzibe erraten zenutene?

...bai, Artziber, Erroiber, guk ala erraten ginuen, ta Erroko ballea ta ala erraten da, Erroiber erraten ginun gure aitekin guk ikesi ginuen Erroiber, Erroibekoak Erroibartarrak, ta bada Eugiko ta Zilbetiko ertian lepoat, «Erroibeko lepoa», Zilbetti ya bestealdekoa baite, Erroibar, Erroibarko lepoa.

Pixket peligroso izeten tzen ori ere, karabineroendako, bide pollite, bide erre-xetan eotene tziren, *kapakin* ta... batzuten.

Bai hala zen, nik ikusi dut osabaren gurutzea kontrabandoan hil zutenarena.

«La carretera vieja» erraten zioten... gizajoa!, gazte gaztia! soldadotik torri berrie, sasoik obenian. Or bazen kuadrilleat arrun azkarra Mezkirizkoak ta biltzen tzien, orduan denbora artan bazen gazterie, Lanztik ere atratzen ziren amabost ogei bet gazte... ta orai Lanzen ezta etxeko lanetako ere jendeik aski.

Ameriketara goan tzien batzuk, bertze batzuk lanak arpatu zuzten, Lanzko bera, Karrikotxekoa etxelean gelditue da, beste bat Danonera eo eztakit nora goan tzen. Ori karabineroek eztait erituik eduki zute, biriketan bala sartuik, eman tzuten urgentzieta, ta eskapatu e... alto man ta tirokatu ta etxera joan erituik bala or zuela, gero urjentzieta bala atratzera, ya pulmonak entxarkatuek, odolez ta... Emilio nola apellidatzen da? Aristegi, oñez etxera, gabas gañera! erituik, Emilio gizajoa, ditu arrek orai irurogei ta lau urte, bost, lau, lau.

Ez duzue erraten irutanogei?

Irutanogei erraten dugu... bai, bai iruetan ogei te lau erraten dugu. Guk emendik baginuen relazionea emendik Orreagaraño, paketen istoria ortan, ta gero emendik bestaldetik Bartzan Lantz ta okeki denekin. Bakizu Kintoko fronteratik atratzen tzi-

ren emen in biar izeten ginuen lan pixket batzuk, bidia garbitu ta biar gintuen in... bidia garbitu bertziyoyekin, bertziyoyekin... emendik sartzeko.

Etxetan etzen... etxe aberatsetan bazen, zuen etxialdak azkarra izain zen, erri ontan berian etxe nagusietakoak etze iñor atratzeko, maixterretakoak eta ola, zuen etxetik atratzeko tziren ta Eugin ere etxe. etxaldatakoak etzen iñor atratzeko, dena maixter etxetakoak ta etxalde etxe ttiketaikoak edo.

Gure aitak ezkontza diru horrekin pagatu omen zuen.

In izein zuen... diru garbi etzen ikusten. Zu, Fernando ta kutxaraterotaik zen... bizi da Fernando?

bai, bai...

biño kuxeta zakarragokoak, beti andik kartzen zue.

Polikarpo eskian iiltzen tze ta arrek ekartzen tzitue. Karabinero zar oyek baki zu zer zuten denbora artan? zelosoak ere ziren. Gero... igual este me paga, pero este otro andará clandestino...

Eun kiloko txerri bet iltzen tzutzen kontrabando zelaik... gure aite zen emengo nausi eiten zuena. Karabineroak arrek manejatzen zituen denak, Kintokoak, Eugikoak... ta ure zen jefia... Karabineroak... erdi gosia izeten ziren... bai kuartela bazuzten, beño tristeak, bizitzeak tzikiek ta kondizioak eztakit.

Zure osaba il tzuena Zilbetitik joan zen ta Erron izein zen zure osaba il zuelaik. Kabo Zilbetin zen ta gero Kabo zen in tzuelaik zure... ta Zilbetin ongi portatu izein zen gurekin lanian ta formalia zen etzuen traizionik ta ein sekulen. Eztakit, eztait, eztakit karakterra eztait ze karrakterra zuen, bakizu, denbo artan. Gabas kusten gi-nen.

Anai apezari buruz, On Emilio Lintzoain

Berrogei... ola, ola, orain duela berrogei ta lau bortz urte Emilio Mezkiritzen zagon, eta...

Mezkiritzen herriko neska bat galdu zenean

Emilio Mezkiritzen zen denborian ori ttikia izein zen, neskoi ta gau bet pastu mentzun kanpoan. Astoatzuk kusi zula atzetik gibeletik ta falta, falta ta erri guzie bileka ta gaba kanpon pastu mentzuen. Izein zituen iru o lau urte ta orgatik erraten di-zut, nere anaya zen Mezkiritzen orain dela berrogei ta bo(r)st urte.

An bazeñ apez zar bat, ya gizone lerrine zen ta au igorri zuten arren Mezkiritz atenditzeko ta etzen ongi egon ure mentzen autoritarioa terriblia apez ure, arek manatu biar orrei, gure anayei, zerin biar tzuen?

Bentarran etxian eon tzen, ure eztakit nola zen zar ure beñonola zuen izena arrek... Manuel ala izain zen, gero andik berriz joan tzen Muzkiztik joan tzen

Mezkiritze ta gero Mezkiriztik berriz itzuli zen Mezkiritz ta Oskotz ta orai Orreagatik eramatene ditu orrek aste burutan joaten da meza erratera, itzultzen da igende atsaldian. Muskitz eta Oskotz ta Orrea(g)atik yoaten da.

Or konten zagon, ta an Artxibero dago, aitu zen lana iten Iruñen. Muskiztik joanez, aitu zien lana iten Iruñeko Obispadoan, deitu zioten zerbait lana iten, ta gero kusi zuten ortan gusto goorra baitu arrek, paper zarrek ta berritu, orduen Orreagara ta... ondarrian konglomeratu zuten.

Txerrikiaz, haragiaz

Txerririk baduzue?

Erosten ttugu, gaztian, gizentzeko, differentzie bada, tzingerra naturala iteko.

Ta zein ona den zerrikie... kolesterola denek badugu. Emen al den guzie iten dugu itxekoa, zerriek itxan gizentzen tugu, zerrikumian eosia ta gero neguko.

Txokorak ere etxian iltzen dugu, sartzen dugu ormategien ‘congelador’ eta bildosa batzuk, gazta ere bai ta ardi.

Onen aizpeki ez ote zun yan? ya Sanfermiten uzten dugu, San Fermin biño len-txago uzten dugu, urte guziko iten dugu gazta etxekoa.

Guk iltzen tugu ardi gizenak ere ta sartu ormategien, ta txokor on bat ere bai, ta yateko...

Guk kartzen dugu, ta gero seme batek iten du xeatu.

Ta badaki?

badaki bai, bi urtez egona da ori Frantzian ikestean, aragi ikestean.

Etxenike bezala, hori ere famatu egin da.

Gure semiak eztu olako negozioa patu, bai bai iten du pates ta istori ta saltzen tu inal guziek.

Oilaskoez, erbinudiez

... ta eztaiteke yan ere ollaskoa, dena beratza, beratza. Aragi au yaten duu ollaskoa baño, ollaskoa kartzen dugu bertze oyetaik, emen Billaban saltzen tu karnizero batek, Gastonek, beño eztu beti izeten, ‘de caserio’, beño prezio doblea, aise ta.

Ba, oiloak herrian egotea polita da.

Beño, emen ezta batere salbatzen ezta barnian ere, nik eztakit futotsak edo zer diren, patoak, olloak, denak, futotsa... «hurón» izan biar du. Nik erraten diot futotsa olako bitxo ttar batzuk ta usteut huronak diren erderaz. bai te sartzen dire barnian etxetan ollotegietan ta sartzen dire.

Eizeko txakurrik baduzue?

Txakur eizikoak. Batzuten baituzte, baña emen ezta salbatzen etxe batian ere. Len etzen izein bitxo oyetaik eztakit nola, len azeriek ematen zuzten beño oyetaik.

Joan den urtian bazituen batek patoak, ta patoak atratzeko kanpora ta bazuen etxetik zilo bat ine... patoa arraultzeten zagona, gau batez pato ta dena linpiaoa, ta gero in zion zepoa patu. Artia edo nola erraten duzue zuek? artia emen Frantziko al-dian ta erori zen oyetaik bat, futotxa...

Eiztarik eztute iltzen ? ori eztu inork iltzen ta ja...

Erbinudiak ere izeten dire, biño...

Ba orai ere ezta agradablia erbinudia kustea, erbinudiak... eoten dire pix-pas belozidade batian porkeri oyek.

Usetxiko, Mezkirizko eta Aurizberriko jendeaz

...oyek baziren aurride salsa, eztakit zenbat zien, Alizie ta anayak ta bazien, oyek ere iiltzen tzien kontrabandoan ta gureki pakete ta zaldietan toki denetan toki onian baitzeuden. Toki ona zen pasoa emendik baiginun toki oetatik, bi ballen erditik.

Guk beti zautu dugu, peregrinoak Zubritik, Orrea(g)tik Zubrin barna, te ori ez-takit batre nondik goaten diren... Larrasoñaen barna, Camino Santiagon, gero atera gabe eskuineko Eugikoen barna pasten dire naski.

Eztakit utzikouten diruik, beti ere bakarrak badaitze... Mezkiritzen kusiko duzie pasten... nondik pasten dire?

Saragueta ze familitakoa izain da, erri ontakoa izein zen... a Mezkiritzen erdie Saragueta da?

Biño uskera eztaki, eztu iten, orrek ta medikuek biek nai dute ikesi aitek eta ere eztakite batre, nondik ikesi biaute oyek?

Aitatxi izein zuten Mezkirizkoa Saragueta uskelduna, ure bai. Eztakit non bizitzent den ori, soltera da, badauzki urtiak berrogei urtetaik goitixko da, biño nik uste Zubrin dagon ori, Zubirin izein du etxia beti ere, biño ama Iruñen daukete ta ama oso gaisorik ta amai kasoitien.

Eguberriko suaz

Eta Eguberrieta paratzen zenari nola esaten zitzaison?

... su aundie ta bertzai su ttikie. Guk zonborra lodi, zakar oyei... eguberrieta paratzen zena.

Zuk etzinuen zautu ta nik ere ez. Emen sukile, ez ez ginun paratzen, gauetan uzten da sue itzeli gabe bajeak. Beño sukile patzen tzutela ni enaiz oroitzzen, emen

lenago kartzen tzuten eguarri bezperian edo idiekin errextan, ta gero erri guziko gizonak joaten tziren bana bana ori sukeldera ieten; arrek biar tzuen iraun erregiak artio, ori ala mentzen lenago.

Orai uzten baginue biztiko zen sukaldia ta guzti. Beño sukeldiak ziren, denbo oyetan erdien, ta zazi, alde batetik bertzeraño, ta errez bezala goain tziren bilduz.

Haurrak Inklusatik hartuta

Zenbat ume hartzen ziren Inklusatik, ezta ala?

Igual beren umiak mantenatzeko ez izaki ta Inklusatik beste bat artu. Zu, ez-paitakit nik... nik eztut sekula ikesi beño... etzioten Diputazionek azteko ez al tzioten dirua emain? bertzenaz, zetako artu biar tzituzten? Ezta kizu maten tzioten di-ruik? nik ere eztakit e!

(...)

ta bazuten, baute bat Inklusatik artue, azie, Martin. Terribleko langilia, maña denetako, gero ure ere gizajoa mutil te iili zen Urepelera ta goan zen mutil, emen Lizaso ta ibili ta Zilbetiko Iñautenian ta, goan tzen Urepela mutil ta Urepeldik, Urepel nexka batekin aixkidetu zen ein zun andregaya ta goan tzen Ameriketara.

Ameriketan ezta itzutzen ta Ameriketaik itzuli zen ta ezkondzu ziren, ori de baserri bet, urte oketan, gizon oi sartu oi ta yagoenik prosperatu duena Urepel guzien, biño denetako da e, argin, zurgintzen, denetan, in tu borda berriek... azienda, ta terrible... ta or azie gizajoa, a fuertia zen dudikebe. Lizason ongi mentzagon mutil, aitue zeon, Juan Pedro famili orrek azie zuten ta oyek erraten zuten, ardi bakar batzuk izeten zuten justifiketze. Guti, bertzenetaik ebatsiz ta yaten mentzuen ta, lo goatzeko arropik ta gabe, ardi larrukin ta olaxen loiten omen tzuten goatzian.

Ta olako yendek Inklusetik bertzeat karri miseria pastera, beño Inklusekoa atra da denak biño diferentzia terriblia, nombaitik bazuen raza ona. Zure aitak ezauntzen du ba ori Zilbetin gero Iñautenian mutil, te egon urtiat, pasatu, ta nik arrun lagune dut, ta nik beti erraten diot, Martin nola egon yitzen? ta ba, goizetan argitu gebe, Sorogaien biorrak bildu biar, arara argiko. Sorogaien biorrak zaldire bildu, ango buelta ta iten zuelaik oñez e Iñauten bordara torri, gosarie, prest, berandu xamar tortzen bazen ere gosarie, gosaldu te tira lanera!, gero bazkari manda, atsartio orrekin, ta lana, txokandria arrun latza, nausie, semeak eta Ameriketan zuzten... izugarri gogorra.

Beti ere, berak erraten du, ba guardiei bai, guardie, gosari ederra ta, guardak goatzen baitziren, ayei bai gosari ederrak gizajoa, Martin, ze yendia den!

Aitue zen Juan Pedrokin ere oyanian, Juan Pedro Errora ola allegatu zen oyanetan aitzen zen, ta oyanian aitue zen emen, Etxarron ere ta gero mutil Lizason ta ongi mentzegon, ta Iñauten bordara Zilbetire, Irureun pezta geyago urtian irabazte-

ko arara joan, urrikitu men tzekion, baña urtia in or Iñauten borda, ta andik Urepela joan, Urepelen etxi onian, oso onian.

Ta an mutil, ta andik Ameriketara goan tzen ta Ameriketaik itzuli, beño base-rrie doblatu ta redoblatu in bereartakoek, Urepelgoek eztute iñor prosperatu orrek pezela, garanoatek ere, ninguno, ezta batere.

Bakarrai erraten zaio ‘garanoa’.

Nola? al tzuten bezala lanera joan bear ta etxeko, oyen aman sortu etxian ere lau bazire, iru bazire iru neska ta mutiko bat, ta oañik bertzoat ekarri, bertzoat karri zuten, Martin nik erraten duten ori... Pedro biño poliki gaztiago da,

Nik uste dut zerbait meritu bazutela, o ematen zioten Inklusa diru irabazteko o zerbait... Nik eztut sekule ikesi. Bazutenek ere artzia...

oyek ere lau izeki, ta bertzeat ekarri te...

Informatzailea: Marcos Saragueta

MEZKIRITZ. 1994/08/24

Elkarritzketaztzailea: Orreaga Ibarra

Marcos Saragüeta era uno de los últimos hablantes del euskera de Mezkiritz. Marcos ha sido un artesano que ha vivido de la manufactura de cucharas de boj. Con este material, abundante en estos montes, fabricaba artesanalmente cucharas, tenedores, etc. En estas grabaciones aporta datos sobre el euskera y su uso con unos y otros, sobre un accidente ocurrido en una cantera, y otro cuando viajaba en moto. Asimismo, incluimos varias contestaciones a preguntas concretas.

Kuxetaren kontuak

Nora bidaltzen dituzu kuxetak?

Ebek. Santiagoren aidendeko, emen tzelaik, kuxetak banituen baina tenedoreik eznuen ta erran neko inen nuela egun zenbait.

Aide zenbaitena edo aixkide.

Ta eon nitze Beiren, Olondrizko, Leontzio Leuntze... arek erran zire eraman-ko zirela berak, ta areki joan nitze. Sanguesan eon nitze... eldu den iendant inen du ogei eun, ilabete ontako izan nintze amarrean edola... or nonbait, ta gero eon nitze omenájia amazazpian eon nitzen omenajen ta atsáldian artsian... bertze bortz edo sei... ilebete ontan.

Iadero baute artesanok... ta ni eon nitze iende batez lenbiziko iendant edo bigarrenian. Ordun baziak bai, lanian aitu bioron artio ta gero pues... etxera.

Zu zinen zarrena?

Zarrena... plaka eman baitzirete, pues artan paratzen du, ta nola kontserbatu tut irurogei ta amar urteotan nola kontserbatu.

Zenbat urte duzu?

Nik, lauogeita bortz apirilean beteik.

Zure anaiak ikasi zuen lan hau egiten?

Fernandok [anaiak] etzuen... bai ikesi zue biño ez... arekagoa xiletu ta legundi pixket, forma pixket eman. Bertzalde, nola ematen gindue ola akonpañatzeko

Oaiñik bi kadera apurtu ondoren ere, eskribitzen zire Balentziekoa, faborez ta faborez igortzeko, erran nio nola operatu nitze ta abria kendu nuela...

Zuk zer egiten zenuen?

Guk forma pixket eman ta an makinez pasten zute gero, gure aite zena ta abuelo zena ta...

Eta nora eramatzen zen Balentziara ta?

Ba seguro!

Ordun bazter guzietan yaten zen kuxeta aekin, ordun kuxetak ezpelezkoak... Emen nik zautu tut iruetanogei kuxetagile, amazazpi familie kuxetagileak ta iru baño gutiego etzen famili bakotxean, gu sei ginen.

Igorri Balentziera, guk ginuen konpromisua forma pixket man ta igorri... gero an makinez refinetzen zuten, ez orai bezala, orai igorri dut Balentziera Leridera ta Tarragonara...

Hau zer da?

Pikedera... au marraza.

Emen ziletzeko... iten dute kutxaronak eta ola, agoain ziletzeko bai, ta gero erramienta baut refinetzeko gero, agoa xiletu ta refinetu gero. Au txipua da, au bagua, neonek inek dire bi ebek.

Zer tresna geiago erabiltzen duzu?

Zerrak lenik, negurrien mozteko, gero aizkora bateki... pues, pixket desgastatu ta gero onekin forma man (marrazakin), aizkoráikin iten dut ola... forma pixket, ta gero onekin inen dut emen bezala, ta gero zerraikin inen dut emen bezala.

Baut aizkora, eldu den igendian artesania, balleko eguna Aezkoa, ala erran zireten, joan den urtian in zirete omenajia, lau omenaje, lemixkoa Renterien, joan den urteko Maiatzian, ta gero in zireten Abaurreabajan, Abaurreapean, ta gero in zireten bállian ta gero Sanguesan ere.

Amazazpi familietaik ere ni bakarrik gelditzen naiz.

Zenbat familie gelditzen ziren?

Birixikarren iru itxetan... Kandidónian, Prantxiko ta Moñánekoak, Lestankoan, ene abuelo zenaren anaye zen orgo nagusie, gero emen Franzisko beteki ezkonduik, ori zen Kandidon etxekoa. Emen bizitze zen zure etxea den orretan, ezkondu ze leenik Kondianeko bateki ta gero Larrasoñeko bateki, ure iltzen lenéngoa.

Francisco Errea da Bentakoен aitaxi?

Bai. Neri kuadratzen zaide oyánera joatea, len ere kuadratzen zitzaire oyanera joatea.

Euskararen inguruan: zenbat elkarrizketa eman dituen

Ba, bakarrak torri dire neri artzera, San Sebastiango bat Irungo bateki ezkondua, sei urtez egon da úrtioro iru edo lau aldiz. Bai, arek euskaraz galdin ta nik erdaraz kontestatu, arek erdaras galdin ta nik euskaras kontestatu.

Ta bein erran nion, bueno enuela nai yardukitzea dausere, baño nai nuela erran bear nekola... eusko alkartasuna etzela izango euskaras, uskaldunek elkarrekin, erran neko ...«los vascos en unión podíamos hacer mucho, pero si no, no... bueno, bueno»...

Bazuen kuaderno bat, ta egun ta eztakit zenbat oja... ta dénak miretu edo bei-retu zuen, zergatik neri artu dire oeaneko izenak, plantan izenak ta dena artu direte neri, ta zenbait errietako ere. Ta bueno, no nos vamos a meter en líos pero Eusko Alkartasuna no es ese nombre en vasco.

Pues arek patu zuen ogei pajine edo olako zerbait etzuen akabatzeko, arek patu zuelaik, torri ze ta agarratu zire ta abrazatu zire ta oi, oi! etzire aski iten al, baetz arra-zoi nuela, pues klaro!

Zergatik, Renteriera joaten nitzelaik... abitu nitzelaik, emendik ortan berian, ni uskeras abitu ta itz bat ere etzekiten Renterien, an egon naiz amar urtez, urte batez fallatu dut, amasei urtetaik, amabortz. Olako empeñue ta oaindik eztakiziela uskeraz? nik amar urteki ikesi nue uskeras ta erderas. Ta nola ikesi nun, ta aite zena ta abuelo zena beren ertian beti uskeraz.

Familiaren inguruan

Eta zure ama?

Ama ez, ene ama ze Antxuekoa, Lusarreko etxekoa.

Lusarretakoa?

Ez, Antxeokoa, arek ere uskeraz etzakien dausere, ta ene aite zena ta abuelo zena eneki, ttar ttarretik beti uskeraz ta aite ta abuelo beren ertean beti uskeras, ta aite neeki dena... ala da.

Ta gero bertze anayek ikesi zuten, Fernando ikasi zuen?

Aiek etxetik atra baitzire. Fernando?, beartu ze guarda sartziaikin, emen nerek-kin ta ola baña ola segitzeko ez...

Antoniak bazekien?

Ez, ez arrebak, ez Angelitak ta ez Doroteok ere.

Orduen zu bakarrik?

Bai, nik bakarrik.

Zu zinen zaharrena?

Ez bi arreba banituen lenengo. Ta geró Doroteo.

Doroteo non bizi zen?

Gerrá denboran iru aldiz eritu zioten ta gerrón doan, gero Esnotzen zegon neskato... eztakit... Esnótzen zituen áidiak ta familia bazen gizona Lusarretako itxetik.

Ene ama zena joan zen Esnotza, bai Martinluzen itxan. Ta gero, ezkondu zen Zubiriko neskato... ta arekin ezkondu zen, ta San Sebastianen bizi zen neskato bai-tzen bere lengusuendako ta ene lengusue. Banuen nik lengusue Renterian, enkargatu ze, arek ere ta gero arekin... aren neskatoaikin ezkondu zen ta gero neskato ta mutikoat zuten bakarrik ta gelditu zen erie pastu zen sei eo zazpi ilabete, geró medikuek kontsultatzeten zekola erran zeko bere andre zenai ta... «a resulta de la guerra tiene todo lo que tiene».

Renterien, trenetan kobradore eon zen.

Gerra kontuak

Gerran egon zinen?

Bai, ameka ilebete zeatik iru anae ginen zergatik bat libratzen al giñun, ta, pues libratu giñun Fernando zarrena bear tzelaik, ta zarrena ni eon nitzen emen Rekete.

Ta zer egiten zenuten emen?

Emen guardie Sorogañen, iru ilebeteko joaten gine ta ala...

Ameka ilebete pastu nitun, iru baiginen, ta ameka ilebete pastu bainitun. Bi al-diz autobusera igenik gerrara joateko utzitzten zireten, zergatik batzekiten baigine iru anaea, ta iru anaetaik bat libretzen ze frenten. Ta guk nai ginuen, gure Fernando zena in, libretu te.

Guardie... ta emen Gereñen etzelaik artxetan itxera tortzen gine.

Istripua arrobian lanean ari zenean

Noiz paratu zuten arrobia Mezkiritzan?

A, bai! Juanfermíneko edo Mañuelañeko alórrian, Enrike ze kontratista, andaluze... ez, gallego ta arendako sartu nitze ni. Bertzealde alkate nitze denbora aetan, ni ere sartu nitze aendako lanain denbora aetan, ta gero Korpus Kristi bezperan pas-

tu zitzeide neri. Ameka ilabete pastu nituen, amasei injerto paratuik, beso au puxkat aurrerago gelditu zire.

Almorzatu te paketia abitu nitze edekitzen, polbora, kargatzeko paketeatzuk emateko, asi nitze edekitzen ta garrétan... Ta kusi nuenian ya garra, bota nitze gibela ta bulkatu banitzen altzinera ezitzeide etorri, igual yo eman zire garra baña, gañera torri zitzeide polbora guzie bistan bistan.

Zergatik piztu zen sua?

Forma txarra erran ziren norbait, enkargatuek erran ziren..., Kolixenekoak ta ...iruek ginen. Juanek noixen beinka baña zer! ta garretan. Iruñeko klinikan, Arrondon.

Min aundie?

Ez min aunditz ez.

Ene abuela zena zuen etxekoa zen.

Galde-erantzunak

Nola erraten duzu hermano? anaea, batendako anaea.

vacas: beak

quiero comer más: naut yan yago

jamón: magara.

Dios: Yínkua, eta gero Xaingóikoa igual da gure Yinkua nola Jangoikoa.

noche, medianoché: gaba, gaberdí

cuaretan: lauogeí, lautanogeí

encender: argie bixtu

pecado: bekatue

paz: bákitia

contento: ni konten nago

cuerpo: gorputze gaixtoa

pastor: artzaea

Bakarrak eon gine, euskaraz ta erdaraz... atra direten denetan kobrautu bear nun zerbait, baña ezpaitut kobrautu deusere.

Viernes: ortzileria

Domingo: igéndia

Sábado: larunbéta

Intestinos: értziak

Dos: bide

Yo lo haré: nik inen dut au, ineut

Yo diré la verdad: errain dut egie, gezurre

Chico: mutikoa

Sucio: zikine

Alubia: alubie
Barro: loya
Prima: prime, langile anitz
Este mes: ilebete ontan
Mil pesetas: mile pezta
Sorgine bai, da saltaríne
Saltamontes: oyansaltak
Pelo: biloa
Lana: ella
Luna: ilergie
Sol: igúzkie
Primo: lengusue

* * *

El hombre ha hecho: gizonak in du au.

Los hombres han hecho: gizonek in dute.

El cura ha dado la misa: apezak eman du meza.

Los curas han dado misa: apezek eman dute meza.

El hijo: sémiak (sg)// *Los hijos*: semek in dute lana (pl).

He venido con el hijo: torri naiz semiaikin (sg).

He venido con los hijos: torri naiz semékin (pl).

¿A dónde vas?: noa goaye iketan, ta noa zazi?

Voy allá: banaye arata.

Le he dado una manzana al hijo: seméi eman dakot sagar bat.

Les he dado una manzana a los hijos: man dakotet seméi sagar bat.

Les he dicho a las chicas: erran dakot neskéi// Erran dakotet neskakoei.

Este tazón es pequeño: katilu au da ttarra.

Ese hombre es mayor: gizon goi da aundie.

Esa chica es maja: neska oi da xarmanta edo pollite, xarmanta es ‘majo’.

Éste ha dicho la verdad: onek erran du egie.

Este perro es más grande que el otro: txakur au da bertzia baño aundiago.

Ésos han venido por allí: oek etorri dire ortik.

Ése es de ahí: ori de orgoa.

Euskaraz norekin aritzen zen

Bakarrak torri zaizkide neri, Oi, Oi!

Norekin mintzatzen zinen hiketan?

Len, Martin Bentarrañekoa... Arsenio...

Eta hiketan norekin?

Pues ene adinekotaik, ta zuketan zarrei, maztekie... ni baño zarragokotan zuketan. Gu baño gazteagok.

Nor zen emengo zure adinekoia?

Emen nior, ene adinekotaik Antonio Migelitonia, gu ballean ogei ta amazazpi kinto ta orai ez gara bide baizik, ta emen Mezkitzten ni bakarra naiz, Auzperrin ogei te amazazpi kinto bai.

Osasunari buruz

Osasun ona izan duzu?

Ba, tokatu zaide neri anitz e! Nik kliniken pastu ditut bide, iru, lau bortz, sei, zazpi, zortzi, ospitelian bi aldiz, operatuik ere nago bi edo iru aldiz ez

